


martín de ugalde



**EUSKAL  
KONDAIRAREN  
SINTESIA**

**SINTESIS  
DE LA HISTORIA  
DEL PAIS VASCO**

ediciones vascas



argitaletxea

**EUSKAL KONDAIRAREN SINTEsia**  
**SINTEsis DE LA HISTORIA DEL PAIS VASCO**

*Martín de Ugalde*

Edición patrocinada por la  
Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa

**ediciones vascas *ev* argitaletxea**

Primera edición: mayo 1974  
Segunda edición: septiembre 1974  
Tercera edición: noviembre 1974  
Cuarta edición: junio 1977

© by Martín de Ugalde  
© de la presente edición by EDICIONES VASCAS  
ISBN: 84-85288-02-5  
Depósito Legal: B. 23557 - 1977  
I. G. Seix y Barral Hnos., S. A.  
Provenza, 219 - Barcelona  
Traductor: José Antonio Aguirre  
Realización Indices: Carmen López Velasco  
Printed in Spain

## **Aurkibidea**

Sarrera

Lurra eta hibaiak

Gizona kondairan sartu aurretik

- Behe paleolitos
- Tarteko paleolitos
- Goi paleolitos
- Mesolitos haroa
- Neolitos haroa
- Brontze haroa
- Burdin haroa

Euskaldunak kondairan sartzen

Kristau haroa baino lehen

Gure haroko lehen mila urteak

- Anitztasuna batasunean
- Kristautasunaren etorrera
- Baskoniako dukerria
- 1000. urtetik 1515ra
- Nafarroako monarkia
- Textu-inguru historikoa. Foruen egoera
- Gaztelarekiko atxikipenak
- Pirineoz bestaldera
- Euskaldunen arteko alderdikeriak
- Kultur arazoa
- Erljio Arazoa
- Foruak zer nahi du esan
- Aldi hartako euskal ekonomia
- Euskaldunen itsaso arazoetarako gaitasuna eta beraien untziteriaren indarra
- Merkatalgoa
- Euskaldunen harremanak arrotz herriekin

1515tik 1841era

- 1.º Gaztelaren inguru
- 2.º Politika berjabe baten gora beherak
- Euskal Herriko Biztanletza

Egoera sozioekonomiko eta kulturala  
Euskaldunen handikitasun delakoa  
Baserria  
Meagintza  
Erregebideak  
Hiri handien eza  
Euskal untziteria  
Metalurgia eta harmagintza  
Beste langintzak  
Euskal eskualdeen eboluzio politikoa  
Matxinadak eta harma erasoak

1841tik 1936ra arte

Foruak  
Ekonomia  
Heziketa  
Politika eta aministratze arazoak

## Sarrera

Euskaldunok, oroitzapen oroz haindi galtzen diren denboretatik mendebaldeko Pirineo mendian alde bietara zankala-traba bizi den giza multzoa osatzen dugu, Bizkaia-ko golko barrenean, aspaldi batean euskal lurraldearen luze zabal guztia hartzen zuenaren izena, Atlantiko itsasoari begira menderen mende.

Egun, Euskal Herria bi zati eginik dago Espainia-ren eta Frantzia-ren mende. Espainiako zatiak Araba, Nafarroa, eta Bizkaia hartzen ditu; eta Frantzia-koak hiru eskualdeok: Benabarre, Lapurdi, eta Zuberoa (frantsesen mende orain, inglesen mende gero, alternatiba anitz eta bereziekin). Azkenengo hiru eskualdeek burubide autonomoak ezagutu zituzten harik eta 1789an Frantzia-ri lotuak eta hurrengo urtean sortu berria zen Behe Pirineo, gaurregun Pirineo Atlantiko-etako Departamenduan integratuak izan ziren arte. Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia-ri gagozkielarik, mendeetan zehar berjabe bizi izan ziren, ardura bizienaz berritzen zituzten pertsona arteko bateraketa bidez Castilla-ko eta geroan Espainia-ko erregeei eratzikiak, karlistek beren lehen gudua 1839an galdu zutelarik Monarkiaren batasun konstituzionala ezarri zitzaizen arte.

## Lurra eta hibaiak

Alderantzitara legokeen triangulu baten irudia eskaintzen digu Euskal Herriaren mapak, basamendua Ekialdetik Mendebalderuntz doan itsasbazter malkartsu eta zakarra, 160 kilometro luze delarik eta trianguluaren erpiña Nafarroa-ko Tutera (Cortes) baino beherago irixten dena.

20.439 kilometro karratu ditu luze zabalean: Araba-k 3.047, Benabarra-k: 1.263, Gipuzkoa-k: 1.997, Lapurdi-k: 741, Nafarroa-k: 10.421, Bizkaia-k: 2.217, eta Zuberoa-k: 753 kilometro karratu eta, 2.500.000 bizi lagun, gutti gora behera.

Ifarraldetik Kantauri itsasoak mugatzen du, Mendebaldetik Santander eta Burgos-ek, Hegoaldetik Ebro hibaiak, eta Burgos, Logroño eta Zaragoza probintziek, Hegoekialdetik, Zaragozak eta Hueska-k; Ifarrekialdetik Adur hibaiak, Frantzian. Menditsu da gehienbat; lautadarik zabalenaren bihotz-bihotzean Gazteiz dago; arabar Errioxak eta Nafarroa-ko erribeherak osatzen dute Mediterraneora isurtzera doan Ebro hibai arteko lur zabal eta emankorraren zati bat; aitziti, Kantauri itsasoan isurtzen diren hibaiek zeharkatzen dituzten hibarrek ez dute toki aski uholdeak hartzeko eta horregatik, ez da aurkitzen baratza zabal inportanterik.

Goidura nabariena Nafarroa-ko ekialde muturrean aurkitzen dira, Frantziarekin dituen mugetan, hain xuxen: Anie edo Ahuñamendi 2.504 metro goi da, eta nahiz eta gailurra metro batzu Frantzian sarturik egon, Lescuny-ko mendi lerroaren gainetik dago; Iruerregen mahaia (2.434 m.) Euskal Herri barruan kokaturik dauden artean garaiena), eta Arlas (2.043 m.) eta Orhy (2.018 m.). Ondoren, goidura kontuan dugularik, hauk dituzu mendirik garaienak hurrenez-hurren: Ezkaerri (2.055 m.), Aitzgorri (1.531 m.) eta Gorbea (1.475 m.), Kantauri aldeko barrutian gailurrik altuenak; Andia, (1.493 m.) Iruñetik Mendebalderuntz, Irumugarrieta (1.427 m.), Codes (1.414 m.) Santa Cruz de Campezo, Arzamendi (1.383 m.), Amboto (1.296 m.), Orba (1.325 m.) Nafarroa-ko Hegoaldean, Toloño (1.268 m.) la Bastida barrutian, Capilduy (1.175 m.) eta Urbasa (1.015 m.).

Isuraldeen linea aldebanatzailea (Kantaurira doana bat eta bestea Mediterraneora) zehar-meharka doa, honeiatu guti gora behera, Ekialdetik Mendebalderuntz, aitatu dugun Arlas mendi gainetik, Frantzia eta Nafarroa arteko mugatik hasi eta Peña de Haro-ra doana (1.187 m.), Araba eta Burgos Probintzia arteko mugaraino, hain zuzen. Kantauri itsasaldera doan isurian Frantzia-aldeko euskal eskualdeak, Gipuzkoa osoa, Bizkaiko zatirik handiena eta Nafarroa eta Arabako zati tiki batzu sartzen dira; Mediterraneo aldera doan isurian Araba eta Nafarroako zatirik handiena sartzen da, hala nola Bizkaiko beste zatia.

Hibairik nagusienak bi taldetan sailka litezke: Kantauri-ra doazenak, Adur, Nive, Bidasoa, Urumea, Oria, Urola, Deva, Artibay, Lea, Mundaka, Butron, Nervion eta Somorrostro; Mediterraneo aldera doazenen artean Ebro-n, galtzen direnak, hauk dira: Irati eta Arga, Aragon hibaitik zehar joan ohi direnak; eta Ega, Zadorra eta Bayas hibaiak, zuzenki Ebro hibaian caltzen direnak.

Alde batetik ozeano haizeen eraginak, eta bestetik mediterraneo eta kontinentekoenak giroa eramankorra bihurtzen dute; denetan bustiena Laburdi, Gipuzkoa eta Bizkai-ko itsas bazterretakoa dugu.

Azkenerako utzi dugu (nabarmendu nahi dugulako) Bizkai-ko Golko-ko urak, hots, Kantauri Itsaso edo Atlantiko Ozeanoa. Izen berezi hauk hartu bait dituzte mugarik eta izenik ez dituzten ur hauek, eta haietatik zehar jo dute Euskaldunek beren kondairako aldirik urrutienetarik mentura bila, arrantzora zela, lurralde berriak aurkitzera zela eta munduari itzul inguru ematera.



## Gizona kondairan sartu aurretik

Begien aurrera ekarri dugun lurralde hori dute gaurko euskaldunek bizitoki. Zirkunferentzia oso bat bezala ulertua izatea lortzeko, abiapuntu bat aukeratzea beharrezko izan da.

Gauza orotan hasiera bat eta amaiera bat izatea nahi luke batek. Horrela gerta ohi da Genesi-n, Moises-en Pentateuko-ko lehen liburuan. Horrelako zerbait da ere bizitza fisikoaren zirkulua; horixe bera dela ere uste dut neurekiko, gizonaren lehen sorburuari eta azken helburuari buruz; eta orain, horren ondorio bezala, eta nahi baduzue harako haizekeri batengatik neure aldetik, galdakizun (signo) horixe nabari dut neure herriaren kondairaren sintesi labur honen aurrean nagolarik. Azkenekotik hasten banaiz ere, kasu hontan bezala, ez du horrek amaiera esan nahi, gero, zeren gure herri zahar honen kondaira (itxaron dezagun erne) ez da gure egunetaraino iritxi, hemen bertan, etorkizunaren ateetan, hilik geratzekotan.

Lur hontako gizona, ez estaturik, ez mugarik, ez eta gaurko zuhaitz eta animalia motarik ere, ez hizkuntzarik kasik ere (hizkuntza primarioa, doi-doi) ez zen lur hontako gizakia zutirik ibili izan den bide beretik menturatzeko Jose Migel Barandiaran-en esku bigun eta segurutik ibiliko gara, geure herriko kondaira aurreko euskaldunei buruz dakigun guztia kasik berari zor bait diogu.<sup>1</sup>

Kondaira aurreko euskal gizakiaren existentziaz, bizikeraz eta erlijioari buruz zituen sineskisunen berri Egilaz-en, Araban, *Aizkomendi* izeneko jentilarria aurkitua izan zenez geroztik egin diren ikerkuntza arkeologiko eta etnografikoen bitartez (1831),<sup>2</sup> eta Pedro Andres Zabala-k, Salbatierra-ko alkateak, 1833.eko urtarrilaren 30ean zabaldu zuen albistearen bitartez etorri zaigu; baina, batez ere, 1916az geroztik, Aranzadi, Barandiaran, eta Eguren-ek zientzia lanetarako talde bat osatu zutenean. Eta ondoren, 1921ean, aitzindari hauen inguru kondaira aurreko aurkipen sailerako muintegi bat eratu zen *Ikuska* izenez ezagutu, 1924ean Euskal Ikasgoen Elkarteari atxiki, eta 1936a arte etenik gabe lanean ihardun zuena.

Ezagupen guzti horik bildu zituen Jose Migel Barandiaran-ek bere liburutan Euskal-Herriko lehen gizonari buruz. Ondorenean ikerkuntza lan guztiak apaiz eta zientzia gizon honen inguruan antolatu ziren berriro. Eta jadanik buru belarri eskaini izan zaio, kondaira aurreko iragan aldi itzaltsuetara murgildurik, gure aintzinako arbaso haien aztarnak, nabari-nabariak batzutan, ozta-ozta susmagarriak bestetan, arakatze lan miresgarriari.

Neure sintesi hau egiteko Jose Migel-en idaz lanak eta berarekin izandako elkarriketa osagarri batzu hartu ditut oinarritzat; hartara, laburpen hau biziago eta argiago bihur dakioke hiztegi teknikoaren erabiltzen ohitua ez den edonori.

---

<sup>1</sup> *El hombre prehistórico en el País Vasco*, Ekin Argitaletxea, Buenos Aires, 1953, eta *Los hombres prehistóricos en Vizcaya*, Bilbao, 1962, bere lan garrantzizkoenen artean.

<sup>2</sup> *Exploración en Aizkomendi*, Araba-ko Diputazio Forala, Araba-ko Arkeologi Ikaskuntza, I Liburua, 1966.

Hasteko eta ondorenean datorren guztia ulertzeko esan dezagun Pirineo-tako aurkipean arkeologikoek inguruetakoa area handietan aurkitu izan direnekin kidetasunik badutela eta euskal gizona ez zela inoiz ere Europa hegoaldeko prehistoriaren korrante eta prozesotik bakandurik egon.

Hastapen honek markatuko du, ekialdeko Pirineotan Kataluniarrekin gertatu zen bezalaxe, gure herriak kondaira guztian zehar izan duen europear joera.

Ezaguna zaigunez, kondaira aurea hiru etapa handi hauetan banaturik dago nagusiki: *Paleolitikoa* edo har landuaren aldia, *Neolitos* edo har labainduarena, eta *Metalkiena* (brontze, burdin). Paleolitikoan, aldiz, hiru zati hauk bereiz ditzakegu: *lehena* edo aldirik aintzinakoena, *tartekoa* eta *garaia* edo beranduena. Hori kontuan dugularik, Euskal herriko Paleolitikoa aintzinako eboluzio kulturalaren barruan sarturik dago, haren parte delarik, eta Paleolitos garaiak ekialdeko eskualdeetan izan zituen hastapenak, euskal aurkipean batzuk egungo Sobietar Batasun hegoaldeko zenbait eskualdetatik doi-doi iritxi zitzaigun gizonak utziriko aztarnekin zeikusirik izan lezakete. Gerora, Europa zentroaldetik solutrense erako forma kulturalak iritxi ziren,<sup>3</sup> eta itxura denez, bertakoen butsua duten teknika eta arte mota batzu agertzen dira Dordoñatik eta Arege-tik Asturiaseraino, adar batzu, beranduago, Penintsulako hego eta zentroruntz hedatzen direlarik. Aldi berean afrikar teknikaren eragina, kapsiense deritzanarena irixten da hegoaldeko Europa-ko kultura nabarmentzenagotzen duelarik, mesolitikoa eta preneolitiko garaiko euskal industrian batez ere, eragiten dutelarik. Neolitikoan eta ondoren etorri ziren aldietan Penintsulatik ifarrera diren eskualdeetatik, mediterranean zonatik, eta Asia aldetik ere, uste da, etorritako estiloak barreiatzen dira pirineotar bailaretan. Elkarreagin hori lan teknikak eta bizi moldeen desarrolloaren alde bereziak gero eta zehatzago egiten dituan zolu eta klima jakin batean ematen da. Euskal lurra, mendigainetakoa, belarjaleentzat aukerako toki da, eta egoera honek erabakitzen du, bertako jendeak ehizea izan dezan bere bizibide. Ehizea, ura eta egurra arras ugari izateak, giza bizitzarako horren beharrezko, gizonak eskualde hontara erakarri ohi zituen.

Aldirik aspaldienekoetatik gure egunetaraino, gaur eza gutzen dugun bizi leku hontan hurrenez hurren kokatuz joan diren lur estalkien araketa oinarri duten ikerkuntza lan neketsuek agerian utzi dizkigute gure aintzinako arbasoen aztarna hauk.

Iragan denboretara egin ohi den bidai hauetarako, *estratigrafia* izenez ezagutzen den eritzipide bat erabili ohi da: gizona planeta hontan bizi denez geroz, bere gorputz aztarnak, erabiltzen zituen gauzak, industrigintza, asmatuiko arteak utziz joan da –utzi behar hori ezin besteko zitzaion– eta halaxe geratu ziren aterpe zitzaizkion haitzuloetan elkargainka, adinen arabera, hondakin horik, lurrarekin nahasturik. Era horretara mintzo zaizkigu Isturitz, Olha, Urriaga, Axlor, Lezetxiki, Aizpitarte, Ermitia, Lumentxa, Santimamiñe, Bolinkoba-ko aztarnategiak eta aipatuko diren beste asko.

Haro prehistoriko bakoitzean egonaldi bat egitera goaz orain.

---

<sup>3</sup> Laugarren Haro-ko estratigrafia maila –sedimentari aldi honetan agertzen dira gizonaren lehen aztarnak–; Harri Haro zaharreko aztarna nagusiak aurkitu zireneko Frantzia-ko eskualdearen izenetik datorkio deitura.

### Lehen paleolitos haroa

Gizona lehen paleolitiko aldiez geroz gure lur hontan bizi zen seguruenik eta orduko lurraldeak egungoaren ezaugarri geografiko antzekoak zituen. Ez zen, noski, egun bezain bat berdetasunik. Behe paleolitikoari buruz ezer guti badakigu, gure zolu gainaren berdea sortu duen hezetasunagatik da. Izan ere, garai hartako eguraldia epela zen eta gizonak haitzuloetara sartu beharrik ez zuen hotzatik babesteko, aitziti hibai ertzetan bizi zen, eta horra, gure klimaren hezetasuna eta epela dela, hibaiek garraiatzen zuten lurren sedimentaketa etengabea dela, eta elkarrengainka etzan diren landaretza kapak direla, haitzurketa bidez aztarnategiak aurkitzea gauza zaila bihurtu da.

Aurkipenak egin diren puntuak Euskalerriko lur lehorretan daude kokaturik; errez da ohartzen hori: garai hartako haizkorak aurkitu izan dira Tuteran, eta bat Erriberan. Barandiaran-i jarraikirik esan dezakegu lehen Paleolitos-ko azken aldietan, bazela hemen harrizko lanabesak taiutzen ikasia zuen gizon mota bat. Bildu dira zenbait pieza han hemenka, diogunaren lekuko; halaz ere, estratigrafiarik ezean ezin segurtasunik eman haren noizkotasunaz. Haro hontako lehen aldietako europear populazioan giza mota bat baino gehiago bazen; euskal gizonari hurbilena Maueranthropus, Heilderbergtik hurbil, Alemanian, aurkitua. Geroago, Lehen Paleolitikoan oraindik, Fontechevadeko aurkikuntzetatik atera daitekeenez, beste giza mota bat bizi zen: *Homo pre-Sapiens*, beste giza motak ez bezala iraun zuena. Ehizetik bizi zen ugaztun handiak ehizatuz –errinozerontea, Biarritz-tik hurbil aurkitu izan dena, lekuko; Arruntz-ko elefantea–; lehia handiena jartzen zuen hartan, eta bil zitzakeen landare eta madari guztietatik. Halaz guztiz, bazen garai hartan lurralde hontan lehoi, hiena, lintze, eta otsorik. Egia, ondoren guzti hauk ate ratzeko, eta oraindik orain esan dugun bezalaxe, ez da oraindik dato gehiegirik gure herrialdean. Arruntz eta Biarritz-en egindako aurkipena ezer guti da benetan. Halaz guztiz, garai hartan lehoi, hiena, lintze, otso eta beste haragijale gehiago ere bazela gure lurralde hontan esan genezake, hala nola ere, pizti beldurgarri hauetatik babesteko suz, egurraz eta harriz moldaturiko harmaz baliatzen zela. Animalia handiak zuloetara eramanez ehizatzen zituen; animalia txikiak harrapatzeko, aldiz, egurrezko lantza gisa bat zuen, urrunetik iaurtikitzen zuena, edota porra iaurtikiaz baliatzen zen. Beraz, aspaldi haietako gizonaren teknika eta kultur maila egungo herri primitibu batzutan aurki genezakeenaren aldean askoz goragokoa dugu.

Argitasun hori garrantzizkoa da, zeren kondaira aurreko gizonaren kulturak, erlijioa eta portaerak eta adimenaren eragile guztiek ehize zibilizazio hori izan bait dute espresio bide.

### Tarteko paleolitos haroa

Neandertal gizona bizi zen garaikoa dugu, duela 50.000 urtekoa Isturitz-en aurkituriko matrail hezur bat; aurreko alditik zetorren *Homo pre-Sapiens-ekin* batera arraza honek bizirik iraun ahal izan zuen. Aldi hartako suharrizko lanabes taiutuen aztarna ugari ba dugu: haizkora, alde batetik ba karrik labaindutako geziak, arraskailu eta xixelak (Olha) eta ofitaz, suharrizko eta arbelezko pieza handiak: Isturitz, Lezetxiki, eta Axlor (Dima).

Garai hartako gizonak, biziko bazen, ehizatu behar zuen –elefante, errinozeronte, zezen, mamut, etab.– aurreko aldian bezalaxe. Ehizetik bizi behar honek joan etorrietara bultzatzen zuen, baina aldiaren azken aldera haitzuloak erabiltzen ditu taldetan babestoki, eta dagoeneko familiaz-gaindiko taldeak eratzen dira, ehizea ekipoen praktikatzeko. Ez dakigu zein giza mota zen garai hontakoa, nahiz eta *Homo primigenius* (Neandertal) zela uste izan, huraxe bera bait zegoen zabaldua munduko eskualde askotan. Ze jazkera erabiltzen zuenik ere ez jakin. "Famili arteko maitasuna ezaguna zen, haurren eta helduen ehorzketa arretatsuek adierazten diguten bezala" dio Barandiaranek; haien ondoan lanabesak eta kutunak uzten zituzten gainera. Giza talde honetan doi-doi iritxi ohi zen inor berrogeita hamar urtetik gora.

– *Izendaketa hau alde batera utzirik, prozesu hori ulertzeko traba izango bait zaigu –galdagiten diot Jose Migel Baraniaran-i Sara etxean, Ataun-en, duela 83 urte jaiotzen ikusi zuen herrian–, zer dakigu gaurko euskaldunen arba soei buruz, noiz eta nolatan agertu ziren lur hontan?*<sup>4</sup>

– *Galdera hori bera sarritan egin didate. Begira, egia esan, ez dakigu zihurtasun osoz noiztik dagoen lur hontan gaurko euskalduna, ezin zehaztasunez esan noiztik bizi den lurralde hontan gaurko euskalduna. Euskal kultura gaurkoxea dugu, baina lehendik dator, fase bereziak izan dituan prozesu bat da; prozesuak horixe esan nahi du, aldakuntza, eboluzioa (bilakaera). Beraz, gure galdera hau izango da: nondik sortu da kultura hori? Faserik fase iritxi zaigula badakigu: kate batetako mailaketa bezala. Kate horrek, beraz, non du hasiera? Hori litzateke, nere ustez, egin didazun galdera egiteko era propioagoa.*

– *Halaxe da.*

– *Ongi; noiztik datorren? Hauxe dakigu: duela 50.000 mila urte, guti gora behera, hasi zela. Guk ezagutzen dugun katea duzu hori. Alabaina, gizon haik gaurkoak bezalakoak al ziren? Ez, inolaz ere; bere itxurari gagozkiolarik ez ziren gaurko euskalduna bezalako. Beste arraza bat zen. Euskal arraza edo euskal gizaki mota oraintxekoa dugu; 7.000 urte izango dituela, gehienik ere, uste dugu; hortxe nonbait. Baina bilakaera edo eboluzio baten indarrez iritxi da hortara, eta aurrez eman diren eboluzio faseak hemen burutu dira; beraz, Cro-Magnon-go gizona, milaka urtez hemen bizi izan zena, itzalduz joan zen bertako eboluzioaren mende eta gaurko euskal gizakiari toki eman zion. Hartara, eskuetan dugun arazoa urruneratzen zaigu, eta galdera hau egin behar genuke: baldin eta euskaldunak Cro-Magnon-gizakian badu bere jatorria, nondik zetorren hura? Eta erantzuna hauxe genuke, alegia Cro-Magnon-eko gizakia hementxe kokaturik dagoela duela 40.000 urtez geroztik, seguruenik.*

– *Baina, horra, Cro-Magnon-eko gizona garai batetan Europa guztian zabaldurik zegoen.*

– *Europako hegoekialdean behinik behin; eta ez dakigu nondik datorren; aurreko gizaki motatik eboluzio bidez ote, Neanderthal gizakitik, alegia? Horrela balitz, ordea, Neanderthal eta Cro-Magnon artean tarteko gizaki motarik aurkiko ahal genezakeen, eta dakigunez ez da aurkitu gaurdainokoan. Cro-Magnon izatera eraman zuen eboluzio hori munduko beste eskualderen batetan eman bide zen, eta ondoren honuntzaino hedatu.*

<sup>4</sup> *Hablando con los vascos*, Ariel, Barcelona, 1974.

*Dena den, gure arbasoak duela 40.000 urtez eskualde hontan bizi izateak, biziki zaharra den aintzinatasuna adierazten du.*

*- Ba al dakigu xehetasunez gaurko euskaldunaren arbaso hori duela 40.000 urte lur hontan bizi zenik?*

*- Bizi, Europako hegoekialdean eta gure eskualde hontan ere bizi zen gizon hori; badakigu, zeren Euskalerrian utzi zituen aztarnak kontinenteko hegoekialdeko beste tokietan utzi zituen bederak bait dira. Ez dugu arrazoirik beste bat zenik esateko. Gertatu dena zera da, ez dugula aurkitu hemen garai hartako gizaki aztarnarik; hori bilatzen saiatu behar da, hori da oraindik aurkitu beharreko gauza.*

*- Noizkoak ditugu Euskalerrian aurkitu diran giza aztarnik zaharrenak?*

*- Are lehenagoko giza aztarnik ere aurkitu dugu hemen, Neanderthal gizonarenak, alegia. Tarteko-paleolitiko garaiko gizon baten besahezurra aurkitu dugu, duela 50.000 urtekoa da guti gora behera; garai hartako agin batzu ere aurkitu ditugu Arrasaten (Gipuzkoa) eta orain lanean ari naizen tokian ere, Diman (Bizkaian), Alabaina, ez dugu ondorengo gizonaren hondakinik aurkitu, Cro-Magnon-enik, (aldiz, bere langintzako tresneri hondakin ugari, bai), Goi-Paleolitos garaiko azkenera arte; orduan hasten bait dira agertzen berriro hondakin hauk; beranduagoko giza hondakin batzu ere, tarteko gizakiren batenak, Cro-Magnon izatean utzi duenaren batenak; baina ez da oraino euskaldun; transizioko gizakiren bat izan behar du. Hori dela eta badugu eritzpide aski zihurrik Cro-Magnon-eko gizonatik gaurko euskal gizakiraino eman den eboluzioa hemen bertan burutu dela esan ahal izateko; Itziar-en (Gipuzkoa), hain xuxen ere, aurkitu genuen kate maila hori zenbait kaskezurren antzean. 1936.go gerla hasi zenean, hantxe ari ginen lanean; hondakinetan baliogarriena Arantzadi-k eta nik aurkitu genuen gerla bete betean ari zelarik, eta ezin ekarri izan genuen Donostiara, zegokion bezala; tren eta autobus zerbitzua geraturik bait zegoen; Bilbora eraman genuen, beraz, eta hango Museoan ipini.*

*- On Jose Migel, Euskalerriko lehen gizon hauek, madari biltzaileak al genituen?*

*- Hori erakusten digute egindako arakatze lanek. Lurralde hontan ezagutzen ditugun gizakirik aintzinakoek madaririk jan ohi zuten, noski; garai hartan, duela 50.000 edo 60.000 urte -eta Bidasoaz haindiko Euskal lurraldean aurkitu izan dugunaren arabera, Isturitz-en eta Kanbo-n-, tundra gisako lurraldea zen, madari arbol urri zuen; han eta hemen barreiatu aurkitzen diren giza aztarnetatik ateratzen dugu hori, ez arbolen hondakinetatik, baizik, lorazietatik eta ezporetatik; arbola ugariagoa izan zen tokietan 100ko 6tik goragokorik ez dugu aurkitu ahal izan; gainerontzeko aztarnak beste landareenak dira.*

*- Nolaz heldu liteke horren ondoren zehatz batetara?*

*- Aurkitzen dugun material edo gaiaren azterketari esker; aztarnategi bakoitzean landare haziak aurkitze dira, haizeak baztar guztietara barreiatuak, eta aztarna hauei esker ezagutzen dugu toki horretan aldi jakin batetan ugarien zen landare mota. Ikerketa interesgarri hau Isturitzen eman zen; ez dugu horrelako ikerkuntzarik eman ahal izan orain dik Pirineoz honuntzako euskal lurraldean, ez bait dugu espezialistarik arlo horretan lan egingo lukeenik, Pirineo Atlantiko direlako Departamentuan, Frantzian, duten ez bezala. Premiazkoa zaigu, baina ez dugu.*

*- Zertatik bizi zen garai hartako gizona Euskalerrian?*

– *Ehizatik noski; aitatzen zenuen madariari buruz, bazen hemen Musteriense aldian eta Goi-paleolitiko aldirik gehiengan urritza eta zenbait alditan aritza ere bai, ezkurra ere bai, beraz, eta geroago pinurik ere bazen, alisorik, ere bai, hezoaldian batez ere, iratza (garoa) ere oso zabaldurik zen garaian, hain xuxen; aldi guztiak, ez dira, halaz ere, bustiak izan; aitziti, tundra giroa eta estepa giroa, biak eman bait dira aldizka.*

## Goi paleolitos

Aldi hau, duela 30.000 urte hasi bide zen eta 20.000 urte, guti gora behera, iraun. Garai hartako klimak aldaketa prozesu bat hasi zuen, bi aldi nabari direlarik: larrezabal edo tundra giroko hotzali beltza, eta beste aldi bat, hotza hau ere, baina estepa girokoa eta lehorra; elur iraunkorrek 1.100 metrotaraino jaitsi ziren –gaurregun 3.000 metro dute muga itsas mailatik gora– eta seguru aski, garai haietan gure lurralde hontako mendi askok elur iraunkorrez estalirik egon behar zuten. Horrenbestez, hegoalderantz ez dauden aldeetan landaretza urria zen. Animaliei gagozkielarik, hona gure zolu hontan bizi izan ziren zenbait: ifar orkatza, bisontea, zezena, basurdea, otsoa, hiena, pantera eta beste asko ere; guzti hauen aztarnak Santimamiñe-n, Lumentxan, Bolinkoban, Ermitian, Urtiagan, Aitzbitartean, Armiñan, Isturitzen eta Lezian (Saran) aurkitu izan dira.

*Galdagiten diot Jose Migeli elefanterik ba ote zen, entzuna dutan bezala.*

– *Lapurdi aldean (Pirineo Atlantikoetan, Frantzia) baziren elefante hiledunak, mamutak, errinozerontek; bazen errinozeronterik Pirineoz honuntzko aldean ere, zeren aztarnik aurkitu dugu Arrasaten; zaldia asko ugaltu zen, hartzak-haitzuloetako hartza, lehendabizi, gaurregun ezagutzen dena baino bi aldiz handiago, eta gaurkoa. Ekain-go haitzuloan, duela bi urte aurkitua, hartza hauek egiten zituzten etzalekuak ikus daitezke oraindik.*

Garai hartako euskal gizakiak mendebaldeko Pirineoan zehar, eta are Europa guztian bizi zen gizonaren antza handia zuen: Cro-Magnon-ena alegia. Izen hontaz ezagun ohi den gizaki mota edo arrazaren ezaugarriek zorte bereziak izan dituzte: haietarik batzuek aldietan zehar iraun ahal izan dute eta besteak aldiz, Mesolitiko aldian eratuaz joan den pirineotar gizaki mota bilakatu dira (Urtiagako haitzuloa, 1936). Paleolitikoaren azkenaldera, "lurralde hontako Cro-Magnon tankerako biztanle multzoak eboluzio bat hasten du ortognatismo (aurpegi luzanxka, sudurra aparte), rino-prosapia (aurpegiaren goi-beheraren desarroi handia ahoaren luzatasuna ez bezala) eta masail hezuraren zorrotasuna, Pirineotako euskal gizakiari bereberezko zaiona, direlarik ezaugarriak".

– *Aitatu duzun aldiari buruz, ze goiduretan hasten ziren elur iraunkorrek ?*

– *Glaziar guti izan zen hemen, baina elur iraunkorrek 1.100 metrotatik gora hasten ziren, seguruena. Jakina, gizonak maila horretatik behera bizi behar zuen.*

Hotza ikaragarria zelarik, gizonaren etxabizitza haitzuloak ziren, 500 metroz behetik inondik ere, eta eskuarki, itsasportu eta mendi gainetan, animalien ate edo iragan bideetan: Polvorin, Venta de Laperra, Karrantza, Santimamiñe, Bolinkoba, Atxuri, Ermitia, Aizkotxo, Urtiaga, Aitzbitarte, Lezia, Harixtoi, Isturitz eta gainerako, Nahiz eta haien bizikera lehen eta tarteko Paleolitos aldikoek zeramatanaran antzeko

izan, ehizakiak, ehizerako teknika eta are erlijio eta burubide berezi bereziak dira. Suharrizko igekiak taiutzen badaki, hala nola egurra eta hezurra lantzeko arraskailuak moldatzen ere. Isturitz-en aurkitu den hiru txulodun hegazti hezurak doinu tresnaren bat dugu nozki. Aurkitu dira ere zenbait gauza hezurrean taiutuak, eta gutiren batzu marfilean egindakoak ere bai. Hargorri edo okre puska batzu ere aukitu dira, margogai bezala erabiliak (Isturitz), ehuntzkide eta hienen hortzez moldaturiko belarritakoak, maskor zulatuak, apaingarri ote? (Bolinkoba). Gure arbaso haiek piztiei erasotzen zieten hesparru batetan sartueraz arte, eta barruan bizto bidez ehizatzen. Garai hartan hasten de orkatz larruaz baliatzen lo dendak estaltzeko edo zorroak eta bizto laxakorak egiteko. Hegaztien artean belatxinga (bele gisa bat), belea, saia, ahate, larretxori, ontza eta arranok mea ehizatzen zituan; gaurregun bertan euskal Pirineotan ezaguna da *boomerang (makilla)* usoak harrapatzeko. Aztikeria edo erlijio praktika batzu, gaur ere bizirik dirautenak, haien artean ezagunak zirela aditzera ematen diguten aztarna batzu aurkitu dira; gauzen irudi eta sinboluaz baliatzen da nahi den ondoren bat iritxi nahi denean. Garai hartako portaera (signos) batzuk erlijio sena adierazten digute eta konklusio hontara eramaten gaituzte "euskal mitologiak" alegia, "franko-kantauriar herriaren arte erlijiozko irudipen bederak erabiltzen dituela". Geroago, solutrense aldiaren, hezurrezko txistu lodi bat agertzen da, erdoi gorritzko hondakin piloa, gorputza pintatzeko erabilia, harri bat bi zaldi buruekin (Isturitz). Erramu eta sahas hostro tankerako punttak harriz lantzen hasten da, zorrotzgailu, hezurrezko makil zulatuak "ehize marka" daramatenak.

Etxabizitzarako, zulo bat irekitzen zuan haitzuloan; sarreratik ahalik eta hurbilen egun argiaz balia ahal izateko, eta zuloaren inguruan harriak ezartzen zituen eserleku gisa; hain xuxen ere, Barandiaran-ek dio, "mende honen hasieran Aulestiako (Bizkaia) baserri batzuetan ezagutzen ziren bezalakoxeak, Lumentxako haitzuloan gurekin lanean ari zirenek gogoratzen zuten bezala".

– *Eta zer jaten zuten garai hartan, arraia ala maskuiluak?*

– *Garai hartako gizonak arrantzoan ez zekiela oraindik uste dugu; egiaz, garai honi buruz Arrasate, Dima, Isturitz, Kanbo eta Zuberoa-ko beste lur barruko aztarnategiak besterik ez dugu arakatu ahal izan; ez dugu besterik ezer garai honi buruz, eta itsaso bazterrei bagagozkie, ezertxo ere ez dugu oraindik. Itsas baztarrean garai jakin hartako aztarnategirik bagenu, noski, zehatzki eman ahal izango genuke; baina ez dugu oraingoz. Ezagutzen ditugu itsas bazterrean aztarnategi batzu, baina geroagokoak dira, eta arrain hondakinik ezer guti utzi dute, hezurduraren bat ez bada. Aztarnategi hontan aurkitu izan duguna, gugandik hurbilago den aldikoak, berriro diot, ehizatzen zituzten animalien hezurak ziren, ez arrantzo hondakinak.*

– *Ez ahal zuten garai hartako gizonak itsas zabalera joateko mediorik?*

– *Ez dut uste garai hartan itsasora ateratzeko biderik zutenik. Geroago bai, itsas ertzetan muskuiluak piloka hartzen zituzten. Dirudienek garai batzutan bilketa ugaria egin ohi zuten, gizaki mota honen azken aldera, batez ere, duela 10.000 urte, guti gora behera.*

Gure solasaldi hontan Jose Migelekin, denboran oso aurrera etorri gara.

Goi Paleolitikoari buruz ari ginen, Gure Aldiko 30.000 eta 10.000 bitarteko aldiari buruz; tarte hartan, hain zuzen, klima aldaketa bat izan zen eta tundra giro gordinetik

beste hotzaldi batetara aldatu zen, estepa giroko hotz lehorrera. Ez errinozeronte hiledunik, ez haitzuloetako hartzarik gehiago ikusten ez den aldera iritxi gara. orkatza eskasiago egin da, oreina karrakela edo magurioa eta barakuilua ugaldtu eta honek klima eramankorrago eta hezotasuna handiago egin dela adierazten du. Urtiagan aurkituriko kaskezur batek magdalenien aldikoa –ez gaude zihur– Cro-Magon-en ezaugarriak ditu kondaira aldiko euskal gizakiaren kidesun batzukin: "indize frontala, zeharreko erpina, maxilo-zigomatikoa, asterio parietala eta angelu basilarra". Aztikeri, erlijio eta artearen ikutua nabari zaizkien tresnak garai hontakoak ditugu; ingude, zenbakuntza ikur izan bide litezkeen hezurak, haizto itxurako adar tresnak, hezurrezko arrankazi; ahuntzkideen hezur kriseilu, azabatxezko harbitxi eta suharrizko harrilore, kutunak, apaingarri gisa. Artearen desarroiloa aurrera doa harzuloetako pinturetan eta hildotxo marrazkietan. Santimamiñe, Lumentxa, Bolinkoba, Ermitia, Urtiaga, Ekain, Altxerri, Aitzbitarte, Isturitzko haitzuloak, etxabizitza eta zaldi basati, zezen, orkatz, orein eta hartzen ehizatarien lantegi izan zirela adieraztera ematen diguten aztarnik bada haietan; hezur ziriak apaingarriz margotzen zekien euskal gizakia (Isturitz) itzaltzen ari zaigu. Arrain eta suge irudiak (Isturitz), giza-irudi –emaztekoa bilutsik–, orein, zaldi irudiak, osorik daudenak oso guti, badira. Isturitzen aurkituriko orein hezurrezko kriseilu batetan hezur eta ronbo zerrenda sorginguaiza baten antzera elkartuak; gaurregun oraindik ere erabilia izan ohi da Euskalerriko zenbait tokietako jaietan.

– *Jose Migel, noiz hasten da berriro basoa?*

– *Basoa, –arbol kopuru handiagoea esan nahi dut– glaziar aldia bukatzen denean hasten da, duela 12.000 mila urte, guti gora behera. Hotz handia egiten du oraino, baina dagoeneko hasia da aldaketa, eta pixkana pixkana landaretza ugariago, joriago eta haziagoa agertzen da; hasiera hori izan zuten gaurregun Euskalerrian ditugun arbola guztiek. Aintzinatik zirenak eta oraintsuagokoak garai hontakoak ditugu. Hauetariko batzu oraintsukoak, pikuondoa, adibidez; gereziondoa ere bai, agian; intxaurra, aldiz, beranduago sortua dugu, zeren intxaurra urte hitzatik bait dator, dirudienez.*

## Mesolitos haroa

Azken glaziar aldiaren ondoren, Paleolitos –bere hiru aldiak: goia, tartekoa eta lehena–, amaitua zelarik, tenperatura epeldu egin zen, eta, ondorioz zenbait animalia mota agertzen da, eta beste mota batzuk ihes egiten dute, orkatzak eta fokak, esate baterako. *Mesolitos* aldian gaude.<sup>5</sup> Jatenak ezartzen dizkion baldintzapenetara jartzen hasi behar izan zuen orduan: orein, ahuntz, –itsasbazterretako maskordun, landare eta madari, eta, horrenbestez, artegintza behera etorri zen.

– *Landaretza eta klima aldatzerakoan –dasaiot Jose Migeli–, beste aldaketa bat hasten da, gaur esango genukeen bezala: sozioekonomikoa eta teknikoa.*

– *Jakina, klima aldatzeaz batera hasi zen gizona haitzuloetatik at bizitza egiten eta bere lehendabiziko etxabizitza eraikitzen. Gizona ehizatzen jarrai zitekeen, baina arbola gehiago ere badu jadanik, madaririk ere badu, eta batez ere, ezkurra; madari biltzetik bizi zitekeen, ehin handi batean. Labur esateko: klimaren aldakuntza, etxabizitzaren*

<sup>5</sup> Gerkeratik dator *meso*: erdi; Paleolitos eta Neolitos Haro tarteari esan ohi zaio.



*aldakuntza, jatenaren aldakuntza, ematen da, eta beraz, gizonak berak ere aldakuntza jasan behar.*

*- Duela zenbat urte agertu ziren gaurko euskaldunaren berezko ezaugarriak ?*

*- Duela zazpi milaren bat urte, hortxe nonbait. Klimaren aldakuntza, hamabiren bat mila urte delarik hasi zen, eta bost mila urte geroago (mendeak, izan ere, prehistorian, egun luze batzu besterik ez bait dira) nabari dira gure egunetako euskal gizakiaren ezaugarriak. Ondoren hori atera dugu Urtiaga-ko aurkipenetatik baina hortara irixteko industri eran oinarritu gara. Urtiaga-n aurkitu ditugun bi kaskezurrak, Donostiako San Telmo Museoan ikus daitezke, gaurko euskal gizaki motaren pareko dira kasik; antropologariak "pirineotar" izenez ezagutzen duten gizonaren eboluzioaren ondorio dira. Gizon hau, dagoeneko, kondaira barruko gizakia dugu.*

Ehizetik bizi zen gizaki hori; zaldi, ahuntz, orein, basurde, hartz, axeri, basa katu, azkonarra eta hegaztietatik, faisán, antzar, zozo, oskilaso eta uso basatia ehizatetik, alegia. Arrantzoa ere praktikatzen zuela bada susmorik, eta jaten zituen arrain artean, lapak, muskuilo eta magurio zeuden. Aurreko aldiko harri eta hezur tresnak berberak erabiltzen zituen; gutunak ere bazerabiltzan oraino, baina aurreko denboretan zuten zentzu artistikorik gabe.

Eta honela, gizonaren eta inguruaren arteko elkarmendekotasun hori medio zela, ontzietako gutun eta aztikeriazko gaietan ez da jadanik animalien irudirik ikusten; eta honek izpiritu mailan ere aldaketa bat eman zela adierazten digu.

Aldi honek aztarna nabarmenik utzi digu Santimamiñen. Garai hontako gizonaren aztarna franki bada nahiz eta aurreko aldiko gizaki bera zela uste izan eboluzioa jasaten ari zena. Harrizko pikatxoiak aurkitu dira Biarritz-tik (Moulligna) eta Lumentxa-tik hurbil, hala nola zulagailu eta hezurrezko zizelak. Arrantzoa praktikatzen zen; sare, amuz ala beste medioz ote zen, ez badakigu ere.

*- Don Jose Migel, euskal gizonari buruz, euskal gizaki motari buruz mintzo zarenean, kaskezurraren aurkikuntza hartzen duzu oinarri. Orain arteko antropologia prehistorikoak kaskezurraren neurrien arabera ihardun ohi zuen, giza arraza bat beste batengandik bereizteko. Iharduera hori hartu zuen oinarri, hain zuzen ere, Telesforo Aranzadi-k bere lan gaitza burutzeko; zutirik ahal dago Barcelona-ko euskal irakasle honek egindako lan guzti hori, azken ikerkuntzen ondoren?*

*- Ongi diozu, garbi utzi beharreko arazoa da hau. Antropologia zientzia iharduera zaharraz baliatzen da, neurketa horik baliogarri zaizkigularik egun ere. Lehen egiten zirenetaz gainera beste asko, eta zehatzagoak, egiten dira gaurregun. Lan hori gaurregun osatuagoa da, konplikatua. Halaz ere, Aranzadik lorturiko datoak guztiz baliogarri zaizkigu. Antropometriaren dato hauen arabera eraikitako teoriak zalantzan jartzen dituenik bada; dato hauetatik atera litezkeen ondorenak desberdinak izan litezke, baina neurketak, beraik, zuzenak dira beti. Gaur egiten den interpretazioan baliteke duela berrogei urte egiten zirenen ondoan aldaketa zenbait izatea. Euskalerrinari gagozkiolarik, ez da aldaketarik izan; Aranzadi-ren dedukzioek zutirik diraute bere osotasunean, gure lurraldetik bazter geratzen diren Aztarnategi prehistoriko eta bildutako datoetarako baliorik ez badute ere.*

– Batzutan entzuten denari buruz, Euskaldunak kondaira aurretik jasan dituen eraso aldi eta inbasoei buruz, alegia, zer dakigu?

– Ez da ezagutzen inongo herrien erasorik kondaira aurreko aldietan. Izan da, egia esan, prehistoriadore eta arkeologo artean jenderik kondairan zehar jasaniko prozesoa eman diren kultur bereziak azaltzeko, herrien erasoaldietara eta joanetorrietara jotzen duenik, –beste batzuk mirarietara jotzen duten bezalaxe–. Hemen ez da inbasiorik eman, dakigunez. Eman diren kultur aldakuntzak beste herriekin izaniko harremanetatik sortu dira, hori bai, eta ez du horrek esan nahi jendea eta herria tokiz aldatu direnik; zenbait tokitan eman izan liteke, segur aski, baina hemen ez dugu horrelako fenomenorik ezagutu. Bazen, noski, nolabaiteko toki aldaketarik, harreman kulturalak ekarri eta aldakuntzak sortu zituena, baina ez du horrek ze ikusirik inbasioekin dela nahiz herri aldaketarekin.

### Neolitos haroa

Garai hartako eguraldia (klima) –har labaindu aldikoa–, Kristo aurretik 3.500 eta 2.000 urte ingurukoa, giro aldakuntza handiak jasan zituena, berbera da. Aldakuntza soziologikoak ematen dira batipat. Biztanletza sortzen da, eta honekin batera nolabaiteko kultur fenomeno iraultzailea.

Garaiko animaliak, esandakoez gainera, zezena, zaldi, orein, basahuntz, lepatxuri –ugaztun haragijalea–, pitotxa, sarrio, –ahuntz baten tamainuko antilope gisako bat–, basurdea, eta gertakizun garrantzizko, ardia agertzen da Bizkaian (Santimamiñe), eta lehatzaren arrantzoa ezaguna da. Gizonak, ehizea utzi eta animaliak hezteari ekiten dio; behia, txerria, eta batez ere ardia eta ahuntza, artaldeak biltzen eta produzio ekonomi berri bat kreetzen du giza finkapenari egonharri handiagoa ematen diolarik.

– Orduantxe hasten da Euskalerrian artzaintza, dasaiot Jose Migeli.

– Halaxe da. Ardia ez da, berez, lurralde hontakoa, baizik eta Neolitikoaren azken aldian sartua, duela 5.000 urte baino gehiago. Urtegune hartaraino ez dugu aurkitu ardi aztarranik Lurraldean. Abel zaintza lehenagokoa bide dugu, nahiz eta noizkoa den ez jakin. Zihur dakiguna hau da: seguruenik euskaldunak abel gorria hezia zukeen indoeuropearren eragina hartu aurretik. Indoeuropearrek abelgorriaren hezkuntza ekarri zuten, baina haien eragina zuzenki hartu aurretik, euskaldunek ezaguna zuten zaldi eta abelgorriaren hezkuntza. Bidezko da ondoren hori ateratzea, zeren indoeuropearren eraginagatik izan balitz, animalia hauen izenak indoeuropearren mintzaeran ezagutuko genituen seguruenik, eta ez da horrela; izenak, bertakoak dira, euskal hizkuntzan adieraziak. Froga honek garrantzi handia du. Eta, froga honezaz gainera, badugu aleman batena, doktoradutzako tesia hemen egitera etorria zen batena; Adolf Staffe da bera, eta hemen bertako abelgorrien aztarnen ikerketa bat egin zuen. Eta horra, atera zuen ondorioetarik bat hauxe duzu: euskaldunek, beraiek hezi zuten egoera basatian beraien lurraldean bizi zen abelgorria. Honek, beraz, hau esan nahi du, alegia, abelgorriaren hezketa hemen hasi zela, ez zela indoeuropearren eraginez sartua izan, zeren, hala izan balitz, segurutzat jo genezake hezketarekin batera ere hezi izan zituzten animali motak ekarriko zituztela. Hori bera gertatu bide zen zaldiarekin: hemen egoera basati edo

*erdibasatian bizi zen zaldia, eta guk geurok ere ezagutu izan dugu oraindik egoera hortan; basatia zen lehendik ere eta lurralde hortan bertan gainera. Noiz eta nola gertatu zen hori? Beste tokietan eman zen mekanismo bat bide zela, hau da, ereduren bati jarraikiz: "hauek animalia hezi ahal izan dute, geuk ere egin ahal dezakegu". Hauxe duzu eragin bide bakarra, gaurregun dirauena, eta orduan ere eman zena, hain zuzen; ereduari jarraikitzea, besteren esperientziari, animalia lehenik hezi zuen herria andanaka etorri behar izan gabe tokiaz jabetzera edota haren eragina jasaten zuen herriaren izaera sustraitik aldatzera.*

Neolitos aldi hartan haizkorak labaintzen hasia da, harri urdin edo ofita izeneko harri mota baten bidez taiutua (Santimamiñe) eta mailuak. Zeramika ere ezaguna zaio, eta buztinezko ontzi tankera batzu egiten badaki, hasieran behatz arrastoz eta kratertankerako apaingarriz hornituak, ozkadurazko kordioekin, hasieran, eta geroan lastai hildo eta marrazkiak nabari zaizkielarik; zeramika honi esker euskaldunak jatekoak egos ahal izan zituen eta ura ere gorde etxea. Azken xehetasun honek, eltzegintzan lastai aztarnak agertzeak, alegia, zumez eta zumitzez moldaturiko ontziak erabiltzen zituela aditzera ematen digute. Garai hartakoa dugu ere hareazko eskuerrota (Lumentxa), eta honek, aldiz, bihi eta ehogaiak ezagunak zitzaizkiola adierazten digu. Orobat ere ezagutzen zuen urgaineko ibilketa pieza bateko txalupa gisa batzutan, arbol enbor hustua, Adur hibai ohean aurkitu eta Biarritz-eko Museoa dagoena, adibide.

Artzantza arazoak joanetorrietan ibili beharra ekartzen dio eta, beraz, beste giza taldeekin, euskaldun ez direnekin ere harremanetan hasi beharra. Halaz guztiz, euskaldunek era horretako harremanik izan duen ala ez, Antropologiak ez digu argitasunik ematen; zientzia horrek erakusten diguna aintzakotzat hartzen badugu, dio Jose Migel-ek, ez zen garrantzizko aldaketarik eman Euskal Herrian; Mesolitos aldi lurralde hortan bizi zen gizakiaren ezaugarriak berberak –Kristo aurreko 10.000 urte inguru– aurkitzen dira hurrengo aldietan ere".

Garai hartakoa, ere, euskal gizonaren beste ohitura hau: hilak haitzuloetan hobiratzekoa; "opari eskaintza bidez, dirudienez, baretzen omen zituzten". Eta hildakoei buruz ari garenez, jentilarriei, trikuarriei, dolmenei buruz, alegia, zerbait esan behar da. "Zolugainean zutik eta zerrendan, segidan ipinitako landugabeko harri mokorrez, egina eta harlosa batez edo gehiagoz estalia den aretoa duzu dolmena edo jentilarria; alboko harri bat –Ekialderuntz edo Hegoekialderuntz jarria– besteak baino apalagoa, honen eta estalkiaren artean zulo bat, lehio gisa, duena".

Dolmentegi anitz aurkitzen da larretoki eta sarbideetan. Euskal gizona behe zonatan ere bizi zen, Añes, Errioxa, Kuartango Haran, Gasteizko Lautada, Elgea, Atzaria, Kalamua, Gorriti, Belate, Landarbaso, Jaizkibel, Ilbardin, Abarratei eta beste tokietako jentilarriak, eta Mairuelegorreta, Surbi, Santimamiñe, Lumentxa, Urtiaga, Jentiletzeta, El Castelar, Isturitz eta beste aztarnategi eneolitikoak lekuko.

Gizona bere jabetasuna ingurura zabaltzen hasi zenaren ondorio bat duzu hori hala nola bere artaldeekin guruzatzen zituela (Gijibo, Arrato, Gorbea, Oiz, Aitzgorri, Entzia-Urba; Ataun-Burunda, Elosua, Polpol, Aralar, Orin, Belabieta, Larrun-Atxuri, Artzamendi-Iuskadi, Urrxika-Berdaritz, Sorogain-Astakarri, Lindus-Atalosti, Irati-Abodi eta Ahuski), gure lurraldeko lehen kostruziogintzaren lekuko dira toki guzti hauek.

– *Jentilarria oinarri harturik –mintzatzen da Jose Migel– gure artean eztabaida ugari sortu duen kalkulu hau ateratzen dut: zenbat ote ziren kondaira aurreko euskal gizakiak? Horren aintzinako ez den kondaira aurreko aldi bati buruz egin nuen kalkulua, euskaldunek hemen jentilarriak eraikitzen zituzten garaiari buruzkoa; interes handiko aldia duzu hori, zeren orduan hasi bait ziren, batetik indoeuropearren eragina eta betetik erligio sinbologian eta hazturetan aldakuntzak ematen. Dena den ondorio hau atera nuen, alegia, 5.000ren bat bizilagun izango zirela Euskalerrian. Jakina, kalkulu hau oker izan liteke. Nik ezagutzen nituen jentilarriak bakarrik kontuan hartzen nituelarik egin bait nuen kalkulua. Jentilarri bakoitza famili batena zela erizten nuen nik, eta arrazoizkoa deritzat eritzpide hori; eta ondoren, famili bakoitzeko, hainbat senide zirela kontuan izanik... zera, nere usteak urrutiegi doazela. Eta beraz, ezin zihurtasunez ezer esan.*

– Bere itxurari gagozkiolarik, nolakoa genuen jentilarrietako euskal gizona? Garai hartako euskaldunak "egungo euskaldunekin zeikusirik baduten ezaugarriak zituen –dio Barandiaran-ek Victor Jacques antropologoaren hitzak aitatzuz– mesozefalia nabari delarik". Kataluniako "akrozefalos eta mendebaleko kantauroko brakizefalo artean" ezarri beharko genuke. Oraindik aitzuloaz baliatzen da bizitoki eta hilobi gisa (zeruzabalean eraikitzen zituen kostruzio xumeez gainera, zer nolako egitura zuten ezezaguna bazaigu ere). Esan dugun bezala, garai hartako kostruzio bakarra jentilarria da, gorpu batzu nahiz asko hartzeko aski zabal zen hilobia".

Ez dakigu ezer, nolaz jazten zen gure arbaso hau. Seguruenik, bere esku zituen gaiez moldaturiko arropak zerabiltzan beroki gisa: ardi, ahuntz, behi larru; hartaz moldatzen dituen *abarkak* edo *albarkak*, gaurdaino iraun dutenak. Artilea ere egiten bazekien eta jazkiak ehotzen, nahiz eta honen frogarik ez izan. Garai honetako haizto, lima, zulagailu eta labaingailurik ere agertu da. Eta zeramikagintzan ere gauza berririk asmatu zuten.

Ez zen, gero, populazio guztia ibiltari. Izan ere, ez ziren denak artzantzatik bizi; bizibidea ehizetik ateratzen zutenak, baziren eta zegoeneko lurra lantzen hasiak, "lur lodietako sail ttikiak –Bidarteko jentilarriaren barruan aurkitua izan zen haitzurra horren lekuko izan daitekeelarik".

Oraindik guztiz nabari ez bazen ere, aldi hau orduan bakarrik izango da ulergarri baldin eta inguruko gizakien kulturarekin loturik aztertzen bada, nola Ebro hibaiaren arroan ala akitaniar zonan; "izan ere lurralde hori –dio Barandiaranek–, pirineotar artzain joanetorrien arean, eta euskal gisako toponimian, batipat, duen koinzidentziagatik, denik eta garrantzi handieneko bait da euskal arkeologian eta linguistikian".

Beharrezko zaigu inguru hori kontuan hartzea ondorengo kondairaren prozesoa ulertu ahal izateko.

– *Euskaldunak milaka urtez eman duen bizikera autoktono honek apartekotasun bat sortu du, ez fisikoa soilik, baizik eta, berezko denez, kulturala eta izpiritualea ere; zein izan dira beronen funtsezko mekanismoak?*

– *Herriak faktore ugari egokitu behar izan zaizkie; geografiatik eta klimatik hasi eta horren zehatzki nabari ez diren beste alde izpiritualei ere. Bizi naizen etxe hau inguruko materialez eraikia izan da, eta beraz, nere bizi toki honek geologiaren eraginik badu. Bestalde, herri bat osatzen duten lagun guztiak belaunaldiz belaunaldi bizi izan*

*dira lurralde bat bederan, eta ez dira geldirik egon, baizik eta lanean ihardun izan dute, eta jo muga jakin bati begira lan egin ere, eta nola herri hori ala bere lanak aurreko belaunaldiek lortuz joan direnaren gordegu gisa bat bilakatu dira, indibiduo bakoitza unerik une jaso den jakinduri horretaz jabetu da. Horixe gertatzen da hizkuntzarekin eta horren agerian ez dauden beste adierazbide kulturarekin abelgorriaren hezkintza. Bidezko da ondoren hori ate ere. Horrenbestez, gure arbasoek, herri bat izan nahiz beste, gudan badute eraginik; ez dago zalantzabiderik. Gizona, bera bakarrik, gizartetik bakandua, ez da gauza bere indar soilez, munduan bizi den aldi laburra kontuan dugularik, kultura maila duin batetara irixteko.*

Pirineotako eskualde hau inguruetakoa herrialdeetako teknika eta hazturen elkartoki zen, eta horrela "kultura gisa bat eratu zen paisaje natural jakin batetan". Hizkuntzak eginak zeudeneko materialen izenak ezarri zizkien gauzei: harria lehendabizi, *haizkora*, *haitzur*, etab., *haitz*-etik; urraide izenaren osagarriak, *urraide* =(cobre), esateko, metalkiak agertu ziren aldikoak ditugu.

– Nolakoa zen orduko euskalduna, erlijioso den aldetik? Erlijioari gagozkiolarik, euskal gizakiak "animalia tankerako izpirituekiko" eraspina erakutsi zuen. Gorputz hilak ezarriak dauden erari begiratzen badiogu eguzkiaganako eraspenera ere bazela haien artean uste izatera garamatza. Zenbait jentilarrien ondoan –Intxaurguru, Beotegi eta Igarta Aizkomendin ere– su aztarnak aurkitu izan dira, eta " argi eta opariak eskaintzen eta hilketa oturuntzak egiten zituztela" pentsarazten digute. Haizkora ttiki batzuen opari-eskaintzak ere aurkitu dira.

Eta hau dio azkenik Barandiaran-ek, euskal gizakiaren kulturaldi honi buruz "badela", alegia, eritzpide elementurik sineskeri berriekin nahasturik, aintzinako elementuak ere agertzen zirela sinisterazten diguenik".

## **Brontze haroa**

K. A. 1200 eta 600 urte aldiko etapa berri hontan haizkora,–Aretxanaleta, Castellar, Zabalaitz eta Fahardiko harri-gezi punttak, haiztoa eta tupikizko lanabesak erabiltzen zituen. Ez da aldaketarik eman animalia, landaretza, nahiz giza bizitzako gainerontzeko aldetik.

Seguruenik, Arabako hego eta hegomendebaldean garai hartako diren haitzulo artifical askotan bizi zen jenderik. Ez dago oraino zeru zabalean bizi zireneko aztarnarik, nahiz eta haitzuloak baino ugariago izango zirela uste izan, eta Salbatierrabide-n aurkituriko zenbait aztarnak tupiki aldiak geroz giza finkapenak bazirela adierazten digute. Erlijioari gagozkiolarik, hilobietako aztarnak besterik ez dugu, eta ez zaie nabari aldaketarik jasan dutenik, ez bada aztarnategi batean gorputz erreketaren hondar batzu; erritu hori, "eriotz ondoko patua, eta seguruenik, eragin naturista duen erlijio berria kontutan duena, aldi honen azkenera agertua, gauza berria zen, eta burdin haroan hedadura handia izango zuen". Geratu da euskal kultur tradizioan eta hizkuntzan haren aztarnarik (*ortzi*, *urtzi*, cielo, trueno, Dios) eta beste asko ere, hala nola hilobietan argiak eta jatekoak uztea hildakoen opari, duela urte guti arte ezaguna zen ohitura.

Jesus Altuna antropologiariak dionez, Araba-n, Kantauri Mendilerroan hegoruntz, tupiki haroko *etxa-bizitoki* bat aurkitua izan omen. Bi metro lodiko lur geruzapean, gizona han izanaren hileta erako aztarna ez ezen, kultur osatu batena ere. Aztarnategi hori joanetorri handiko dela dio, zeren jentilarrien eta haitzuloetako hilobien sailkakuntza posible egin bait du.

### **Burdin haroa<sup>6</sup>**

Tupiki haroaren azkenaldera Europako herrien joanetorriak ematen dira.

Herri ibiltari hauen eraginpean –zeltena seguruenik– kultur mota bat zabaltzen da "Pirineo zati handi batean, ifarraldeko larretokietan barrena nagusiki"; *arrespilak* eta gorpu hauts bihurtuen oroitarrak, burdingintza, hala nola Hegoaldera iritxi zena, aldakuntza hauen froga ditugu, eta "lurrealde hontako puntu zenbaitetan multzoketa eta herri hesituak eraikitzen direlarik". Lehendabizikoaren egonleku nagusienek (*baratzak* edo *arrespilak*) –kromlech-ak–, Ariege-tik Nafarroa eta Gipuzkoa bitarteko lurretan eta Etxinalderago, Bizkaiko mendebalderaino zabalduak direnak. (Elorta, Irati, Okabe, Lindus eta Atalosti, Zaro, Baigura, Iuskadi, Artzamendi, Ezurreta, Milarretan, Goizamendi, Ibaineta, Gorostiarria, Mandale, Pittare, Lerate, Oyartzun, Elazmuño eta Olegi, Aramo, Unamuno, Etxela eta Oentzun, Berastegi-n eta Altxista-n, Urnieta gainean, Erezan), "kultur zeltikoaren era bat, Bohemia eta Baviera-n sortua batzuren ustetan" ekarri zuten, eta Suiza-tik Italia ifarraldetik zehar etorri ondoren pirineotar eskualdeetara zabaldu zen; puntu honetara heldu zelarik, Ariege-n, Garona Goian, Goi eta Behe Pirineotan barrena eta Euskalerriko zati handi batean ere barreiatu zen, ozeano isuraldean batez ere, eta beronen mailateri ezagunenak Kastejon (Argeda inguruan), Etxauri, La Hoya, (La Guardia), Iruñea, Kutzamendi, Salbatierrabide, Oro eta Arrola-n, eta Intxurre-n ere aurkitzen dira. Aztarnategi hauetariko zenbaitzutan araketak eginak dira.

*Baratzak* edo *arrespilak* cromlech-ak dira, erdian harrizko kutxa gisa bat, dutenak gorputzen erreketak ondoko hautsa gordetzeko; erlijiozko ideia berriak agertu zirenaren adierazgarri. Erreketa hilobi hauk zirkulo eran finkaturiko harriek osatzen dituzte: *arrespilak* edo Cromlech-ak, hain zuzen ere.

Euskaldun gizakiok haitzuloetan egiten zuten bizitzaren zati bat oraindik, nahiz eta multzo handi bat joan etorrietan bazebila ere. Ez da ezagutzen *baratz* delakorik Araban, ez eta Gipuzkoa-ko zatirik handiengan ere; Araban eta Nafarroan (Hegoaldean), Oro, Kutzamendi, Iruñea, Salbatierrabide, La Hoya, Castejon, Argedas, Cortes, eta beste puntuetako giza multzoketek laboraritzan eta abelzaintzan oinarrituriko bizikera bat zeramatera adierazten digute, helduen gorputz hilak erretzen eta haurrenak ehorzten dituztelarik".

Garai hontakoak ditugu ere *Mikeldi-ko Irudia* (Jainkoizuna), Durangon, hare harrizko oroitarrak, iisko bat irudikatzen duena, diska bat –eguzkia, hilargia?– hanka artean duena, Bilboko Museo Arqueologico-an dagoena.

---

<sup>6</sup> Kristo aurreko 600 urteaz geroz.

Tupiki edo brontze haroko aztarnategi anitz aurkitu izan den bezala, Burdin Harokorik ozta ozta aurkitu da. Altuna antropologiaren eritzi argigarria kontutan hartu beharrekoa, noski. "Burdin Haro hontan indoeuropearren eragin bat, axial-axalekoa, nabari da; eta honek ematen digu, agian, euskal hizkuntzaren iraupenaren arrazoia, zeren gutienik jota ere tupiki harokoa bait da bederen, eta ez bait zen baztertua izan garai hartan European mintzatzen ziren gainerontzeko indoeuropear mintzairak bezala. Errioxa-ko mugaldea, esate baterako, indoeuropear kulturaren, zelten kulturaren barruan, alegia, dirudenez gure lurraldean sartu gabea, zabaldurik zegoen".<sup>7</sup>

– *Nolako laguntza dute, ze neurrian erakutsi ohi da euskal antropologiari buruzko ardurak? galdatu diot Jose Migel Barandiarani liburu honen lehen zatia amaitzeko.*

– *Axola ezarik osoena jasan ohi dute gure ikerkuntzek. Euskal Lurraldea ez da geografia soila, bertan bizi diren gizakiak ere bai, herri bat, eta historia bat aintzinasun urrutienan galtzen den historia duen herri bat; horren aintzinakoa, non ez bait da Europa guztian beste etnirik euskaldunak bezain muga zehatzak dituenik; honek zera esan nahi du, baratza bat osatzen duten beste landare eta lore artean, lore edo landare mota berezi berezi bat garela, eta gainerontzekoak bezalaxe bizitzeko eskubide duela; ez dugu eskatzen beste loreak edo landareak baino arreta handiagoz begira gaitzaten, baina bai besteei bezainbat arreta erakuts diezaiguten, hau da, euskaldunoi, ardurak gabezia horregatik kultura hil ala bizizko egoeran daukagunoi zor zaiguna, ez besterik. Ez dugu eskatzen gainerontzeko loreen ganako ardurarik izan ez dezaten, muskilduak izan daitezten, baizik gurea bizitzen utz dezaten. Gehiegi eskatzea ote hori guztia animalia eta landare mota beraik ere, guztien ondare bezala zaintzen eta babesten dituen zibilizazio baten baitan? Horixe da, ez besterik, guk eskatzen duguna.*

---

<sup>7</sup> Ondarrabi-n 1970ean emandako mintzaldia.

## Euskaldunak kondairan sartzen

Ikusia dugu Mendabaldeko Pirineo-ko lurretan finkatu zen kondaira aurreko gizona gaur bertan berarizko zaizkion apartekotasun fisikoekin heldu zela kondairaren egunsentira.

Ez dugu esan nahi euskal gizona eboluziorik gabe iritxi denik puntu honetara. Hauzokoekin harremanetan egotetik sortu diren eraginen mende egon da Euskal Herria, arrotzak zirela honuntz etorri ohi zirenak, nahiz euskaldunek beraiek, beren joanetorrietan hartzen zituztenak. Izan du harremanik ere zenbait inbasioaldien ondorioz. Eta euskaldunak, beren aldetik, mendeetan zehar beren ezaugarriak eboluzionatuz joan dira. Antropologia aldetik garbi ageri da egungo Euskal herriak berenez zituen ezaugarri fisikoak gorde dituela, eta hontan Caro Baroja Barandiaranen tesiarekin bat dator, Eneolitiko garaiko euskal gizakiak egungoak dituen ezaugarri (rasgo) berberak dituela dioenean. *Arrazaz* mintzatzea mingarri bihurtu da gaur.<sup>1</sup> Izan ere hitz horrek iguingarri zaigun konotazio bat du sozio-politiko den aldetik eta horretxan aurka borrokatu izan gara beti; hemen badarabilagu, konzeptu biologikoak duen kargarekin, ez besterekin, da.

Gizakien artean ematen dira tankera fisiko bereziak, ohartzeko errezak diren ezaugarriak, azaleko kolorea, esateko, eta horren agerian ez dauden beste ezaugarri batzu ere, odolak dakartzanak. "Arraza, -dio Friedrich Hertz-ek-<sup>2</sup> zientzia naturaleko kontzeptu bat da, nagusiki; mota batetako submota bat, haren ezaugarriak heredatzen dituen; hartara, zientifikoak denak bat datoz, gizaldia arraza anitzetan banaturik dagoen mota bakarra dela esaten". Zentzu honetan (sailkakuntza zientifiko hutsatik datorrena) gure antropologiaren ikertzaile den Jose Migel Barandiaran-en eritziak sendotzen dituzten apartekotasunak erakusten dituzte egungo euskaldunek.

Buruhezurreko egituren gonbaraketa orokor bat egin ondoren, G.M. Morant-ek<sup>3</sup> ondorio hau atera zuen, alegia, euskaldunaren buruhezurra jatorriz europarra dela alde guztietatik begiraturik, eta ez duela europar ez diren beste formekin, mendebaldeko beste giza taldeek duen baino ahaidetasun handiagorik, Antzeko zaizkion artean britaniarra du hurbilena, burdin garaikoa, hain zuzen, eta etruskotarraren buruhezurretik urrun ez dago.<sup>4</sup>

Odol taldeei gagozkiolarik, hau dio, euskaldunen odol talde arrunta, ABO, alegia, europar beste herriekin gonbaratzen denean O taldeko sarritasuna handia ematen dela, A taldeko sarritasun nahiko apala dela eta kontinente guztiko apalena B taldeko sarritasunean. Rh edo Rhesus-en odol taldeei buruz, Rh negatiboan sarritasun arras gorena ematen dute -indibiduo guztien artean 100ko 30 inguru- europar edozein herritan ematen direnak, eta Berebere berebere tribu batzu kenduz, munduan den

---

<sup>1</sup> Tankera bateratzailea eman nahi izan dio Espainiak bere historiari, herrien aztarna berezi bereziak moteltzen dituelarik; guk, euskaldunok, ezin ukatu dugu aintzinatik datorkigun geure errealitate etniko-kulturala, behar beharrezko bait zaigu ezagutzea elkar ulertzeko.

<sup>2</sup> *Historia Orokorra*, Walter Goetz, Espasa-Calpe, Madrid, 1954.

<sup>3</sup> *Biometrika*, 21. alekia, Londres, 1929.

<sup>4</sup> *Encyclopedia Britannica*, 3. alekia, 186 or. J. C. Tr.



altuena. Laburki, hau dio: "Bi alderdi hauetako sarritasun eskalaren (mailaketaren) azkenburuan –odol talde eta Rh–euskaldunek duten egoera jatorriz beste herriengandik bereziak direla erakusten digu, eta hurbilen zaizkion hauzo herriek ezer guti erantsi diotela haien jatorriari". (A.E.Mt.).

Euskaldungoak fisiko aldetik batasun bat, eta are esan dezagun, batasun aparta bitxi bat, osatzen duelako tesi honek munduan zientifikoki ezarri izan diren arraza banaketa guztietan izan du espresiorik.

The *National Geographic Magazine*-k Europako arrazen mapa bat argitaratu du,<sup>5</sup> eta hartan onako hauen –jarraigo honetan– zerrenda ematen du: *Pre-ariarra*: euskaldunak. *Greko-latinoa*: albaniarrek, greziarrek, italiarrek, espainiarrek, portugesak, frantziarrek eta errumaniarrek. *Zelta-teutoniarra*: eskandinabiarrak holandarrak, alemaniarrek, eta britaniarrek. *Eslabiarra*: errusiar handiak, errusiar ttikiak edo ukrainiarrek, mendebaldeko eslabiarrak eta yugoslabiarrak, *Balto-eslabiarra*: lituaniarrek letoniarrak. *Armenia-uroloko*-altaikoa: turkoak, tartaroak, kalmukoak, magiarrak eta finlandiarrek.

Euskaldunek, beren fisiko aldetik batasun berezi bat osatzen duten bezala, entitate bat bera osatzen dute kultur aldetik ere; izan ere, euskaldunen arrazari buruz esan dugunaren antzeko zerbait esan genezake ere haien hizkuntzari buruz.

Rand Mc Nallyren<sup>6</sup> mapa linguistikoak eta Goetz-en *Kondaira Orokorrek*, oraintxe aipatu dugunak,<sup>7</sup> munduan mintzatzen diren hizkuntz artean talde hauk bereizten dituzte: *germaniarrek, eslabiarrak, zeltak, erromanikoak, mongoliarrek, eta albaniarrek, arabiarrek, greziarrek, lituaniarrek, berebetarrek, armeniarrek, kaukasiarrek, iraniarrek eta euskaldunek* mintzatzen dituztenak.

Eta sailkakuntza hori ez da egina izan euskaldunaren kondairako hastapenak kontuan hartuta; puntu horretan gaude oraindik gure sintesi lan honetan, baizik eta idazten ari garen egun hauetan ezarria izan da.

*Luis Mitxelena*<sup>8</sup> hizkuntzalariarekin izan nuen elkar hizketa batean hau esan nion:

– *Galdatu diot Barandiarani euskal gizonaren sorkuntzari buruz duen eritzia; orain zure espezialitateari dagokion galdera parekide hau egiten dizut zuri: euskara, gure hizkuntza, nondik dator?*

– *Nere iritzi pertsonala hau duzu, iritx eta guttiago ala gehiago sakondu genezakeen pe batean, aski zabala bestalde, gehiegi ez bada ere, 6.000 ren bat urte Kristo aurretik, eman dezagun (ez gehiago, zeren honelako hipotesi batean aurrera joatea arriskugarriegi bait litzateke), euskara edo euskal mintzaira ez da inondik etorria. Zera, gaur baino ere hedatuago egon behar izan zuen famili edo talde batetatik geratu den irla gisa bat da euskara. Eta ezingo nuke esan hedapen hori hegoalderuntz, ifarreruntz edo alde bietaruntz barreatua zen ala ez. Egia esan, bada hizkuntzaren aztarnarik frantziar*

<sup>5</sup> Map of the Races of Europe and adjoining portions of Asia and Africa, Edwin A. Grozvenor, Ll. D. And Gilbert Grosvenor A.M.

<sup>6</sup> "Languages of Europe in the 19th Century", *Historical Atlas of the World*, Rand Mac Nally, Chicago-New York, 1961.

<sup>7</sup> I. Alekia, 63 or.

<sup>8</sup> *Hablando con los vascos*, lehen aitatua.

Akitaniako hegoalde guztian zehar, (hemen aurkitu diren idazkun zaharrenak) eta Ekialdean toponimiko guztiz garbiak gainera aurkitu dira, Katalunia bihotzeraino.

– Garbi al dago euskal hizkuntza indoeuropear taldekoa ez dela?

– Inork ez du besterik froga ahal izan, hori bederen. Jatorriaz ari naiz. Kondaira barruan, jakina, euskal hizkuntzak zenbait eragin hartu izan du indoeuropear hizkuntzekin izaniko harremanen ondorioz; alabaina, ahaidetasun genetikorik, deusere ez dago haien artean. Pertsona artean odol ahaidetasunarekin gerta ohi dena ematen da hemen ere: geure jatorria ikertzen hasten bagara, gradu handiago ala gutiagoan, hurbilago ala urrunago batean, biok, zu eta ni ahaide garela aurkitzea posible liteke; sekula santan ere frogatu ez duguna bion artean ahaidetasunik ez dagoela da: eta hauxe duzu arrazoia. alegia, eskuratu ahal izan ditugun xehetasunez gainera beste batzu ere izan litezkelako. Eta era berean, ezingo da inoiz ere frogatu ahal izango bi hizkuntza artean ahaidetasunik ez dagoenik; onenean ere bi hizkuntzen arteko ahaidetasuna frogatuko da, ez, ordea, alderantzira. Gure kasu hontan gertatzen dena hau da, alegia, euskarak beste inongo hizkuntzarekin ahaidegorik duenik ez dela frogatua izan. Lurrean mintzatzen diren hizkuntzen sailkakuntza zientifiko bati nahiz besteari begiratzen badiogu, diogunaz jabetuko gara. Honek ez du esan nahi hizkuntza fameli batekin ala bestearekin zeikusirik badugula argitan jarriko duen giltza egunen batez aurkituko ez denik; baina, gaurdainokoa bakarrik gaude, eta euskal hizkuntzak hementxe bertan, lurralde hontan bertan egin duela eboluzio bidea, esango nuke.

– Ondoren hori bera ateratzen du Barandiaran jaunak ere, euskal gizakiaz mintzo denean: euskal apartekotasunak dituen giza eboluzioa, duela 7.000 urte, hortxe nonbait, hasi zuena Cro Magnon giza mota dela, eta lurralde hontan bertan eman zela gainera, eboluzio hori; alegia, euskalduna ez dela beste inongo eskualdeetatik etorritako gizakia.

– Hizkuntzari gagozkiolarik, eritzi berekoa naiz. Ez da eman hemen inbasiorik edo imigraziorik, kultura hau ala beste ekarri eta bertan sustraitu duenik; zeren, ala izan baliz, utziko zukeen erasotzaileekiko ahaidetasun ezaugarriren bat. Halako zerbait frogatzearren gaurdaino zabaldu diren hipotesi batzuk Mengin-enek, esate baterako, ez dute baliorik; eman da, noski, batekin nahiz besterekin harreman kulturalik, baina hizkuntzak ez du, horrenbestez, aldaketa inportanterik jasan. Begira dezagun, adibidez, magiar hizkuntza: zehatz-mehatz ezagutzen da noiztik dauden hungariarrak lurralde hartan finkatuak, kondairaz geroztik etorriak bait dira, eta ez horren aspalditik, gainera. Turkotarrei gagozkielarik ze esanik ez dago, hungariarrak baino gerokoagok direla garbi bait dago; euskaldunei gagozkielarik, aldiz, ez dugu arrazoirik nongo eskualdetik etorri zirela esateko, baizik eta, besterik gabe, hortxe daude. Gilelm de Humboldt-ek behin eta berriro dio, euskalduna, aspaldi batean gaur okupatzen duen baino luze zabal handiago batean barreaturik zegoela konklusio hontara iritxi bagara, esana dut lehenago ere, Akitanian aurkituriko iazkunei esker izan da, eta Abadal-en hipotesia bera, orobat, gerora Corominas-ek linguistika aldetik eusten duena, zihurtzat joenezake, zeren, Paillares Garai-an eta Ribagorza-ko zenbait hibarretan, Erdi Haroa aurrera zihoalarik, euskal hizkuntza mintzatzen zela konklusioa ateratzea posible bait da.

– Euskal hizkuntzak harreman horik direla eta hartu izan dituen eraginei buruz, ze gisako dira eta noiz mamitu ziren?

– *Esana dugu, badela aldi bat, guztiz urruna, kondaira aurrekoa, ilunpe handiengan datzana; lehendabiziko lekukoak agertzen hasten direneko, kontinenteko mendebalde guztia indoeuropearturik aurkitzen zen. Zelten eraginez asko mintzatu izan da hemen, eta egia esan, ez ditut nik, neuk, horren garbitzat jotzen; behar luketen bezainbat nabari ez dira agertzen; zertxoren bat tokien izenetan, euskaldun ez diren populazio izenetan, latera aurreko indoeuropear direnetan zerbait nabari da, eta ondoren, lateraren eta erromanikoen eragina irixten da, gaitza benetan. Beraz, hemengo arazoa, euskal hizkuntzaren eta indoeuropearra ez den aintzinako hizkuntzaren baten artean eta indoeuropearra ez den aintzinako hizkuntza ezagun baten artean, iberiarrarekin esan nahi dugu, testuak baditugu, harremanik izan ote den ala ez, erantzunik gabe geratzen da.*

– *Iberiar hizkuntzak ba al du zeikusirik euskararekin?*

– *Badira, bai zenbait antzekotasun, eta, halarik ere, ez du batere argirik eman iberiar testoak interpretatzeko orduan.*

– *Zeintzu dira kidetasun horik?*

– *"Hotsei" gagozkielarik, esate baterako, elkarrengandik nahiko hurbil egon behar zutela, itxurazko dirudi.*

– *Nolaz mintzo gintezke entzun ez den hizkuntza batetako "hotsei" buruz?*

– *Idatzirik bakarrik ageri zaigun "hotsaz" mintzo gintezke, noski, zinuei ematen dizkiogun baloreak kontutan harturik; eman dezagun adibide bat; iberiarraren kasu hontan, bi r eta bi s bereizten zituzten; hori bederen. Izazu kontu, gainera, idazkera grekoa eta latinoak duten izen eta pasarte iberiarrak ere baditugula; hauetako zinuen baliokizun orokorra ezaguna zaigu.*

– *Eta, ez al da argitan jarri hizkuntzaren batekin ahaidetasunik ba duen ala ez?*

– *Ez; ahaidetasun hori aurkitzea lortu izan balitz, iberiar testuen esan nahia, gaingiroki bederen, izan genezakeen, eta horren beharrean gaude, hain zuzen ere, eta horregatik zenbaitzuk lanean dihardute oraindik; zerbait gehiago esango dizut gainera, kinka larri batean dago arazo hau une hontan, zeren inbestigadore batek, Antonio Beltranek, Zaragozatik 60-80 kilometrotara Botorrita izeneko toki batean iberiar brontze bat aurkitu berria du, gaurdaino ezagutzen diren baino idazkun edo iskrizio luzeago bat duena; gertakizun honek oraindaino izan dugun baino argitasun gehiago eman liezaiguke. Antonio Beltran-ek ez digu ezagutzera eman nahi testu hori, bere interpretazioa emateko egoeran egon aurretik, eta euskal hizkuntzaren laguntzaz ari dela lan horretan, dio. Ikusiko dugu.*

– *Beltran jauna linguista al da?*

– *Arkeologaria da.*

– *Teoria bat baino gehiago izan da euskal hizkuntzari eta beronen ahaidetasun direlakoei buruz; zeintzu izan dire nagusienak?*

– *Bi izan dire funtsean: Schuschardekin formulatu zuena, euskal hizkuntza kamito-semiitarrekin lotutzen duena (Greemberg-ek afroasiar deitzen dituen hizkuntzak: berebere-tik hasi eta arabieraraino), eta iberiarra hipotesi hontan sartzen zen; jakina, Schuschardt bera euskal iberiarren aldeko bait zen. Zera gertatzen zen, haren garaian iberiar idazkunak nekez irakurri zitezkeen, (gaurregun errezago irakurri ohi dira), eta euskalduna eta iberiarra hertsiki loturik zeudela kamito-semiitar hizkuntzekin uste zuen.*

*Hipotesi honek ez zuela ezertxo ere bere alde, uste dut neurekiko, Schuschardt beraren entzute zientifikoa ezik, hala nola euskara ezagutzen zuen ikertzaile bakarra eta Kamitiar-semitiar hizkuntza asko naiz guti ezagutzen zituen ikertzaile bakarra mundu guztian Schuschardt izatea. Ez zen, beraz inor ere ausartzen haren teoria eztabaidatzen. Egia esan, tesi honek eraso bortitza jasan zuen; izan ere, Zylharz izeneko orientalistak, begirunerik gabeko demostrazio bat egin zuen, aleman hizkuntzaz baliaturik, Shushardt-ek euskal hizkuntzarekin aurkitu izan zituen hainbat erlazio kopuru ezar zitazkeela, alegia,. Honela Shushardt-en demostrazioa absurdo mailara birrindua uzten zuen. Eta, beraz, arrakasta handiagoz nahiz gutiagoz eusten zen ipotesiak, porrot egin zuen iberiar idazkunak irakurtzeari ekin ziotenean. Duela mende erdia Manuel Gomez Moreno-k egin zuen, hain zuzen ere; idazkunak irakurtzera lortzen da, ez ordea ulertzera. Iberismo delako teoria hutsal bihurtzen da. Kaukasiar hizkuntzekiko ahaidetasuna toki hartzen hasten da orduan. Aita Fitak formulatu zuen teoria hura eta ondoren Uhlenbech holandarrak, Bumezil-ek, Bouda-k eta Lafon-ek. Teori honi buruz gauza bat bakarra esan daiteke: badirela antzekotasun batzu gramatika estruktura aldetik euskara eta kaukasiar hizkuntzen artean. Alabaina, estruktura mailako antzekotasunak ez dira aski inoiz ere, elkar kidesun konkretoagoak behar dira, eta orain artean azaldu izan diren kidesun konkretoak urriak dira. Alderaketa hau egiterakoan abantailaz ihardun ohi da. Kaukasiar hizkuntzak hogeita bosten bat, honelatsu, dira, bat edo beste gehiago, guztiz bereziak elkarrengandik; horren handi da bereizkuntza hau, non oraindik guztiz urrun bait gaude kaukasiar hizkuntza denek elkarrekin ze ikusirik badutela frogatetik. Lan horretan dihardute sobietarrek, eta arras ongi. Halaz guztiz, desberdintasuna handia da. Hegoaldeko hizkuntzak, batetik, dialekto edo hizkuntzatzat jotzen ditugun ala ez, hiru edo lau izango dira, denetan inportanteena, aintzinakoena denez, V. mendean gero ezaguna, georgiera delarik; hegoaldeko hizkuntza hauek, kartbeliarrak, nahi bada, elkarrekin badute ahaidetasunik. Ifarreko hizkuntzei gagozkielarik, halaz guztiz, Ifarmendebaldean hizkuntza talde bat bada, zentroaldeko beste bat, eta azken bat Daghestan-ekialdean, arraz iluna. Horik horrela, Ifarreko kaukasiar hizkuntzek elkarrekin zeikusirik badutela eustea, diskutigarri dateke. Sobietar Batasunean elkarrekin ahaidetasunik duten hizkuntza denak ikertzen ari zaizkigu; talde bakoitzeko hizkuntzen arteko loturen eraikuntzan dihardute, talde arteko alderaketak egitera pasa aurretik. Kaukasiar hizkuntzen arazoa garbi gera dadin arte, gu zai egon behar, horra.*

Zati hau amaitzeko esan dezaun, arrazak eta hizkuntzak, elkarrengandik berjabe izan, nahiz lehen aldiez geroztik elkaturik egon, argibide orori jazar egin dion bi misterio direla, bizkaitar deritzan golkoko itsasoari begira begira jarraitzen duen Pirineo-tako bazter hontan kokaturik heriotzarekin borroka larrian.

Euskal kulturari gagozkiolarik honela dio Caro Baroja-k *Los vascos* liburuan:<sup>9</sup> "probisionalki seinalatuko dut, hizkuntza arazoa alde batera utzirik, euskal kulturak, oro har, bai sinkronia aldetik bai diakronia aldetik begiratu, espainiar mesetako eta mediterranean eskualdeetako kulturekin baino antza gehiago du Alemania-ko hegoaldeko eskualde menditsuetakoarekin; haiek, izan ere, Europako ifarraldeko lautadetatik baino hurbilago baitaude mendebaldeko Atlantiko aldeko lurraldetatik.

<sup>9</sup> Minotauro Argitaletxea, Madrid, 1958.

Labur labur eman ditugun berri guzti hauek osatzen dute euskaldunen nortasun kulturala kondairaren egunsentira bitartean; orain, aldiz, euskaldunak nortasun zehatz baten jabe kondairan sartzen ikus ahal izateko, Kristau Haroaren hastapenetaraino haiei buruz dakigunaren berri emango dugu.

## Kristautasuna sartu aurretik

Egokiro dio Caro Baroja-k<sup>1</sup> "arazo neketsua izan zaio kondaira euskaldunari"; izan ere "parte hartu izan duen gertakizun guztietan antzeslari mutu izan bait da".

Euskaldunok ez dugu jakin, jakin nahi ez edo ahal izan ez, egin duguna dela nahiz egin digutena edesten, eta horrenbestez, horrek dakarren arriskuan erori izan gara, hots, gure edeskizuna besteren eskuetan –eta buruetan– arerio izan direnetan, eta sarritan etsaienetan, utzi izan dugu. Ondorioak agerian daude. Horregatik ohartzen naiz orain, sintesi hau idaztera noan hontan, euskaldunon kondaira era askotara interpretatua izan dela. Ezertaz ez badago zalantzarik, XX. mendera iritxi garen euskaldunok, barne aniztasun handienak izanik ere, odolezko, kulturazko eta borondatezko loturarik sendoenek baturik gauzkala da.

Iturriak eta xehetasunak aukeratzeak arrisku larriak ekarri ohi ditu beti. Are gehiago nere sintesi labur hau egiterakoan ezinezko bait da euskaldunei buruz idatzi izan ezinezko bait da euskaldunei buruz idatzi izan diren ehundaka liburuek diotena berrehun horritako bilduma baten biltzea, garrantzizko gauza asko bazter utzi gabe. Jabeturik nago iturrien aukera egiteak dakarren ezinbestezko arriskuaz eta horregatik ahalegindu naiz kolortasun bateko nahiz besteko kutsurik dutenetik ahalik eta gehien aldentzen. Esan dezadan ere, autoreak aukeratzekoan XIX. mendeko erdi alde inguruko euskal geografiarekin, estadistikarekin eta informazioarekin zer ikusirik duen orori gagozkiolarik, lehen karlistadako unerik garrantzizkoena barne, Pascual Madoz-en eskutik joatea erabaki dut. Pascual Madoz-engan ipini ba dut konfidantza guztia– Jose Artetxe-ren aholku egoki eta eskuzabalari jarraikiz– zeragatik izan da, nahiz eta politika aldetik liberala izan<sup>2</sup> gure kondairako alderdi eztabaidatuenak zehaztasunez eta berdintasunez aztertu bait ditu: *foruak, zentralismoa, Eliza*. –Historia eta etnologia sailean– Julio Caro Baroja-ren informazio eta eritzpideetara jo dut sarritan. Gizon honek ez du beharrezko nik goraipa dezadan ez eta ere bere eritzpideen jatortasuna gora dezadan, zientifiko den aldetik –eritzpide bat zientifiko izan litekeen ehinean,– euskaldunei buruz idatzi dituen liburuetan ageri den bezala. Industria eta merkatalgoa aztertzeko Alfontso Churrua-rangana jo dut; Ignacio Perez Arregi-rangana, aldiz, foru arazoa ikutzerakoan; Jose Orueta-rangana, ekonomi alorrean, eta historia sailean, aldiz, Manuel Iribarren, Arturo Campion, Jean de Jaurgain, Albornoz, Balparda, Ildefonso Gurruchaga, Fausto Arozena, Diaz Plaja, Federiko Zabala izan ditut iturri, hala nola beste zenbait ere, alderdikeri kutsurik luketen iturriak bazter uzten saiatu naizelarik.

Euskaldunei buruz ditugun lehen albisteak aintzinako geografilariek, Pliniok eta Plotomeok, nagusiki, aitatzen dituzten izenetatik zehar iritxi zaizkigu; Antonino-ren *Bidez-Bide* (Itinerario)<sup>3</sup> liburuan ematen diren izenen arabera euskaldunen lurra, vascon

<sup>1</sup> *El País Vasco*, Destino Argitaletxea, Barcelona, 1953.

<sup>2</sup> Diputadua, 1936; Hazienda-ko Ministro eta Barcelona-ko gobernadore, eta 1955ean berriro ministro; 1845ean hasi eta 1850ean amaitu zuen bere *Diccionario Geográfico Histórico de España y sus posesiones de Ultramar* bikaina, Madrid-en argitaratua hamasei liburukitan.

<sup>3</sup> Antonino enperadoreak agindutako bildumaketa; Inperio-ko erromatar harmadarentzat egindako bide guztien zerrenda –Estaduaren mende zeudenak, ez lokalak– dator bertan.

direlakoena nahi bada, Ifarreruntz, Akitaniaraino ez ezen, hegoruntz ere Ebro hibairaino zabaltzen zen. Euskal-pirineotako bizkarhezurra, Iruñea<sup>4</sup> eta Lapurdi zirelarik muin eta bihotz, ez zen erromatartua izan; honela bada, Euskal Herriak inbasio erasoketaren aztarnak doi doi nabari ziren kondairan sartu zenean. Bizkaiak, erromatar aztarna arkeologiko guti duela dio Caro Baroja-k,<sup>5</sup> Gipuzkoa eta Nafarroa-ko ifarraldeak gutiago oraindik, Baionak bakarrik izan zuen, IV. mendearen hasieran, inportantzi militarra zertxobait. Eta erromatarren mende zegoen zatian bertan, *pax romana* zibilizatuari esker, euskal kulturak eta ohitura nazionalak bizirik iraun zuten, eta are sendoagotu egin zen hizkuntza eraskin berriekin. Erromatar zibilizazioa godotarren aldean guztiz bestelako da, eta horregatik erantzun zuten euskaldunek horren era desberdinez etsaia bat izan ala beste.

Aurrerago aztertuko dugun gauza da. Oraingoz, erromatarrak heldu zireneko lurra Vasconia zela esango dugu; izen hori ematen diote Kristo aurreko Igo mendeko idazle latinoek, eta muga hauk ezartzen dizkiote: Ifarraldetik, akitaniarrena; Ekialdetik ilegertena –Espainia Tarraconense-ko biztanleen izena–; hegoaldeetik, zeltiberoena, eta Mendebaldetik, bardulotarrena.

Inperioko geografoen ondotik etorri izan diren espainiar idazleek erromatarrek esan zutenaren orpotik ibili besterik ez zuten egin. Dirudenez, euskaldunak omen penintsulako lehen biztanleak, eta hauk ez ziren inolaz ere iberiarrak. B. Bosch Gimperak hau djo<sup>6</sup> "ezinezko da, hipotesi tradizionalak nahi zukeen bezala, euskaldunak aintzinako iberotarren ondorengo batzu izatea". 1923an idatziak izan ziren hitzok ondoren egin izan diren aurkipean arkeologikoek baieztapenetu dituzte.

Deiturari gagozkiolarik, *vasco* erdal hitzaren interpretazio anitz eman da. Sabino Aranak<sup>7</sup> eta Migel Unamunok<sup>8</sup> Humboldt-en tesia, *eusko* eta *vasco* hitzen artean bazela ahaidetasunik, alegia, aintzakotzat hartzen zuten. Izen geografikoa ez baina etnikoa esan nahi zuela dirudi. Mitxelenak<sup>9</sup> geroago, batetik *eusker*a hitzaren eta *vascos-en*, lateraz vascones, bestetik, arteko ahaidetasunari buruz ematen duen azalpena axalekoa besterik ez dela dio (-sk batean eta bestean agertzea) eta gainerako egokiera edo korrespondentzia ere justifikatu behar litzatekela dio, eta jokabide zuhurrena Antonio Tovar-en teoria onartzea litzatekeela. Sorburu edo jatorri bereziak dituztela izen horiek dio Tovar-ek: "bata, euskalduna, vasco, geurori ematen geniona, eta indoeuropearra, bestea, gure hauzok ezarri zigutena".

Dena den, Kristau Haroa baino askoz lehenagotik datorkigu izen hori, Pirineo mendi artetik barna iberotarren sarraldia gertatu zen garaitik, hain zuzen.

Heldu zenean, euskaldunak giza andana sartzen utzi egin zuen, lur hobeetara barreatu (Ifarmendebalderantz, hegoalderantz eta penintsulako zentroalderantz, batez ere), eta Ebro hibarraren jabe egin ziren berriro, jaiotzen deneko tokitik Segre-n galtzen den punturaino. Beste sarraldi bat ere eman zen, Zeltena oraingoan, Kristo aurretik seiren bat mende lehenago, eta sarraldi hontan bai, izan ziren garrantzizko harremanak

<sup>4</sup> Aintzina-ko iritik datorren hitza; haren gainean eraiki zuen Pompeiok Pamplona.

<sup>5</sup> Los vascos.

<sup>6</sup> Euskal ikaskuntzen Aldizkaria; 14 ale.: "Euskal etnologi arazoa".

<sup>7</sup> "Basco edo Vasco", *Revista de Vizcaya*, 1886.

<sup>8</sup> "Vasco o Basco", argitalpen bera eta urte berekoa.

<sup>9</sup> *Guipuzcoa*, Gipuzkoa-ko Aurrezki Kutxa probintziala, Donostia 1969.

euskaldunekin edo baskonekin, nahiz eta haien artean binkulaziorik ez bazen izan ere, penintsulako beste eskualdetan gertatu zen bezala, zeltiberotar nazioa sortzen zelarik.

Geroago, vascones direlakoak kartagotarrek erromatarrekin izan zituzten borroketatik aparte geratu ziren, arrotzen arteko gudutzat bait zeduzkaten.

Sertorioren guduarekin<sup>10</sup> gauzak aldatzen hasi ziren. Gauza bat dago garbi, Baskonia-ko eskualde meridionala Sertoriori atxiki izan zitzaiola, erromatar gudalburuari, euskaldunei buruz erakutsi zuen begiruneagatik. Ponpeyo-ri gagozkiolarik,<sup>11</sup> hiri bat eraiki zuela esana da, Pampaelo, izenekoa, Pamplona, alegia, ararteraino Iruñe populazioa finkaturik zegoenaren gainean, eta une hartaz gero, euskaldunen eta erromatarren artean, bolada batez behintzat, adixkidego harremanak izan zituen.

---

<sup>10</sup> Sertori K. a. 121ean jaio zen eta K. a. 72.ean hil.

<sup>11</sup> 106-480, K. a.



## Gure haroko lehen mila urteak

Kristau haroko milagarren urteak ez du izan, noski, Euskalerrriaren kondairan goren-goreneko garrantzirik; alabaina, Caro Barojak dionez, X. mendea "gaurko euskal hizkuntza hedatua den area kristau egin zeneko" hastapenak seinalatzerakoan garairik edo unerik seguruen bezala jo dezakegu. Halaber, Iruñeago erresumaren garaialdia III Santxo Handia-ren erresumarekin gerta ohi da (1000-1035), milagarren urtean, hain zuzen, jantzi bait zuen errege koroea.

Ez da hori bakarrik, baizik eta, sintesi honi era askotara egunkari tankera eman nahi zaiola kontuan izanik, kondairarekin ohizko moldeen arabera egin ohi den banaketa alde batera utzi nahi nuke askatasun horren berri ematekotan. Ez dakit argibide hori egitea beharrezko zen ala ez, baina egin dago.

Euskalerrriaren desarroilo kulturalak hamaika ziklo edo aldi dituela uste du Caro Baroja-k: Paleolitos garaiko franko-kantauriarra deitzen duenetik kontemporaneora, XIX. eta XX. mendeak hartzen dituen era, luzatzen dena. Azalpen honen arabera, ongi oinarritua dirudi, lehen lau zikloen ezagupena, arkeologia, etnografia eta linguistika bidez iritxi da gugana, eta gure iraganaren zati hau kondaira aurreko gizonari eskaini diogun kapituluaz aztertua izan da. Bostgarren zikloa, hau da, *kantauri-akitaniarra* I. mendeko lehenengo urteetan hasten da.

Kristau Haroaren lehen mendeaz gero, badira, asko ez bada ere, euskaldunei buruz berririk ematen diguten testoren batzu.

Pio Barojak<sup>1</sup> honela dio: "munduan ezagutzen diren lehen euskal hitzak Armeric Picaud frantzes errumesak aitatzten dituenak dira, XIII. mendean Santiago de Compostelara etorri zen euskal lurraldeko zona kristautaturik barna igaro zuenean". Isaak Lopez Mendizabal-ek dionez,<sup>2</sup> 1173 urtearen inguruan iragan zen hemendik.

Eta ohar hau Justo Garatek baiestatzen digu.<sup>3</sup> Bada, halaz ere, idatziriko lekukotasun zaharrago bat, X. mendeko Emilianoren Bilduna (Codez Emilianensis)<sup>4</sup> delakoan jasoa dena: "güec ajutu ezdugu" (42. glosa), "izioqui dugu" (31. glosa). Mitxelenak aipaturiko idazlanean erromatar garaiko akitaniar idazkuntan ageri diren leku izenak aitatzten ditu (*Andere*, *Nescato*, *Cison* eta *Sembe-tik* etorritako beste zenbait)<sup>5</sup> eta izen lagun eta atzizkiak; hau erasten du, gainera; "hauxe dugu ezin diskuti litekeen lehen froga, alegia aintzinako vaskones zirelakoan lurraldean zabalduz bazegoela euskal hizkuntzaren forma bat gure haroko lehen mendeetan".

Fausto Arocena ere idazkun epigrafiko hauetaz mintzo da. Gipuzkoar kondairalari honek dionaren arabera, aurkitu diren idazkunek urte hori baino askoz ere lehenago euskaldunak Pirineoz ifarraldera bazirela frogatzen digute; eta Tours-eko Gregoriok

---

<sup>1</sup> *El País Vasco*.

<sup>2</sup> *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País*, 1965.

<sup>3</sup> *Salto atrás a Picaud en 1131*, separata, 1959.

<sup>4</sup> Espainia-ko gainerako eskualdeetan lateraz idatzi ohi zen. Lehen *Gramática de la lengua castellana* Nebrija-k idatzi zuen XV. mendearan konderretan, eta hurrengoan, XVI.ean, ezagutu zuen hizkuntza honek zabalkundea.

<sup>5</sup> *Andere*: mujer; *Nescato*: muchacha; *Cison*: hombre y *Sembe*: hijo.

ematen duen interpretazioa bere neurritara mugatzen du –laister mintzatuko gara xehetasun gehiagoz– Ifarraldeko euskaldun haiek egunen batez penintsulatik igo ziren haiek ez beste batzu izatea" posible dela dioenean; honek ez du zentzurik, zeren idazkun euskal-akitaniarrak denborarik aspaldinekoak bait dira.

Ikus dezakegunez, euskal gizaki zaharra eta beronen kultura nortasun zehatz batekin sartzan zaizkigu Kristau Haroan.

Kristautasuna euskal mintzaira zabaldurik zegoen areatan sartzan den aldi aurkitzen dira, dagoeneko, Caro Barojak dionaren arabera "gizarte antolaketa batzu: familia, lur herentzi arazoetan emakumeak duelarik lehentasuna ehin batean; familia baino handiago diren erakunde sozialak, gero eta handiagozten doazen hiru unitate egitura dutenak; herribilgune ttikiak goiduretan, ifarraldean bilgune haziak eta hegoaldean hiri handiagoak; agure batzarrak, gudalburuak, bidelapurak eta leinu arteko justizia. Emakumeak soroan eta ganadu zaintzan lan egiten du. Artzantza eta itsaso lanak oso guti desarroilatuak daude oraindik. Zolu erretangular egiturako etxeak eraikitzen hasiak dira, bi ixuriko teilatuak, zutabe gainean mandioak eraikitzen dituzte, larruzko oinetakoak eta landare hariz egindako erropak, jazten, garagardoa edaten. Ilargiari eraspen diote. Erljio giroko ginasi eta gudu gisako dantzak itxurakutzen dituzte.

Gure egoera geografikoaren alderdi bat ondo argiturik utzi nahi genduke hemen. Euskal Herriak mendebaldeko Pirineo-tako sakan bat okupatzen duenez, Penintsula-ko eraso aldientzat iragan bide izan da; eta halaz guztiz, nahiz eta herri arrotzekin harremanak izan eta erromatarren mende egon zatirik handiena, Euskal Herriak bizirik iraun du bere ezaugarri etniko eta linguistikoekin. Logika bidetik ezin eutsi liteke, diote *Euskal Herriko Historia-ren*<sup>6</sup> egileek Euskal Herriaren berezitasun apartekoenak eta herri horren iraupena bakartasunari zor zaizkiola diotenaren eritzpide kaxkarra. Ikus bestela, Euskal Herria, Santander eta Asturiasko lurraldeak bezain bakandurik ez dago geografiari gagozkiolarik, esaterako, "eta halaz guztiz, hauetan ez da polarizatu euskaldunen artean bezain zehaztasunez bertakoen nortasunaren apartekotasuna".

Gure haroko III. eta V. mendean euskaldunak Ifarreko basagizonen erasoei buruz buru egin behar izan zieten, Pirineotako zintzurretatik barna Penintsulara iragan zirenean.

Garai hartan, Ptolomeorena dela uste den geografiaren arabera, lurralde hartan Calahorra ere sartzan zen, eta Ekialderuntz Tarazona gaindi luzatzen; Mallez Zeltiberotarrentzat uzten eta Jaka ere hartzen zuelarik.

Echegaray-k dionez<sup>7</sup> bardulotarren, karistiotarren eta autrigondarren arteko aintzinako mugaketen oroitzapena galdua zen (gure kondairaz idazten duten zenbaitzuk haietara jotzen dute, asmo okerre, propioki), eta euskaldunetaz eta vascones-etaz ez bazen ez omen zen jadanik mintzatzen, gure arbasoek suebotarren aurka borrokatzen eta godotarrei buruz buru egiten zietenean, hauen mende porrokatuak zirelarik egun Araba-ko hiriburu denetik hurbil. Badirudi Gasteiz Bisigotarren errege Leovigildoren garaitzpen hau ospatzekotan eraikia izan zela, 581ean, Ifarraldera, goraxeago, Gorbea

<sup>6</sup> Federico Zabala, Jose Antonio Ayestaran eta Juan Antonio Iglesias; Donostia-ko Industri Injineru Eskolako Ikasle Elkarteko *Euskara Kultura Taldea*-k multikopistaz argitaratua.

<sup>7</sup> Espasa, 67. alekia, "Vasconia".

mendiaren oinetan. Menderaketa honek ez zituen, haatik, hango biztanleak mendera ekarri haietariko anitz Pirineoz bestaldera aldatu bait ziren bolada batetarako. Tours-eko Gregoriotik 581. urtean<sup>8</sup> hau dio, Bladaste dukeak Chilperikoren aginduz gudura joan eta bere harmadako gizonik gehienak galdu omen zituen: *Bladasles dux in Vasconiam abiit maximan que partem exercitus sui amisit*. San Gregorio gomendatzen duelarik, Echegaray-k Schulten aitatzten du, diolarik: Puntu hontan lehen aldiz, Baskonia Gasquinaren pareko da, Pirineoz ifarrera dugun lekukorik aintzinakoena, 580. urtean oraindik guruzatu ez zutena". Halaz guztiz, Echegaray bera Campioni jarraikitzen zaio, diolarik "erabaki hau hartzearen arras kontrako agertzen da. Eritzi honi gehien jazartzen zaiona linguistika dugu. Vascones direlakoak oroitzapena iritx daiteken denboraz geroztik Frantzia-ko Euskal Herrian izan dira eta are beste lurraldeetan ere pirineotar katearen segidan. Hegoaldeko baskoin-en inbasoaldiek –aipaturiko pasartearen esan nahi zuzena hori delarik, ustez–, ifarraldekoen jende kopurua gehitu zutelarik, bide eman zieten azken hauei lehendik okupatzen zituzten lautadak konkistatzeko edo agian, birreskuratzeko.

Ondoren baskoin-ak Suintila,<sup>9</sup> Rezesvinto,<sup>10</sup> eta errege honen ondorengo izan zen Wamba-ren<sup>11</sup> indarren aurka borrokatzeko itzuli egin ziren.

Inork ere ez zituen mendera ahal izan betirako. Godotar errege Errodrigo, haien aurka borrokatzen zebilen oraindik 711. urtean, eta Tarik 7.000 berebertar harmagizonekin egun Gibraltar den puntuan lurrartu ondoren godotarren tropak garaitu zituen. Musulmandarren okupazioa hasi zen horrela, eta zorionez euskaldunentzat, hain zuzen ere, zeren godotarrak, etsai gogorrek errezki desegiten lagundu bait zituen honek. Echegaray-k dio, ez dela ezagutzen "nolako gizarte antolaketa zuten garaiko euskaldunek; autoreek ematen diguten lekukotasunari esker bakarrik dakigu inbasiolarien aurkako borrokan denek parte hartu zutela.

Honek nolabaiteko batasun modu bat ekarri behar zuen inondik ere politika aldetik".<sup>12</sup>

Madoz-ek dio, horrela "protestatzen zuen herri libre honek nagusi baten agintearen aurka; euskaldunek ... errepublika ttikiz eraturiko konfederakuntza bat osatzen zuten, jatorri eta hizkuntza bat bedera zelarik lotura bakarra".

### **Anitztasuna batasunean**

Nazio den aldetik jatorri eta hizkuntzaren batasunak eta politika erakundean anitztasunak garai hartan hasiak ziren beren lehen frutuak ematen.

*Gipuzkoa*, egun duen izenaz edo antzekoz ezaguna izaten hasia zen. Garibay-k, batetik eta Moret-ek, bestetik, Gipuzkoa 921. urterako eratxikia zitzaiola Nafarroa-ri uste dute. III. Santxo Handiaren garaian, San Salvador de Olazabal delakoaren

<sup>8</sup> Jean de Jaurgain, *La Vasconia*, Pau, 1898.

<sup>9</sup> Bisigotarren errege, 631az geroztik.

<sup>10</sup> 672an hil zen.

<sup>11</sup> 672-680.

<sup>12</sup> Espasa, "Vasconia".

eskrituratan, 1205ean, Ipuskoa izena dator, eta Nafarroa-ko erregeak, Santxo IV.ak, Peñalen-goak,<sup>13</sup> 1066an Leyre-ko monastegiari egindako eskaintza batetan hori bera ikusten da.

*Labort*-eko eskualdea eta Nafarroa-ko zati bat ere, gero *Benabarre* izenez ezagutuko zena aitatzen dira, penintsula aldeko zatia frankotarren mendetik askatzea lortzea lortu izan zuenean, hala nola Sola hibirra ere, eta Sola hibirra frankotarren mendetik askatzea lortu izan zuenean, eta esana den bezala, bisigotarren aurkako kontraerasoa toki hontatik hasi zutela dionean. VII. mendearen hasieran, badugu Akitania eta Baskonia-ko dukearen berririk; Pirineoz haindiko Nafarroako zati honen gain aginterik bazuen, eta mintzatuko gara hartaz, Baskoniako Dukerriari buruz ihardungo garenean.

*Araba* aitatzen duten eskriturretan zaharrenetarikoak Sebastian apezpikuarenak dira, eta albeldartar kronikoia, Vigila, X. mendean bizi zen Albeldako monjearena, 883-tik 976. urterainoko epea betetzen duena, eta X. mendiaz geroko eskrituratan eta eskaintza agirietan ere sarritan ageri da ere. Alava Arab hitzatik eratorri nahi izan dute batzuk, erarik xinpleenez eta zabarrenez, Fuenterrabia Fuentes de Arabia-tik, eta ez *Ondaribi*-tik eratorri nahi izan duten bezalaxe: harea-hibaia, alegia, euskaraz;<sup>14</sup> Garibay-k Alava Uraba-tik datorrela dio, bere mendietako baten izenetik. Madoz-ek, Ohienart, Florez, Risco eta Cortes-en eritzia jarraituz, Alba hiritik datorrela dio, Pliniok (61-113) barduloak zuzenbide eske Kluniar monastegira etorri ohi zirela dionean aitatzen duenetik; alabaina, ohar hau egiten du, izen hori, Gipuzkoari ematen ziotena izan zitekeela, eta erasten du "*Alava* izena *Arava*-ren sasi izena, euskal izen geografikoa dela". Nafarroako erregeek, Gartzia Ramirez-ek, Santxo Jakintsuak, eta Azkarrak, "Araba-ko errege izena, -dio Madoz-ek- bereganatu zuten". Geroago, Araba nafartar erregeen mende egon zen bolada batez, Arriagako Elkarteak Arabako jaun aukeratu zituen (militar buruzagiak); ondoren, eta era berean Gaztela-koak ere aukeratu zituzten.

*Bizkaia* izena Salamanca-ko kroniketan ageri zaigu, eta arabiar menderakuntzatik bazter geratu zen lurralde bezala aipatua da, hain zuzen ere. Geroago Nafarroa-ko Santxo Handia ageria da (1000-1035) Iñigo Lopez izeneko batekin batera, kondailari askorentzat, Bizkaiko seigarren jauna; Iñigo Lopez honek 1033. urteaz geroz agiri-edo aktak baiestatzen zituen Oña-ko dokumenduetan Conde Bizkaiensi izenpenaz, eta ez beste titolorik, ez jaun, ez beste inolakorik agertzen ez delarik; 48 urte geroago, 1081. urtean, don Lope hori agiriak izenpetzen ageri zaigu Bizkaiko Konde izenez, eta geroago Diego Lopez de Haro gobernuzarako legeri bat arautzen.

*Nafarroari* gagozkioarik, arabiar autoreak haintzakotzat hartzen baditugu, Iruñe (Pamplona) lurralde haren partaide egin zen 718. urtean, guti gora behera, egindako itun baten bidez.

Pirineotar dinastiak, dio Manuel Iribarren-ek,<sup>15</sup> 400 urte iraun zuen, 824tik 1234ra, eta 17 errege eman zizkion lurraldeari; Iñigo bat, sei Gartzia, Fortuño bat, zazpi Santxo, Pedro bat eta Alfonso bat.<sup>16</sup> Hona zer edesten digun Echeagaray-k; 816an ifarraldeko

<sup>13</sup> Nafarroa-ko aintzinako herria, Gunes, Marcilla eta Villafranca artean.

<sup>14</sup> *Fontarabie*, Xabier de Cardillac, Preface de Pierre Loti, 1896.

<sup>15</sup> *Navarra*, Nacional Argitaletxea, Madrid, 1956.

<sup>16</sup> *Etimologías de apellidos vascos*, I. López Mendizábal, Librería del Colegio Argitaletxea, Buenos Aires, 1958: Euskal abizenetarik aintzinakoenetakoa, zihurrenik, Garsia edo Gartzia izango da, Menendez Pidal-ek dionez; izen hori 789-791an aitatu zen. Santxo eta Gartzia erregeak egin zituzten ezagun izen

euskaldunen buruzagi printze bat zen, Ohienart-ek dionaren arabera. Gartzia Iñiguez izenekoaren bat, eta Arturo Campion-en ustetan, Jimeno dukearen anaia, behar bada. Duke beronen seme izan behar zuen Iñigok, Arista deitua, *Aritza*-ren sasi izena, eta Gartzia Jimenez, Nafarroako lehen erregek. Bi hauek 824. urtean Pirineoz honutzaldeko euskaldunak Ludovico Pio-ren aurka jazartu zituzten. Horrela gertatzen da *Nafarroa-ko lehen agiazko errege Iñigo Iñiguez Aritza* izatea, 824. urtean proklamaturia, euskaldunek Karlomagno-ren harmada bigarren aldiz Orreaga-n porrokatu zuten urtean. Batzuentzat, Iribarren-entzat, adibidez, Iñigo Jimenez Aritza dugu hori; beste batzuentzat, aldiz, Sanchez Albornoz, Perez de Urbel eta Arbeloa, esate baterako, *Iñiguez Aritza Iñigo Iñiguez Aritza* da, eta Balparda-k<sup>17</sup> Iñigo Arista deitzen du. Kristau eginiko Iñigo Benicasi Muza Ben Fortun baten alarguntsaren seme genuen hori, erlijio sentipenik gabeko gizona, garaiko ohituren arabera; 553. arte iraun zuen. Bere seme Gartzia Iñiguez jarraitu zitzaion erregetzan; nonbratuen (izendatuen) eskuetan preso erori zelarik, bere anaia Gartzia Jimenez-en eskuetara etorri zen oinordekotasuna, eta dinastiako hirugarren errege honen ondotik Gartzia Iñiguez igo zen errege alkira (860-882); honen ondotik Fortuño monjea (882-905), errege dohakabea, erregetzari uko egin eta Moje sartu zena. Santxo Gartzes (905-926), ondoren, Gartzia Jimenez-en seme, pirineotar erresumaren zimentarriak sendotu zituen; honek eman zien lehen Foru partikularra erronkaritarrei (922), nahiz eta aldi batez apokrifotzat hartua izan. Infanzongo pribilejio honen berri, dio Iribarren-ek, orijinalen kopia okerren bitartez iritxi zaigu inondik ere, zeren huts eta akats asko ditu bere baitan; esate baterako, Abderraman kalifaren heriotza aitatzen du, eta ez zen egia.

Seigarren Gartzia Santxez (926-970), Toda anderearen semeak-zeinaren eraginez, Aragoi konterriko oinordeko Andregote Galindez-ekin ezkondu zena, konterria bere Koroaren mendera ekartzen zuelarik-, bakean bizi izan zen eta bere erregetzaldiak iraun zuen 44 urteetan ondare zituen erresumak antolatzeari ekin zion; Toda amarekin batera, Gartzia Santxez-ek Simancas-ko garaitzapenean parte hartu zuen.

Ondoren, Santxo Abarka-k (970-994) ezkontza elkargoak egin zituen arreta handiena jartzen zuelarik horretan. Alabetariko bat Almanzor buruzagiarekin ezkontaraztea lortu zuen, gazteñoa kristau sinismenari uko egitera behartua izan zelarik. Gartzia Santxez Dardartia etorri zen ondoren (994-999). Kristau Haro hontako lehen milaurreneko azkenekoa dugu.

836. urtean frankotar inperiotik askatzea lortu zuen Pirineoz ifarraldeko euskal lurraldea Dukerri berjabe eraiki zen berriro. Dukerri hori bera, gerora, Iruñako erresuma barrutian egon zen Santxo Handiaren heriotza arteraino; honek Behe Nafarroa Dukerrietik ebaki ondoren erresumari elkartzea lortu zuen.

Geografiak eta kondairak –euskal mintzairaren aniztasun dialektalak baieztatzen du– ematen digu gerora ere nabariago egingo den euskaldungoaren aniztasun adierazpen politiko honen arrazoia.

---

hauk". Artz-hitzetik dator Gartzia, eta hartza esan nahi du batzuren ustez. "Geure aldetik Santxo izena lateratik ez baina, Antxo, anso, Anzo-tik: ziaurre; hartara, hasierako s letra aldakorra litzateke".

<sup>17</sup> *Historia crítica de Vizcaya y sus fueros*, Madrid, 1924.

### Kristautasunaren etorrera

Barandiaran-en eritzia dugu,<sup>18</sup> alegia, euskaldunak etengabe izan dituela hauzoko herriekin harreman kulturalak. Euskal mito bakantzaile edo aislatzaile batzuekin buruz buru aurkitzen da hori, baina berarizko gauza da aintzinako euskaldunen erlijioak beste herrietakoekin harremanak izatea.

Echegaray-k, jainko asko agurtzen zituztela dio, hildakoak, astroak, naturalezako indaritsuak, eta Amadeo de los Rios-i jarraitzen zaio dionean ez ziola Euskal herriak X. mendera arte bere adimena kristianismoari ireki, eta mende hartan zehar bakarrik eraiki ahal izan zuela San Leonek Baiona-ko apezpiku aulkia, martiria hantxe jasatzen zuelarik. Caro Barojaren ustetan, Eliza hasia genuen garai hartan, zegoeneko, bere eragin bortitza zabaltzen. Erromaterren garaian baziren kristau elkarteak Araba eta Nafarroako hegoaldean; ondoren, aintzinako *fund*i direlakoei atxikiak ziren fundazioetatik barreatu zen, eta horrek azalduko digu zergatik herriek, gehienbatean kontserbadore izanik jartzen zituzten elizak monastegiren baten babespean.

Egun, *Euskalzaindi-ko* bazkide den idazle Charriton apez jaunak, 1946an,<sup>19</sup> arreta handiz kontzilio batzuen berri ematen digu eta Kalahorra, Iruñea eta Baionako apezpiku alki en lehen titularrak izan bide zitezkeen apezpikuen izenak aitatzen dizkigu; bere eritziz, Errioxako anakoreta jakintsuarekin, San Emilianorekin (K. O. 573) agertzen omen fraide bizitzaren lehen aztarnak gure herrian; haren ermita San Milla-go Abatetxe *mullius* entzutetsua izatera helduko zen, hain zuzen. San Eulogioaren lekukotasuna aitatzen digu ondoren. (Kristo ondoren 859.a) honekin "sartzen da egiazki kristau bizikera Euskal herriaren bihotzean". Egia zera da, aintzinate hartako berriak ttanttoka baizik ez zaizkigu iritxi eta kristau lekukotasunetarik aintzinakoena X. mendekoa dugu, guti-gora behera.

Bada aztarnarik ere elizgizon buruek begitarte atsegina erakutsi izan zietela hasiera hasieratik erregeei, erlijiozko arrazoiengatik. Erregetzari egozten zitzaion jatorria zela Jainkoagandik sortua, eta Konterriari baino begirune handiago zitzaion; ahulagoa zen. Dena den, kontuan izan behar da kristautasuna menderatzaileen erlijioa zela, hauk erromatar izan, godotar nahiz frankotar; Nafarroak bere erregea izan zuenean, kristianismoa euskaldunen erlijio ofiziala, esan dezagun, izan zen, eta arartean kristau ez zena –nekazari jendea batez ere, zeren bihurtzapenak herrietatik hasi bait ziren barreartzen– sinismena besarkatzera behartzen zuen.

Kristianismoaren etorrera gure herrian nolatan gertatu zan galdatu diot Jose Migel Barandiarani,<sup>20</sup> eta honela erantzun dit:

– *Kristianismoa Europan sartu zenean, ez zen hauts eta ondartetik zikin gaberik iritxi, bide ez ezagun batetik etorria balitz bezala. Kristoren funtsesko mezu hau gizakien eta herrien bitartez zabaldu zen, eta honek zera esan nahi du, gizonaren bide berbera egin zuela, hau da, ez funtsezko gauzatan herriek eta gizonek askoz ere lehenagotik ibili izan zituzten bide eta bidezigorretara egokituz. Beraz, horrela bada zer dela eta zalantzan jarri*

<sup>18</sup> *Extrait de compte rendu analytique de la IIIeme session de la Semaine d'Ethnologie Religieuse, Enghien, 1923.*

<sup>19</sup> *Petite histoire religieuse du Pays Basque*, Bayona, 1946.

<sup>20</sup> *Hablado con los vascos*, lehenago ere aitatua.

*herrialde honta sartu zenean euskaldunak unibertsoari eta gizakiari buruz zuen pentsamoldea kontuan hartuz egin zuela?. Sinbolu gisa hartuz joan ziren paganismoko elementuetan ikusten dugu hori, nahiz eta gerora, pixkana pixkana, elemento xume hauek zentzu berezi bat hartu bazuten ere. Sua, adibidez. Etxeko sua, sukaldekoa, garrantzizko elemento dugu euskaldunaren erlijioa azaltzeko. Orain, bada, eman al diote euskaldunek garrantzirik suaren agurtzapenari?, Hala izan bada, sua izango da erlijio berriaren sinboluetariko bat. Horixe da elizetan suaren bedeinkapenari ematen zitzaion sentidua, eta horregatik bedeinkatzen zen sua urtero, eta urtero berritzen, eta etxera eramaten; paganoen sua, hartara, kristau bihurtzapenarako tresna bezala erabiltzen zuten. Horrexegatik bedeinkatzen dira suketak San Juan egunez, uda hasierarekin batera datorrelako. Egia, beraz, paganoen ohituraz baliatu izan dela, jainkoenganako, gure gainetik dagoen izakienganako eraspina adierazteko. Ez zen, beraz kristautasuna bide huts batetatik, ez eta ere hutsune batetan sartu, baizik eta gizakiaren arimara sartzeko beti zaila den bidea urratu behar izan zuen eta hari egokitu zitzaion, iritxi zen puntuan berean. Euskalerriarekin topo egin zuen kristautasunak, traba handirik arkitu zuenik ez nuke esango, ez bait dugu martiri anitz izan denaren berririk, baina bai bizitzari buruzko ideia guztiz berezi batzu. Eta kristautasuna iritxi zenean euskaldunak zituzten konzepzio berezi horik ez ziren denak, batzuren batzu sinesteko prest dauden bezala, autoktonoak eta funtsezkoak: hemengo animismoak eta politeismoak ezaugarri indogermaniar nabari nabariak zituen. Noski, kristau erligioak ezin onar zezakeen funtsez, behintzat, siniskeri hau, baina pixkana pixkana sartzeko joera erakutsi zuen, bertako ohituretara egokituz; era horren frogarik badugu, ezen, euskal portaera pagano anitzek iraun dutela gure artean funtsezko kristau kutsuarekin batera.*

IX. mendean ez dago oraindik euskal lurretan jendetza handiko bilgunerik, ez hiririk, Iruñe (Pamplona) ezik eta Velegia (Arabako Iruñea), bi *Iruñak*, bere-berezko euskal hiriak. Herrixkak (villas) biltzen hasten dira, eta jaurerri erakunde berria jaiotzen; aspaldi hartan sortzen da euskaldunentzat gora behera handikona izan den erakunde edo instituzio bat: Baskonia-ko Dukerria.

### **Baskonia-ko dukerria**

Ikusi dugunez, Pirineo-tako bi ixuraldeetako lurak okupatzen jarraitu zuten euskaldunek.

Kontuan hartu beharreko gauza da garai hartako aitzindaritzaren politikoa nor bere nahiaren arabera zebilela, ehin batean, eta neurri handiagoan indartsuago ziren etsaien erasoan aurrean bizirik iraun beharrik agintzen zuen arabera, hauek ezartzen bait zuten legea –ez zen besterik– menderaketa zelarik eskubide bakarra. Horregatik, ezkontza bidezko elkargoak egitera eta gainerako itunak onartzera behartzen zituen egoera horrek herri ttikiak.

Milakada hartako bigarren erdi aldera euskal elkarteak gero eta antolaketa eratuagoak saiatzen hasiak ziren, defentsa borrokek hartara behartzen zituzten neurrian,

eta honek ordezkotasun politiko zabalagoak konde edo jaunei leporatzea eskatzen zieten (buruzagi militarrek eta zibilak ziren hauk), inguratzen zituen europear eraginek egintzen zutenaren arabera, jakina. Hartara euskalduna, hedadura eta biztanletza aldetik herri ttiki bat zelako, alternatiba politiko larrien mende egon zen beti. Bere kondaira guztia, gure egunetaraino, "ahal dena" lortzekotan behar beharrezko izan ohi den mirabetza honek markatua izan da, bortxakeriak hala agindurik; gizonak eta herriek elkar errespetatuko dutela noizpait itxaropentsu –horren aintzinakoa kondairan!–, eta bortxaren orde, zuzentasunak eta arrazoiak ematen duten eskubidearen harmaz baliatzen hasiko direnean orduan aldarrikatuko du euskaldunak baliotasun osoz gizon guztiekiko elkartasun edo solidaritatea.

Herriak, egoera ekonomikoen eta ahaltsuenen komenientzi politikoen jostailu ziren denborak izan, ordea, aldi haiek. Esana dugu *pax romana* delakoari esker euskaldunek, Kristau Haroaz geroz, beren kulturaren arnasa eta beren hizkuntza gorde ahal izan zutela. Gero, frankotarrek Pirineotako ifarreko ixuraldea eta bisigotarrek hegoaldea okupatu zutenean, euskaldunak atsedetik hartu gabe borrokatu ziren beren independentziaren alde Erdi Haroko lehen mendeetan zehar.<sup>21</sup>

Baskonia-ko Dukerria garai honen hasieran jaio zen, VII. mendearen egunsentian. Pirineotako bi ixuraldeetako euskal lurraldeek osatzen zuten. Fredegariok, VII. mendeko Frantziar kronikariak dionez, Baskonia-ko lehen dukea, frankotarrek euskaldunei 602an ezarria, Genial genuen. Ondoren Aighinane, Genial-en ondorengoaren aurka jazar egiten agertzen zaizkigu euskaldunak, Frantziako errege Clotario, hura babesten zuenarekin guduak zuzendurik. 636. urtean, Zuberoako euskaldunak, dukea buru zelarik, Clotarioren seme eta Frantziako errege aljian beronen ondorengo zen Dagoberto II. arekin, lurraldea birrindua utzi zuenarekin pakea izenpetzera behartuak izan ziren.

Era horretara, dio Arturo Campion-ek, "sendotu zen frankotar erregeen feudatariorik zuten Dukerriaren legezko egoera".<sup>22</sup>

Baskonia-ko Dukerriak lurralde zabala hartzen zuen bere baitan "Itxura guztiak dira –dio Ildefonso Gurruchaga kondailariak–<sup>23</sup> Baskoniako Dukerri zaharra, VII. mendean eratua, Ebro ertzetik, Zaragozatik gorantz urei jarraituz gatzazkielarik, Garona-ren ertzetaraino zabaltzen zela". Gurruchagak, besteen eritzien itzala beharrez, H.V. Vallois, Paris-ko Gizonaren Museo-ko zuzendaria aitatzeko du; honek, Frantziako hegoekialdean burutu zuen, odol ikerkuntza batean zera aurkitu bait zuen neurri berdintsuz zabaldurik zegoela Pirineotako alde bateko zein besteko odol taldeen banaketa. Eta ohar hau egiten du, alegia, gaurko euskaldunen odolaren ezaugarriak kontuan harturik, eta *O* eta *A* odol taldeko indibiduen arabera txit gorena, *B* taldeko guztiz apala, eta *Rh* negatiboa guztiz altua izateagatik bereiz direlarik, konklusio hau atera daitekeela, euskal elemento deitu litekeenaren eragin edo antzekotasun serologikoa, Garona hibairaino gutienez hedatzen dela, bai Garona Garaia aldera Foix aurkitzen deneraino –Andorra-tik hurbil– bai

<sup>21</sup> Erdi Haroa 500tik 1453ra, hots turkotarrek Konstantinopla hartzen duten urtera arte zabaltzen da.

<sup>22</sup> *Navarra en su vida histórica*, 1929.

<sup>23</sup> *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, X. urtea, X liburua, 28. zenbakia, 1959ko uztaila-iraila, Buenos Aires: "Bi Vasconias-ei buruz aitamenik egiten du Al Hymyari-k, XIII. mendeko arabiar autoreak".



Bordeleko bokaleraino. Argitasun guzti hauk, bestalde, idazkun epigrafoen baliogarritasuna baieztatzen datoz.

Pirineotako alde bateko nahiz besteko euskaldunen aurkakoek iharduera berberak erabili izan dituzte. Esan dugunez, Frankotarrek Baskoniako Dukerria fundatu zuten, eta handik denbora gutira euskaldunak berjabe egin ziren, eta beren odoleko Duke bat izendatu. Bisigotarrek, bere aldetik, Kantabria-ko Dukerri bat kreatu zuten menderakuntza ondoren, baina beraien ardurapean zegoen dukea izendatzea. Ohargarri da obserbatzea nolatan puntu honetan bitaritzen den kondaira: Espainiako kondairan Baskonia-ko Dukerria ozta ozta aitutzen den bezala, Frantzikoan nekez arduratzen dira Kantabriako-az; eta halaz ere, bi eskualde hauetako semeek herri bat eta kultura bat bedera zuten, eta dute, eta are Baskonia-ko Dukerrian batasun politiko bat eratu zuten. Bada bai-funtsezko bereizkuntzarik jazarkundean: Pirinioz ifarraldeko euskaldunak dukerriaren instituzioaz baliatzen dira beronen eratzailen ziren frankotarren aurka borrokatzeko, eta uste gabe Baskonia-tik Gaskoinia-ra eta Akitania-ra aldatzen dira, eta Akitania-tik Frantzia-ra, Pirineoz hegoaldera finkaturik dauden Euskal semeek aitziti, godotarrei buruz gaurregun autonomi erakoa deitu genezakeen mendekotasun egoera hura onartu orde, zaputz egin zieten eta etsaitzat harturik borroka egin zieten, zeren Kantabria-ko dukea ez baitzen haien zuzendutako Toledo-ko Imperio-ko gobernari bat baizik; hori zela eta haren aurka borrokatu ziren. Taktika arazoa, besterik ez duzu hori.

Baskonia-ren desarroiloa bi eratako jasakizunetatik igaro izan da: berjabetasuna eta frankotarrekiko mendetasuna. Gurruchagak dionez,<sup>24</sup> Baskonia-ko Dukerria Erromatar Aginterria germaniar inbasioaldien eraso jasan ondoren haien mende suntsitua izan zenean sortu zen. "Mendebaldeko gainerontzeko herriak barbaroen inbasioari jazaritu ez zitzaizkien bezala, euskal herria, gaurkoa baino zabalagoa garai hartan, gogor borrokatu zen haien aurka, eta Dukerri berjabe eraiki. Entitate honek dinamismo biziki sendo bat erakutsi zuen eta inguruetako herrien miresmena irabazi, pirineotarren mendekotasuna nahiago bait zuten barbaroen uztarpea baino". Dukerriak hedapen zabala izan zuen "kondaira aurreko aldirik urrutinez geroztik euskaldunekin harremanak zituen Akitania-ko lurretan barna, nahiz eta zeltarren inbasioen eta, batez ere, erromatartuak izateak ekarri zuen eraginaz bakandurik geratu. Orain, aldiz, germaniarren aurkako sentipen batek, edota frankotarren eta bisigotarren mendetik ihes egiteko irrikak elkartu egin zituen".

Ifarreko frankotarren eta Hegoaldeko arabiarren aurka guduketan ziharduten unean, hain zuzen ere, sortzen da Iruña-ko Erresuma Estatu Berjabe, Iñigo Aritzaren agintaritzapean, eta batasun zentzu nabarmen batekin. Errege hau, izan ere –Nafarroari zegokion eskualdean esaten hasia den bezala– Iñigez familikoa genuen, frankotarrak Pirineotik hegoaldeko lurretan nagusi izatearen guztiz aurkako agertu zen-hura. Uztarpetik askatzea lortu ondoren –Orreaga-ko bi garaitzapenak, 778-koa eta 824ekoa– eta Pirineoz hegoaldeko lurraldearen jabe egin ondoren erresuma mailara jaso zuen, eta *Iruña-ko* erresuma berjabea, geroan Nafarroa-koa deituko zena eraiki.

Karlamagno-ren aurka lorturiko garaitzapenak, Campion-ek dionez, bi ondorio garrantzizko ekarri zituen:

<sup>24</sup> *Centro Laurak Bat*, Buenos Aires, 44. zenbakia, 1970ko uztaila: "'Laurak bat' izena eta euskal batasun nazionala".

1. Garaituengan mendeku hartu eta Baskonia guztia harmaz menderatzeko irrika.
2. Garaileengan, aldiz, sarrazenotarrekin elkartzeko komenientzia, hobekiago esan, aragondar muladiek in –Beni Fortun-en aldekoekin, seguruenik euskal jatorriko; handinahikeriak bultzaturik mahometar bihurtu eta ondoren erregetxo erdi-berjabe egin ziren-hauk.

Baskonia-ko Dukerriak ez du *Baskonia-ko Dukerria* bera beste instituzgorik; gerora Casa Real de Navarra izango zen.

Zati hau amaitzeko esan dezagun Nafarroa eta Gaztela-ko Konterri arteko muga seinalatu zenean, 1016. urtean, Euskal Herri guztia, euskararen jabe, Nafarroan sartua geratu zela.<sup>25</sup>

---

<sup>25</sup> *Encyclopedia Britannica*, M. de I., 3, 186 or.

## 1000. urtetik 1515ra arte

1515 hartzen dugu mugarriztat gure kondairan, urte hartan burutu bait zen Nafarroa eta Castilla arteko pertsona gisako batasuna –erresuma harekin batera burutu zen ere Euskalerra penintsularraren atxikipena, ikusi ditugun baldintzapenen arabera–; beren kostituzio politiko propioa gorde zuten. Errege Katolikoak uztaileko 7an Burgos-ko Gorteetan erabakiriko akordioak, Azken-azkeneko Bildumako I liburuko 33 legeak, 8. tituluan hau dio: "Nafarroaren atxikimena Castilla-ko koroeari batasun eque-printzipala eraz egina izan zen, norberak bere aintzinako izaera zaharra gordetzen duelarik, nola legeetan ala lurralde eta gobernuan". Gogoan eduki beharreko gauza.

Eta epe hau hersteke, 1000.etik 1515ra doana, alegia, aurreko kapituluan uzten genuen hari muturrari heltzen diogu berriro: *Baskonia-ko Dukerriari*.

Ez dago inon aipamen zehatzik haren mugei buruz. Komenigarri da oroiteraztea gizonak gaur baino gutiago idazten zuen garaiko ilunpeak direla hauk, gaur bezala erreferentzi punturik ez zegoen garaikoak. Honezaz gainera, orduan idaztera jartzen zen orok, gaur bezala, ez zuen gero zuzentasunaz idazten beti: batzutan, kronikariak, mito bihurturiko ahozko tradizioaren informazio okertuaz baliatzen zirelako, eta beste batzutan, irixten zitzairen informazioa horren berria izaten bait zen, eta horren hurbiletik zirikatzen bait zituzten interesen irrikak, lotsa gaiztoz edo zinismoz ematen bait zituzten berriak soldataren trukean.<sup>1</sup> Halaz guztiz, itxurazko dirudi 500 urte inguru hartan Baskonia-ko Dukerria-ren muga Garona zela dioen bertsioa onartzea, nahiz eta Bordele eta Toulouse, bere haurzogunearekin, udal libreak izan; bietan konteak ziren buruzagi. Baskonia-ko Santxo-ren garaiko txanpon batetan hau irakurtzen da aitzinaldean: "Sanchius, eta gibelaldean: "Burdigaba" (Bordel). Santxo hau, Santxo Handiaren Gortean 1032. urtera arte bizi izan zena dugu.

Nafarroa-ko erresumaren muga politikoen, Baskonia-ko Dukerriak ondare gisa utzi zuen instituzioaren aldakortasunari buruz ere bada zalantzarik eta istilurik.

Batzuk Sobrarbe-ko aintzinako Foruen aitzin solasa aipatzen duten bitartean (apokrifotzat hartua), eta zeinen arabera Pirineo-tako erresumaren mugak Ainsa, Sobrarbe, Jaka, Anso, Erronkari, Sarazar, La Berrueza, Deyerri, Baztan, Araba eta Errioxa zati bat Pirineo-taraino irixten omen, Iruña-ko erresuma Araba-tik bertatik hasten zela esan genezake geografiari gagozkiolarik (765.urtea). Nafarroa –*Navarri eta Pampilonenses*– eta "baskoindar" –guztiak sartzen ziren–, arabiar historialariek 755. urtera arte independente bezala aitatuak etengabe, "baskoindar" deituak, 795. urteaz geroz erregeen gobernupean bizi dira, etenik gabe. Honezaz gainera hor ditugu testu nagusienak: Albelda-ko Kronikon delakoa eta Alfontso III.aren kronika. Hauek diotenaren arabera, hegoaldean arabiarrekin zituzten mugak Ebro hibaia eta Aragoi ziren.

Madoz-ek dionez, lehendabizi egin zen mugaketa Santxo Handia-k egindakoa da, lehen ezan dugun bezala, eta bere lau semeak, Gartzia, Ramiro, Fernando eta Gonzalo koroatzeko asmoz agindu ere zuen hori egitea.

---

<sup>1</sup> Ikus: *Otra historia de España*, Fernando Diez Plaja, Barcelona, 1973.

Gartzia-ri, lehen semeari, Iribarren-ek ere onartzen du hori, eta honek aldiz, Campion-ek dionari jarraikiz seguruenik. "euskal mintzairadun biztanletza guztia" eman zion. Hori bera esan ohi digu Menendez Pidal-ek; honen ustetan, Santxo Handia-k erresuma semeen artean banatzearekin, erresuma zabal bat, hizkuntzaz euskalduna nagusiki, bateratu nahi izan zuen". Gonzalo de Berceo-k gertakizun nagusi honen ondotik, 200 urte baino guttiagora dionez, Naxera-ko mairuen aintzinako erresuma, Ebro-tik hegoaldera zegoena, genuen hori: *El rey Don Garcia de Najera Señor, fijo del Rey don Sancho el que dicen Mayor...* Menendez Pidal-ek berak dionez<sup>2</sup> "godotarrekin ez zuketan inoiz ere horrela zatituko beren erresuma ...". XI. mendeko Frantses teorilariak errege agintegoa bat eta banaezina kontsideratzen dute; aitziti, penintsulan, Santxo Handiak 1035. urtean egindako zatiketa sustrai irmoak egin zituen, eta ondoren etorritako beste askorentzat eredu bilakatu".

Itxura denez, Santxo Handiak, banaketa hori zela eta egin zuen mugaketa ararteraino Nafarroa eta Gaztela artean egindako zehatzena omen.

Geroan Nafarroa eta Aragoie arteko mugek aldaketarik jasan zuten, guduak zirela, Santxo Noblea, Peñalen-en, 1076an hil zela, eta Gartzia Birreraikitzailearen (1134) garaian Aragoie bakandurik geratu zela» hiru eskualdeak Nafarroa-ri atxikirik geratu zirenean. Jokabide honek izan du garrantzirik gaur bertan ere; Menendez Pidal-ek, mugaketa politiko honi buruz mintzo delarik honela dio "era hortara, arrotz aireak erakarriz, hau da, hispaniar unibertsaltasuna baino zabalago den bat, aurrera hartu zion nafartar erregeak Leon-goari bere tradizio neogotikoan bertan bera geratu zenari nahiz eta X. mendean salbatzaile bilakatu, XI. mendean ez zen aski" ... "Honela, baskoindar antiemperadorearen itxura handizua hartzen du" ... "gaurko erara mintzatzeko, Espainia europeartu nahi izan zutenen artean lehendabizikoa". Ondorenean, Nafarroako Santxo jakintsua eta Gaztela-ko Alfonso VIII ados jarri ziren 1179an "Araba zatitzeko Itxizartik eta Durango-tik urak Nafarro-ra doazen ixuriari jarraikiz, eta handik, Foca-ra, Zadorrari jarraikiz Ebro-n isurtzen den punturaino, Malvesin eta Morillas gazteluak eziz, Castilla-ko gainerakoekin geratu bait ziren"; Araba zati hau Nafarroaren mende egon omen zen aldi luze batez, diote (Bizkaia eta Gipuzkoa Nafarroa-ko erresumatik ebakirik geratu baino askoz beranduago arte), eta halaxe, Nafarroako erresumaren baitan ikusten dugu 1366an egindako mugaketaren agiri batean; halaz ere, beste batzuk diotenez Arabar Errioxak, Ayala-k eta Salbatierra-k izanikoaz guztiz bestelako zoria izan zuen gainerako lurraldeak, Arriaga eta Gazteiz-ko Kofradiari elkartu bait zitzaion.

Jakin, badakigu ere Pirineoz Haruntz-ko lurrak ere nafartarrak zirela.<sup>3</sup> Euskal Herri-ko gainerontzeko lurraldeari gagozkiolarik hona xehetasun batzu: 1203an, Iruñako Obispadutzari mugak ezarri zitziotenean, aldakuntza batzu eman ziren, Bizkaia-ri gipuzkoar lurretarik zenbait kentzen zitzaizkiolarik.

<sup>2</sup> *Historia de España*, Madrid, 1956.

<sup>3</sup> *Otra historia de España* ("Errege katolikoak, arrazoi soziala"): Ifarrean Nafarroa duzue, hala derizkionean, joku hauetan sartu eta atera dabilena, zeren, Pirineo-tako alde batera nahiz bestera zatiturik bai dauzka bere sentipenak".

### Nafarroa-ko monarkia

Ildefonso Gurruchaga-k<sup>4</sup> dionez, Iruña-ko erresuma Baskonia-ko Dukerria-ren hondarretatik sortu omen IX. mendean, "lurralde apalago eta finkatuagoa osatzen zuelarik; izan ere jatorrizko euskal izakera gordetzen zuen jendeak biltzen bait zituen bere baitan". III. Santxo Handiaren erregetzaldiak markatzen du haren garaiunea (1000-1035).

Nafarroa-ko Hegoaldeko lurren birmenderakuntza, arabiarrek okupatuak bait zeuden, Santxo Gartzez-ek hasi zuen (905-926); Lizarra eta Errioxa eskualdeak menderatuak zituen honek. Geroan, Gartzia Santxez-ek (926-970) Santxo Abarka (970-994), Gartzia Santxez Dardartia (994-999), aurreko kapituluan aditzera eman dugun bezala; III Santxo Handiaren ondotik, Naxera-ko Gartzia Santxez dator (1035-1054); IV Santxo Peñalen-goia jarraitzen zaio honi (1054-1076), eta honen hurrengo V Santxo Ramirez (1076-1094) –honela herrialde honek, zatiturik egon zen 58 urte luzeetan zehar hiru errege ezagutu zituen– Nafarroa-ko eta Aragoi-ko errege, Uxuen proklamatu, bertako jauna hila izan ondoren. V. Santxo Ramirezek Kontzilio bat bildu zuen Jakan 1077an eta Baskonia Dukerri-ko apezpikuak deitu bertara. Honen ongorengoa, Pedro I, bere semea genuen (1004-1104); Aragoi-ko errege zelarik Hueska-ren setiaketa amaitu zuen. Bere anaia Alfonso Borrokalariak (1104-1134) errekonkista azkartu eta burutu zuen, arabiarrek Ebro hibaurretik behera iaurtikitzen zituelarik eta 1114ean Tuteraz jabetu. Castilla-ko erregeak Urraka-rekin ezkondu zenean harrapatutako lurak berriro, bereganatu zituen.

Nafarroa-ko errege hauen ondotik VI. Garcia Ramirez Birreraikitzailea dator (1134-1150), denik eta krisi larrienen artean bazen ere, Iruña, Gipuzkoa eta Bizkaia-ko errege izaten jarraitu zena. Honen segidan VI Santxo Gartzia Jakintsua etorri zen (1150-1194); Errioxa zela eta Castilla-rekin zuen arazoa konpondu nahian zebilelarik, Ingalaterra-ko erregearen erabakia onartu behar izan zuen; izan ere, Enrike II, Ingalaterra-ko erregea, Castilla-ko erregeren amagiarreba zenez, erresuma hontako eskuetan utzi zuen; honez gainera, mugak ezarri zizkion mendebaldetik euskal lurraldeari, Zadorra hibaia Ebron galtzen zen punturaino jarraituz den linearen segidan eta Durangoraino irixten zeneraino. Nafartar erregeari leporatzen zaizkion fundazio batzuri Caro Baroja-k erreparoa jartzen badizkio ere, Iribarren-ek zihurtzat jotzen du Santxo Jakintsua dela Vitoria hiria Gazteiz gainean 1181ean eraiki izan zuen erregea eta Donostia biztanletzeko Foru agiria eman zuena; eta erasten du gainera, "Araba-rekin eta Nafarroa-rekin odolezko elkargoak sendotzen ahalegindu zela". 1150.ean Donostia-ri eman zizkion Fuegoek, Donostia Nafarroa-ko itsasportu deklaratzeko zutenak –garrantzirik handienekoa zuen horrek Nafarroa-rentzat– arau batzuekin dakartzate, itsas arazoei buruz benetazko arauteri, kondairan zehar baliorik handieneko tresna juridiko bilakatu direnak; garai hartan hasi zen aitatu izaten euskal burdina esportazio gai bezala.

VII. Santxo Azkarra (1194-1234) etorri zen honen ondotik. Honen arreba, Nafarroa-ko Berengela Ingalaterra-ko erregin koroatua izan zen, Rikardo Lehon Bihotz-

<sup>4</sup> *Centro Laurak Bat*: "Lurak bat izena eta euskal batasun nazionala". Buenos Aires, 1970.

arekin 1191ko maiatzaren 12an ezkondu zenean, bere aita Santxo Jakintsua bizi zelarik arartean; ahaidego eta adixkidego honek euskal erresumari segurtasuna ekarri zion.

Benabarre-ko Pirineoz haruntzko eskualdea Iruña-ko erresumari atxikirik ageri da oraindik fetxa hartan, zeren 1194eko irailean Santxo Azkarrak Baztan-go Errodrigo Donibane Garazi-ko (Saint-Jean-Pied-de-Port) gobernari izendatu bait zuen.

Ohargarri da Elizak puntu hontan izan zuen eragin politiko zentralista Penintsula barruan.<sup>5</sup> Castilla-ko Alfonso VIIIak Erromara jo zuen Zelestino aita santuaren aurrean Santxo Azkarraren jokoak –mairuekin– salatzeotan. Hau dio J.A. Agirrek:<sup>6</sup> Haren azalpenak entzun ondoren, Aita Santuak bula bat, ekainaren kalendako 5ean –1187.go maiatzeko 28– zabaldu zuen, negoziaketan berri iritxi zitzaioala jakin erazten zuelarik hartan" ... "Aita Santuak San Anselmo kardenala, bere hiloba, bidali zuen Nafarroa-ko erregerengana elkargo haiei uko eginik Castilla-ko eta Aragoie-ko erregeekin elkart zedila erregutzeko aginduarekin eta ordainez mahomatarrei erauziriko lur guztiak errege artean banatuko zituela eskaintzen ziolarik. Euskal erregea exkomunikatua izan zela dionik ere bada".

Eneko Aritzarekin hasi zen errege zerrenda Santxo Azkarrarekin amaitzen da 824. urtean: lauhun urtetik gora iraun zuen euskaldun Estatu nazionala sendotzeko borroka honek. Errege hau gudari trebea genuen, ez, ordea, horren politikari habila. Aldi batez musulmanen lurretan egon zen (1200. urtean), aberastasunen jabe egin zen, baina urrun zebilen bitartean Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia ebakita geratu ziren. Viana fundatu zuen ondoren, eta Orreaga-ko eliza eraiki; hantxe dago ehortzia.

Iribarren-ek, aipauta dugun obran zera dio, gipuzkoarrek beti esan dutela Castilla-rekin egindako eratxikipena baldintza funtsezko bat zeramala: berjabetasuna gordeko zutela, alegia;<sup>7</sup> –berehala itzuliko gara berriro hontara–, eta errendipena justifikatzeko Santxo Azkarrak legeak hautsi zituela salatu zuten; honek, bestalde, egiantzarik ba du. Nafarroari gagozkiolarik, pekatu berean erori bide zen, herrixka eta toki batzuetan egin ziren protesta batzu haintzakotzat hartzen baditugu, eta azkenean egoera honek elkarte edo anaiarte erakundeak ekarri zituen, legalitatea defendatzeko eratuak, geroago Obanos-ko Infanzon-en Batzar edo Junta ezagunaren oinarri izango zirenak.

Iribarren-ek idazpuru hau aitatzen du: *Pro libertate Patria gens libera estate*. Autore artean zenbait eritzi ezberdinak eman dira gai honi buruz, zeren Iribarren-ek itzulpen hau egiten bait du: "Gizonak libre izan daitezela aberria libre izan dadin", bertsiorik zabalduena berau delarik; alabaina, oker omen, zeren idazkun hori, lehendabizikoz, –eta gero errepikatua–, honela irakurria omen baitzen: "stat" eta "estate"; jatorrizko idazkunak state esaten omen du, eta beraz, dirudienez honela itzulia izan behar omen luke: "Jar zutirik gizon libreok, Aberriaren askatasuna defendatzeko". Dena den, azpimarratzen du Iribarren-ek, idazpuru hori Santxo Azkarra gaitzesten dutenen barne arnasaz, "haien izpirituaren aldeko esan nahiaz beterik dago". Errege hauxe izan zen –Bizkai-ko jaunarekin batera– Navas de Tolosa-ko heroea (1212), borroka hontantxe jo

<sup>5</sup> *Otra historia de España*: "Elizak, erregeekin elkartetik indarturik atera zelarik, bere izen ona bezturik ikusi zuen hilketa eta bidegabekeriaz igotzen ziren erregeak ezagutu zituelako".

<sup>6</sup> *Fin de la dinastía pirenaica*, Buenos Aires, 1966.

<sup>7</sup> *Otra historia de España*: "Erregeen mendeko izateak elkartuta zeuzkan Estaduak ere baziren –Castilla eta Aragoi-ko lurraldeetan sarturik zeudenak–, nahiz eta beren eskubide eta fueroen jabe izan aldi berean, britaniar Commonwealth-aren antzera".

zituzten arabiarrak kolpe zihurrez eta hartatik datozkio, ustez behintzat, Nafarroa-ko harmarriari kateak (Azkona-k eta beste batzuk kate horik bolez erremataturik dauden ertzak direla diote); honen erregetzaldia kristau eta kristau judutar eta musulmandarren artean erlijio jasankortasuna edo tolerantzi giroa zabaldu zelako nabarmendu zen. Ondorengo zuzenik gabe, gaixo, 84 urteko zelarik, Santxo Azkarra bere hiloba Champagne-ko Teobaldoren eskuetan utzi zuen ondorengotasuna 1234. urtean.

"Nafarroan –dio Ildefonso Gurruchaga historialariak–,<sup>8</sup> hauzoko erresumen mende irentsia izateko arriskua larri bihurtu zen, gizonezko ondorengorik ezean, koroa sarritan emaztekien eskuetara segidan etortzea gertatzen zelako; VII. Santxo Azkarraz gero, 1234ean ondorengorik utzi gabe hila, hurrengo 321 urteetan zazpi emaztekik hartu zuten erregin makila" ... "Dena den, irentsia izateko arriskurik handiena hauzoko Castilla eta Aragoi erresumetatik zetorren. Horregatik nafartar Gorteak ezkontza erako elkargo politikoak beste aldera zuzendu zituen, Frantziara; horrela sartu ziren Iruña-n Champagne, Frantziako Etxe, Evereux, Aragoi, Foix, Albret eta Borbon, feudal handizki etxeak denak, ezpada Frantziako Etxea, errege jatorriko baitzen."

Hontara Teobaldo I-kin (1234-1253) Champagne-ko dinastiakoak dira errege. Hamazazpi errege segidan etorri ziren IX. mendeaz geroz Champagne-ko lehena, VII Santxo Azkarra-ren hiloba eta doña Blanca de Navarra, bere arrebaren seme zena iritxi arte.

Bada ustea Elizak lagundu zuela nafartar monarkia eratzen. Caro Baroja-k dionez, Baskoinen kristau anaidi aintzinakoenen erakundea Cascanten hasi omen (Tuterako partidu judiziala) eta Ebroz gora jarraitzen (Kalahorra). Federiko Zabalak lehen aipatu dugun *Euskal Herriaren Historian*, hiru Kristau nukleo zirela dio: Iruñe, Leire eta Araba. Inportanteena Leirekoa zen: Ifarreko kultura hartu zuen, eta Iruña-ko apezpikuak monastegi hontan izan zuen egoitza XI. mendera arte. Beste eritzi joera batek edapen erlijioso honi beste zentro batzu sinalatzen dizkio: Ifarrean kokatua bat (San Saturnino-Toulouse); beste zenbait gehiago hegoalderago lekutuak –Tarrakonensean, Prudentzio: Errioxan, San Millan, Albelda–; beste bat Aragoi garaiko hibarretan.

Gauzak era hontara ikusten badira, Baskonia Dukerri-ko elizaren kondairak zera erakutsiko digu, mixiolari eta antolatzaile handiak –Sabino Santua, *Hautes Pyrenees*; Orentzio Santua, Auch-en– Hegoalde-tik Ifarrera etorri zirela, hau da, Pirineoz hegoalde-tik gora. Leyre inorekiko loturarik gabe berjabe ageri zaigu, pirineotar esan nahi da. Alabaina, Zabala-ri jarraitzen bagatzaizkio, ifarraldeko eraginak determinatu zuen –euskal tradizio demokrataren aurka– Erdi Haro-ko lehen aldi-geroztik, garai hortan erregea Estatua-ren jaun eta jabe bezala onartua izan ohi zen, nafartar monarkia karolingiar tradizioko monarkien erakunde moldetara egokitu zedin. Monarkia batek, noski, gizartearen eskubideak beregain hartzen ditu; errege haiek, aitziti, egin zutena, germaniar Europako ereduak kopiatzea besterik ez zen izan. Honek garrantzia handiena du, zeren, Zabala-k dionez, jabego eskubidea bait dute zimentarri eskubide guztiek politika mailan, jabego-eskubide honi loturik bait dago agintea". Horrelaxe zen aintzinatean, eta hori bera, gaurko erara, gertatzen da gure egunetan ere.

<sup>8</sup> *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 1968-ko urtarrila-martxoa: "Andorra, euskaldunak eta pirineotar batasuna".

Bada beste gauza seinalagarri bat ere: musulmandarrei lurra okupatzen zizkieten bezala, askaturiko lurra ifarretik etorritako euskaldunak jendeztatzen hasi ziren. Nafarroa-ko monarkia erakunde demokratiko bihurtzeko ahaleginak egin ziren. "Errege izendatu" (alzar rey) izena deraman forura iritxi zen horrela; honek mendekoak deretxoaren arabera tratatzera behartzen zuen erregea; eta aldiz, gora behera handiko betekizunak, gudu eta pakeari buruzko erabakiak hartzea, aitorsemeek eta agureek osaturiko batzarraren esku zeuden. Ondorenean "pase foral" deritzana lortu zen, euskaldun guztiak babesten zituen eta sobre carta delako eskubidea, Nafarroari bakarrik zegokiona; honek Gorteen emateko eskuetan utzi ohi zuen, zernahi erabakiren bat argitara ala ez, agindu bihurtzeko ala ez, ahalmena, erregeak onartua izan da gero ere.

Esan dugun bezala, XIII.mendean Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba bakandu egiten dira, eta 1234 urteaz geroz, Champagne Etxeko dinastiakoak dira errege Nafarro-an.

Teobaldo I. Frantzes lautadatik etorria genuen, bertako jendeen ahiurriaz tutik ere ez ulertzen, emakume zale, eta zegoeneko nahiko zelatsu zegoen nafartar nobleziarekin topo egin zuen. Legeak hautsi zituen, ikasia genuen bestalde, bertsoak egiten bazekien -horregatik, hain zuzen, "errege bertsolari" esan ohi zioten-, halatsuko demokrazi batean hezia bere ahaletan zegoen ehinean oztopoak jarri zituen noblezi tituluak ematerakoan. Elizkoia genuen guztiz, hori bai, baina komenientziz bakarrik, eta 1239.go martxoaren 13an Champagne-ko bere estatuetan auto de fe batean, bizirik erretzea galduak izandako 180 gizakien heriotzaren lekuko izan zen. Pedro Jimenez de Gonzalez, Pamplonako apezpikuak exkomunikapen dekretu bat zabaldu zuen haren aurka 1246an interes arazoak zirela medio. guztiz, Guruzadetan izan zen bitartean (Jerusalen

Teobaldo II.ak (1253-1270) garai hartan Gaztela-ko errege zen Alfonso Jakintsuaren arrebarik edo alabetarik inor ere ez zuela emaztetzat hartuko juratu zuen, Nafarroaren etsai zelako, eta Frantziaren ezkondu zuen, Luis IX.aren alabarekin, Isabel printzesarekin, alegia. Aitak baino heziera hobea hartu zuen, bihotzbera agertu zuen, eta 1270ean hil zen bere amagiarrebaren alde guduketan ziharduelarik. Pruino-n, Brie-ko konterrian Paris-tik 80 kilometrotara hobiratua izan zen.

Champagne etxekoaren erregetzaldian (1237 urtea dela uste da) egin zela esan ohi da Nafarroa-ko Foru Guztiaren bilketa eta aldarrikapena.

Teobaldo-ri bere anaia Enrike I jarraitu zitzaion (1270-1274). Errege honekin itzaltzen da Champagne dinastia bere seme bakarra Lizarran hil bait zen era txarrez, eta Enrike I hil zenean, 1274ean, hogeita hamar urteko zelarik, Juana-k bi urte besterik ez zuen: Hadin goiztiar horretan, halaz guztiz, bi ezkongai izan zituen: Aragoi-ko Jaime I eta Gaztela-ko Alfontso jakintsua. Bi monarka hauen handinahikeriak nafartarrak elkarren aurka jarri zituen

Doña Blanca-k, Enrike I.aren alarguntsak, Frantziara ihes egin zuen; bere alabarekiko begirantza ukatu eta Felipe Ausartaren ardurapean utzi zuen. Aspaldi hartan, Gaztela-ko lehenseme Fernando de La Cerda-k Viana-ri eraso zion. Doña Blanca-k Bellemarque frantziarra izendatu zuen gobernari eta frantziar tropak ekarri behar izan zituzten, Juana neskattoaren eskubideak defendatzeko. Hamairu urteko zelarik, 1284ean, hamabost urteko gaztea zen Felipe Ederrarekin, Frantziako erregean



ondorengoarekin ezkontarazi zuten. Bi urte geroago errege alxia heredatu zuen, Frantziako eta Nafarroako koroak elkartutzen zituelarik.

Doña Juana eta printze ezkontidea 1274tik 1305a arte izan ziren errege, eta berak sortu zuen Paris-ko Nafartarren Ikastetxe entzute handikoa. 1305ean hil zenean bere seme Luis I Hutin igo zen errege alkira (1305-1315).

Luis I –hamabost urtekoa hau ere– Borgoña-ko dukearen alaba Margaritarekin ezkontarazi zuen; geroxeago ezkontza nahaskerian erortzeaz salatu zuen emaztea eta koltxoi artean itorik hiltzera galdu.

Hungria-ko erregeren alabarekin ezkondu zen berriro.

Felipe el Luengo izenekoa etorri zen ondoren (1315-1321) Nafarroan inoiz ere etorri ez eta ondorengorik utzi gabe hil zena. Karlos Burusoila ondoren (1321-1328), hau ere ondorengorik gabe hil zena, eta honi Juan I jarraitu zitzaion (1315), egun gutxitako gizon deitua, zortzi egun bakarrik egon baitzen alkian.

Egunetako errege hau Frantzian hil zenean Felipe de Valois koroatu nahi izan zuten, baina nafartarrek, Puente La Reina eta Iruña-ko Gorteetan bildu zirelarik, Juana, Luis Hutin zelakoaren alaba nahi zutela erregin aldarrikatu zuten, zeren, Nafarroan, euskal tradizioari jarraikiz, ez bait zen ezagutzen Salika deritzan legea, emaztekiak errege alkira igotzea galerazten zuena. Eta horrela Larrasoan Gorteak berriro batzarrean bildu zirelarik, erregin koroatua izan zen Iruñeako Katedralean 1329ko martxoaren 5ean. Juana hori dugu *Fuero Generalaren Hobekuntza* egin zuena. Frantzian bizi eta hil zen 1349an.

Carlos II Gaiztoarekin (1349-1387), Iruñeara 1350ra arte aurkeztu ez zena, Evreux-ko etxea sartzan da errege zerrendan Felipe Evreux, Juana II.aren senarra zelarik etxe hontako lehen errege.

Mila gora behera ondoren, II. Carlos Gaiztoak Gales-ko Printzearen tropak Ibañetatik zehar sartzan uzteko konpromisoa onartzen du Libourne-n 1366. urtean Castilla-ko Pedro Ankerrarekin (1356-1369), eta ordainez Gipuzkoa, Araba eta Errioxa itzuliko dizkiola eta 56.000 urrezko florin emango, agintzen diolarik. Pixka bat geroxeago paktu honen guztiz antzeko beste bat onartu zuen (baina alderantzizkoa) Ebanjelio santuan gainean zin egiten zuelarik Ankerraren anaiarekin (1369) –Trastamarakoak hil egingo zuen gero, koroaz jabetzeko asmoz–, 60.000 dobla gaztelau urrezko eta lurralde berberak guti gora behera agintzen dizkiolarik, (horrela garbiki ikusten da Nafarroak ahizpa zituen eskualdeekiko artura). Eta unea iritxi zenean, biak iruzurtu nahi izan zituen eta gora behera batzu bide zirela Gasteiz, Salbatierra eta Santa Cruz de Campezo hiriez jabetu zen.

Bere lehenseme III. Carlos Noblea etorri zen ondoren (1387-1425), bere aita ez bezalakoa guztiz, ezen ona eta zuzena izan zela bait diote. Castilla-ko doña Leonor-ekin ezkondu zen, eta honengandik sei alaba eta bi seme izan zituen. Bi semeak oso gazterik hil ziren eta bere alaba Blanca izan zen ondorengo, Aragoi-ko Juan II Castilla-ko erregeren lehengusuarekin ezkondua. 1421ean, Carlos jaio zitzaion Biana-ko Printze izango zena, eta Gorteek luzatu gabe printze oinordekotzat zin egin zioten urte bakarreko zelarik, Oliten, beldur bait ziren bere aitak, nafartarra ez baina aragoitarra zenez, errege alxia kenduko ziona. Viana-ko Printzearen aitona, Carlos Noblea 1425ean hil zen. Bere alaba Blanca I jarraitu zitzaion (1425-1441), baina hau hil zenean, 1441ean,

Gorteen beldur hura egi bihurtu zen, eta don Juan aragoitar ezkontidea, Biana-ko Printze, bere semearen nahiaren aurka, indarrez jabetu zen. Eztabaida hontan, aragoitarrek eta gaztelauk hartu zuten parte, hala nola Beaumont-eko eta Agromont-eko alderdiek, gainerontzeko euskal lurretako alderdikideek, Ganboatar eta Oinaztarrek, alegia. Biana-ko Printzea 1349an ezkondu zen eta urte bat geroago bere arreba Blanca, Castilla-ko erresumako ondorengoarekin. 1343an, don Juan berrero ezkondu zen, oraingoa Juana Enriquez, Castilla-ko Almirantearen alabarekin.

*Beamondarren* (Biana-ko Printzearen alderdikideak) eta *agramondarren* (haren aita don Juan-en alderdikideak) arteko lehen odol isurketa 1450ean eman zen. Aibar-ko borrokarekin hasi zen gudua, aita garaile atera zelarik, eta beronen semea, printzea, Tafalla-ko gazteluan hertsiturik geratzen zelarik. Nafarroa gerla zibil batean nahasturik aurkitu zen. 1457an Lizarran Gorteak bildu zirelarik, don Juan-en eraginez, Foix-eko konteak izendatu zituzten koroearen ondorengo; aldi berean, Beaumont-eko Juan-ek Iruñako Gorteak bilduerazi eta Biana-ko printzea proklamatu zuten errege; Barcelonara atzerriratua izan zelarik hik zen 1461ean.

Haren aita zen aragoitar Juan-en joko hauen mende bizi zen Nafarroa harik eta 1479an hil zen arte. Bere alaba Leonor erregin izendatu zuten 1479. go urtarrilaren 28an, eta koroa bere bilobaren eskuetara, Frantzisko Febo-renetara (1479-1483) etorri zen; bere ama Valois-ko Magdalena gidari zuelarik, Behe Nafarroan, Saint Jean Pied de Port edo Donibane Garazin bakarrik izan zen aintzakotzat aitortua; bienbitartean, Nafarroa-ko gainerontzeko bazterretan gerla zibilan nahasturik zebiltzan bi alderdiak.

Katalina Errege Katolikoaren seme bakarrarekin, haur bat oraino, ezkontarazi nahi zuten, baina Frantziako erregeak beste gauza bat erabaki zuen, eta azkenean, eztabaida amaitu zelarik Katalina 1486an Labrit, d'Albert edo d'Albert-eko Juan-ekin aintzinako Akitaniako Guyenako semearekin ezkondu zen. Nafarroa-ko erregeak ezin sartu ahal izan ziren Iruñeara 1494a arte. 1500. nean Biana-ko printze berria, Enrike jaio zen. Espainia eta Frantzia arteko guduketa artetik aparte egoten saiatu ziren; baina, Frantziako erregeak Foix-eko Gaston-entzat nahi zuen Nafarroa-ko errege aldia, eta errege Katolikoak Guyena-ko konkista aitzaki harturik inglesekin batera jarri zelarik Nafarroa-ko mugak iragan zituen 1512. go uztailaren 21ean Burunda-tik barrena sartuz, Alba-ko Dukea zelarik gudalburu. Nafarroaren inbasiogintza eta menderakuntza genuen, hain zuzen ere.

Liga guztiz Santua zegoen tartean, Fernando erregek Julio II eta Enrike VIIIak izenpetua. Honek untzialdra bat bidali zuen Bizkai-ko golkora frantzes etsaien arreterakarra eta Pasaian lurrartzeko asmoz. Ingles untziek 1512. go ekainaren 8an egin zuten agerpena tropaz kargaturik Pasaia aurrean. Inglesen joki honen itzalean. Frantzes tropak imobilizatu ondoren, Albako dukea Iruñaz jabetu zen uztailaren 24ean Foruak errespetatuko zituela baldintza onartzen zuelarik. Ez zen lehen aldia agintza hori bera egiten zela, ez eta lehenengo aldiz agindutako hitza betetzen ez, eta, noski, ez zen azkenengo aldia izango. Ondoren Nafarroa osoa haren mende erori zen. Fernando Katolikoak Enrike VIII. iruzurtu egin zuen, ez bait zion lagundu Akitania okupatzen, baizik eta Nafarroaren menperakuntza aseguratuta ondoren, Moret-ek dioen bezala: "inglesekin egindako akordioaz ez zen gehiago oroitu" ... "bere untxiak Guyena-ko

itsasbazterren inguru-minguru erabili zituen bere berririk jakinerazi gabe". Nafartar erregeek Frantziara ihes egin zuten beren semeekin Lumbier-tik zehar iraganaz.

Gaztelarrek ahots hau zabaldu zuten, alegia, Nafarroa errege Katolikoari eman ziola Aita Santuak Elizaren defentsan egindako txaupenak nolabait ordaintzeko. Gaztelarrek herejetzat jotzen zituzten nafartarrak, zeren "Aita Santua-ren eta erlijioaren etsai ziren frantsesekin" bat eginik zegoen erregeren esanetara bait zeuden, eta are, Bula baten aitzaki jarri zuten, *Exigit contumacium* delakoa, 1512ko otsailaren 18koa; Iribarren-en eritziz, "duda-mudazko jatorrikoa", zeren, "zitekeena bait zen Fernando Katolikoak bere politikaren alde faltsifikatua izatea"; itxura guztia zen Gaztela-ko erresuma independente bat Nafarroa eta Aragoi-ko koroekin osatzeko asmo ezkutua zerabiltzala Foix-eko Germana-rekin egindako bigarren ezkontzako ondorengoei emateko eta hori posible ez zela ikusi zuenean –errege gaixoak eta ahalegin guztiak egin arren–, Katolikoak Castilla-ko Koroarekiko atxikimendua handiriko legeztatu zuen (1515.go ekainaren 15ean), Nafarroa-ko monarkiaren gordetzaile titulua hartzen zuelarik.

Eta erasten du Iribarren-ek "Fernando Katolikoak Nafarroako konkistapena duda-mudazko fede onez hasi eta burutu zuela. Atxikimen edo inkorporaketa ekintza menderakuntza erako eskubidean soilik oinarritu zen".<sup>9</sup>

Laburtuz: Nafarroako dinastiak, IX. mendearen hasieran Baskonia-ko Dukerriaren hondakinen artetik jaiok, 1234a arte bakarrik iraun zuen, VII. Santxo Azkarra ondorengorik gabe hil zeneko urtea.

Puntu hontan hasi zela, diote batzuk, dinastia arrotzen aldia, Nafarroa, ohartzen ez zelarik, bere independentzia galtzera eramango zutenak: Champagne-ko dinastia (1234-1305). Frantziakoa 1305 eta 1328 artean –Juana I Frantzia-ko errege batekin ezkondu bait zen, Felipe Ederrarekin–, Evreux-eko Etxea 1328 eta 1425 artean, eta Aragoiko Etxea 1425 eta 1479 artean. Halarik ere, Nafarroa-ko erregeek dinastia hauetatik zehar aurrera segitzen dutela uste dute; izan ere euskal deretxoa erromatarra, germaniarra edo musulmandarra ez bezala da, eta *Lege Zaharrean*, euskaldunaren aintzinako legean, emaztekiak gizasemeak berak bezalako oinordekotasun eskubideak ditu; Koroarako eskubidea aitak adinbat amak ere eman ohi du, eta gauza era hontara ikusiz gero, ez du balio "Teobaldotarren eta ondorengo dinastia arrotzez" mintzatzeak.

Nolanahi izanda ere, Nafarroaren beherakada hontan, Federiko Zabalak dionez, bi arrazoi hauek hartu behar dira kontuan:

1) Alderdien arteko borroka, oinaztarren eta ganboatarren parekoa, sortu zela Euskal Herriaren gainerako lurretan: *agramondarrak*, Peralta eta Nafarroa gudalburu zituztelarik, Carlos II Gaiztoaren eta Katalina Lizaso-koaren seme ordekoak bultzatuak; *beaumontarrak*, Beaumont-eko Karlos, seme ordekoa hau ere, Felipe eta Maria Lizarazu-ren semea zelarik buruzagi.

Lehendabizikoak Aragoi-ko Juan II.aren alde borrokatu ziren eta ondoren, hil zenean, Nafarroa-ko legezko erregearen alde; *beaumontarrak* Biana-ko printzearen alde jarri ziren lehenik, eta gero (Lerin-go kontea, Fernando Katoliko-aren ezkontanaia buru zelarik) honen interesen alde jarri ziren, Nafarroaren hondamendia ekarriaraziz.

<sup>9</sup> *Otra Historia de España* (El estado puente): "Errege Katolikoaren aurreikuspenak garrantzirik izan zuen atzerriekiko politikan. Etsairik gogorrena Frantzia da" ... "Hartara, Frantzia (menderakuntza honi esker) etsaien artean zegoen beti, bai Ifarretik bai Hegoaldetik; zera, lehorretik inguru guztietarik".

2) Foix-eko dinastia; honek ekarri zuen botere hutsguneak nafartarren arteko liskar zibila lagundu bait zuen, Gaztela eta Aragoiko erresuma ahaltzuek Errege Katolikoek pertsonetan bat eginda geratu bait ziren eta Frantzia, aldiz, Estatu ahaltzu bat bilakatu.

Honela, Zabalak dion bezala, Frantzia-kin, Aragoi-kin eta Gaztela-kin mugak zituelarik, eta handinahikeri guztien helburu bihurturik, apaldua eta murriztua, Nafarroak ozta ozta egin zezakeen ezer gehiago.

Aipatu diren baldintza horien arabera Gaztelaren mende zegoelarik, bi zatitan banatua geratu zen Nafarroa. Legezko dinastiak Pirineoz ifarralderuntz iraun zuen. Baina 1589an Nafarroako Enrike III Frantziako errege proklamatu izan zen Enrike IV izenez Frantziako erregea Nafarroako, edo alderantzira bilakatzen zelarik. Titulu hau zuen: "Frantzia-ko eta Nafarroa-ko Errege".

### **Histori ingurunea. Foruen egoera**

Nafarroa lipar batez utzi eta garai hartan Europako eskualdeetan gertatzen ari zenari begiratzen badiogu, gauza asko, besterik gabe, azalduko dizkigun ikuspegi batekin aurkituko gara.

Errekonkista Granada hartzarekin batera amaitu zen 1492an: Urte hortan bertan Amerika aurkitua izan zen eta ondorioz Gaztela-ri berealdiko ospea ekarri. Gaztela-ko erresumari uko egin eta Aragoi-ra itzuli ondoren Fernando Katolikoak Gaztelara itzuli behar izan zuen –doña Juana erotua zegoela ta– Cisneros kardenalak, erregentzi buru zenak, deiturik; honen politika Afrika-ko ifarraldera –Oran-go menperaketa antolatuta zuen han– eta Italiarantz itzulia zegoen nagusiki. Austria-ko Etxea Karlos I. kin –atzerrian hezia– istauratu zen 1517an. Frantziako Frantzisko Igoaren aurkako borroketan ziharduela estrenatu zuen erregetza Karlos-ek Milan-go dukerria okupatuz. Errege-enperadore da Viena mehatxatzen zuten turkotarren aurka guduan, aspaldi hasia, parte hartu zuenean. Mexikon borrokatu ziren haren tropak, Moktezumari eta Guautemoori azteken agint-eremua okupatzen zielarik; ondoren Cuzco-n sartu ziren (1533). Chile menderatu zuten segidan, Magallanes portugaldarrak Pazifikora-ko bidea ireki zuen<sup>10</sup> 1519an eta Elkano euskaldunak 1522an amaitu zuen munduaren ingurubira. Karlos I enperadoreak Behe Lurraldeak menderaturik zeduzkan, –1556az gero, Nafarroa eta gainerako Euskal Lurraldea bezalaxe 1714ean galdu zituen arte Gaztela-ko Erresumaren mende zeudenak–, haien gainean zuen agintea bere seme Felipe II.aren eskuetan utzi zuen, zegoenekoak Napoles, Milan eta Euskal Herrian agintari; 1556an Gaztela eta Espainia-ko erresumak eta Indietako lurraldeak eta azkenik Sizilia. Bere anaia Fernando 1558an izan zen proklamatu enperadore. Felipe II.ak (1527-1598) estatu guzti hauk hala nola Frantziakin zituen borrokak ere heredatu zituen bere aitagandik.

---

<sup>10</sup> Portugal nazio bezala XII. mendean jaio zen. Portugal, leondar-gaztelar erreinuaren mendeko konterri bat besterik ez zen eta Alfonso VI.ak ezkonsari bezala bere alaba Teresa-ri emana Lorena-ko Enrike-kin ezkondu zenean. Ezkontza lotura hauek zirela eta, bestalde, ohizko gauza Penintsulan, batera eta bestera makurtu ziren

Inguru historikoari egindako ikustada labur honek erakutsiko digu nolaz zen Euskal Herria Gaztela-ko Koroaren zati, garai haietan, eta zein guti zezaketen euskaldunek indarrez, finkatuak zeuden ingurumaria kontuan hartzen badugu.

Baina ez da hori guztia. Espainia-k Bere Lurraldeak 1714ean galdu zituela esan dugu. Denboran atzera egingo dugu orain, 1714.go elkargo honen aurretik egin zirenei begirada bat ematekotan, hauek argirik emango bai digute Euskal Foruen egoera, hala nola Katalandarrenak zer nolako egoeran zeuden ikus ahal izateko.

Espainiak 1713ko 27an Ingalaterra-kin egin zuen Bake Elkargoak, Madrid-en izenpetuak, 15. artikuluan, Kataluniari eta bere foruei buruz diharduelarik, xehetasun hau dakar: "Halaz guztiz, Milord Lexington-ek –Britaniar Errege-ren Embaxadorea– behin eta berriz egin zituen eskabide irmoei alegia, Foruak gorde diezaizkiela –katalandarrei– eskatuz Errege Kotolikoak ezin amore eman izan du ...". Horretan amaitu ziren Kataluniako Foruak. Aitziti, 20. artikulua hau dio: "Britaniar erregek gipuzkoarrei eta Errege Katolikoaren mendeko gainerako guztiei beren eskubideak, ezein eratakoak izanda ere, gordeko dizkiela agintzen die ...".

Merkatalgo elkargoa Utrech-en mamitua izan zen 1713ko abenduaren 9an, eta 3. artikuluan burubide bat bedera erabakitzen du merkatalgo arazoetan Espainiako portu guztietan, "Aragoi eta Valencia erresumak eta Katalunia-ko printzerria ere barruan direlarik, ezpada Gipuzkoa eta Bizkaia". Salbuespen hori hiru tokitan aipatzen da eta ez du besterik esan nahi baizik Espainiako erregeak ez zuela ontzat ematen euskal Foruak andeatzeko eskubidea, ez eta nazioarteko mailako elkargoan ere.

Dena den, orduan Kataluniari gertatu zitzaiona agerian uzten du gudu bat ustekabez galtzeak zer ondoren politiko sakonak ekar ditzakeen, nahiz eta herri bat eskubide osoan egon; Katalunia Borbondarren aurka borrokatu zen, Austria-ko Carlos Artxidukearen eskubideak aldeztuz.

Gaztela Carlos V.aren zesarismoaren aurka ailtxa zenean eta Nafarroak berjabetasun galdu berria birreskuratu nahi izan zuenean, halakoxe zerbait gertatu zen: kondairan lehen aldiz Gaztela eta Nafarroak kausa bat bedera aurkitu zuten, baina garaituak izan ziren –ezin oker handiagorik, Politika aldetik–. Wosley kardinalak Frantzia-ko (Frantzisko) eta Gaztela-ko (Carlos I, Alemania-ko V) erregeek bitarteko egin zezala eskatu zioten inglesari –berriro ere!–, eta Londres-ko Ituna tarteko zela, 1518an egindakoa, Nafarroa-ren heriotza erabakirik geratu zen nazio berjabe bezala.

Honela, bada, Fernando Katolikoak Nafarroaren menderakuntza burutu zuenean laguntzarik aukerakoena Julio II Aita Santu eta Ingalaterra-ko errege Enrike VIII. gandik hartu zuen. Itxura denez, Carlos V.ak Nafarroa-ko erresuma herriari birreskuratzea nahi izan omen zuen, baina gaztelatarrek, Cisneros kardenalak bereziki, galerazi omen.

Dena den, menderatua izan eta guzti, Nafarroa-rentzat geratu ziren: *Gorteak, Diputazio Forala, Kontseilua –botere legislatibo, exekutibo eta judiziala–, txanpona, muga-etxeak, birrerrege, pase forala eta sobrecarta* direlakoak– epai-mahaiek gauza bat berari buruz bigarren erabakia (provision o despacho) eman ahal izatea, motibazio bat zela nahiz beste, lehendabizikoa burutua izan ez bazen–. Euskal Herri kontinentala, aldi guzti hartan –hau da, Gaztelaganako atxikimen egoerak iraun zuen bitarte guztian– erabateko berjabetasun politikoa izan zuen eta ekonomia libreko, geroago berjabe deitua, antolamendua izan zuen.

## Gaztela-rekiko eratzikipenak

Euskal Herriko erakunde politikoa, eta batez ere Nafarroaren berjabetasuna birrintzen horren eragin handia izan zuten euskal alderdikeriez mintzo aurretik, Pirineoz hegoaldeko eskualdeek Gaztelarekin egin zituzten eratzikipenak, pertsona artean eginak, ikusiko ditugu labur-labur kapitulu honetan. Zernolako arrazoien eraginez piztu ziren ere aitatuko dugu, hala hola euskaldunei ekarri zizkieten ondorenak aztertuko.

Hasteko, komenigarri da ohar hau egitea, alegia, oso zabaldurik dagoela gaitz bat, iragan aldietako gertakizunak gaurko burubide eta erreferentzien arabera interpretatzea.

Arras ongi dio Manuel Lekuonak:<sup>11</sup> "Gure historiografian gerta litekeen beste behaztopa, perspektiba historikorik ezean, horren sarritan entzuna den esaera dugu, "Gaztelare-kiko eratzikipena", alegia; errez aurki gintezke behaztopa honekin baldin eta XVIII. mendeko ekintza politiko adierazgarriari, egun izango luketen balore berbera, beste azalpenik gabe, emango bagenie: "batasuna", "nahastutze". Ezingo nuke esan nor izan den "eratzikipen" hitza erabili izan duen lehen historilaria gertakizun historiko hura adierazteko; baina, zalantzarik gabe, batasuna, edo nahasketa baino arinago den gauzaren bat adierazteko erabili zen. Perspektiba historiko eza are nabariagoa erakusten du gure kasu honetan Gaztela hitza erabiltzeak, ezan garai hartan buruturiko inkorporaketak Gaztela-ko erregearekin bakarrik zuen zerikusia, eta ez Gaztela-rekin berarekin; are gehiago, erregeari, esango nuke, Buruzagi Militarra, gora-dei edo Apelazio-ko Nagusi zen aldetik bakarrik, "Gudu Ministro" eta 'Barkamen eta Zuzentasun Ministro' zen aldetik bakarrik gainera gaur esango genukeen bezala. Gaurregun, urteen amaieran, Buruzagi Militarra eta Barkamen eta Zuzentasuneko Ministro baino askoz gehiago da erregea. Horra zergatik diogun perspektiba historiko eza nabari dela."

Elkargo pertsonalak, beraz, pertsona batekin egindako hitzarmenak dira, pertsona hori estatu anitzetako gudu arazoetako ministrotzat hartua den aldetik bakarrik kontsideratua delarik.

Lekuona bezala mintzatzen da euskaldun ez den beste bat ere gaztelaniar Anselmo Carretero y Jimenez, Castilla suhar handienez goraiatzan duen idazlea: "Hiribilduek, beraz, Errepublikan autonomo baten baldintzak zituzten nahiz eta Gaztela-ko erresumari atxikiak izan; eta garaiko egoera kontuan hartzen badugu (1212) egungo Europako Errepublikan Federalak eta Amerika-ko Estatu Batuak osatzen dituzten erresuma edo estatu edo errepublika federatuen pareko ziren".<sup>12</sup> "Gaztela-ko Koroakin buruturiko batasuna askoz beranduagokoa dugu. Federazio gisako batasuna zen, erregearen inguru sortua, bakez eta libreki onartua; era honetara euskal errepublikak Gaztela-ko Koroari atxikitzen zitzaizkion, baldintzetarik funtsezkoena Foruak errespetatzea zelarik; federakuntza gisako Monarkiak egin ohi zuen egiazko ituna, Gaztela-ko errege orok zin hitz batez baiestatu behar zuena." "Gernika-ko Arbolaren azpian zin egin zuen Isabel

<sup>11</sup> "Gure historiografiako Oztopoak", *Boletín Oficial de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, XXVII. urtea. 1 eta 2 koadernoak, 1971.

<sup>12</sup> *La personalidad de Castilla, en el conjunto de los pueblos hispánicos*. Fomento de Cultura Argitalpenak, Valencia, 1968.

Katolikoak 1482an Bizkai-ko Foruak errespetatuko zituela, lehendik bere senarrak egin zuen bezalaxe". "Isabel-ek berak ere Araba-ko lege eta foruak errespetatuko zituela zin egin behar izan zuen Arriaga-ko Kofradia-ren aurrean".

Carretero Jimenez-ek garrantzizko gauzak jarri ditu argitan Gaztela-ko politikari eta Leon-ekin zituen harremani buruz, eta dokumentu-agiriak oinarri harturik zera azaldu digu "euskaldun-gaztelaniarren arteko federakuntza honek bai euskalduna eta bai gaztelaniarrak mendeetan zehar elkarrekin bakean bizitzea posible egin zuen; euskaldunek parte har zezaketen, bere arazo bait liran bezala, Gaztela-ko gertaera guztietan nola Leon-ekin elkartu baino lehen ala ondorenean ere. Euskal erresumek inoiz ere ez zuten trabarik izan Gaztela Zaharra-rekin. Geroan etorri ziren hauk: ez Gaztela-rekin, noski, baizik Monarkiarekin, eta honen zati bat besterik ez zen hura, nahiz eta haren izen lenengo izan, bakarra ez zenean, errege tituluen zerrendan. Monarkia honek Euskal Herriari baino lehenagotik erauzi zizkion Gaztela-ri bere eskubideak, Euskal probintzien –horrela deituak izango ziren gerokoan– eta botere zentralen arteko borroka gero eta handiagoak egin ziren; izan ere, Borbondarrak errege alkira ego zirenez gero, Frantzia-ko bateratasun berbera ezarri nahi izan bait zuten; XIX. mendean burutu zuten hain zuzen ere, jakobinotar zentralismo zaleek.

Guzti hori begien aurrean dugularik lotuko gatzaizkio Euskal Herriak Gaztela-rekin egindako atxikimendu loturak aztertzeari.

### **Gipuzkoa**

Batzar Nagusietan erabakia izan ondoren burutu zituela Gipuzkoak Gaztela-ri elkartzea, esaten dute. Erabaki hauek kondairan zehar jantzi dituen era berezietaz asko idatzi da.

Biziki interesgarri eta aldi berean argigarri izango zaigu Gaztela-ko Alfonso VIII.ak bere testamentuan agindu zuena oroitaraztea: "Nafarroa-ko erregeari Araniello-ko zubitik hasi eta Ondarribia-raino duen guztia itzultzea, Nafarroa-ko erresumaren ondare eta jabego direla bait bai dakit". Eta eransten dio honi Federiko Zabala-k, aipaturiko *Euskal Herriaren Historian*, egoera honek argi azaltzen dizkigu Alfonso VIII.aren errenkurak; gure tesia osatzera dator hain zuzen ere: Gipuzkoa, alegia, bere borondatez atxiki zitzaioela, eta horrexegatik ez zen Nafarroari itzulia izan, nahiz eta barren barrendik horren irrika bazuen ere, baina ez zegoen haren nahiaren mende hori egitea Gipuzkoaren baitan baino; aitziti, Arano eta Ondarribi artean dagoen zatia ez zen Gipuzkoa-ren lurra; noski baino noskiago, inolako zalantzarik gabe, indarrez eta "jokabide doilorrez", Fausto Arozena-k dion bezala, jabetu zen hartaz. Eta eransten du gipuzkoar historialari honek, dokumentu anitzetan aditz bereziak erabiltzen dituztela Gipuzkoaz dihardutela *ganar, adquirir, prisar, y tomar*, hau da, garaitu, iritxi, hatzitu eta jabetu. Konkista izan ote den ala elkargo bat ezin jakin guk, horrela ...".

Carlos Blasco de Imaz-ek<sup>13</sup> dokumentu zehatzago bat aurkitu du eta hau dio "Gipuzkoa-ri gagozkiolarik, arrazoi historikoak 1200.go urriaren 8.ko ohar batean aurkitzen ditugu, Gaztela-ko Koroari elkartu zitzaionean Alfonso VIII.aren *pertsonari atxikipena* bide: Gasteiz-ko setiaketa ardura Diego Lopez de Haro-ri utzirik,

<sup>13</sup> *Los Fueros*. Gipuzkoari buruzko apunteak, Ethos Argital-Etxea, Irun, 1966.

*Gipuzkoan sartu zen.* Kronika honela jarraikitzen da: "Haren babesean ipini zituzten gauzak eta *elkargoak* (guk azpimarratu dugu), eta hartarako lurra eskaini zizkioten, eta bereziki Donostia eta Ondarribia eta Beloaga-ko etxe hesitu eta gaztelua, Oiartzun-go hibirrean, Frantziako mugan. Urtegune hartaz geroz, eta seirehun eta hirurogei ta hamasei urtez, hogeita hamar erregek onartu zituzten gipuzkoar foruak".

Zihur zihur dakigun gauza, dio Arozena-k, zera da, baldin eta Araban foruak sortu baziren –indarrezko eraginez egindako elkargoa bide zela– sortu ziren ere Gipuzkoa-n, eta are gehiago, gauza seguru da zenbait agiritan nabariki nahiz ozta ozta bada ere kontrato bat izan zela aditzera ematen dela.<sup>14</sup>

Bestalde, ez dago zalantzarik *batasun* horrek baldintza batzu izan zituelari buruz. Halaxe dio Fernando VI.ak Agiri batean, 1752eko abenduaren 8.ekoan: "Urte hontako ekainaren 6an egindako bileran, Batzar honek jakin erazi dit probintzia honen egoera berezia, nere aurrekoek beti arretaz begiratu izan dutena, bertako bake egoera eta gobernu zuhurra ezertxok ere nahas ez zezan; probintziak eskatu bezala guztizko askatasuna eman zioten, eta egoera honi esker, Alonso VIII.ari, Las Navas-eko deiturikoari berariz atxiki zitzaion 1200ean betidanik izan zituen usuario eta foruez gozaten zuelarik, eta hartan jarraitu izan zuen harik eta lege eta arau guzti horik Enrike II.ari idatziak izan zitezela eskatu zion arte; lege horien bilduma bat da idazki hau, erregek berak onartua.

Gipuzkoa-ko Elkarte edo Hermandadeak –"*Gipuzkoa-ko* Kostituentea izenda genezakeena"– dio Arozena-k, Domejon Gonzalez de Andia izeneko gipuzkoar gizaseme bat tarteko zelarik, garaiko kopletan *Gipuzkoa-ko erregea* izenez ezaguna, "ekintza anitz burutu zituen diplomazi mailan Frantziakin eta Ingalaterra-rekin hitzarmenetan, tregoatan eta elkargotan parte hartzen zuelarik". 1482an, Errege Katolikoek baimena eman zioten, Rymer-i esker eta Gorosabel-en bitartez dakigu, aurrez konzertaturiko elkargo baten konbalidapen forma hartuz, eta zeinen bidez Gipuzkoak alde batetik hitz ematen zuen bere ondorengoen, lurren, aberriaren, jaungoen, herrien eta lekuen izenean", eta beste aldekoek agindua betetzea behartzen, Ingalaterra-ko erregearen boterearen arabera, bere oraingo eta geroko ondareak gaudimen edo hipotekan jartzen zituztelarik".

Garbi dago, beraz, Gipuzkoa eta Castilla arteko atxiki mena baldintzaturik geratzen zela, eta baldintzapen horiek zutirik iraun zutela.

1200 urtean bertan Gazteiz eta Treviño Gaztela-ko Koroari menperatuak izan zitzaizkion; Araba-ko gainerontzeko lurra Nafarroa-ko Koroatik bakandurik geratu zen; alabaina, Gaztela-ko Koroarekiko binkulapen garbirik ez da ematen 1332 arte.

Fetxa hontan ba bada elkargo baten iskritura agiri garbi bat.

Hala dio Arocenak bere lan horretan bertan "Gaztela-ko erregeren indarrek Gasteizko ateetan 'borrokan zihardutela, harik eta setiatuak gosez garaituak izan zirelarik, errenditu egin behar izan zuten". Zera gertatu zen, nobleak zatiturik zeudelarik, oinaztarrak Gaztela-ren alde (Mendoza) eta Gamboatarrak Nafarroaren alde (Gevara), Arriaga-ko Kofradia-k ezin galeraz izan zuen Gaztela-ren alde derrigorrezko erabaki bat hartzea, herri lauak batere ikusirik ez zuelarik hortan, eta gutiago ze esanik, Koroa, elkargoak zionaren aurka, Kofradiaren mende zeuden lurretaz jabetu zen, herri

<sup>14</sup> *Guipuzcoa*: "Panorama de la Historia".



ondare zirelako, eta donazioak (emaitzak) egiten hasi zen aitorsemeen konfidantza eta laguntza politikoa irabazi nahiez.

Erreferentzi puntu bezala, ororen baitan non dagoen zatia zehatz ikusteko lagungarri izan dakigun, gertakizuna kontestu batetan lekutzeko, Arabako euskal eskualdea alde batera utzi eta Alfonso XI.ak garai hartan zer egiten zuen ikusiko dugu.

Valladolid-eko Gorteetan izan zen proklamaturia errege heldutasun hadinera iritxi zenean, 1325ean. Juan Manuel-ek eta Juan Begi bakarrak errege semeak (infanteak) porrokatzen ditu, "laidoki hilerazten dituelarik Toro hirian 1326.go urriaren 31ean bankete batean". Portugal-eko infanta Maria-rekin ezkontzen da, eta maitasunagatik ez, seguruenik, zeren arabiarrekin eta Juan Manuel infanterekin (Aragoi-ko erregearen laguntza duelarik) aurka mila gora behera eta borroka jasan ondoren, tregoa bat konzertatu mairuekin, eta haien artean bizi izan zen Sevilla-n 1331ko apirila arte, "Leonor de Guzman anderearekin publikoki maitasun lizunetara emana". 1332. urtean, hain zuzen ere, ezagutzen du Araba-k Gaztela-ko errege Alfonso XI, Burgos-ko Monasterio de las Huelgas-en handikiro koroatua izan zenean; mendekotasun honen baldintzak elkargo baten bidez erabakiak izan ziren.

### ***Bizkaia***

1076az geroan jaurreri berjabe genuen Bizkaia, erregea Peñalen-en erahila izan ondoren (bere anaiordeko Santxo IV Nafarroa-koak lepo egina), eta Iruña-ko erreinua Gaztela-ko eta Aragoi-ko erregeen artean banatua izan zenean; aukera bikaina izan zuen huraxe Iñigo Lopez Bizkaitarrak eta jaun eta jabe proklamatu zuen bere burua. Arartean ez zen ezagutua Durangoaldea, garai hartan Ibaizabal izeneko hibaiarte guztia hartzen zuen, Bizkaiko parte bezala; 1200. urtean bateratu zitzaion Durangoaldea Bizkaiari, Iruña-ko erresumatik ebakia geratu zen urtean. Bilbao (1300), Markina (1355) eta Gernika (1366) eratuta geratu zirenean, 1779an erabaki zuen Bizkaiko jaungoak Gaztela-ko Koroari eratzikitzea. Don Nuño haur bat besterik ez zen arartean, hots, 1312an Gaztela-ko don Pedro jazartu zitzaionean; bere mende zituen haren bi arrebak. "Hauetariko bat, Juana anderea, -dio Madoz-ek-, Tello-rekin ezkondu zen, eta Bizkai-ko Estatu barrutian agintzen hasi; baina, bi anaien artean etsaitasuna sortu zelarik, don Pedro-k Isabel, Juana-ren ahizpa, Aragoi-ko Juan-ekin ezkondu erazi zuen; aldi berean Bizkaiko jaun titulua hartzera behartzen zuelarik ...". Tello hau 1370.go urriaren 15ean hil eta berehala, Enrike-k bere seme don Juan infanteari, Gaztela-ko errege izango zenari eman zion titulu hori; koroa hori, hain zuzen ere, izan zen betirako loturik utziko zuen lokarria".

Korrejidoreak izan zituen, harrezkero, agintari Bizkaia-k; erregearen ordezkari gisa genituen Bizkaian; eta halaz guztiz, honek berjabe izaten jarraitu zuen. Berjabetasun hori gordeko du Bizkaia-k are Gaztela-ko erregeak bertako jaun izan ziren garaian ere. Bataketa, azaldu dugun bezala, "pertsona" mailan bakarrik eman ohi zen. Horrela ezagutu zuten Gaztela-ko erregeek beraiek ere, zeintzu, bestalde, Bizkai-ko jaun genituen. Errege Katoliko-ek "nazio bakandua" deritzate Bizkaia-ri; orobat dago ere Felipe IV.ak Bizkaia-ri, Gipuzkoa-ri eta Araba-ri buruz. Garbi geratu da 1452ko Foru

Zaharrak zehatzki bereizten eta bakantzen dituela Bizkaiko jaunerria eta Gaztela-ko Koroa.

Horregatik, hain zuzen ere, gertatu zen Gaztela-ko Errege zen Enrike III el Doliente deitua (1379-1405) aldi berean Bizkai-ko jaun izatea; eta berak esan ohi zuen "el dicho mi señorío es apartado sobre sí en sus fueros y libertades".

### *Nafarroa*

Errege Katolikoa Frantzia-kin guduan zegoenean, esan dugu lehenago ere, Nafarroak ukatu egin zien haren tropei bere lurretatik barne iragaten. Hark, orduan, bula bat haitzaki harturik justifikatu zuen bere burua; baina horra, aita santuaren bulak 1512ko uztailaren 21eko fetxa darama, gaztelar tropak Nafarroan sartu zireneko bera, hain zuzen ere. Ez telegraforik, ez telefonorik, ez irratirik zelarik garai hartan, bidezko da pentsatzea bula delakoaren bidez inolako haitzakirik ez duen bortxakeria justifikatu nahi izan zuela. Urte bereko urrian Labrit-eko Juan Nafarro-an sartu zitzaigun, baina Gipuzkoarrek, bazen hiru mende baino gehiago Gaztela-ren ardatzaren inguru zebiltzela biraka, Belate-n porrokatu zuten. Guduketa hartatik datozkio Gipuzkoa-ko harmarriari hamabi kanoiak. Kondairan horren sarritan gertatzen den bezala, erregen esku egon ohi zen gerra deklaratu eta bakea egitea, eta herriek, besterik ezean, ixilean, ahal duten bezala hartu behar; 1513an Luis XII eta Fernando Katolikoak gudua amaitutzat ematen dute. Zera, errege gaztelarrak gudu aldirako bakarrik zela zioena (ingelesari Akitaniaz jabetzen laguntzearen) betirako gorde nahi izan zuen, eta porrokatuak izan diren nafartarrei, errege onartua izatearen trukean Fueroak juratzen dizkie Iruña-n 15go martxoaren 23an bere ordezkioaren bitartez. Bi urte gerora mamitzen da eratxikipena "eque principal" gisako batasunaz, nola alde batekoak ala bestekoak aintzinako nortasuna gordetzen duelarik, bai legetan bai lurraldean eta buru-bidean", Burgos-ko Gorteetan, 1515ean, Errege Katolikoak erabakitako elkargoak dioen bezala. Gaztela-ri urtegune hartaz geroztik loturik geratu zitzaionean, Pirineoz haruntzaldeko lurraldean seigarren merindadea, Donibane Garazi (Saint Jean-Pied de Port) egun, Behe Nafarroa izenez ezagutzen dena besterik ez zitzaion geratzen Nafarroa-ri.

Errege Katolikoa hil zelarik, 1516an, don Pedrok Nafarroa-ko Mariskala, jazar egiten du; baina alferrik.

Urte batzu geroago Karlos Igoak Frantzia-ko errege Frantzisko Iaren aurka bidaltzen ditu bere tropak, Milanaldea okupatua zuen ordurako honek, eta atxillo harrapatu zuen; Italia, Flandes eta Nafarroa-ri buruz zituen asmoei uko egitera behartu zuen (Madrid-eko Elkargoa). Geroago Frantzia-ko erregeak emandako hitza hautsi egin zuen, ez hori bakarrik, baizik eta, Klemente VII.arekin Ingalaterra-ko erregearekin eta Milan-go dukearekin Liga Klementina delakoa eratu zuen. Baina, berriro ere garaitua izan zen, Karlos V enperadorearen mende. Honek Erromara jo zuen ondoren, hiria birrindu eta Aita Santua atxilo hartu zuen harik eta Las Damas izeneko bakea 1529an negoziatu zen arte.

Arartean, gaurregun ezagutzen ohituak egon eta betidanik hor daudela iruditzen zaizkigun erresumen arteko mugak oraindik zehaztuak ez zeuden mundu horretan,

handinahikeria eta basakeri gaiztoa nagusi zen mundu horretan, herriak, batzutan salbo eta beste batzutan mendeko, beren bizitza naturalean bizi ziren horretan, abandonaturik utzi zuen Karlos V.ak Behe Nafarroa "laguntzeak eta gerizatzak zekartzan zailtasunak" handiegiak zirela haitzaki harturik.

Pirineoz haruntzaldeko lurraldeez mintzatzen ari garenez ikus dezagun nolatan burutu zuen Frantziarekiko eratzikipen edo elkarbatasuna.

### **Pirineoz haruntz**

XII. mendeaz gero, Euskal Herriko ifarraldean ere politika erakundeak gora bera galantak izan zituen.

Garai hartan, ohiturei jarraikiz, politikaren arabarazko ezkontza elkarteak bide zirelarik, Enrike II Plantagenet-ek, *Guyenne* izenaren baitan sartzen den euskal lurralde guztia (administratzaio zentroa Ustaritz zelarik) Garona-raino luzatzen diren gaskoinar lurralde barne, atxikitzen dizkio bere Koroari. Lurralde guztia inglesen mende geratzen da -1360an Gretigny-n egindako trataduak Ingalaterraren guztizko agintaritzaz ezagutzen duelarik, eta Ingles tropek 1453.ean lur menderatuetako azken zokoak uzten dituztelarik. Lehentxoago, 1449an, dio Jean Louis Davant-ek<sup>15</sup> Gaston de Foix-ek Lapurdi eta Zuberoa harmaz hartu eta urrengo urtean lurralde biak, Ayherre-ko Elkargoa bide, Frantziako erregeren mende geratzen dira; tratadu hontan zein bere autonomia errespetatuko direla onartzen da. Benabarrak Nafarroa erresumako seigarren merindade osatzen du, 1530ean Gaztela-ko Karlos I-goak abandonatzen duelarik; erresuma bi zati eginik geratu zen, Geroan 1565ean, Espainiako Felipe II.ak Nafarroa eta Gipuzkoa, haren barrutiko bait ziren, kentzen dizkio Baiona-ko apezpikuari.

Pirineo-tako alde bateko eta besteko euskaldunek elkarrengandik gero eta aldentzenagotzen ziren aldi berean, bi zentralizapen burutzen dira: espainiarra eta frantsesa. Frantzia-ko Luis XII eta Richelieu kardinalarekin hasten da, 1620an, hasi ere, gertaera hori.

### **Euskal alderdikeriak**

Alderdikerietan banatze honek euskaldunen hondamendia ekarri zuen politika alorrean. Alderdikeria hauen antzekorik bazen Europako bazterretan ere. Madoz-ek dion bezala, Italian izan zuten indar handia. Hona bi izen guztiz ezagunak: Guelfo-tarren aldekoak, Erdi Haroan aita santuen alde jarri zirenak, eta Gibelino-tarrek, Alemania-ko enperadoreen aldekoak.

Euskal Herrian *oinaztar* eta *ganboatarren* artean ematen da zatiketa hori, izen bereziak hartzen dituelarik Nafarroan: *agramondarrak* eta *beaondarrak*, dagoeneko aipatuak aurreko orrietan.

Alderdikeri hauk Bizkaian sortu zirelako ustetan gaude. Madoz-ek ala uste du, eta 1309an nahiko gaiztotuak omen zeuden. Nahasketa hauetako baten berri ematen digu

<sup>15</sup> *Histoire du Pays Basque*, Bayona, 1971.

zehatzki, eta agian, sorburu desberdina eta leku batetara mugatua zen: Errenderi eta Donostia artean, Pasai-ko portu eta ubidearekiko eskubideak zirela ez zirela, sortu ziren lixkarrak; "epe laburrean –dio Madoz-ek– pertsonarik printzipalenetakoak hil ziren" Gipuzkoan.

Hilketa honen ondorioz, Batzar Nagusia bildu zen Donostian 1379.go otsailean, eta erabaki zenbait hartu ziren alderdikierietan parte hartzea debekatzen zelarik.

Oinaztarrei eta ganboatarrei gagozkielarik, *Arabakoak* hauk genituen: ganboatarra, Gevara Etxeko jauna (Oinati-ko kontea gerora); oinaztarra, Hurtado de Mendoza Etxekoak. *Gipuzkoan*: oinaztarrak, Lazkao-ko Etxekoak, eta ganboatarra, Olano Etxeko jauna. Eta *Bizkaian*: oinaztarra, Muxika Etxeko Jauna; eta ganboatarra, Abendaño-ko Urkiza Etxeko Juana. XIV. eta XV. mendeetan ganboatarrak Nafarroaren aldeko genituen, eta horrexegatik elkartu ziren *agramondarrekin*, eta oinaztarrak Gaztela-ren alde jarri, *beamondarrekin* biltzen zirelarik; hauek Fernando Katoliko erregearen alde borrokatu ziren.

Alderdien ekintza hauen aurka ailtxatu zen erregeren agintea, halaxe eskatu bait zitzaion. Ignacio Perez Arregi-k esaten digu, Gipuzkoan herriek bat egin zutela "organismo iraunkor eta arautzaile eta erabakitzaile bat kreatorik";<sup>16</sup> herriko ordezkari nagusien artean moldaturiko arauteriaren arabera moldatua izan ere izango zen; halaxe sortu ziren Kontzejuetako Prokuradoreen Batzarrak. Batzar edo junta hauek lau mendez iraun zuten.

## Kultura arazoa

Euskal Herriak gogor ekin dio mendeetan zehar Unibertsitate bat lortzeari. Jose Estornes Lasa-k<sup>17</sup> ematen dizkigu lehen albisteak arazo horretaz; hau dio "XIII. mendean dagoenekotz, egin zen saio bat Tuteran Unibertsitate bat kreatorik, eta gerora, 1378 inguru, Nafarroako Karlos II.ak Uxue-n kreatu nahi izan zuen Unibertsitate bat; baino xehetasun gehiagorik ez dugu".

Nafarroa-ko Ikastetxea delakoak ere badu guretzako esan nahirik; Nafarroa-ko Juana-k, Felipe Ederra-ren, Frantzia-ko IV eta Nafarroa-ko I, zenaren emazteak Paris-en sortu zuen, 1304.go martxoaren 13an testamentuan jakin erazi bezala; ikastegi hura berriki esana dugu, "Frantzia-ko nobleziaren eskola" izatera iritxi zen. Nafarroako Ikastetxe hori Konbentzio-ak 1793an desegin zuen, eta haren orde *l'Ecole Polytechnique* kreatu.

Eta azkenik, kondairako garai honi gagozkiolarik, Juan de Albrit eta Katalina andereari, Nafarroa-ko erregeei zor diegu Sendagile, Zirujano eta Botikari Ikastetxearen eraikuntza, 1496an. Gerora "Nafarroa-ko Gortetako LII. legeak, 1829.go martxoaren 6koak, 23. artikulua arabera, Iruña-ko eta Tuterako San Kosme eta San Damian Kofradiak –hauek sostengatzen zuten– desegin zituen."

<sup>16</sup> "Iraganeko Mezu Forala".

<sup>17</sup> *Los vascos y la Universidad*. Auñamendi Bilduma, Donostia 1970.

## Erljio arazoa

Erljioak euskal kulturaren prozesuan –literaturan, artean eta sozialean– izan duen eragina nabaria da.

Charritton apezak, aipatua dugu lehendik,<sup>18</sup> erlijioaren eta gainerako manifestapen kulturak arteko harremanak seinalatzen ditu eta izen hauk aipatzen: Dechepare, Axular, Larramendi, Gasteluzar, Arbelbide, eta Agirre; lehenengo kapera maisuak: aita Donosti, Tafalla-ko Pedro, Antxorena, Eskarregi, Caseda, Ochoa, Olaegi eta gainerako; Olaotzaga, Bengoechea eskultoreen irudiak, eta Morlanak, Ancheta, Araoztarrak eta Haya-tarrak.<sup>19</sup>

Katedralak eta elizak ditugu gure herrialde hontako eraikuntza artistiko bakarrak. Sozial arazoei gagozkielarik, inglesen *Habeas Corpus* delakoaren bizkaitar formula aipatzen digu, militarismo, klerikalismo, klase bereizkuntza edo inkisizioari buruz euskaldunak betidanik erakutsi duen jazarpena.<sup>20</sup>

Mintzatu gara dagoeneko kristianismoak izan dituen sorburuez Euskal Herrian, eta aita Charritton hartuko dugu berriro ere gidari kristau monumentu aintzinakoenak, X. mende ingurukoak direla esateko: San Millan de la Cogolla (Errioxa), San Salvador de Leyre, Iratxe-ko Santa Maria la Real eta San Migel in Excelsis (Nafarroa). Ifarraldeko Euskal Herriari gagozkielarik, erlijio batimendurik zaharrena *Sainte Engrace* dugu, dirudienez, XI. mendearen erdi aldekoa. Musulmandarren mehatxua, dio Charritton-ek, aldendu zenean bakarrik, orduan sendotu omen zen Nafarroako errege aldia, eta III Santxo Handiaren (999-1035) erregetzaldiaz geroz eratu omen betirako Euskal Herriko eliz maparen antolaketa. 1023an, Leyre-ko apezpiku aldia Iruñera aldatzen da, eta nafartar erregeak berak, zalantzarik ez dago, egiten du aldaketa hori; berari zor zaio ere seguruenik, Baionako Apezpikutzatza birreraikia izatea, mende bat lehenago Gaskuina-ko eliz barruti zabalean finkatua zegoena. Inondik ere hala izan behar, zeren 1059an Raimundo izeneko batek *Lapurdun*-go apezpiku titulua hartzen bait du". "Aldi berean, Oloron-go eliz barrutia Soule-ko artxidiozesari atxikirik geratzen zaio, Dax-en kaltetan, azken hau Mike eta Ostabart-eko lurren jabe geratu arren".

Roland-Morauk,<sup>21</sup> bere aldetik, zera dio, 1095 aldera hasten omen dela Baiona-ko Apezpikutzaren kondaira, hau da "Labourd-eko hirugarren konteak Baiona-ko Santa Maria eta Astarne-ko Bernard apezpikuari eskaintza inportante bat egiten dionean: hiriaren erdia ematen dio".

Ohar interesgarri bat egiten du hemen Charritton-ek, XI.mendean, alegia, eliz erreforma ez ezik erlijioaren egitazko berjaiotze bat, Erroma-ko elizaten berrikuntza gregoriano handiaren parekoa, ematen dela lurralde hartan. Kontzilioak ospatzen dira Iruñean 1033an eta 1072an, Naxeran 1067an Nafarroa-ko errege aurrean delarik, eta Hugo Kandido kardenal ordezkaria batzar buru. 1704.go martxoaren 20ko gutun batetan Gregorio VII Aita Santuak zorion agurra bidaltzen dio Santxo IV.ari, Peñalen-

<sup>18</sup> *Petite Histoire religieuse du Pays Basque*.

<sup>19</sup> *Euskal Ikaskuntzen Aldizkaria*, Paris, 1919, IV. alekia.

<sup>20</sup> R.P. Lucien Brun-en obrara bidaltzen gaitu Charritton-ek, Filosofia-ko artxiboetara, IX. alekia, II Koadernoak, 1932. Izenburu hau darama: *Kultur askatasuna*; euskaldunok beharrezko diren elementu autoktono badugula guri geurea emana izan dakigun frogatu nahi izan du horrela.

<sup>21</sup> *Histoire de l'ame basque*, Bordele, 1970.

goari, erromatar errittoa bere erresuman sartzen lehenengoa izan zelako penintsulako printze artean.

Euskal Herriko erlijio arazoa aztertu duten bi autore hauek bat datoz 1378az geroz Mendebaldeko Ebaketak Elizan sortu zen zatiketak gora behera handiak ekarri zituela esaten. Morreau-k 1429 jotzen du garai horren azkena bezala, Charritton-ek aldiz, hamabi urte lehenago eman zela dio, 1417an. Aldi hartan aita santu anitz izan ziren batera, batzu Erroman besteak Aviñon-en. Ingalaterra Erroma-ko Aita Santu Urbano VI.aren alde makurtu zen; Frantzia, Espainia eta Nafarroa, aldiz, Aviñon-go Klemente VII.aren alde. Baiona-k bi apezpiku izan zituela Erromaren esanetara, dio Moreau-k, eta aitziti, Saint-Jean-Pied-de-Port (Donibane Garazi) Aviñon-go aita santuei zitzaien mendeko. Charritton-ek zehazpen hau egiten du: "Iruñea-ko apezpikuek Aviñon-go aita santua ezagutu zuten eta bazirela Saint Jean-Pied-de-Port-en mendekotasun bereko prelatuak, Baiona-ko elizbarrutiko Nafarro aldean aginte edo jurisdizio zutenak".

### Foruak zer nahi du esan

Foru hitza eta beronen esan nahi bereziak sarritan aipatuko bait ditugu, eman diren definizioei buruz gure eritzia eman nahi dugu.

Euskaldunek, besteak bezalaxe, politika aldetik segurtasuna izatekotan, elkargoak beharrezko zirela ikusi zuten, inglesek, frantzesekin ala espainiarrekin, aldatuz egin zituen, arauen oinarria bat bera zelarik denentzat: Euskal, errejimen Forala. Hona errejimen honen ezaugarriak: 1., Frantziako Foix eta Gaztela-ko Koroa artean 1449az geroz harturiko akordio alde batetik, eta euskal lurraldeak bestetik; 2., akordio hori penintsulan mamituz doa, Gaztela-ko lehenik eta Espainietako erregeen bitartez geroan, hurrenez hurren, eta etenik gabe; 3., batasun politikoak ez zuen esan nahi erresuma bakarra bihurtzen zenik, ez eta ere euskaldunak erregeen mendeko zirenik; hauk Batzar Nagusi edo Junta Generalei mendeko jarraitzen ziren; 4., legeak herriaren eskubidean du sorburu; 5., foru errejimen hontan, beteak izango direla eta *jarraipena izango dutela garantia izan da beti*; eta 6., ohar hau egiten zen, Batzar nagusi hauen gainetik jartzen zena, nor nahi izanda ere, "hila izan zedila" bertan.

Garbi dago, beraz, Foruaren garrantzia, euskaldunen eritziz, berezko *eskubide izatetik, ez eskaintza batetik*, etorri ohi zaio. Bi eratako foruak badira, noski, eta sail bereziak garbi zehaztu nahi ditugu, hemen beretik.

Nafarroa-ko Foru orokorrak, Teobaldo Igoak 1237an onartuak, *legeak erregea baino lehenagotik direla* zioen. Euskal Foruak, Ingalaterrako legeak bezalaxe, usariotik, portaera batetatik, sortu dira. Gerora, politikoren mila gora behera artean iraun ahal izateko idatziz finkatu ziren, *lege zaharrak*, Legeak deituak (naturaleza) euskal odoleko erregeak izan ziren bitartean zutirik iraun zutenak, ez bait zuten hauek idatzirik uztea beharrezko kontsideratu haik gordetzekotan. Baina Teobaldo Champagneko, lurralde arrotzeko, toki arrotzeko seme eta hizkuntza arrotzeko izanik", Foruak dioen bezala, agintzera etorri zenean, beharrezkotzat jo zuten errege etorkinak haik betetzera behartzea.

*Errejimen Forala*-k "herrialde baten berjabetasuna esan nahi du, egokien zaizkion legeak arautzeko eskubide duelarik"; hori bera gertatzen da *Fuero Orokor-ekin*, berjabetasun eraginkorra adieraztera ematen bait dute. *Foruak*, "sentidurik zehatzenean, euskaldunek beraiek onartuak eta ezarriak izandako lege bilduma edo liburu bakoitzetariko bat dira". *Udal foruak* berjabetasuna adierazi ez baina errege batek herri baten alde, jendeztatzeko, lurraldea aldezteko, zerbitzuak ordaintzeko (batzutan erosi) eta nobleen gehiegikeriei buruz buru jazartzeko eta beste motibapenengatik emandako *carta puebla*, eskubide do *franquiciak* dira".

Nabarmena de *Fuero* batetik bestera dagoen funtsezko aldea; *Errejimen Forala*, *Foru Orokorrak* (Generalak), *Foruak*, berjabetasuna, legeak arautzeko eskubidea, eskubide, esan nahi dute; *Udal Forua* eskubide berezi-berezi bat, errege batek jaun bati, eta motibapen bategatik nahiz bestegatik herri bati eskainitako eskubide, fabore bat da.

"*Udal foruak* (munizipalak) eta *foru orokorrak garbi* bereiztea behar beharrezko da –dio Federiko Zabalak *Euskal Herriaren Historia*-n–, hainbat bider aitatuan. Batzuen nahiz besteen izakera juridikoa guztiz alderantzizko da. Aski da, oraingoz, bereizketa hori garbi ager dadin, udal foruak hiri bati fundatzaileak emandako eskubide batzu direla; foru orokorrak, aldiz, euskai herriaren usadio eta ohiturak". Pribilejio huts ziren haik; hauk, aldiz, ez. Mugaketa hori egitea funtzesko da ametslari askoei buruz buru egiteko.

Euskaldunen erakunde politikoek bide desberdinak ezagutu izan dituztelako, kondairaren gora beherek agintzen zuten arabera idatziz biltzen joan dira bere lege edo foruak: Nafarroa-ko Foru Orokorrak (1237), Araba-ren Ituna Gaztela-ko erregearekin (1332), Bizkaia-ko Foru Zaharra (1342 eta 1452, geroago azalduko dugunez), Lapurdi-ko Forua (1514), Zuberoa-ko Forua (1520), Bizkaia-ko Foru Berria (1526), Benabarre-ko Forua (Behe Nafarroa), 1611an erabakia eta 1622an argitara emana; Gipuzkoa-ko Legeen Bildumaketa Berria, 1696an argitaratua, nahiz eta 1379an idazten hasi, Nafarroa-ko Azken Lege Bildumaketa (1735).

Foru bakoitzak bere bere zaizkion aurretikoak eta inguru edo kontesto berezi berezia dituenz gero, eskualde bakoitza nola antolaturik dagoen, eta berjabetasun berezia kontuan harturik, aztertuko dugu.

## **Araba**

Nafarroa-ko erregeei mendeko izan zitzaion bolada batez, 1076a arte. Urte horretan Gaztela-ren mende erori zen. Geroan nafartar erregea esku sartzen ikusiko dugu Arabako arazoetan, harik eta gaztelarrek 1200. urtean epe laburrerako okupatu zuten arte.

XIV. mendean elkargo jakin baten bidez Gaztela-ko Koroari elkartua izan zitzaion. XV. mendean Gasteiz-ek 2.000 etxe baditu eta hauzune batzu ere bai harresiez kanpora. Ekonomi erakundea guztiz xumea da oraindik, baina sozial aldetik bada harako antolaketa bat dagoeneko: kontea, batetik, buruzagi militar eta zibila dena, printzeak eta lur sail jakin baten jabe diren konteak, noblezia, bere esku diren pertsonak; baziren ere,

gainera, monastegiak, lurrak eta jaunen pareko agintea zutenak; San Millan-go Monastegia genuen jabego zabalaren nagusi.

*Arriaga-ko Kofradiak* zerikusi handia du Araba-ko kondairan. Hala dio Madoz-ek, arabatar jendea Arriaga-ko Zelaian bildu zelarik, "Estatu soberano eta berjabe bat eratu zuela". Goimailako familietako semeek, ricos-homes, zaldunek, eliz gizonak eta goimailako andereek osatzen zuten. Urtean behin biltzen ziren batzarrean lau alkate eta epailari aukeratzeko. Hauetako bat Zuzentasun Buru bihurtzen zen; aginte militarra jaun edo konte baten eskuetan zegoen, gudu arazoetan buruzagi zelarik.

Errekonkista arazoa gainera etorri zenean, bandera independente baten itzalean joan ziren eta Arriaga-ko Zelaian aukeratua izandako buruzagi baten aginduetara.

"Araba-ko lurraldea –dio Madoz-ek, Alfonso XI.aren kronikaria aitatu– "jaunerri berjabe izan zen beti; bertako aitorseme eta nekazariak nahi izan zuten bezalaxe; batzutan Gaztela-ko erregeen semeotariko bat hartzen zuten jaun bezala, eta beste batzutan Bizkai-ko jauna, edota Lara-ko jauna, edo Camero-ko jauna, eta iragan aldietan ez zen inoiz ere lur hontan erregerik izan, ez ordezkariarik ipini, zuzentasuna egiteko ...".

Eta Garibay-k ere hau dio "arabatarrek eta Kofradia-k ez ziren inoiz ere Gaztela-ko erregeren justizipean bizi, eta ez ziren errege Koroari elkartu Alonso errege etorri arte".

1238an Diego Lopez de Salcedo agertzen da, "Adelantado en Alava y Gipuzcoa" tituluarekin. Gerora legedi bilduma bat eratu zen, Arabako elkartearen erabakiak (Ordenanzas de las Hermandades de Alava), eskualde guztietan bat bedera, eta Fernando IV.ak Gasteizi egindako eskaintza agiri batean aipatua, eta Burgos-en 1302ko uztailaren 27an izenpetua. Alderdikeri taldeek ekartzen zituzten arazoak erabakitzeke indargea sentitzen zen Araba, eta ahulegia hauzuen aurka nafartarren eta gaztelarren aurka borrokatzeke, erresuma hauetako erregeek beraien komenientziei zegokien erara erabiltzen bait zituzten etengabe bi alderdi nagusiak. Azkenik, arabatarrek Gaztela-ren mende makurtu behar izan zuten. Errendipen hori ez zen, alabaina, baldintzarik gabe gertatu, ezen itun bat onartu behar zen. Itun hontan Askatasun Forua ematen zitzaion Araba-ri Gaztela-k bere aldetik, haintzakotzat hartzen zuela hitz eman zuen.

## ***Gipuzkoa***

Bazuten esperantza Nafarroa-ko erregeek inoiz Gipuzkoa beren erresumaren baitara erekarriko zutela.

Alonso de la Cerda infanteak, Gaztela-ko errege gaiak, Felipe III.aren laguntza irabazi nahi duelarik hau dio zehatzki: "que el derecho de haber et eredar la propiedad de las tierras de Ipuzkoa et Rioja, es del Rey y de la Reina de Navarra". Arabari buruz Nafarroa kezkatu zegoela digu frogatzen honek. Hori bera gertatzen zitzaion Bizkaiari buruz ere, eta horrela Karlos II Gaiztoak (1349-1378) eta don Pedro Aragoi-koak, 1363an, Gaztela-ko erregearen aurka Tuteran egin zuten ezkutuko elkargoan, zera erabaki zuten, erresuma hura konkistatu ondoren hiru euskal lurraldeak Nafarroari eskainiko zizkiotela. Don Pedro erregeren eta Enrike IIaren (1366) aldekoek izan zuten gerla zibilean, Coruña-n itsasoratu zen hau, Baionara joan eta Gales-ko printze Rikardo-



rekin, eta Nafarroa-ko Karlosekin konfederakuntza tratadu bat egin zuen, azkenari agintzen ziolarik Ipuzkoako lur eta itsasportu guztiak ematea; aditzera eman zuen horrela Nafarroari itsasorako irteera naturala izateko eskubidea aitortzen ziola: Donostia eta Pasaia bere mende egonak ziren.

Batzar Nagusien (Junta General) bidez arautzen zuen Gipuzkoak bere burubidea ohitura guztiz zahar bati jarraikiz. Junta hauek errejimen tinkorik ez zuten hasieran, gerora urtean bi aldiz ospatzen ziren, eta XIX. mendean behin bakarrik. Bileraz uztailaren 2an hasten zen eta ezin luza zitekeen hamaika egunetik gora. 18 herrietan ospatu ohi zen, hurrenez hurren, urte batez distrito berean, sei partido hauetariko bakoitzean: Segura, Villafranca, Tolosa, Hernani, Errenderi eta Ondarrabi batekoak ziren; Arrasate, Bergara, Elgoibar, Azkoiti eta Zestua bigarrenekoak, eta Donostia, Zarauz, Getari, Zumaia, Deva eta Motriko hirugarrenekoak, Gerora Oinati ere Gipuzkoari XIX mendean elkaturik geratu zitzaionean.

Herri ordezkariak agintez jantzirik joan ohi ziren biltzarretara; berrikitan aginte horik idatziak izan ohi ziren. Etxeko jaun bakoitzak izan ohi zuen boza, eta ordezkari edo diputaduak aukeratzen; hauek urtean zehar gorde ohi zuten agintea eta lan horretarako laguntzailea zuten, sekretarioa, akordio eta erabakiak idatziz jasotzen zituena.

Udalen antolaketari buruz: kontzeju irekia genuen lehendabizi eta gero hertsia edo aiuntamentukoa. Era demokratikoz aukeratzen ziren alkate eta kontzejalak.

Ez zeuden beharturik erregerekiko zerbitzu militarra egitera, harmazko jendea behar bazen Batzar Partikularra bildu ohi zen, eta "Colonel Gudalburu bat eta Gudu Diputazioa aukeratzen zen, batzarkide edo diputadu guztiek eta korrejidore batek osatua", dio Perez-Arregi-k lehen aipatu dugun *Gipuzkoa* Liburuan; hartara jendeak harmak hartzen zituen.

Alkabalak, beste zergarik ez zen ordaintzen, diru kopuru handi bat emanaz; "eskaintza" itxura zuen, gainera. Hitz hori erabiltzen zen propioki zeren garbi utzi nahi zen "behin idazkaria, akordio eta erabakiak idatziz jasotzen zituena. bezala interpreta ez zedin".

1391an Batzar Nagusia Tolosa-n bildu zen erregearen zerga biltzaileek eskatzen zituzten 100.000 marabedien arazoa aztertzekotan, eta eztabaidatu ondoren "eskabide hori ez ordaintzea erabaki zuten, Gipuzkoa-ko Foru eta libertateen aurkako zelako"; halaxe gertatu zen, eta Enrike III.ak 1399.go urtarrilaren 24ean Santa Maria de Pelayos-en emandako agiri edo zedula baten bidez, 1401.go abenduaren 15eko eta 1407.go Abustuaren 16ko zeduletan gonfirmatua, ordainketa horretatik libre utzi zituen.

Mende erdi bat geroago, 1466an, eman zizkion Gipuzkoa-ri Enrike-k *noble* eta *leal* tituluak; eta Karlos V.ak (1500-1558) "*muy*" delakoa erantsi zuen.

Errege Katolikoek Gipuzkoa-ren eskubide guztiak, baiestatu zituen Tarazona-n, bertako semeak gerla aldian beren lurraldeko mugetatik ateratzeko obligaziotik libre geratzea barne, baldin eta erregeak aurrez arrotzei bezala soldata ordaintzen ez bazien.

***Bizkaia***

Bizkai-ko hasiera hasierako sor-lekua Gernika, Markina eta Bilbao-hauzoez osatzen zuten; geroan Durangoaldea, eta azkenik Enkartzioak erantsi zitzaizkielarik.

Aintzinatean burubide berezi bat zuen: distrito ruralak eta bailerak, beren elizateekin, (parroki elizak, beren eliz-atariekin, hauzotarrek beren bilerak egiten zituzten tokia) zirelarik oinarri.

Arabaren bezala hemen ere jaunak bizi ziren, lur sail ttikien gainean aginte edo jurisdizio zutenak. Geroago Haro-ko Etxe-ko jaun bati eskubide zenbait ezagutzen agertzen zaizkigu.

Durango da herririk zaharrena. Gainerakoak azken denboretakoak direla esango genuke: Bilbao (1300), Markina (1355), Gernika (1360); ikusten denez, Gipuzkoako herri gehienak baino berrikiagoak.

Batzar Nagusien sorkundearen kondaira Jaun Zuria-ren leidendarekin nahasturik dago. Gipuzkoan ez bezala, "ahaide nagusiek" eskatzen dutenean biltzen dira Batzar Nagusiak, Gernikako Arbolaren itzalean; geroago, Antigua-ko Andra Mari-ren ermita barruan (Arbola-tik hurbil) 1410an birreraikia izandakoan, baita ere Aretxabalagana-koaren azpian (Morga). Inguruetako bost mendi gailurretatik, Gorbea, Oiz, Sollube, Ganekogorta eta Kolisa, suketaz argituak, adar hotsez aldarrikatzen zuten batzarra.

1020an Iñigo Lopez delako batek Bizkai-ko konte izenez baiestatzen du. Don Diego de Haro, Gaztela-ko erregearen kuttuna agertzen da agintzen Bizkaian XII. mendearen hondarrean eta XIII.aren hasieran.

Adrian Celaya-k, Deretxo-n doktore tituludunak,<sup>22</sup> zera dio, 1342an, Juan Nuñez de Lara Salado-ko borroka zelaian parte hartu ondoren Bizkaia-ra itzultzerakoan zigor arauari eta mendeiekiko baliakizunei buruz zer zioten foruek jakin nahi izan zuela Batzar Nagusian aurkeztu zuelarik, bost adar hotsak jo ondoren", koaderno bat idatzi zen, 37 kapitulutan banatua, gai honi buruzko arau guztiekin. 1342an idatziriko idazki honi Juan Nuñez de Lara-ren Fuero deitzen zaio sarritan, baina egiaz, ohitura foraletako zati guztiz ttiki bat besterik ez da, mendi eta Zigor Arauteri edo Derecho Penali dagokiena, garai hartan Bizkaiko jendea borroketan nahasiak zebiltzala eta bilduma bat egitea premiazko bait zen, dirudienez. Bere edukia mugatua egon arren 1342. go koaderno hontan Foruaren zenbait printzipio nagusi aurkitzen dira, Elias de Tejada-k esan duen bezala (*El Señorío de Vizcaya*; 40 orria). Merkatalgo askatasuna arautzen da (28. kapitulua) eta merinoari edo prestameroari aitorsemearen etxean sartzea eta jabearen nahiaren kontra ezer hartzea debekatzen du (23 kapitulua). Urte haietan alderdien arteko areriotasuna sutan jarri zen Bizkaian. Gipuzkoa-ko eta Arabako Oinaztar eta Ganboatar etxeok, Bizkaiko jendea ere oinaztarren eta ganboatarren artean zatitu zuten, talde bateko eta bestekoen arteko ezinikusi eta gorrotoak lurraldea odoleztatzen zuelarik. Muxikakoek (oinaztarrak) eta Abendaño-koek (ganboatarren aldekoak) hiru mendez hondamendia eta heriotza zabaldu zuten lurraldean zehar. Ez dirudi 1342an idatziriko koaderno hura aski izan zenik alderdikeri hau akabatzeko, ez zuen lortu ere hori aintzinatek gaizkileei jazartzeko eratu zen elkarte edo hermandadeak. Egia zera da, Don Enrike III.ak, Gonzalo Moro korrejidoreari elkarte nagusi bat antola zezala agindu

<sup>22</sup> *El Derecho Foral de Vizcaya en la actualidad*, Bilbao, 1970.

zion. Butrondarrek, Muxikarrek eta Legizamondarrek, hau da, alderdi bateko eta besteko buruzagiek, ez zuten onartu; aitziti, delako Elkarte hori Foruen aurka zegoela atera zuten; bizkaitarrek premia Iarriz eskatzen zutela eta azkenean, *Cuadernos de Hermandad* delakoak, 1394ean idatziak eta baiestatuak izandakoak, onartuak izan zitezten lortu zuten. Deretxoaren segurtasunerako, Moro korrejidoreak, azkenean, hau ematen du aditzera "baldin eta Bizkaiak, edo bertako jenderik gehienak, kuaderno horretan kapituluren bat Foruen aurka dagoela esango balida bertan bera kenduko eta botako nuke, eta hutsaltzat joko". Eredugarri benetan protaera honen demokrazi zentzua, eta korrejidore izateak eskatzen zion erara portatu izatea.

Celaya jakitsuak erasten du "errez ulertuko dugu koaderno hauen balioa, nahiz eta mugatua izan. Ez dute Foruen baliorik, usarioa bait da hauen sorburu, baizik eta zigor eta hauzi erabakiak dituzu, Lurraldean gerta ohi ziren gehiegikeriak galerazteko eginak". *Bizkai-ko benetazko Forua* ez zen idatzia izan 1452.go ekainaren 2a arte; fetxa horretan aurkeztu zioten Gernikako Batzarrekoek korrejidoreari "nolaz ere, jakin, bait bai zekien bizkaitarrek beren eskubideak eta gainerako Foruak zituztela, usadioz eta idatzi gabeak, hala nola zenbat kalte gerta ohi zitzaizkien bizkaitarrei egunoro, Enkartaziokoei, Durangoaldekoiei Foru eta eskubide horik ez zituztelakotz, idatziak izan zitezela". Korrejidoreak erantzun zieten "egia zela bizkaitarrek beren eskubide eta usadioak zituztela, eta hauen arabera moldatzen eta gordetzen zituztela, beren arauak", eta redakzioa egiteko aukeratuek bere aurrean juramentu egiteia behartu zituen. Hauek Foruaren testua idatzi zuten, eta geroago, urte bereko uztailaren 20an, Gernika-ko Arbolaren aurkezpena egin zen; denak bilduta zeudelarik "ahots batez aditzera eman zuten: Ontzat, zuzentzat hartzen zituztela, Foru, eskubide eta usadioak ... eta Erregeri eskatzen ziotela hartan idatzirik zeuden Foru eta legeak konfirma zitzala ... eta jadanik, Erregeak baiestatuak izan arte ere, Foru haietaz balia ahal izan zitezela".

Traskizio luzea izan da, baina baliosoa, zeren beste puntuen artean garbi zehazturik uzten ditu testo hontan egiten diren bereizkuntzak, *privilegio*, *franquezas*, *libertades e Fueros* "que eran de albedrío".

Geroxeago berriro ere idaztea pentsatu zen, dio aurrerago Celaya-k, eta "1452ko foruan, esaten zen 1526ko apirilaren 5ean bildutako batzarrean ba omen hutsean erori ziren premiarik gabeko gauzak eta, aitzitik usarioan zeuden erabaki anitz ez zeudela idatziak, eta horrenbestez, komisio berri bat Kreatzea proposatu zen idatziari forma berria ematekotan" ... "Epe guztiz labur bar eman zitzaien (arduradunei), hogeitau egun, gaur ezinezko litzatekeena. Abustuaren 10ean Martin Saez de la Naja-n bildu ziren, Bilbao-inguruetan. Abustuaren 20an komisionatuek Foru Zaharra oso osorik aztertua eta estiloz, Martin Perez de Burgos, Jaurerri-ko idazkaria eta Iñigo Urtiz de Iburguen sindikoa izendatu zituzten lege zahar eta berriak liburu berri batean idazteko, eta ez zezatela beste arazorik eskuarte hartu harik eta liburu idatzi eta amaitu zezaten baino lehen agindu zieten. Juana erreginak Foruak Burgos-en baiestatu zituen 1527.go apirilaren 8an. Hartara, *Bizkaiko arauteri nagusia betirako idatzia geratu zen*, entzutea mundu guztira zabaldu eta lan hontako gai nagusia delarik".

Garrantzizkoak izan ziren, izan ere, XV.mendean Bizkaiko elizateen eta herrien artean sortu ziren eztabaidak; Foruak garaikotzea behar beharrezko egin zuen honek.

Bilbao-n sortu zen eztabaida, batez ere, gora behera handikoa izan zen, eta Caro Baroja-k dionez XIX. mendera bitarte bizirik iraun du "eten gabe zabaltzen zioala ikusteak ezinikusi handia idarokitzen zien inguruetako jauntxoei ...". Bilbo-ko industri eta merkatalgoa goraka zihoazen eta ekonomi eta sozial aldetik arazorik ekarri ere zuten. Gaztela-ko erregeak korrejidore batzu izendatu zituen Bizkaian bere ordezkari izateko; hauek bozarik ez zuten biltzarretan, hauk izan ziren lehenengoak, Juan Alfonso de Astro Donato (1370) eta Gonzalo Moro jauna (1384); hauen ondotik beste 133 etorri ziren 1874a bitartean, Foruak birrinduak izan ziren urtera arte, alegia.

Foruak ez dira, ordea, eta ez dira izan inoiz papel huts. "Espainiako goi mailako jaunek eta Errege ospetsuek –dio Celaya-k aitaturiko obran– garai hartan ezagutzen zirenen aldean guztiz bestelako ziren testuak izenpetu ez ezen mendeko izan zitzaizkien".

Eta ondoren instituzgo foralak zuen eta duen esan nahia zabalagotzen du, Lemonauria eta Balpardare-n hitzok aitaturuz, dionean: "*Bizkai-ko foruak funtsean, gizonaren Foruak dituzu, ez besterik*. Ezen, bizkaitarrek beretzako aukeratu dituzten eskubide artean giza eskubideak funtsezkoen eta garrantzizkoenak bait dira. Eta sinesturik nago, orain aztertzeraz goazen testu foralok irakurriko lituzkeen edozein izpiritu liberala hunkituko luketela giza pertsonaren duintasunari zor zaion begiramenez eginak bait dira. Harrigarri da horrelako arauak XV.mendean idatziak izatea, bost mende geroago, gaurko Estatu gehienek pratikan jartzen saiatzeko ere gauza izango ez lirakeela kontuan hartzen badugu".

Ez da, gero, gorai pamen ttikia Deretxo-ko irakasle batek, nahiz eta irakasle hori euskaldun izan, gure oinarrizko lege hauei egiten diena. Mendeetan zehar iraun duen Foru honek, lumakada batez deuseztatua izan zen honek, ez dakigu zenbat denboraz, gaurregun ere, harrigarriro, badu eraginik eremu zibilean.

Gai honi lotuko gataizkio hurrengo kapituluan.

## Garai hartako euskal ekonomia

Nahiz eta gure herrian arrakasta handiena izan badu ere, metalurgia industriaren hastapenei eta desarroiloari buruz, ez digu gure hizkuntzak nahi genukeen eta behar genukeen guztia argitu.

Caro Baroja-k dionez, *urre* eta *zillar*, adibidez, *aurun* eta *silver* hitzetatik datoz. *Urraide* eta *zirraida*, aida atzizkiak emandako argitasunari esker Barandiaran-ek dioen bezala, gerora izan ziren ezagutuak, eta aurrekoekin lotzen ditu. Badirudi *burdin* edo *burni* (bi era hauk erabiltzen bait dira euskaraz *hierro* adierazteko) bi hitzok jatorria urrunago dutela, eta Caro Baroja-k uste duenez heberkera eta feniziera, espazioz nola denboraz elkarrengandik horren aldenduak diruditen hizkuntzetatik etorriak izatea litekeen gauza da.

Jakina da erromatarrek zenbait mehatz arakatu zituztela Bizkaian, hala nola Oiartzungoak ere Gipuzkoan. Alfonso Churruca-k<sup>23</sup> Bizkaian, Gipuzkoan eta gutiago

<sup>23</sup> *Minería, Industria y comercio del País Vasco*. Euskal Herriko Adixkideen Euskaldunen Monografiak, Donostia.

Arabian ba omen zen burdinik, dio. Dokumenduen eskasia kontuan hartuta ere, Caro Baroja-ren ustetan, euskal lurretako lehen sutegiei buruz aitamen egiten duena Arrontzio-k Akozitia-ko arabar elizari 871. urtean egin zion eskaintza dugu.<sup>24</sup> Zera dio Churrua-k, lehen materigai honen eta beronen goritasuna lortzeko beharrezko zen ikatza egiteko aritz basoen jabe izateak ekarri zuen burdin industriaren gorakada aintzinateko denboretatik; XI. mendean zegoeneko, dio historialariak, Somorrosto-tik, Bizkaian meakin garraiatzen zen Gipuzkoa-ko eta Frantses zenbait portuetara, eta Bizkaia-ko Foruak ola-gizonei eskaintzen dietela "arauteri trinko eta zuhur" hartako zati handi bat.

Donostia-ko Foruak, 1150. urtean, hala nola Segura, Legazpia, eta Arrasateko dokumentuak, XIII. mendean idatziak, ola-gizonez mintzo zaizkigu; era berean, sutegiei (Oizartun, 1338), Bizkaia-ri (1440) eta Markina-ko Erabakiei (1474) eskainiriko foru bereziak ere badira.

Caro Baroja-k euskal metalurgia zaharraren funtsezko alde hauk aitatzten ditu: 1) burdinaren erauzketa, bere hartan edota barratan esportatua izateko; industria hau, merkatalgoa, arrantzoa eta nabigazioa bezalaxe goreneko mailara iritxi zen, Baskonia Erdi Haro-ko azken hondarretan enpresa politiko eta ekonomikoetan parte hartzen hasi zenean; 2) burdin lorketa lurraldean zehar landua izatekotan. Segura-ko Foru baten arabera, Santxo IV.ak 1290. urtean aldarrikatua, emakumeek ere industri lanean parte har dezaketela erabakitzen zen.

"Alemandar mea-gizonak izan genituen, Nafarroa-ko erregearen aginduz 1392an Unobi, Oroz, Betelu, Lesaka, Vera, Beruete-ko meak arakatu zituztenak, eta "1340an Urrobi-ko kobrea eta zilarretik Paulo Giraldo florentziarra aterako da aberasturik; T. Gonzalez-en agiri edo zedula bilduman, 28-30 orritan, Somorrosto-ko burdinaren erauzketaz, 1439. urte otsailaren 16. fetxa daramanaz, eta bestean, 1475. urte uztailaren 12an egindakoaz mintzo da.

### **Euskaldunen itsaso arazoetarako gaitasuna eta beraien untziteriaren indarra**

Normandiarrak, Bizkaia-ko Golkoko itsas bazterrean IX. gizaldi inguru etorriak, dio Caro Baroja-k, izan omen zituzten euskaldunen itsaso arazoetan maisu. Engrazio Arantzadi-k egiten duen oharra aipatzen du, alegia, euskal-untziak eta normandiarrenak neurri berekoak zirela. Halaz guztiz, Gurruchaga-k eta beste historialariek zera uste dute, ikerkuntzan sakonago sartzen garen neurrian euskal itsasgizonen urrunerako joera hori aintzinagoko denboretakoa dela ikusten dela. Caro Baroja-ri jarraikiz, "itsaso arazoekiko euskal hiztegiak" Erdi Haroko Ifarraldetik etorritako sustraiak ditu, eta euskal hiztegiak "arrantzo alorrean nortasun nabariagoa du". Euskalduna itsasoari lotu izan dion adixkidegoa aintzin-aintzinako dela lekukotasun anitz dugu. Alfonso Jakintsuak idatzitako *Cronica General de España* delakoan hau esaten da, don Fernando Jaen-en aurkitzen zela Ramon Bonifaz-i deitu zionean "e de que oyo sus cosas con el fabrado mando luego donar a presa e que fuese guisar naves e galeras a Vizcaya a la mayor frota que podiese e mejor guisada e que se

<sup>24</sup> *Cartulario de San Millán*, 17 or.

viniese con ella para Sevilla". Garbi dago beraz, euskaldunek Gaztela-ko erregeen itsas txangoetarako untxiak kostruitzen zituztela zegoenektz XIII. mendearen lehen erdian, eta eraikuntza horretan aurrerapen handiak egin zituztela. Antonio Nebrija-k *Cronica de los Reyes Católicos* liburuan zera dio "euskaldunak itsaso arazoetan jende trebea direla eta itsas borroketan ausartak; untzirik eta apailurik bazuten hartarako eta hiru gauza hauetan ... munduko beste naziorik ez bezala ikasiak genituen ...". Parte handia izan zuten euskaldunek Armada Invencible delakoaren prestaketak egiten ere. Bartolome de las Casas-ek hitz parregarriak izan zituen, eta are mingarriak Colonen untzietako baten eraikuntza begiratzeko norbait behar zela eta Palentzia-ko apezpikua izendatu zutenean: "Untziak eraikitzea apezpikuen zeregina baino bizkaitarrena bidezkoago deritzat."

Madoz-ek egiten duen aipamen bat ere ohargarri da. Hona zer dion, XIV.mendean, (1393), euskaldunek Canarias irlak aurkitu eta Lanzarote-n lurrartu zuten. Canarias irlak aurkitu eta Lanzarote-n lurrartu zuten. Canarias irlen aurkipena, beste batzuen ustetan, "1312an genobatar merkatari bati, Landelotto Malocelli-ri zor omen zaio"; XIV. mendean antolaturiko espedizioez mintzo dira (1342, 1352, 1369, 1386ean kristautua), eta erasten dute, 1402an normandotar batek, Juan Bethencourt-ek lurrartu eta menderatu omen zuen. Nongo iturritik atera duen Madozek albiste hori jakiteak baluke interesik.

Arrantzoaz mintzatzean, beharrezko dela dio Caro Barojak itsas zabaleko bale eta bakallao arrantzale artean, *mariñel* eta itsasbazterreko *arrantzale* artean bereizketa egitea. Bailearen arrantzoa aberastasun iturri izan zen euskaldunentzat, gipuzkoarrentzat batipat. Modu horretara mintzo da Toro-ko Gorteetako eskabidea 1371ean; honela diote hauek "hemengo mariñel jendea Asturias-era eta Galiziara aldatzen zen", eta eskubide errealak ordainduz "gatza eta arrainak, ttiki, handiago eta are baleak eta balekumeak erosten zituzten e que las salgaran por si et esto que se usara siempre hasta agora de poco tiempo acá".

Ondarribi, Getari eta Motriku-ko harmarrietan baleak irudikatu ziren. Alabaina, bale arrantzoa, gipuzkoarrek eta bizkaitarrek pratikatua urriagotzen hasi zen Utrech-ko trataduaz geroz, espainiar Ondorengotasun gerla amaitu eta Ingalaterra-ri Gibraltar entregatzea erabaki zuenez geroz.

## **Merkatalgoa**

Salmenta arazoari gagozkiolarik, oroitzapen oroz lehenagotik ezagutzen zuten euskaldunek, XII.mendean ezagutu zuen, halaz guztiz, gorakada nabarmena, hots, untxi hobeak moldatzen hasi zirenean. Inglesek eta frantsesek euskal untxiak erabili zituzten XV.mendean, Felipe II.ak Donostia inguruko herriekin izan zituen trataduetan aipatzen den bezala, untxi aldra baten laguntza eskatzen zielarik XIII.mendearen azken aldian.

Itsasoko arazoetan ihardute honek ezaugarri berezi bat erantsi zion euskaldunen izaerari. Jarrera eta esperientzia hori dela eta, euskaldunek ondo ordainduriko karguak izan zituzten, hare Espainiar itsas harmadan goi mailakoak; honela, izen zerrenda luze batek iritxi izan ditu kargu handienak.

Euskal merkatalgoa XIV.mendean zehar guztiz joria izan zen; untziak bai Portugalera, bai Galizia-ra, Katalunia-ra, Frantzia-ra, Behe Herrialdetara eta Ingalaterra-ra joan ohi ziren. Euskal merkatariaik itsasportu nagusietan finkatu ziren. Oso ezaguna da Brujas-ekoa (Mendebaleko Flandes, Belgika-n); 1348an Lonja famatu ireki zuten, ingelesei, beneziarrei eta beste herrialdeetako merkatariei aurrea hartuz. Bai Aragoi-k, bai Gaztela-k eta bai Nafarroak, esportatzen zituzten ardo eta artile salmentan ere sartuak zeuden; Deva-ko portutik, garaiko onena kontsideratua, atera ohi zen.

Ardo mingotzak eta gradu gutiko edariak, gure txakoli ezagunak, Gipuzkoan eta Araban sortuak, Hegoaldeko herriekin harremanean jarri ziren neurrian irabazi izena galdu zuten eta Erdi Haroaren azken kondarrean dena galdu ere. Geroan Nafarroa-ko eta arabar Errioxa-ko ardoak izan zuen izen handia. Euskal bazter guztietako dokumentuetan sagarra aipatua da, eta XVI.mendean hasten da landua izaten.

Donostiako Foruan, dio Caro Baroja-k, aitatua omen zegoeneko, XII.mendean, herriak ezaguna duen hitz bat, arrantzoari buruzkoa; ondoren elkarte edo kofradiak eratu ziren portuetan. Bilbao hiri (villa) mailara jaso izan zenean, Bermeok bere garrantzia galdu zuen Bizkai-ko hiriburuari buruz. Bostehun urte hauetan zehar meatzkia eta merkatal untziteria izan zen euskaldunen ioritasunaren oinarri. Bilbao-ko Kontsulatuak itzal handia zuen; amerikar herrialde guztietan zuen agintea, are errepublika izatera iritxi zirenean ere, harik eta haietariko bakoitzak bere Merkatalgo arauteria onartu zuen arte. Bilbao-ko Kontsulatuaren mende zeuden Kontratazio Etxeak izen handiko ziren. Merkatalgoari buruzko erabaki zerrenda argitaratzen hasi ziren, 1737.goa zelarik azkenekoa.

Euskaldunak ez ziren espainiar erregeei eskainitako zerbitzuetara mugatu. Biziri irrikatzen zituzten zerbitzu horik; soldata handiz ordainduak bait ziren, eta Pasai Donibaneko harmarriak lili lore bat darama, frantziar errege batek eskainitakoa, hain zuzen ere.

### **Euskaldunen harremanak arrotz herriekin**

Bost mende hauetan harreman anitz izan zuten atzerriekin, inortxo ere ez zelarik tarteko. Sarritan aurkitzen ditugu euskaldunak Frantzian frantzesen eta inglesen alde borrokatzen. Benabarre-ko, Lapurdi-ko eta Zuberoa-ko euskaldunek inglesaren alde egon ohi ziren borroka hauetan, ezen denbora batez beren lurak inglesen mende egon bait ziren, eta gainerako eskualdeak Frantziaren alde; honen eragina Nafarroa-ko errege dinastien bitartez ezaguna zaigu. Horrela bada, 1350ean "Inglaterra-ko Baiona"n bizi ziren euskaldunek Bidasoaz honuntzaldeko anaiekin bakealdia urratu behar izan zuten garaiko erregearen agindu bat betetzekotan.

Garai hontan, hain zuzen ere, aurkitu zituzten euskaldunek Terranova-ko irlak.

Madoz-ek dioen bezala, Eduardo III.ak Agiri bat (Breve) zabaldu zuen Tetherthet-en 1350-ko abustuaren 16an Canterbury-ko eta York-eko artzapezpikuei zuzendua; beren elizetan erregeak eta mezak eskain eta erruki ekintzak egitera dei egiten zien, Jainkoa baretu eta euskaldunen aurka garaitzapena eman ziezaiela eskatuz, artile eta ardo salmenta arazoetan zebiltzen ingelesei pakerik ez bait zieten ematen euskaldunek;

gainera, zioen Eduardo-k, horren handia omen euskaldunen harrokeria "ze Flandes-ko uretan egundoko harmada bat bildurik, haien untziak suntsitzea eta britaniar itsasoan jabe ailtzatzea asko ez balute bezala harrokiro menazu egiten zutela inglesen erresuma harmaz hartu eta bertako jendea txautzeko. Gauzak horrela, borroka odolgarri bat eman zen itsasoan ingles untzien eta Vinchelle-ko euskal untzien artean dokumentu hontan datorren urte, eta hilabete bereko 29an.

Alabaina, euskaldunak porrokatuak izan ziren, eta hauen 26 untzi hartuak. Eduardo III.ak, bere bi semeekin batera borrokan ikusten egona, domina bat kudea erazi zuen garaitzapena ospatzeko.

Euskaldunen eta inglesen arteko etsaigoek aurrera jarraitu zuten, eta 1350 urte bereko irailaren 8ko agindu baten bidez, bere mendeko ziren Pirineoz haruntzko euskaldunei Penintsula aldekoen aurka borroka zezatela eskatu zien Ingalaterra-ko erregeak, "zeren untzi aldra guztia txautzea mehatxu egin bait zuten, et *sic dominium maris ad se tradere*". Urte bereko irailaren idazki batean, ingles erregea zorrotz mintzatzeko da "bere aginduei men egin ez zieten aurka", eta, itxura denez, euskal untziteria txautzearekin amaitu ez zen gudu hontarako diru laguntza eskaini zuen.

Gipuzkoa-k, azkenean, tratatu bat egin zuen Ingalaterra-rekin. Hitzarmen honen berri, dio Madoz-ek, Rymer-i, 1641.etik 1713ra bitartean bizi izandako<sup>25</sup> errege etxeko historiagile inglesari zor diogu, eta ez da aurkitzen beste erreferentziarik Gipuzkoa-ko artxiboetan. Badakigu ere agiri hauetariko asko galdu egin zirela suak erre zituenen galduak izan zirela. Geldiune hauetan "inglesen eta euskaldunen untziak arrixku orotik babesturik egon ohi ziren eta tratuan zeuden herrialdeetako semeak askatasun osoz eskain zitezkeen merkatalgo arazoetara nahi zuten tokietan; euskaldunek ere lasa egin zezaketen arrantzoa Ingalaterra-ko eta Bretania-ko itsas bazterretan, eskubideak ordainduz, erabakita zegoenaren arabera". Beste erabaki hau ere hartu zen, alegia "baldin eta Gaztela-ko koroaren mendeko herri, gaztelu edo untziren bat Frantziaren edo Ingalaterra-ren mende eror bazedin, eta haietan euskaldunen gauzaren bat aurki, berehalaxe itzulia izan zekiela. Hitzarmen hontan onarturiko erabakiak beteak izan zitezten epailari batzu izendatu ziren, Frantzia-ko eta Ingalaterra-ko erregeek eta goian aipaturiko ordezkariak (gipuzkoarrak) beren ikurrak ezarri zituzten. Ikus gero, aipaturiko itun hortan eta horren aurretik izan zen gerlan ez zuela parte hartu Gaztela-ko erregeak". 1200.urtez geroztik Gaztela-ko Koroaren inguru ibili izateak ez zuen euskaldunen berjabetasuna murriztu.

Euskaldunek bale koipea Gaztela-ri eta Ingalaterra-ri eta Behe Herrialdeei saltzen zieten. Bazuten traturik ere Irlandarekin, ondo hartuak zirelarik beti, diotenez.

Madoz-ek dio " 1481eko Gipuzkoa-ko Batzar Nagusietan, Uzarraga-n ospatuak izanikoetan, Bernardo de la Fose eta Arnaldo Trusell, Ingalaterra-ko erregearen enbaxadoreak egotea garrantzi handiko da; izan ere gipuzkoarrekin pake itun bat egitera bait zetozen, eta hura burutzeko Sebastian Olozabal eta Juan Antonio Gallastegi, Juan Ayunes eta Martin Pedro Berasategi izendatu zituzten; Londres-era etorri ziren hauk beren agiriak aurkeztera. Ingles erregeak 1482.go otsailaren 22ko idazki batez baimena ematen zien Robert Morton-i, Juan Cook-i eta Enrike Aynessivorch-i hitzarmen hauetan parte hartzeko, eta urte bereko martxoaren 9an hamar urteko geldiene elkargo

<sup>25</sup> Rymer, 5. liburukia, 3. zatia, 110 or.



bat finkatu zen Ingalaterra-ko erregearen mendekoen eta Gipuzkoako biztanleen artean. Tregoek zirauten bitartean Gipuzkoako itsasertzeko biztanleak askatasun osoz ihardun zitezkeen merkatalgo arazoetan Ingalaterra-ko itsasbazterrean beren herrialdeko portuetan egin zezaketen bezalaxe, erabakitako eskubide eta usadioak aparte; eta ingelesek eskubide (franquicia) berberak zituzten Gipuzkoa-ko itsasertzetan iharduteko...".

"Tratadu hontako artikulurik nabarmenenak –jarraitzen du Madoz-ek– hau erabakitzen zuen, Gaztela eta Ingalaterra artean, zernahi aitzaki sortu ere mendeku hartuko balitz, gipuzkoarrek ez zutela parte hartuko haietan, haien ondorioak jasango ere, baizik eta bazter geratuko zirela estatu berjabe bait litzan".

## 1515tik 1841ra

Gaztela-k Nafarroa-ko erresuma okupatu zuelarik, Penintsula-ko lau euskal eskualdeek egoera bat bedera izan zuten: 1.º Gaztela-ren inguru ibili beharra eta 2.º politika aldetik bizikera berjabe eta berezia.

### 1. Gaztela-ren inguru

Lehen honi gagozkiolarik, Gaztela-rekiko atxikimenaren gorabehera azaldu diguten aitamenak egin ditugu aurreko kapituluan, zenbait historialariak Nafarroa okupatu zueneko hartatik hasten dira mintzatzen *España* eta *españoles-etaz* norbaitek aztikeriaz penintsulako herri eta instituzioak eta kulturak bakar batean galdu izan balitu bezala.

Egonaldi bat egingo dugu, beraz hemen; gaztelau eta espainiarra, bion artean sortzen diren nahasketa batzu labur labur argitzekotan.

"Denek dakitena da –dio Anselmo Carretero y Jimenez-ek lehen aipaturiko Gaztelari buruzko liburuan– Iberia eta Espainia hitzek aintzina aintzinatik Iberiar Penintsulaz deitua den eskualdea esan nahi zutela; geroago, Erdi Haroan, *España* izenaren kide eta pare *España* guztia eta *Las Españas* erabili ziren, ez lurralde bat izendatzeko bakarrik, baizik baita gizadi bat izendatzeko ere, Penintsulako nortasun bereziko Estatu eta Herrietako gizartea izendatzeko, hain zuzen. Portugesak eurak ere, Camoens-etik Almeida Garrett-erainokoak, beuren deitura ikusi izan dute España, Iberia,

Las Españas izen bakoitz hoietan. Hona Almeida Garrette-k idatzi zuena: "*Espanbois nos devemos prezar todos os que habitamos esta península*". Badago hemen zertaz gogaketa egin.

Zuzen ari delakoan nago Jose Maria Castellet ondoko hitz hauetan<sup>1</sup> "Gaurregungo jardungai zabal eta denekikoak baita partikular edo bakoitzekikoak mugatu asmoz hartu dudan nere lan honek beste xederik ez du, errealidade askotarikoa ezagutuerazirik, elkarbide eta gizalegerako oinarri bat ipini baizik; ez sentimentukeriazko ez eta histori komenientziazko elkardidea geroa, gorago aitatuak ditugun (desberdintasunetatiko) bereizkuntzak ezagutzen eta onar tzen dituen gizalegea baizik". Eta bukatuz: "Espainiar kulturak (bat eta beste edo) bakoitzak direla ikusten ez duenak jai dauka espainiar izatearen mataza hori konprenitzen".

Beste baten eritzia emango dut orain, Caro Baroja-rena, alegia. Ikus zer dioen honek<sup>2</sup> "Errege Katolikoek urte gutxien buruan lortutako Estatu eta Erreinuen elkar lotze eta bateraketak eman zuen bide, harrezkeroz *España-z* eta *españoles-tzaz* gauza garbi eta jakiñekotzaz mintza ledin. Halaz ere, inoizko denbora muga batez geroz España, eta beraz, españoles deituraz gauzak mugatzerik baldin badago, maila batzutan bai eta bestetan ez beharko dira mugatu; español deritzan izakera hori katalandarra,

---

<sup>1</sup> Eco: "Kulturen aniztasun eta dezentralizaketa". Revista de Cultura de Occidente, Bogotá-Barcelona, 1964eko abendua.

<sup>2</sup> *El mito del carácter nacional*, Seminarios y Ediciones, S.A., Madrid, 1970.

galiziarra edo andaluzitarra delako izaerari buruz askotara baidaiteke banatu eta sailkatu gaurregun ere, euskalduna den mixterio hori edo gaztelarra den badaezpadako (ambiguo) hori aldebat utzirik".

Oraindik denbora asko ez dela izen handiko idazle batek, Americo Castro-k biziki interesgarri den analisi bat argitaratu du Espainia hitzaren iturburu eta esan nahiari buruz.<sup>3</sup>

"Iberia penintsulari, beren eskumendeko probintzia hari deitzen omen zioten Hispania erromatarrek"; Lurralde horietako erreinu guztiak sartzen zituztela deitura horren barruan, gauza jakina da.

Jesukristoz ondorengo 300. urtea inguruan lateraz mintzatzen ziren penintsularren ezañetan hasi zen Hispania hitza aldatu eta España bilakatzen; eta *arabiar hizkuntza eta mahometar erlijioa zituen Penintsulako* lur zerrenda zeritzaten España XI. mendeko eta geroagoko mairu eta kristauek; eta España deitura horrek, –dio Americo Castro-k– erromatarren eta bisigotarren Hispania harekin ez zeukan zer ikusirik eta kristau erreinurik ere ez zuen bere baitan hartzen". Beraz, bada, "Hispania-tiko izen bat arriskuan egon zen mairuei, eta ez kristauei, egotzia izan zedin."

Eta *español* deiturari buruz, zer?

"Ez da gaztelaniazko hitza *español* hori, dio Americo Castro-k, XIII gizaldiaren azken urteetan Frantzia-ko hegoaldeetik, Languedoc-etik, hain zuzen, etorria baizik. Beraz, gaztelania idatzia hasi zeneko XI. eta XII. mendeetan, kristau erreinuetako biztanleek denei batera zegokiekkeen izenik ez zuten, erlijiozkoaz beste; *Kristauak* zen soil soilik *kristau*<sup>4</sup> erreinuetan bizi zirenen deitura zabal eta orokorra; eta erlijioaz kanpo, gallegoak, nafarrak, gaztelarrak, aragondarrak etab zeritzaten, izen bakoitzez.

"*Español* izena etnia deituratzat ez zaigula XIII gizaldi azkenera arte inongo idazkUNETAN agiri" esanak gara lehen ere. Begira zer dioen Americo Castro-k honi buruz: "Era espanol e omme muy sabio" esaten du Kintiliano-ri buruz Alfonso Jakintsuak bere *Primera Cronica General*-en.<sup>5</sup> "Kanpotik eta berandu sartua dugun *español* guztietiko deitura, jarraitzen da, aldi gora emanda, erromatar Hispania-ko idazle bati egotzi nahi hori irri mirrigarria edo ironiazkoa da; orduko idazle eta geroko espainiarrek elkarrekikorik ez bait dute, bizi izan diren lurra besterik. Hona noiz hasia dugun, iberiar penintsulako lur sor gor hauetan izan diren bizidun edo bizibako izpi guztiek, *español*<sup>6</sup> deitu beharreko adurra".

Eta Americo Castro-k ondotik hau dio: "Erromatar inperioko probintzia bateko jendeak *españolak* direlako ipuia parregarria da eta jende alfabetatuendako desegokia; areago: Historia ondo ulertzeko oztupo ere bai".

"Kanpoko hizkuntzalariek erakutsi digutena bazterrera utzirik, –Paul Aebischer suizarrari buruz dio hori Americo Castro-k, *español* deitura Probentzatik etorria zela

<sup>3</sup> *Insula* aldizkaria: *España eta españoles* hitzen artean milakada bat badago tartean"; 1967ko azaroa, Madrid.

<sup>4</sup> *Otra historia de España*: "... Konstantino kristau egin zenean, Erroma eta Kristautasuna bi printzipiook elkartzen ditu berriro, eta erromatar hitza kristau hitzaren sinonimo bihurtzen du". "Rumi, arabiarrentzat, gauza bat bera zen".

<sup>5</sup> Menendez Pidal Argitaldaria, 12 or.

<sup>6</sup> Fernando Díaz Plaja oker dagoela deritzagu puntu hori buruz, hainbat bider aitatu dugun bere liburu baliogarrian: *Otra Historia de España*.

jakintsu hark aurkitu bait zuen 1948an– hau da behin eta berriz haizatu beharrekoa: beuren izenarekiko eta izenaren egiazko historiarekiko espainiarrak izan diren axolakabeak, alegia". Eta berriro ere honela jarraitzen da: "Seirehun urte doi doi duela Probentzatic ekarritako izen arrotza herri batek bere buruaren deituratzat hartu, eta hori, den gauza mardulaz, historiagileek itsu eta mutu egona, bai dela harrigarria benetan".

Eta arrazoiz dio: Historiari dagokio, eta Historiak behar du argitu, zer dela eta *español* deitura ez den Espainia barruan sortua".

Izen bakoitz eta bereziak genituen Penintsulako herri guztiak; eta bizi, beuren buruen jabe bizi ziren. Americo Castro-k dionez, "Kristau erreinuek, politika arazoetan bakoitza beregisa ibilki, elkarbizitza erlijioaren arabera moldatua zeukaten; eta espainiarren deitura *Espanian* bertan jaioa ez izanak *lurtar arazoak erlijiozko arazozen zerbitzuko zirela* erakusten du besterik gabe".

Azterketa honen ondotik entzun dezagun Ameriko-ren ertizi zehatz hau: "Federik badut gerora begira, espainiarrek ikus dezatenean zehatzki nor izan diren kondairan eta ze eratako portaera izan duten, beren egoera hobetuko dutela. Izan ere egia esan, ez dira beren bidetik ibili, eta, ez dakite garbi nor diren, nor izan diren ez bait dakite".

## 2. Politika berjabe baten gora beherak

Bigarren puntuari gagozkioarik zera esan behar da, beren kondairan aldi luze batez Euskal Lurraldeak elkarrengandik berezturik eta berjabe bizi izan direla, bakoitzak bere antolaketa ta burubide berezia zuelarik. Eta halaz guztiz, beren seme argienen gidaritzapean izan zuten beren hari bateratzaile hizkuntza, kultura, administrazio nagusienean sustrai bedera eta XVIII.mendeko entziklopedi mugimendua.

XV. mendean eta hurrengoetan ere Elkarrengandik txit berezturik bizi izan zirela eskualde foralak, eta inoiz euren artean borroketan nahasturik ere, dio Gurruchaga-k. XVIII. mendean, halaz guztiz, batasun joera bat nabari da, European nagusitu ziren korronteak, Ilustrazioa eta Entziklopedismoaren babesean. Honen frutu zehatza "Azkoitiko Zalduntxoak" izeneko mugimendua izan zen, eta honen itzalean sortu ere zen, aldiz, Real Sociedad de Amigos del País elkarte. Bere tokian esango dugun bezala, herrian kultura eta ekonomia zabaltzea zen elkarte honen helburu, "hiru eskualdeetako gizonetan prestuenak elkarbidean ipintzea. Batasunaren Ikur Hitz: *Hirurak bat* ezarri zuten". Batasuna aritmetika zenbakiz adierazte formula honek zori izan zuen eta hiruko hori gerokoan kopuru zabalago bilakatu zen.

Puntu hontan ohar hau egin nahi genuke, alegia, mugimenduaz mintzatzen garenean seinalatuko dugun bezala, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko batzarkideak Tuterakoekin izan zituzten harremanak gora behera handikoak izan ziren; ezagutzera eman nahi izan den baino areago. Euskal Herriaren biztanletza edo populazioaren berri emango dugu orain.

## Euskal Herriko biztanle kopurua

Euskal Herriaren giza-bete edo dentsitatea, gizarte antolaketa eta ekonomi egitura elkarri loturik daude.

Hainbat bider aitatu den eta aitatzeko den *Los Vascos* liburuan, Caro Baroja-k zera dio, gaurko nekazalگو populutzaren giza-betea, bataz beste, oraintsukoa dela; alabaina, eskualde hauetako biztanle kopurua Penintsula-ko eta europar beste eskualde askotakoa baino handiago dela ere, badio. Geure aldetik, beste arrazoi hau erantsiko genioke aurrekoari, alegia horrela ezik ezin uler daiteke herri hezikaitzenak uztarpera ekartzen mutil izan zen jendeen erasoer nolaz aurpegi eman ahal izan zien. Badirudi XVI. eta XVII. mendeetan egundoko jende ugalketa ezagutu zela Europa guztian zehar kasik; eta bidenabar, Euskal Herriak ere ezagutu behar zuen, noski. Ugalketa hori, dio Caro Baroja-k, biztanle kopurutzari, fundazio berriei, eta batipat, hiru faktore hauen eraginari zor izan zaio, behar bada: 1. bertako aginte bat izateari –Bizkaia-n, aginte guztizkoa zuten Jaunek– tokian tokiko lurreko aberastasunari eta komunikabideei, itsasportuak izateari batipat, etekinik edo probetxurik handiena ateratzen bait zuten hauetatik; 2. lurraldea mugaz haruntzko erresumen eta bertako alderdikeren erasoer aurka babestu beharrari; 3. lur barneko merkatalgoaren hazkuntzari (Araba eta Nafarroan).

Penintsula-ko Euskal Herriko Biztanle kopurua 1560an, Felipe II.aren garaian moldaturiko errolda edo kontaketa oinarri harturik, Bizkaian ekonomiariek egindakoa, kalkulu hau eman zen: Araba-k 56.925; Gipuzkoa-k 69.665; Nafarroa-k 154.165, eta Bizkaia-k 70.000. Denera, beraz, 350.755 biztanle. Ikustera ohiturik gauden bezala, nabarmen ageri da Nafarroa-ren biztanle kopurua (10.421 luze zabal), eta Araba-rena (3.047) itsasaldeko bi eskualdeek dutenarekin alderatzen baditugu, Gipuzkoa (1.997 km.) eta Bizkaia (2.217 km.), ttikienak direlarik, luze zabala kontuan harturik. Azken eskualde hauetako biztanle ugalketa handiak geroago emango dira industrializaketaren eta honek dakarren imigrazioaren eraginez; fenomeno honek ez du ze ikusirik barruko beste bi eskualde senideekin. 1800. urtean (1799an egindako erroldaren arabera) lau eskualde hauek –ez dut zifrarik Benabarre, Lapurdi eta Zuberoa-ri buruz– biztanle kopuru hau eman zuten: Araba-k, 70.000 biztanle; Gipuzkoa-k, 10.552; Nafarroa-k, 226.467 eta Bizkaia-k, 112.371; denera, beraz, 515.390 biztanle dira kasik.

Ohargarri da, batez ere, Gipuzkoa eta Bizkaia-k jasan izan duten hazkuntza harrigarria.

1560an 139.665 biztanle zeuden barreiatuak 4.000 km. luze zabalean, hots, kilometro karratuko 30 biztanle baino pixka bat gorago; eta 211.090 biztanle Araba eta Nafarroa-ko 13.568 kilometro karratutan zabalduak; kilometro karratu bakoitzeko, bataz beste, 15 biztanle, hau da, kopurutza osoaren erdia baino gutiago. 240 urte geroago, 1800. urtean, itsasaldeko bi eskualdeetako populazioa 218.923ra iritxi zen, kilometro karratuko, bataz beste, 53 biztanle direlarik; eta aldiz, barrualdeko biztanletza, 296.047ra, ez gehiago, irixten da; kilometro karratuko 22 ematen du honek, hau da, beste bi senide ttikien hirutatik bat pasatutxo.

## **Egoera sozio ekonomiko eta kulturala**

Gure eboluzio kulturala azaltzeko Caro Baroja-k ipintzen dituen mailaketa artean, hamargarren tokian frantzes-espainiar kulturaren eraginari dagokio. *Frantzes-espainiar kulturak* Euskal Herrian izan duen eragina, XVI.-XVIII. mendean zehar zabaltzen da, eta era askotara eman zen. *Sozial* aldetik; udalen indartzea, aitorsemeen agintearen beherakada eta euskal demokraziaren berlorakuntza; sozial nahasketaren zipriztinak ere heldu ziren; lantaldeak ugaltu bestaldetik. *Ekonomia* aldetik, berriz: landare mota berriak sartzen dira Euska Herrian, itsasketa edo nabigaketa eta arrantzo industria arras ugaltzen da, eta Indietako merkatal harremanek aberastasun iturri bilakatu ziren. *Teknika* aldetik: burdina goritzeko sistema berriak, untzigintza eta harmagintza, zenbait teknika lan profesionalak, sendagintza tartean delarik, zabaltzen dira. Eta beste maila batean: hezketa etxeak eta zientzi elkarteak eratzen dira; erlijio alorrean ere ekintza eraginkorra –Inazio Santua, Saint Cyran–, eta sorginkeri tankerako mugimenduen zapalketa dator. Garai hartan sortzen da ere literatura idatzia.

## ***Euskal Literatur idatzia***

Bernardo Dechepare-k argitaratu zuen 1545ean lehen idaz lan garrantziduna: *Linguae Vasconum Primitiae, askatasuna goraipatzeko idatzitako liburua: "Libertatia nola baita gauzatako hobena – gatibutan egoitia hala pena gaitzena "*.

Kalbino-ren jarraitzaile genuen Juana Albrit Nafarroa-ko erreginarenekin aginduz, Juan Lizarraga-k kalbinotar apaiz, *Testamentu Berria*-ren euskal itzulpena dagi 151 lan. Kontrarreforma-ren itzalean Trento-ko kontzilioan hartutako erabakien arabera kristau ikasbideak idazten dira, eta asko idatzi ere euskaraz, Santxo Elio-rena (1561) eta Betolaza-rena (1569) adibidez.

XVII. mendean zehar deboziozko libururik ere argitara eman zen, *Argainaratz* (1641) esate baterako; garai hartan agertzen da ere, Pedro Axular-en *Gero* liburua, 1643an idatzia.

Honen urratsei jarraikiz beste izen batzu datoz ondoren: Pouvreaux (1656), Harizmendi (1658), Gasteluzar (1686) eta Mongon-go Dassanza (1662). Mende hontako beste izen ezaguna Arnaldo Oihenart dugu, 1657an bere *Atsotitzak* liburua eta olerkiak, *Neurtitzak* izena daraman liburuan argitaratu zituen; liburu bakarra osatzen zutelarik argitaratuak izan dira.

XVIII. mendean Joannes Etxeberri (1712), Xurio (1718), Haraneder (1749) Larregi (1775), Mihura (1778) eta Bratziart (1784). Larramendi-ren *El imposible vencido* deituriko liburua argitaratzen du, euskararen lehen gramatika (1729) eta lehenengo *Diccionario Trilingüe castellano, vascuence y latín* (1745). Garai berekoak ditugu ere Kardaberaz, eta Mendiburu idazkera sotileko autorea, eta Juan Bautista Agirre *Erakusaldiak* liburuaren egile.

XIX. mendeko lehen herenean bizkaitar prosa idazleak ugaltzen dira batez ere, Juan Antonio Mogel eta Urkiza, *Peru Abarka*-ren egile, eta bere hiloba Bixenta, *Ipui-onak* izena duen ipuin bilduma baten egile, Astarloa bere *Urteco domeca...*, Fray Bartolome de

Santa Teresa, Icasiquizunak eta *Olgeta-ren* egilea, eta Fray Pedro Antonio Añibarro, bere *Esku-liburua-rekin*.

Kontuan hartzeko gauza: literatur mugimendu hori XVI. mendean zehar sortzen da Pirineoz haruntzaldeko eskualdean, eta han finkatzen ditu oinarriak gure hizkuntzak idaz lan ederrenetan. Aitziti, industri iraultza hegoaldean ematen da.

### ***Unibertsitatea***

Euskal Herri Hegoaldean gogor dihardute euskaldunek Unibertsitate bat lortzeko borrokan. Jose Estornes Lasaren eskutik ibiliko gara (7) sail hau argitzekotan, hots, euskal kulturaren, arazoa ukitzera goazelarik; izan ere, industrian horren aurreratua dagoen Euskal Herrian horrenbeste pauso eman ondoren, inoren, nahiz denen kulturarako behar beharrezko zaion Unibertsitatea lortzeko jarraitu izan duen ekintza bidea seinlatu nahi bait dugu hemen.

*Oinati-ko Unibertsitatea.*– 1540an sortua izan zen, Oinati-ko seme Rodrigo de Mercado eta Zuazola, 1511an Mallorca-ko apezpiku eta 1522an Avila-ko izendatua izandakoaren eskuzabalari esker. Pertsona baten ekintza genuen beraz hori, eta beragatik, diru faltaren hutsgunea zela eta bizitza ahul eta erkina eraman zuen Ikastegi honek.

Horrexegatik opa zuten biziki euskaldunek unibertsitate hori ofizial mailara jaso izan zedin, ezen, hartara, partikular baten diru poltsaren gora beheraren mende erortzeko arriskua urrunduko bait zen.<sup>7</sup> *Los vascos y la universidad*, lehen ere aitatua.

*Lizarra-ko Unibertsitatea proiektu bezala.*– Nafarroa-ko Gorteek, 1565ean Tuteran bilduta zeudelarik "otsaileko 5eko bileran, hain zuzen ere, unibertsitatea eraikitzea erabakia hartu zela gauza jakina da, "bertako semeek atzerrietako unibertsitateetara joan beharrak eragiten zieten gastuei ihes egiteko". 1576-1585 eta 1589-go egindako batzarretan gauza bera aitatzen da, eta hiri honek "beregain hartzen du eraiketa eta instalaketaren ardura"; azkenean, ez da ezertxo ere egingo.

*Iratxe-ko Unibertsitatea.*– 1579an, Lizarra-tik hurbil, Beneditarren Monastegian antolatu zen Iratxe-ko Unibertsitatea. Filosofia, Teologia, Legeak eta Kanonak irakasten hasi ere ziren, 1539an, uste denez. 1597an Nafarroa-ko Gorteek, Sahagun-go Ikasketak lur jota zeudela haitzaki harturik, Iratxe-ra aldatuak izan zitezela eskatu zuten. "Nafarroa, Gipuzkoa, Errioxa, Burgos, Araba eta Bizkai-ko semei ematen zitzaizkien haietan graduak, eta ikasgai guztietan hartzen zituzten hauek gradu nagusiak eta arruntak, denetan nagusienean, Filosofian, Lege eta Kanonetan eta are Sendagintza edo Medizinan ere. Urtean graduak hartzen zituzten ikasle kopurua, batz bestea, ehun inguru izan ohi zen. Fernando VI.ak Sendagintzan graduak emateko eskubidea kendu zuen (egia esan, Gorte-ek beraien erruz oker ari bait ziren ematen). 1824eko arazoaren 9an itxia izan zen 211 urtez atek zabalik ukan ondoren.

*Iruña-ko Santiago Unibertsitatea.*– 1609an, Iruñan Nafarroa-ko Gorteek, Batzarrean bilduta zeudelarik, Santiago-ko dominikotarrek igorritako eskabide bat jaso zuten; "beren komentuan irakasten ziren Arte eta Teologia ikasketak haintzakotzat

<sup>7</sup> *Los vascos y la universidad*, lehen ere aitatua.

hartuak izan zitezela Aita Santuari eskatzeko erreguz". Batzorde edo Komisio bat eratu zen eta honek "Teologia hiru katedra, Arte-rako hiru eta Maisu bat ikasleentzako beharrezko zirela erabaki zuen, hala nola hauen iraupenerako behar zen diru laguntza ere eskatu zuen". 1619.go Errege Agiri edo Zedula baten bidez kreatu zen Unibertsitatea, eta Aita Santuaren Bula, 1621ean iritxi irekia deklaritzen zuelarik. Diru falta zela eta, denbora aurrera bestalde, "dominikotarrek Unibertsitate araua atera zuten beren kabuz Teologia Irakaskuntzarako hiru katedra, Arte eta Filosofiarako, hiru; Deretxo Zibilerako, lau, Kanonak irakasteko lau; Sendagintza-rako bi ...". Badirudi, ordea, "Sendagintza fakultaterik ezin antola izan zutela, nahiz eta behar ziren baimen guztiak eduki, sorturik zegoen Unibertsitatea. Handikiro ospatu zen gertaera hori, Nafarroa-ko agintariak bertan zirelarik. "Unibertsitate hontako graduak onartuak ziren Alcala-ko eta Zaragoza-ko unibertsitateetan ere", baina 1771.go martxoaren 11an itxia izan zen, ezertxo ere ez zitekeelarik egin erabaki honen aurka.

*Bergara-ko Real Seminario.*– Hizkuntzak (gaztelera latera, frantsesa eta inglesa) "matematikak, izadi jakintzak, eta gazteen portaera, erlijio eta adimen hezketarako ikasgai guztiak irakasteko eraikia izan zen 1776an; euskal gazteen baitan zientziarako joera pizteko, arte ederra ikastera bultzatzeko, ohiturak zuzendu, alferkeria, ezjakintasuna eta beronen ondorio txarrak baztertzeko, eta gainera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, hiru euskal probintzien batasuna lortzeko. 9. *artikuluak euskara eta gaztelera, hizkuntza nazionalak ikastea arautzen du.* 1794ean Frantzia eta Espainia arteko gudua zela eta Gasteiz-era aldatu zuten Ikastegia, eta berriro 1798an Bergara-ra itzulia. 1848.go Errege Agindu batez, "*Primera Escuela Industrial de la Peninsula*" sortzea erabakitzen da, eta 1850ean Zabalkunde Eskola Industrial, Seminarioa-ri erantsia, kreatzen da. Urte bat geroago, "beste erabaki baten bidez Real Seminario Industrial mailara jaso izan zen". Izen bereziak eman zizkioten, garaiko politika joeren arabera: Real Seminario Patriótico Bascongado (1798-1803), Real Seminario de Nobles (1804), Universidad de Segunda Enseñanza (1822), Real Seminario de Nobles (1823), Instituto Provincial de Segunda Enseñanza de Primera Clase (1844), Real Seminario Científico Industrial (1851) eta Real Seminario de Vergara (1880).

Nafarroa-ko Diputazio Foralak Orreaga-ko Colegiatara jotzen du 1802an, Unibertsitate bat kreatorreko laguntza eskatuz. 1807ko abenduaren 15ean Iruña-ko Dominikotarrek beren aretoak eskaintzen dituzte horretarako. Nafarroa-ko Hezketa Batzordeak Unibertsitate bat sortzeko ahaleginak egin zituen.

*Nafarroa-ko Medikuntza eta Farmazia Ikastetxea.*– 1829ko martxoaren 23an eratzen da Nafarroa-ko Gorteen erabakien arabera, eta urte hartan bertan 117 ikasle ari dira ikasten. Gauza nabaria da "herrietako sendagileei euskara jakitea eskatzen zitzaiela, nafartar gehienek mintzatzen duten hizkuntza bakarra denez". 1839ko urriaren 5ean Errege Agindu Batek Ikastetxea ixtea erabakitzen du". Urte horretan, hain zuzen ere, Nafarroa-k berjabetasuna galdu eta probintzi bilakatzen da.

Unibertsitatearen atea berriro irekiak izateko ahalegin guztiak hutsalak bilakatzen dira. Hala dio Larregla jaunak aitaturiko liburuan bertan "Unibertsitateak hertsu eta Tauromakia Eskola bat irekitzeko erabakitzen du". Egokiro dio Estornes Lasa-k, mende bat baino areago itxaron behar izan duela Nafarroa-k, azkenean, Aita Santuaren



ekintzari esker, Medikuntza Ikastetxea izan dezan Nafarroa-k bere oraingo Unibertsitatean.

### *Ekonomia*

Euskal industria piztu erazi zuen Europear iraultza, Pirineotik hegoaldeko itsas eskualdeetatik barne, Bilbo-tik bereziki, sartu zitzaigun. Ondorio nabarmenak jalgi ziren bizi-molde hortatik gizarte eta ekonomia aldetik, batez ere; hala, administrazioaren egitura eta erakundea bihurriagoak egin ziren. Lurra garestitu zen eta etxe garaigoak egiten dira jadanik. Bestalde, Amerika aurkitua izan zenetik lur berrietara jo zuten euskaldunek; euskal teknika eta enpresa eta negozio gizon prestuenak erabaki zentro handietara joan ohi ziren Madrid-era, Sevilla-ra eta Cadiz-era (Ameriketarekin merkatal harremanak hasi zirenean batez ere; izan ere, gaztelar ez zen oro hartatik baztertu bait zuen Madrid-ek eta Penintsula-ko hegoaldearen eskuetan utzi monopolioa; administrazioak aukerako harma zuen hori euskaldunak zentro ingurura erakartzeko). Jokabide honegatik bere seme baliotsuenak kendu zizkion Euskal Herriari eta kultur zentro bat eraikitzeko ahalbideak murriztu: Euskal Unibertsitate ofiziala, adibidez.

*Burdina, burdin industriak eta itsasoa ditu ezaugarri euskal aldi honek.*

Bestalde, ondasunak, eta hauekin batera politika indarra ohizko familietara ez baina, sarritan hemen ez, baizik Gortean bizi zirenen eskuetara etorri ohi zen. Itzala zabaltzen hasi ziren sozioekonomi mailan Ameriketara diru egiteko zori izan zuten soldaduak (Koroaren mende gehienak); harrizko etxe ederrak eraiki zituzten, goi mailako onddareak erosi eta harmarriz apaindu (diruak eman ohi zien eskubidea). Hauetxek genituen gizuren edo aristokrata berriak, aberats berriak gaur esaten den bezala, ohoretxoaren irrikaz beteak.

Bizkaitar "jauregiko seme letradun batek" Antonio Madoz-ek honela zioen XVII. mendeko lehen herenean Conde Duque de Olivares-i zuzenduriko idazki batean: "Eta aintzinako handiketako famili hauen ondasunak beste eskuetara aldatu dira Bilbon. izena eta ondarea Indietan ingeles eta frantses familietako alaba eta hilobekin izandako harremanetatik eta haiekin ezkonduz eskuratutako aberastasunen jabe direnetara". Eta aurrerago badio ere: "egun jasaten ari dena piztu dutenak –nahasketa eta zalapartak<sup>8</sup> etorkinak dira, gurasoak eta aiton amonak Bizkaian jaio ez direnak, ni traen sangre suya, hijos de extranjeros y mercaderes arrimados a eclesiásticos atrevidos y a la plebe más baja ...".

---

<sup>8</sup> Gatza gordegu edo estankoak probokatua batez ere.

## Erljio arazoa

Hitz bi bakarrik gai honi buruz Euskaltzainburu den frantziskotar aita Luis Villasante aitatzuz:<sup>9</sup> "Espainiako errege Felipe II.ak,<sup>10</sup> (10) 1566an zera eskatu zion Aita Santuari, Baiona-ko Apezpikuzaren mende zegoen eskualdea ez zedila barruti hartakoa izan; haitzaki hau jartzen zuen, alegia, frantzesekin harremanetan egoteak hereji arriskua zekarrela. Eskaerari amor eman zion Pio V.ak baldintza hau erantsirik: arriskuak iraungo zuen bitartean bakarrik". Eta Villasante-k honela amaitzen du:

"Egia esan, emandako pausoak ez zuen atzera egiteko biderik".

## Euskaldunen handikitasuna dela eta

Gizarte mailako bereizkuntzarik ez omen da izan inoiz Bizkaian Gipuzkoan eta Lapurdiko jendeen artean, denak nobletzat begiratuak omen ziren, beren lurraldean ez ezen Espainia guztian ere. "Odoletikoa du bere noblezia gipuzkoarrak (eta beraz Euskaldun orok ere...); jatorrizkoa du, ez erregeengandik jaso", dio Larramendi-k.<sup>11</sup>

"Arrazakeria huts eta garbitzat dauka Caro Baroja-k Larramendi-ren kontzeptu hau. Horrela interpreta lezake ere gaurregun ere norbaitek esaera hori, baina andoaindar jesuitaren jarrera hori garaiko pentsamoldean sarturik interpretatzen saiatu behar genuke.

"Denak handikiak direlako aitorten hau, –dio Carretero y Jimenez-ek– (batzuei heldu zien) aristokrazia-gosea ez baina, estranjeriatik sartutako kutsua da eta euskaldun guztien Legeari buruzko berdintasuna jagon eta begiratzeko burubide politiko bat. 1830etik 1840ra Iberiar penintsulan zehar ibili zen poloniar batek hona zer zion gure Batzar Nagusiei buruz:

"Batzarra egiten den herriko alkateari dagokio batzar buru izatea. Zestua-ko alkatea hor ikusi izan da oraindik orain, sarraile ez eduki bat zena, Monterron-go kontea, Granada-ko dukea eta abar parte ziren batzarreko buru egiten. Aitor semetzako handikitasuna, zenbait lekutan giza multzo berezi baten aparteko ohore litzakeena, ez dago hemen honen esku bai ta ez haren. Bere familia jatorriz probintzia hontakoa dela erakusten duen gipuzkoar oro da hemen, besterik gabe.

<sup>9</sup> *Despojo sistemático de la lengua de Axular.*

<sup>10</sup> *Otra historia de España* ("Flandes") "Hona holandar haurrek Orange-ko printzea ehortzirik dagoen Delft-eko hilobi gainean irakurri dezaketen idazkuna: 'Jainko ahaltzuaren ohoretan eta Orange-ko Printze, eta aberriaren aita izan zen Nassau-ko Gilermo-ren betirako oroitzapenetan. Bere edo bere etxekoan onaz baino aberriarenaz gehiago arduratu zen gizon honek, bi alditan, eta bere dirutik harma gizonak bere kabuz bildu eta borroka zelaietara eraman zituen eta horrela Espainia-ren nagusikeria galerazi; egiazko erlijio eta lege zaharrak eraberritu eta ezarri zituen ... Berau duzue Espainia-ko errege eta Europa-ko izu larri zen Felipe II.ak hainbat bildur zuen gizon zintzo, zuhur eta garaitezina; inoiz ere uztarpera ekarri ez baina, azkenean soldataz erositako eraile baten eskuz hilerazi zuena. Gizon honi eraikitzea erabaki dute Probintzi Batuek ...'".

<sup>11</sup> *Corografía de Guipúzcoa* (1754). Ekin Argitaletxea, Buenos Aires 1950.

Arrazakeriazko legeak ba zituela Larramendi-ren aldian Gipuzkoak eta mairu, judu eta indioentzat ez zegoela hemen bizilekurik", dio Caro Baroja-k berriz ere lehengotik. Bego hori; garai hartako pentsaeraren arabera beti ere, horra.

Duela bi gizaldi baino areago esandako hitzen esan nahiari helduko natzaio hemen: Bejondaizkikala hire zapatagin handiki horiek, hire ikazkin handiki horiek, hire jostun handiki horiek, hire zurgin handiki horiek: aitatzeak ere parragurea ematen dik-eta.

Bejondeikala euri ere hala berean eta bejondeizkala eure ipurtxuri handiki horiek, eure alpertzar handiki horiek, eure ez jakin handiki horiek: ustelik bazegok horietan inori odola berotu eta ok egite eragitekorik. Horko hire handiki aizejo, handiki goiharro, handiki sinsorgo horiek alajaina estimagarri, langintza apaletako gipuzkoar handiki saiatuak ez baizik".

Horra garbi adierazirik, gizonari berezko gizontasuna jatorretik darion noblezia dela Larramendi-k goraipa nahi duena. Ez da bestelakoa izan euskaldunek airoso eta bidezki erakutsi izan dutena. Nik ez derizkiot inorentzat mingarri izan behar lukeenik euskaldunek beren jatorri, eskubide eta inguru munduaren ikuskera aldeztu izatea; adierazi izan duten bezala inor ezeztaz lezaketan pentsaerekin topo egin dutenean beraiei oldarturik batez ere. Hona adibide bat: Gorteak, gorte zale izatearen truke, hain eskuzabalez banatzen zituen handiki-agiri merkez jantzita inor gizar-tean luma harro azaltzen bazen, euskaldunak ez zuen hori jazartu gabe jasango. Are ta gutxiago jasan ere, ofizialki ezarrita, gailenagotzat zeukaten beren erdara hortan inoren lotsarik ez duen euskara zapalduz baldin bazetozkion, orduan ohi bezala.<sup>12</sup>

Besterenganako miraz sorturiko ideia da, euskal handikitasuna euskal noblezia, feudalismoaren buruz buru sortua. Feudalismoak ekarri zuen ondoren bat gizar-tea mailatan bereztea izan zen. Euskaldunak tupust egin zuen eta buruz buru egin zion gertaera honi, eta zaputz. Bere indar aldirik handienean ere ez zion inori ere kultura ezarri. Hauzo herrietan ikusi zuen giza mailetatik bat bere jendearentzat aukeratu: horixe egin zuen. Morrontzakoen eta bilauen maila orde handiki maila aukeratu zuen. Beste alde on asko ere bazuen gainera aukera horrek: ez zergapeko, ez zigorgarri izatea, entzunak izatea epaituak izan baino lehen: horra.<sup>13</sup>

Hona gertakizun batzu askoren artean hartuak. Espainia-ko lehenengo lan-opor edo huelga Escorial-ean egin zen Felipe II.aren egunetan; beste gehiago izan ziren baina hau bakarria aitatuko dugu. Erregeak zekien moduz itzali nahi izan zuen erabaki zorrotza hartuz: indarrez.<sup>14</sup> Horra ordea El Escorial-ean ari ziren langile ikasien arteko

<sup>12</sup> *Otra historia de España*: "Jainkoak jarri duela eta errege bat errege denean, abantail handiak ditu". Díaz Plajaren hitz hauei zera erants nahi diogu, alegia, gizonak ahal duena egin duela beti gehiegikeri hauetarik bere burua defendatzeko. Díaz Plaja-ren eranski batekin osatuko dugu guk gogaketa hau: "Gorputzez eta *izpirituz* (nik azpimarratzen dut) gugandik urrun diren erregeek gobernatzea ez dute nahi izaten herriek".

<sup>13</sup> Ez ziren hauk barruko burubideen eskubide edo pribilejio; ikus nahi lukeena Bizkaia-ko Fueroei buruz Adrian Celaya-ren aitatu liburura bidaltzen dugu.

<sup>14</sup> *Otra Historia de España* ("Carlos I eta Felipe II"): "Orange-ko Printzeak oihuka aldarrikatu zuen: 'Felipe-k bere emaztea Frantzia-ko erregeen alaba eta ahizpa, hil du hilobarekin ezkondu ahal izateko ... Erru lazkarri horiei erahilketa odolgarri bat erantsi dio, aitak krudelki hil bait du bere seme eta oinordekoa, era hontara Aita Santuak Jainkoaren eta gizonen aurrean horren laidogarri eta nardagarri den ahaidekeritik aska dezan' (*Apologie*, 30-33)".

gehienak bizkaitar ziren, nobleak, eta ezin atxilotuak izan zitezkeen entzunak izan baino lehen, ez makilez joak ogipeko edo esklabu bezala.

Gizon burujabe edo libreak izaki, horra euskaldunen arrazoi bat, askoren artean, haintzakotzat har zitzatela eskatzeko.<sup>15</sup> *Egunean zortzi orduko iharduna*, eta lan gogorretan zazpikoa, agintzen duen libururik zaharrena, XV.mendeko Ordenantzekin argitaratua XVI. mendean.Tutera-ko Ordenantza izateak bada zerbait, esan nahi du zerbait.

Egia zen, noski espainiar gehienentzat dio Caro Baroja-k "topo handikoa zen, hain ogibide arrunteko jendeak halako handikitasunan pantesia haizaraztea". Baina, berena ez bezalako mundu ikuskera besteengana ulertu ezak ez du espainiarrek arrazoi zutenik esan nahi, ez, alajaina.

Beharrezko ikusten dut kultura hezparruan egiten diren bereizkuntza hauk arretaz aztertzea, apartekotasun soziopolitiko hauk ondo ulertzeko. Ez dut esango ez denik jotzen haietara dohan sarritan; baina, agerian dagoen gauza da aitor nahi litekeen baino ugariago eta sakonagoak direla.

## **Baserria**

Euskal Herriak bere etxabizitzaren oinarritzat dauka baserria; esan gabe doa, baserria ez dela beti egitura eta itxura batekoa izan.

Caro Baroja-ri jarraituko gatzazko dionean gaurregun dituen zerbitzuei gagozkielarik, uste den bezain aintzinako ez dela. Erdi Haro-ko anaia arteko borrokaz dakiguna kontuan izanda ere, bere etxea landa zabalean finkatzea onar zezakeenik. Euskal baserria ez dago sakabanatua atzo goizetik; baina, halaz ere, gerora ugaldut ziren erruz "nolabaiteko aietasun ekonomikoa, pakea, nagusitu zenean; XVI. mendearen lehen urteetan, behar bada" ... "Erdi Haroaren azken aldira izan zuen urritasun eta, behar bada" ... "Erdi Haroan, etsaien aldira, azken aldira, ezarri zioten urritasuna (caracteres de estrechez, de pequeñez y de cercanía) ez zuen garaian".

Ohar interesgarri hau erasten du Caro Baroja-k, alegia, euskal lurreko baserri hauek badutela apartekotasun arras nabarmen bat mugaldeko gainerontzeko etxabizitzetatik berezi egiten dituen: etxe bakoitzak bere izen propioa du.

Itsaso aldeko lurrak, Euskal Herrian, urriak izan dira hibarrak hestuak eta zolugaina malkartsua. Barrenaldera, aitziti, Nafarroa-ko eta Araba-ko lautadak dituzu.

Agerian dagoen gauza da bi zona hauek izan dutela eraginik bertan bizi denarengan soziologia eta psikologia aldetik. Dena den, alde bateko nahiz besteko lurrek, eta hauekin batera baserriek, aldakuntzak ezagutu izan dituzte beren ohituretan, itxuraldatu dira industriaren babesean, ongari hobeak eta erein ohi zen hazia gero eta bikainagoa zen neurrian.

Hona hemen lehendik ezagutzen ziren zenbait iringai edo hazien izenak: *zikirioa*, *garagarra*, *oloa*, *artotxea*, *garia* eta gainerako. Aitziti, beste zenbait, *sagarra*, esaterako, aintzina aintzinatik zen ezaguna; Penintsulako lau eskualdeetako dokumentuetan

---

<sup>15</sup> Baldin eta erregeak hari begiramen izatea behartuak bazeuden, ez zen dohainik izanen baizik onartutako eskubide batez.

aitatua dela esana dugu, eta bost mendez gero, gutienik jota ere, landua izan da gure artean. Halaz guztiz, gaurregun ikusten ohituak garen zuhaitz asko ez ditugu gureak, baizik beste eskualdeetatik ekarriak.

Bertakotzak jo genitzazkeenak hau litezke: *pagoa, aritza, altza, lizarra, urkia, zumarra, urkitza, astigarra, eltxuna*, eta *sahatsa*, hala nola beste madari mueta batzu ere, *udara, intxaurra, urritza* eta *arana*. Atzerritik ekarri eta bertako bihurtu direnen artean honako hauk aitatu ditugu: *gaztainondoa* eta *zuhar beltza*, erromatarrek ekarriak. *Askasia, albo* eta *basa-pikua* berrikiagoak ditugu, *gerizondoa, mertxikondoa, muxikondoa* eta *mizpirondoa* bezalaxe. *Artoa* eta *lur sagarra* ez zen zabaldu gure lurraldean XIX. mendearen hasiera baino lehenago, Napoleon-en aurkako gudu aldiko garaian, hain zuzen ere.

1784ean Gipuzkoa-ko arboladiaren egoerari buruz xehetasun interesgarri bat ematen digu Madoz-ek. Beroni jarraikiz, 5.322.665 aritzondo, 4.771.502 pago, 894.683 gaztainondo, 22.710 intxaurrondo, 51.694 lizar 23.874 arte, 298 eltxun eta 700 inguru zumarrondo bazen. Euskaldunek bere lur ondarearen berri emateko berezko beldurra izan dutela beti eta ematen diren zenbaki edo zifra hauk, erasten du historiagileak, ez dira oso osorik zehatzak.

Baso soilketak egundoko hondamendiak ekarri zituen XVI. mendean Euskal Herrira, zurezko baserriak egiten hasi zirenetik batipat. Zurezkoak ziren ere hirietako etxeak; eta Bilboren erreketeta, "etxerik gehienak oholezkoak zirelako" izan zen, dio Caro Baroja-k.

Gure lurrak emankorrago bihurtu ziren baserritarren karea erabiltzen hasi zirenez geroz ongari bezala. XVI. mendean, arartean baso eta belardi ziren lurrak urratzeari ekin zioten; lur guztietatik hirutik bat landua zegoen. Eta erasten du Madoz-ek, 1815ean ez omen Euskal Herri guztian etze-lur edo lur soildurik; zimaurrez, itsasoko hareaz eta zaborrez ontzen zituzten, eta dio, "Penintsula osoan ozta ozta aurkituko dela lur mami oparoagorik".

Abeldiari gagozkiolarik, 1799.go errolda edo kontaketa berri damaigu Madoz-ek; Nafarroa-n 43. 626 idi., 4.616 zekor, 25.756 mando 339.387 ardi, 138.055 ahari, 31.758 zerri bazen. Baserrian horren zerbitzu handiak eskaintzen dituen behiari buruz ez dio ezer; eta aldiz, horren ugari dira Nafarroa-ko mendietan, eta gainerako euskal goi lurretan; ez hori bakarrik baizik eta austriar zoologo Adolf Staff-ek, Barandiaran-ek eta Caro Baroja-k aitatua, hau bait dio euskal mendietako behia seguruenik kondaira aurretik Pirineotan goera basatian bizi zenaren ondorengoa dugu.

## Meak

Gipuzkoa-ko hobirik handiena eta aberatsenetakoa Irun-go hauzunean, Aya-ko Harritan aurkitzen zen; beruna ateratzen zuten hartatik. Bazen galena ere Oiartzun-en eta Aizkorri-n. Bazen mea hobirik ere bai Berastegin, bai Asteasun, bai Tolosan, bai Ibarran, bai Zegaman, bai Errezil-en, bai Arrasaten, Alkizan, Zerainen eta Mutiloan; laister ordea kalidade onekoa akitzen hasi bait zen, Bizkai-tik ekarri behar izan zuten.

Bizkaian burdina barra barra emateaz gainera, bazen zinka ere Lanestosan, eta beruna ere bai Karrantzan; kobrea, urraida Arrazola-ko hobietatik erauzia izan ohi zen; hogeitau urte besterik ez zuen iraun XVII. mendearen erdian. Hartan, Gipuzkoa-ko mea eskeari ezezkoa eman zion Bizkai-ko Batzar Nagusiak, bere ondasun bakarra hori izan eta, zaitu beharra zeukalako. Bestalde, Bizkai kexu zen ezen industriarako egurra guztiz beharrezko zuelarik Gipuzkoak trabak ipintzen bai zizkion egurra ekarri nahi zuenean. Alde bakoitzak bereari eutsi beharrez berotu ziren harmak hartzeraino.

Araba ez da izan aberatsegia mea hobi aldetik. Asparren-go Elkartetik (Araya) atera ohi zen apurren bat, inguruetako sutegietan erabilia izateko, baina geroan Bizkai-ra eta Gipuzkoa-ko zenbait herritara, Zerain eta Mutiloa-ra jo ohi zuten burdingaiaren bila. Vilarreal-en pirita mea hobi batzu arakatuak izan ziren, baina urte bete besterik ez zuen iraun. Barambio-n blenda ateratzen zuten 1860tik 188ra bitartean (10.000 tonelada) eta galena (1.000 tonelada).

### Erregebideak

Gara hartako industria guztiz apala bazen ere, behar beharrezko zuten bide sare bat antolatzea, ttikienak bazen ere. Bertako desarroiloak eskatzen zuen hori, Horra, bada, Euskal Herria-k bizkor ekin zion zeregin honi bai ofizial aldetik bai partikularren aldetik.

Lehenengotan, andabideetan barrena zamari bizkar egiten ziren garraioak. Erregebideak edo bide zabalak 1700. urtearen erdialdera hasi ziren eraikitzen Euskal Herrian, Churruca-k dioen bezala,<sup>16</sup> Gipuzkoa eta Araba San Adrian-go pasadizotik barrena elkarturik geratu zirenean. Bide hori Segurara, Ordizia-ra eta Tolosa-ra jaitsi ohi zen, eta Baiona-ra zeraman bidearekin elkartzen zen Bidasoa-n. Alabaina, bide hau abandonatua izan zen XVIII. mendean Araba eta Gipuzkoa elkarturik geratu zirenean beste bide honekin, Arlaban, Salinas, Arrasate eta Oinati, Deva-ko bailaratik barrena zihoanarekin; Deva eta Urola hibaien arteko linea banatzaileari jarraiki ohi zitzaion bide hau, Legazpiatik, Villareal-dik eta Oria hibaitik gora, eta beste erregebide harekin biltzen Beasain-go Yarza-n. Kasik aldi berean, Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzen dituen bidea ireki zen, Tolosa, Berastegi eta Lekunberritik barrena Iruñara zihoana. Araba-n, bazen Gasteiz-tik Salinas-era zihoan bide bat; Madrid-etik Baiona-ra, Burgos-tik Gasteiz-tik eta Urnieta-tik barrena Donostia ukitu gabe igaro zena, eta beste bat Gasteiz-tik Altsasura (1775) orobat Bizkaia-n Bilbao-tik, Orduña-tik zehar, Pankorbora zihoan karretera bat. Durango-tik Araba-ko mugetaraino doana, Mañaria-tik eta Otxandiano-tik igaro zena geroagokoxea dugu; hori bera gertatzen da Durango-tik Gipuzkoa-ra, Berriz eta Ermuatik barrena igaroz doanarekin. Luzarogabe Bilbao-tik Durangora doan bidea egiten hasi ziren, baina guduketak zirela eta 1800 urtera arte ez zen amaitu. Beste erregebide ttikiagoak ere eraiki ziren garai hartan.

Churruca-k dionez, –idazle honi jarraituko gatzazkio hazitzen zihoan euskal industriaren bide arazo eta gainerako gora beheren azalpenetan–, lehorreko bidean aurkitzen ziren oztopoek itsasokoak hartzera behartzen zuten, hibaietan gora itsas

<sup>16</sup> *Minería, industria y comercio en el País Vasco*. Euskal Herri-ko Adixkideen Euskaldunen Monografiak.

handiak uzten zuen baina bide. Toki hauetan eraikitzen ziren gordeguak ateratzen edo irixten ziren merkantziak gordetzeko; horretatik datorkie *errenderi* edo muga etxe izena. Baziren gordegu direlakoetarik Somorrostro-ko hibaian, Bilbao-n (San Anton zubitik bestaldera), Gernika eta Ondarru-n; Alzola-n, Deva hibai ertzetan; Lasarte, Hernani, Oria hibai ertzean; Donostia-n, Urumea-koa; Errenderi-n (lehenagoko Oiarzo), Pasaia-n, eta Ondarribi-n, Bidasoa hibaian.

Komunikabide guzti hauen eraikuntza, jakina da, Diputazioen gain zegoen, eta beraik arduratzen ziren, eta axola handienaz gainera, haien zaingo eta iraupenaz.

### **Hiri handien eza**

Hiri handi baten ezaren ondorioa jasan dugu euskaldunok beti. Eta litekeena da gure geografi fisikoak hortan zeikusirik izatea.

Giza multzoketak arazo sozialak dakartza berarekin, beste tokitan ez bezalako gizarte arazoak; eta arazo hauei orpotik gizarte, ekonomi, politika eta baita kultura jokaera berezi batzu etorri ohi dira. Egia da ere, eta kontuan hartu beharreko gauza, literatur mailan ez dela ematen funtsezko kreaziorik, nobela jar dezagun, hirian ez bada. Ekonomi sailean, aldiz, ez da merkatu aldetik baliogarri litezkeen zerbitzurik ematen, ez diru mukuru handirik ere, enpresa handitan jarrita, mozkin onak atera eta, estranjeriko diru bultzari buru egin liezaiokeenik, jendetza handiak bizi diren tokietan ezik. Ohar argigarri bat eskaintzen digu Caro Baroja-k, alegia, inglesen eta euskaldunen artean nor gehiagoka iraun zuen bitartean "Ingles Harmadaren atzetik Londres eta beste itsas portu handiak zeudela hura sostentzeko; holandarrekin ere hori bera gertatzen zen"; eta horra, euskal untxiak, aitziti, herri koxkorretatik atera zitzaizkigun. "Pasaia eta Donostia herri apal batzu besterik ez ziren XVI. mendean; Bilbo-n, XVII l.mendean (1708), 1300 etxe besterik ez zen izango".

Caro Baroja aitaturko dut berriro: "euskal kulturaren aldakortasuna (kultur guztiak bezalaxe) arau soziologiko bati loturik egon ohi da, hau da, herri edo gizatalde ttikiagoak beste handi horiek baino aldakaitzago izan ohi dira. Aurrerago, hiri handietaz mintzo delarik, -hiri-liberala, landa-tradizio zale, bitaritasun giltza- hontan dago, alegia "hiri handiak iraultza sortzaile dira beti".

*Los vascos* liburuko beste pasarte batean ere badio, eta liberalen eta karlisten artean, hau da euren historian elkarri kontrajarriak egon diren bi pentsamoldeei buruz egotzi litekeen zerbait: 1. Ohitura garbien sorburu baserria duzu eta, 2. Aurrerapena hiri berrietatik dator, atzerapena, aldiz, baserrietik, herri ttikietatik.

### **Euskal untziteria**

Kapitulu hontako lehen zatian esan den bezala, euskal untziteria ugaria zen, eta industria ere joria.

Espania eta Frantzia arteko guduketak zirela, batetik, Espainiako erregeek Amerika guztirako merkatal arazoa Sevillaren eskuetan utzi zutela, bestetik, gazteria, dirua eta

jende burutsuena hiri hartara eta Amerika-ra bertara bultzatu zituen. Alderantziz euskal untzigindegiei lana erruz etorri zitzaien garai haietan eta aldi berean euskal "indianoak" etxera itzuli zitzaizkigun diruz beterik; ez hori bakarrik, baizik eta eragin handia izan zuten euskal gizaterian, nahiz eta elizak eraikitzen, eder bikainak hauetariko zenbait, eskola eta unibertsitateak ailtzatzen baino gehiago erabili. Dena den, euskaldun jende artean prestuenak, gazteenak eta burutsuenak ihes egin zuten, eta aldiz, etorri zena gaitasun eta prestutasun guztia galdua zuena genuen.

XVI. mendean oso zabaldurik zegoen oraindik bakallau, Terranova-ko bale eta artile merkatalgoa. XVII. mendearen hasieran, itsas ondoko eskualdeetako merkatalgoak Espainiaren beharpenaren ondorioak jasan zituen –autonomia foralak zutirik iraun arren–. Halaz guztiz, untxiak Terranova-ra joaten jarraitu ziren eta Gipuzkoa-tik bakarrik 41 bajel eta 298 txalupa, 1.470 mariñelekin atera ohi ziren urteoro, ingles untxi aldra ahaltsu eta etsaiari buruz eginaz –1613an britaniarrek bi galeoi bidali zituzten harmaz beteak eta hamabi gipuzkoar untxi atxilotu. Nekazaritzarako lanabesen beharrak, eta batez ere, Espainia leporaino sartuta zegoen guduketarako harmak behar zirela eta ez zuen beharakada handiegia egin ez merkatalgoak, ez industriak. Halaz ere, esan beharra dugu, industri murrizt honek diru eza zekarren, nahi ta ezko gaitza, eraberriko tresnagintza eta nazio arteko erakundeari eusteko trebe izatekotan behintzat.

XVIII. mendean, Borbondarrak errege izan ziren aldian, eta Europa bakean bizi zen bitartean eman zen aurrerapen franko ekonomi mailan. Kontinente-ko ifarraldeko eskualdeekin hasi zituen merkatal harremanak, eta, Gurruchaga-k lehen aitaturiko liburuan dionez, "erabakiak (ordenanzas) itsas arazo guztiak, kontratoak, giroak, dirutruke eta kiebrak, oparotasun eta merkatalgo aurrerapenaren adierazgarri". Baina, itsas eskualdeak oparotasunean bizi baziren, euskal nekazalgoak ez zuen aurrerapen handirik ezagutu.

Interesgarri da Ildefonso Gurruchaga-k diona: "XVIII. mendean hasi omen euskal batasunerako prozesoa".<sup>17</sup> Carretero y Jimenez-ek hori bera baieztatzen du aipaturiko liburuan: "Euskal Herri bat bakarra izateko asmoa ez da jatorriz sortua, oraintsukoa baino. XVIII. mendearen bigarren aldian hasten da, eta hiru probintzietako izen handiko gizon talde batek, Peñaflores Kondea (Javier María Munibe) buru zelarik, Real Sociedad de Amigos del País eratu zuenean ezagutzera eman zen lehen aldiz, esan dugun bezala; elkarte honek gaztelera eta euskara ezagutzen zituen hizkuntza nazionalizat.

Euskal batasun abertzalearen prozesoa oraindik ezkutuan dagoela esan nahi du honek.

Garrantzi handienekoa du, beraz, *Real Sociedad de Amigos del País* sortu izateak 1765ean –eta geroan Espainiako eta Ameriketako eskualde askotara barreatuko zena– ezen, hari esker garaiko kapitalismoaren irakaspenekin eta Europa-ko ikerkuntza eta teknika aurreratuenekin harremanetan jarri bait zituen euskaldunak. Euskaldunok horrenbeste zor diegun gizon hauek, klase bereizkuntza nabari bazaie ere, eralki zuten laborategi batetan Elhuyart-ek wolfram aurkitu zuen, altzeirua ateratzen ahaleginak egin eta platinoa garbitzea lortu zuten. Nafartar talde hautatu baten izen zerrenda ematen

<sup>17</sup> *Centro Laurak-Bat*, 1970.



digu Caro Baroja-k:<sup>18</sup> Goyenetxe, Ustariz, Muskitz, Iturralde, Garro, Azanza eta gainerako, Elkarteko batzarkide.

*Compañía Guipuzcoana de Caracas* delako elkarteak ere zerikusi handia izan zuen. 1728an Gipuzkoa-ko Batzar Nagusien eskutik Elkarte honekin.euskaldun merkatal gizonen atea irekiak izan zitzaizkien lehen aldiz. Honen ondorio bezala diru berritze bat eman zen Euskal Herrian eta bi herrien artean harreman herstuenak sortu: Simon Bolívar-en odoleko zirenen eta Askatzailea jaioko zen lurraldeko semeen artean.

Merkatu joera berri honek sorturiko ziztadaren eraginez, euskal industria bere egitura kaxkarragatik, Europakoarekin parean jartzeko edo hari buruz egiteko ezgauza zen. XIX. mendean gero iraultza industrialak Bizkaian sartu zenean, fenomeno ekonomiko honekin batera beste bat, soziologikoa sortu zen: etorkinen arazoa. Egundoko eragina izan zuen honek bai sozial aldetik bai kultura aldetik, eta luzarora ondoren sakonak izango zituen. Caracas-ko Gipuzkoar Elkarteari, *Filipinas-en* eratu zena jarraitu zitzaion. Ez zuen, alabaina, aurrekoaren arrakastarik izan azken honek, baina, bultzada bat, hori bederen, eman zion euskaldunek antolatua zuten industriari, itsas untzigintzari batez ere; garai hartan, hain zuzen ere, Filipinas-ko Elkartearantz eraikitzen zituzten untiak euskal untzigintzaren, Pasaian batipat.

### **Metalurgia eta harmagintza**

Itsas merkatalgoarekin batera, metalurgi industria zuen Euskal Herriak aberastasun iturririk aberatsena.

Meategietako burdina bere hartan ateratzea eta burdin moldaketa, nola hotzean alagorian, lortze lanean ziharduen batez ere euskal industriak, eta lan horretan, dio Caro Baroja-k, euskaldunak "etnologiarik eta kultur historiarik dagokionetik, lan eder ikusgarri askorik burutua dute euskaldunek". Erauzketa urriko burdin meatztegiak arakatu ziren, Aralarko delarik hauetako bat. Churruca-k esango du, haietatik erauzitako "burdinaz kanpaiak eta kanoiak goritu ziren". Baina lenegotan *olak* eta gerora *burdinolak* zeritzaten sutegetako lanak, -nekazal tresnak, aingurak, kateak, iltzeteria, harmak eta itsasuntzigintzako burdinajeak izan ziren.

Gauza zihurtzat jotzen da Espainian ur zeharrolak (mailuak) sartu izan zituztenak Markos Mumalabe, bizkaitarra eta Fabriario milandarra izan zirela eta 1540 aldera nonahi ezagunak omen ziren.

Gipuzkoa dugu harmagintzan gehien atxiki zitzaiona, arkabuz, txizpa, moskete eta gainerako su izkilugintza landuaz oso ezaguna egin zen. Plazentzia-ko harma fabrikaren zuzendaritzapean Elkarte bat eratu zen, eta ezpatak moldatzen ziren Arrasaten Udala menditik erauzitako "altzairuz". Tolosa-n bular-oskolak, altzeiru-jantzaiak eta erredolak taiutzen; Donostian, urrezaturiko harmak Errege harmategirako egin ohi ziren. XIX. mendean erdi aldera lan molde berriak sartu ziren euskal lau eskualdeetan, Bizkaian batez ere, eta aurrerapen honekin, hala nola atzerritar burdinarekin eskuz esku, aintzinako euskal sutegetako langintza atzera geratu zen.

<sup>18</sup> *La Hora navarra del XVIII*, Principe Viana Istituzioak argitaratua.

Sutegi edo burniola hauetatik, 1550ean, Madozek dionaren arabera, ba omen ziren 300ren bat Bizkaian eta Gipuzkoan (urteko 300.000 kintal); 1664an, Bizkaian bakarrik, 162; 1658an, 107 handi eta 70 ttiki baziren, eta 1787an, 152 ezagutzen ziren.

Metalurgi industri honek izan ditu, jakina, bere gorabeherak. Juan Fermín Guilitasti-k Amsterdam-en Caracas-ko Elkartearen laguntzaz eman zien aurrerakada dugu bat. Handik ekarri ere zuen gizon honek aingura olak eraikitzeke asmoa; Portugalera, Frantzia-ra eta Ingalterra-ra salduak izan ohi ziren; hala digu Churruca-k, 1785ean 400 aingura egin zituzten erregearen untzientzako.

Jakingarria inolaz ere, Frantzia-kin izandako gerrateak harma industria Deva-ko hibai ertzetik atera eta Asturias-era (Oviedo eta Trubia) aldatzera behartu zutela; jadanik, hantxe sortu ziren hedapen handia izango zuten nukleoak.

### **Beste langintzak**

Itsas industri bortitz bat iritxi zuen Bizkaia-k; 1830tik 1849ra bitartean bakarrik 360 unti eraiki ziren. Ba zen untziginderik Zumaian, Getarin, Orion, Usurbilen, Donostian, Pasaian, Errenderin, eta Urumea hibaiaren ertzetan, Ergobia-ko zubiaren ondoan, Gipuzkoan. Eta hori eta guzti, 1841eko kalastra-agirietan ikusten denez, 1815tik 1832ra gipuzkoar industriak beherakada handia ezagutu zuen, metalurgian batez ere; Plazentzi eta Elgoibar-ko harma olak bakarrik atera ziren onik.

Metalurgia eta untzi industri hauetaz gainera, bazen Gipuzkoan eta Bizkaian errota ttiki anitz; eltzegintza edo zeramikagintza, ehungintza eta ohialgintza ere zabaldua zegoen.

Araba-ri buruz, Churruca-k ba dio bertako batzarretako agirietan zera aitatzen dela "nekazaritza" dela bertako-industri bakarra, nahiz eta XVIII. azken aldera burdinolak ere eduki. –Bizkaian 200dik gora eta Gipuzkoan 90tik gora ziren bitartean– 18 besterik ez, Llodio, Ayala, Urkabustaiz, Villarreal, Araya, Azparren (Araya) eta Valdegovia-n. Baziren garai haietan bi gatzaga: garrantzi handikoa bat, Añana-koa, eta Burela-koa; ezagunak ziren ere hango gozokiak. Artesautza bikaina izan du beti ere Arabak. Bestalde, Araban, aleki eta iringaiak lantzen eta ardo bikainik ere egiten zen.

Artalde ugariak dituzu nonahi Nafarroa-n, eta mendietan aritz, pinu, pago eta lizar basoak ugari ere; egur kopuru handiak ateratzen zirelarik haietatik. Erriberan aleki, madari eta barazki bikainik atera ohi zen, hala nola mahasti, olibondo eta azukre arbia.

Kondaira aldi hontako euskal ekonomiaren berri axaletik bederen eman ondotik, euskal administrazioaren ezaugarriak, eta errejimen politikoan zazpi euskal probintziek jasan zuten gain beherakadaren pauso nagusiak ikusiko ditugu orain.

## Euskal eskualdeen eboluzio politikoa

Nafarroa-ko errege ordekoen zerrenda 1514ean erregerekin mutilen kapitaina)<sup>19</sup> eta Isla Bizkontearekin (1515) hasten da, eta Manuel Llander-ekin hersten (1832), juramentu egiten eta agintzen azkena izandakoa.

Nafarroa, beraz, denbora guzti hartan birreinato izan zen, espainiarren mendean zegoen Ameriketako guztiak bezalaxe.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, berjabe genituen zein bere Batzar Nagusietan erabakitako legeen arabera administratua zelarik; Arabakoak ordezkari edo diputadu bat zuen buru; Gipuzkoa-koak eta Bizkaia-koak korrejidorea.

Espainia-ko estatuari zergak ordaintzetik libre aurkitzen zen Euskal Herria garai hartan. Inoiz diru bilketa bat egitera behartuak zeudenean, Batzar Nagusiek erabakitzen zuen zenbatekoa eta biltzeko modua.

Gasteiz-ek, –Castilla-rekin zuen Ebro-ko muga-etxea han zegoen– garai hartan oparotasun aldia ezagutu zuen merkantzien salerosketei esker.

*Probintzia banaketari buruz* iharduteko oraintxe dugu une egokia; izan ere, berezko joera izan ohi da gaurregun delako banaketa hori –aduna etxe, zerbitzu militarra egin beharra– betidanik izan dela uste izateko.

*Salvat Entziklopedia-n* hau irakurtzen dugu: "Probintzia, Adm., Udala eta Estatuaren arteko lurralde barruti edo zirkunskripzio bat da Espainian, edotariko administrazio zerbitzu lanetarako, eta 1833.go azaroaren 30eko Errege Aginduz sortua". Zera, 1833ra arte probintziarik ez zela Espainian esan nahi du horrek.

Izen hori daraman bakarra –ez administrazio gisako banaketa baten ondorioz, titulu gisa baizik– Gipuzkoa genuen; izan ere probintzia zen, Bizkaia jaurerri zen bezalaxe. Hartaraino da horrela, ze Cadiz-ko Gorteetan 1812.go Konstituzioko 10. artikulua honela mintzatu behar bait du nahi eta ez, espainiar lurraldean "Aragoi Asturias, Gaztela Zaharra, Gaztela Berria, Leon, Katalunia, Baskongadak eta Nafarroa" etab. sartzan zirela, zeren urtegune hori baino lehen erresumek, printzerriek eta eskualdek osatzen baitzuten.

Carretero y Jiménez-ek banaketa administratibu hori gomendatzen duela honela dio: "Probintzia banaketa hori –frantzes Matxinada garaiko departamenduen kopia-herioz jo zituen aintzinako jendebilketa edo comunidadesak; Castilla aitatzen du haien artean; izan ere kaltegarri izan zitzaion nausikeri horregatik.

Pirineoz ifarrerantz zeuden eskualdeei buruz, Frantzia-n eta Espainia-n egin ziren zentralizaketa saiakerak aurreko kapituluan aztertu ditugunean, 1565ean planto egin dugu; Felipe II.ak Baiona-ko apezpikuari Nafarroa eta Gipuzkoa-ko lurraldeak kendu zizkion unean, hain zuzen ere. Baina egiazko zentralizaketa Frantzian hasten da 1620an Luis XII eta Richelieu-kin 1659an, Pirineo-tako Itunean. Los Faisanes irlan egindako Pirineo-tako Trataduan, Bidasoa hibaiaren zortzi kilometroak seinalatzen dira Lapurdi eta Gipuzkoa arteko muga bezala, eta Luis XIV.ak elkargo honen bitartez Nafarroaren gain zuen agintea ukatzea behartu zen; kasu, gero, ez dugu ahaztu behargarai hartan, Castilla-ren mendeko birreinato zela. Bi Nafarroen arteko lur mugak ez ziren finkatuak

<sup>19</sup> Handiki seme, jauregi mutil, zaldun gazte eta Gaztela-ko erregeen zerbitzuan lan egiten zuten gainerakoek osatzen zuten Taldeko kapitaina.

izan, halaz guztiz, Elizondo-ko elkargoa izenpetu arte; hots, ehun urte gerora, 1765ean. Euskaldunek ukatu egin zuten, eta 1794ean frantzes Elkargo edo Konbentzioak Biriatu, Askain, eta Sarako 4.000 seme eta Bidasoaz harandiko mugaldeko beste herrietako jendea hartu eta Landas-etara aldatzea erabakia hartu zuen "gipuzkoarrekin eta nafararrekin gaizkide edo konplize zirelako" eta "erdia baino gehiago ikaragarritzko oinaze artean hiltzen dira".<sup>20</sup> (20)

Ifarraldeko eskualdeak herri batzar edo *Biltzarretan* hartutako erabakien arabera arautzen ziren; batzar hauen begirantzapean egon ohi zen administrazgoa; ordenu zaintzaile eta bertako soldadutaldea ere bazuten. Era hortara iraun zuten harik eta 1789an Zuberoa eta Lapurdi-ko autonomiak baztertuak izan ziren arte eta Behe Nafarroa mehatxatua. Lapurdi eta Zuberoak protesta egin zuten baina, ez zuen honek ondoren ekarri; Behe Nafarroari gagozkiolarik, frantzes batzarrean Matxinada garaian nahiko entzutetsu eta harrandi zen "Frantzia-ko eta Nafarroa-ko errege" titulua aldatu beharraz eztabaida ugari izan zen, eta aldatu ere bai; haren orde "frantzesen errege" eramango zuen.

1789an gertatu zen hori, eta urte bat geroago, 1790ean Frantzia-ko lurraldearen antolaketa berri bat egin zen. Urte-gune hartan Euskal Departamendu baten orde, Behe Pirineo-tako Departamendu bat (1917az geroz, Atlantiko-ko Pirineoak deitua) eratu zen, Bearn ere Euskal eskualde barruan sartzen zutelarik; jokabide maltzur hori kaltegarri, beraz, bai euskaldun nortasunarentzat bai Bearn berarentzat ere. Aitziti, onuragarri zitzaion Estatuari, zeren horixe lortu nahi bait zuen, aspaldiko xedea zelarik Euskal nortasunaren aztarna oro, sozial aldetik, kondaira aldetik, politika aldetik, administrazgo aldetik ezabatzea.

Ildefonso Gurruchaga kondairalariak esan nahi handiko gertakizun bat jarri digu argitan historiako une honi buruz.<sup>21</sup> Frantzia-ko buruzagiak Andorrari buruz duen agintegoa Nafarroa-ko erregeegandik datorkio. Izan ere, 1589an Nafarroa-ko Enrike III.ak Luis Santuaren koroa bereganatu ondoren Frantzia-ko Enrike IV entzutetsua izatera heldu zenean, Nafarroa-ko errege bezala zituen eskubide guztiak gorde zituen Paris-era joan zenean, printzekidetasuna haien artean. Geroan, Monarkia garaian, erregez errege, eta Errepublika aldiaren lehendakari lehendakari eta hurrenez hurren eskualdatu ohi da eskubide hori, ordutik hasi eta berrogeita zortzigarren printzekide oinordeko den Pompidou-ganaino.

### **Matxinadak eta arma erasoak**

Euskal Herrian izan ziren iraultza eta gainerako borrokek izan zuten eraginik politikan. Gora behera handikoenak aitatzea beharrezko deritzat.

XVII. mendeko borroka sozialaren alde bat, gure artean oso guti ezaguna izan bada ere, zalantzarik gabe, ondoren etorritako gertaera soziopolikoetan arrakastarik izan

<sup>20</sup> Davant, dagoeneko aitaturia.

<sup>21</sup> *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*: "Andorra, euskaldunak eta Pirineotar batasuna." Urtarrila-martxoa, 1968.

duena, noski, aitatzen du Caro Baroja-k.<sup>22</sup> Eskuarki,esan beharra dago, 1600ko lehen hamarkadaz geroz, gutienez, eman direla lurralde hontan garrantzi eta interes handiko jazarketa gisako mugimenduak; nekazari ez ziren gainerako langileriaren hestuasun ekonomikoak batetik, hala nola nekazarien aldetik industria eta merkatalgoaren aurkako zalapartak eragile nagusi zirelarik. Bestalde, aldi desberdinetan, XV. mendeaz geroz gure egunetaraino, komunista eta mistika joerako korronterik ere agertu da landan. Eta are gehiago, langile artean, erakunde sozialistaz edo gisakoz mintzatzen hasi izan baino lehen ezagutu zen langile jazarketarik, arrazoi ekonomikoak zirela nahiz alderdikeriak beraien iturri. Bizkaian ezagunak dira 1631ra doan tartean sortutako zalapartak, gatz gordeguak zirela ez zirela. Nekazariak, "jauntxo" basatiek zirikatutik, agintari batzu garbitu zituzten merkatalgo eta aberastasun arazoetan likits eta doilorki jokatu izan zutelako.

Zapalketa odolgarri bat etorri zen, ondotik, Bilbaotarren eta baserritarren artean betirako gorroto bizi bateri oroitzapena utziko zuena. Antzeko gorroto batek egin zuen eztanda 1718an, "matxinadakoan".

Caro Baroja pasarte batetik mintzo zaigu; hartan "matxin" izena "Bizkaia guztian baserritarren ematen zitzaion deitura omen zen". Baina, badakigu Matxin Martin bezala erabilia dela Euskal Herri-ko alde askotan, eta *Euskal Herriko Historia-ren* egileekin bat gatz "matxin direlakoak hermentari direla, eta beren zaindari Martin santu delako, horrela deituak direla", diotenean.

"Hare beranduago oraindik –dio Caro Baroja-k–, 1840ean, beste jazarketa bat izan zen, baserritarrek Jaurerriko agintarien aurka ailtza zirenekoa; toki askotara zabaldu zen, eta beti bezala, botere zentralak era txarrez eta bortxaz zapaldu zuen".

Puntu hontara ekarri gaituzten zalaparta guzti hauk alde batera utzirik, eta pixkaren bat atzera egiten dugularik, Arozena-ri jarraituko gatzazkio Ondarribiaren setiaketa aitatzen duenean. Hona zer dion "1638 eta 1639. urte artean harma hartze orokor bat eman zen, Ondarribia-ko hiria eta mugako linea gordetzearren" ...<sup>23</sup> "5.000 gizonen hartu zituzten harmak Berwick-en harmadari buruz buru egiteko; honek izan ere, Gipuzkoa okupatu bait zuen 1719an, eta Ondarribi eta Donostia menderatu" ... "Gipuzkoa Berwick-ekin harremanetan jarri zen, Baldin eta Gipuzkoa Espainiari itzulia bazen eskatzen zuen, Ingalterra eta Frantziarengandik foruekiko begiramena lort zezala; honela, gure probintzia nazioarteko diplomazia jokuan sartzen zen lehendabiziko aldiz".<sup>24</sup>

Konbentzioaren aurkako guduketa aldian (1793), euskaldunek beso zabalez hartu zituzten frantzesak, eta Gipuzkoak eta Bizkaiak hitzarmenak izan zituzten haiekin.

Garaiko gertakizun batzuei oroitzea aski izango da Euskal Herriak zer nola pasa zituen gudu garaiko gora beherak ikusteko.

1794eko ekainaren 25ean, Ventura Caro gudalburuak, Carlos IV.ak bidalitako harmada baten buru zelarik, Irun-dik gutun hau bidaltzen du: "Ez dut troparik aski haien asmoei buruz buru egiteko, eta ez dira nahiko Berorrek mugara bidali dituen hiru

<sup>22</sup> *Los vascos*.

<sup>23</sup> Gipuzkoa-ko muga dugu 1842ra arte, hots, Gaztela-rekin Ebro-n duena desegin eta Erretereri edo Aduana Miranda eta Gasteiz-tik Irun-era aldatu zenean.

<sup>24</sup> Garai hartakoa izan behar du, zeren lehenagotik zirenak aitatuak bait ditugu.

talde harmatuak (tercios); honela jakinerazten dizut gainean dugun arriskuaz jabetu zaitez, eta bertakoek (padre por hijo) ere harmak har ditzaten; eta Koronel bat izendatzea ere beharrezko da beraien zuzendaritza hoberako eta bertako agintariekin burubide izateko".<sup>25</sup> (Para su mejor dirección y gobierno con las autoridades correspondientes).

Biharamunean, ekainak 26, erregeak agindu bat bidali zuen, zeinen arabera Gipuzkoa-ko soldadu taldeak "Bidaso zeharkatzea ukatzen dira; jokabide hori oztopo izan da tropek etsaia Irun ingurutik bota dezaten eta hauen artilleriaz jabetu", eta "premiazkoa da soldadu talde hoiek beren Koronela izan dezaten, Gipuzkoa-ko Foruen arabera, agindu dezan eta haren gidaritzapean muga defenda dezaten hibaia gurutatuz".

Gipuzkoa-ko Batzar Nagusia Getari-n, uztailan, bildu zelarik, erregeari erantzuna bidaltzea erabaki zen. Hona laburturik zer zioen: Gudurako harmetan zeuzkan mutilak mantentzeko gastuek probintzia murriztua zeukaten<sup>26</sup> eta jakin badaki Caro gudalburuari indar berriak datozkiola Gaztela-tik eta beste eskualdetatik. Horrenbestez, hainbat bider aldarrikatu eraso ez bait dator, hiru gizonetarik bi etxeratzea erabaki zen, "baldin eta Diputazioak albiste zehatzagorik ez badu etsaiak mugaldekoko lurra erasotzeko asmoei buruz"; eta hau erasten du "etsaiak eraso edo mugaren barrena abiatu edo horretarako seinale argi ta garbirik somatu ezean, probintzianoek ez dute beuren lurraren alde armarik eskuetan hartzen".

Horra aintzinako *Malato aritzaren* itzala.<sup>27</sup>

Bien bitartean *Frantzesen inbasioa* 1794eko abustuaren 1ean gertatu zen. Frantzesek Donostia inguratzen dute, eta Mitxelena alkateak idazki bat zuzentzen die, hiriko giltzak eskaintzen dizkielarik, baldintza honekin, alabaina, "hiriaren esku utziko direla bere agintaritza, foruak, eskubideak, errentak eta ondareak".

Gipuzkoa-ko Diputazioak, Getarin Bilduta bizkitartean, harma uzte edo armistizioa tratatzen du frantzesekin, eta abustuaren 4ean Etxabe ordezkari nagusia beste batzukin okupatzaileekin harremanetan jartzen dira. Batzar Nagusi-ra deituak direlarik, 14ean, Frantzia-kin elkargo bat egitea onartzen da, baldintza honekin, alabaina, ez zirela gipuzkoarrak harmak hartzera behartuak izango eta ezertarako ere ez zirela sartuko "Gipuzkoaren gobernutzan"; trukean, herriek, "gudu mutillak lagunduko zituzten, espainiar harmadarekin egin ohi zuten bezalaxe".

Baina, horra, frantzesek ez zituzten onartu baldintza hauek eta Gipuzkoa-ko agintariak atxiloturik eraman zituzten, Arozena-k dionez. Batzarreko ordezkariak Baionara eramanak izan ziren, Oiartzun-go Sagasti idazkariaren agiri batean esan ohi den bezela". Borrokan jarraitzea erabaki zuen orduan Diputazioak.

1795ean frantzes tropak Bizkaia-ra, Araba-ra eta Nafarro-ra sartu ziren. Bizkaitarrek Frantzesekin akordio batetara irixtea erabaki zuten; zera zioen honek "ez zela bizkaitar inor harmak hartzera behartua izango", eta "foruak gordeko direla".

<sup>25</sup> *Historia del Pueblo Vasco*, sarritan aitatua.

<sup>26</sup> "Probintziak 4.600 gizon harmatu zituen" dio Arocena-k.

<sup>27</sup> Muga lerroan zegoen zuhaitza, sinboluz betea euskaldunentzat, ezpata enberraren erraietan sartuz adierazten zuten mugaraino, ez haruntzago, oporretik ibiliko zitzaizkiola etsaiari. Euskaldunen politika jokabide motelaren arrazoi bat izpiritu hori dateke, behar bada. *Malato Zuhaitza* 1575ean argitaratu zen Bizkai-ko Fuero-ko V. Lege-ko I tituluan ageri da, eta Luyando-n, Bizkaia eta Gaztela arteko mugan situatzen du.

Araba hori bera egitera erabakirik zegoen, baina inolako itun batetara iritxi baino lehenago Basilea-ko bakea konzertatu zen Frantzia eta Espainia artean 1795eko uztailaren 22an".

Urte asko ez zen igaro oraindik eta Napoleon-en harmada Irundik barrena sartu 1807ko urriaren 19an. Hori zela eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkai-ko Diputazioek frantzes agintaritzapean ihardun zuten beren lanetan. Enperadorearen dekretu batek, 1810eko otsailaren 8koak, Diputazio Foralak deuseztatu zituen<sup>28</sup> eta *Bizkai-ko Gobernua* eratu; eskualde honekin batera Araba eta Gipuzkoa ere sartzen ziren hartan.

Geroago, 1813an, Bizkaia eta Gipuzkoa-ko Batzar Nagusiek men egin zioten *Cadiz-ko Kostitutuzioari*, eta Ebro-ko mugak Bidasoara aldatu ziren, eta Gasteiz-ko Aduana Etxea Irun-era. *Handik geroxeago* Fernando VII Espainiara etorri eta 1814eko maiatzaren 4eko Erabaki edo Dekretoz Cadiz-ko Gorte-fako erabakiak deuseztatu zituen lehengo egoerara itzultzen zelarik dena: Nafarroa Birreinato izatera bihurtu zen berriro, hiru euskaldeen Foruak Fernando VII.ak gonfirmatu zituen 1814eko uztailaren 29an izenpeturiko Errege Agiri edo Zedula baten bidez, eta euskal mugak berriro Bidasoa-tik Ebrora itzuliak izan ziren, beti ere egon ziren tokira.

Hori eta guzti, euskal libertateen aurkako mehatxuak ez ziren hortan amaitu; egia esan, hasi besterik ez ziren egin, ezen, Perez Arregi-k *Gipuzkoa* obran dioen bezala, Fernando VII.ak Foruak 1805ean birreraiki zituenak<sup>29</sup> berak kreaturiko *"Junta de Reforma de Abusos de la Real Hacienda en las Provincias Vascongadas* delakoak 1819an egindako galdaketa edo konsultak, haien aurka akarrak gogorrenak egitea besterik ez zuen helburu" ... "Bi aldetatik etorri zitzaizkion gure errejimenari erasoak": zergak kendu edo aldatu, eta gure administrazio erakundea desegin. Geroxeago berriro Aduana (Zerga) Etxea Gasteiz-tik Gipuzkoa-ra aldatuak dakuskigu, Frantziako mugan, Irun-en, Cadiz-ko Gorteen egin zuten bezalaxe. *Riego-ren jazarketa* garaile atera zelarik Kostitutuzioa berritua izan zen, eta hori ez ezen, foruak berriro ere deuseztatuak izan ziren.

Nahastuak zeuden euskaldunak joku horretan jostailu izateaz. "Zoritxarrez –dio Madoz-ek–, liskarrek, alderdien arteko borrokek, jendearen adorea zatitu zuten, batzu errejimen absolutoaren alde, besteak hauteskunde sistemaren alde jarri zirelako. Anaiak anaien arte borrokatu ziren 1820tik 1823ra doan epean; euskaldunak liskarrean ari ziren bitartean frantsesak Nafarroan sartu zitzaizkigun, urte horretan, eta jenderik gehienek askatzailetzat hartu ere, eta Iruñeaz jabetu ziren, bakea berriro ezarria zelarik".

*Frantzia-ko* San Luis-en 100.000 semeen erasoaldiak liberalen aurkako errejimena ezarri zuen, eta Foruak berriro birreraiki, 1823an. Baina *Fernando VII hil zenean*, 1833.go irailaren 29an, euskaldunei kalterik handiena ekarriko zien eztabaida sortu zen; karlistek –absolutista izan, nahiz tradiziozale–, Carlos nahi zuten oinordeko bezala –hildakoaren anaia zelako– eta *fuerozale* izanik, *liberal* nazionalei buruz buru egin

<sup>28</sup> Ikusten denez, bi aldeetatik etorri zitzaizkion erasoak guri.

<sup>29</sup> *Otra Historia de España* ("Fernando VII edo bateratasuna"): "... Bizirik iraun eta errege izan, nolana ere, beste helbururik ez zuen Fernando VII.ak". "Inork ez duela maite, ez axola, halere. Jaun eta jabe da eta aski du hori. Maltzurra izatea dugu Fernando VII.ari buruz mintzatzean esan behar den gauzarik ohizkoena ...".

zieten, Isabel II, Fernando VII.aren alaba nahi bait zuten hauek erregeren oinordeko bezala.

Penintsulako Euskal Herriko seme gehienak don Carlos-i atxiki zitzaizkion eta tradizio zale porrokatu agertu ziren, beren Foruak, askatasuna, alegia, horrela hobekiago aldeztu zituztelakoan. Gerla karlista edo karlistada genuen hori, 1833.go urrian hasi eta 1839ko abustuaren 31ean *Bergara-ko Elkargoarekin* amaitu zena.

Lehen gerla karlista honek zer esan nahi duen euskaldunentzat labur aztertuko dugu orain. Ildefonso Gurruchaga-ri<sup>30</sup> jarraituko gatzaizkio, batez ere, puntu hontan.

XIV. eta XV. mendeetako alderdikeri borroka odolgarriek aldi nahastu baten azkena adierazi zuten bezala, XIX.mendeko gerla karlistek Euskal Herriaren erakunde zibil-politikoaren zimentarri izan zen oro birrinduko zutela itxura guztia zuten garaikoentzat. Honek egin zuen euskaldunek antsi larrienean bizi zitezen kinka hartan eta kupida gabe hil zuten elkar.

Bi guduketa hauetan lenengoari, laburtu nahi duguna guk hemen, "zazpi urteko" deritza, 1833tik 1839ra arte irau zuelako.

Gurruchaga-ren eskutik denboran atzera egin behar dugu pixka bat lehen gerla karlista honetako giroaren sustriak argitan jartzeko. 1789ko frantzes matxinadak pentsamendu politikoan bi joera ireki zituen: *zaharra* izendatuko duguna bat, tradizioz datorrena delako, errege absolutoarena, aginte guztia aristokraziaren eskuetan jarri duena; Eliza eta Estatuak eskuz-esku agertzen dira. Politika arazoa batzuen eskubide bakarra da eta Estatuak eta korporazioek kontrolatzen dute ekonomi sendo bat. Bestea, joera *berria*, aurrerazale, aginte politikoa herriaren eskuetan utzi nahi lukeena buruzagi bat bitarteko delarik, monarkiaren nahiz errepublikaren tankera hartuz; idatzirik dagoen konstituzioari mendeko zaio eta *Eliza eta Estatuaren artean erabateko banaketa* eskatzen; gainera –guri dagokigu bereziki puntu hau–, Ekonomia liberala aldarrikatzen duen *estadu mota berri honek lege bakarra, bateratua*, klase berezkuntzarik edo eskualde apartekotasunik onartzen ez duen bat ezarri nahi luke Estatu guztian.

Bi joera hauek elkarrekin buruz buru egin zuten batzutan odola isurtzeraino, eta bien arteko guduketa horrek zerikusi guztiz berezi bat zuen gure lurraldean dinastia arazoa zela eta Zera gertatzen zen, Fernando VII.ak ondorengorik ez izan, eta beraz, oinordekotasuna Carlos V bere anaiaren eskuetara joango zela uste izan zen denbora batez, baina laugarren ezkontzatik, Isabel II izenez ezagutuko zena jaio zen 1830an. Luzaz eztabaidatu zen emakumeak edo hauen ondorengoak errege aulkitik baztertzuten zituen legea, Frantzia-tik etorria, eta Borbondarren etxea 1700.ean Felipe V.arekin alkitatu zenean sartutakoa, bijentzian zegoen ala ez luzaz eztabaidatu zen. Fernando VII 1833an hil zen ordukoxe piztu zen Isabel II.aren aldeko *liberalen* eta Carlosen alde borrokarako prest zeuden *tradiziozalen* arteko gudua. Berezko denez, Euskal Herrian ere arazo hau garaiko europear eta espainiar ikuspuntutik interpretatu zen. Liberal alderdia jende ikasiek osatu zuten, ekonomi aldetik aietasunean bizi zirenek, merkatal gizon handiek batez ere; hauek begi txarrez ikusten bait zituzten erantzel mugak; honek bultzatu zituen Pirineoz hegoruntzako lau euskal hiriburuak alderdi hontan lerrotu zitezen. Hartan lerroturik zeuden ere Napoleon-en aurka borrokatu ziren euskaldun ofizialak. Eta, aitziti, beste alderdian *tradiziozaleak* genituen: apaizgoa, zenbait gizuren,

<sup>30</sup> *Las guerras carlistas en el siglo XIX y su significación en la Historia Vasca.* (Inédito.)



napoleondar kanpainako ofizial batzu, Zumalakarregi, hauen artean, eta herri xumeetako jenderik gehiena, hiritar izan nahiz baserritar.

Ze barne eraginak bultzatu zituen euskaldunak horren parte eginkor eta funtsezkoa izateko gerla hontan? Gurruchaga-k zenbait ematen dizkigu:

- Apaizgoaren eta herri mailako jende xumearen arren gura, sinestun eta Elizaren eraginpean bizi zirenez, haren aurkako jazarketaren beldur bait ziren; bazen egia esan, arrazoirik ehin batetan, aurreko liberal aldian gertatu zena ikusiz gero (1812-1820), eta Europan zehar gertatzen ari zenari begiratzen badiogu.

- Euskal Foruek zuten arriskua, Lapurdi-ko Benabarra eta Zuberoa-koei gertatu zitzaiena kontuan badugu; hauk, izan ere 1789ko Matxinadak garbitu bait zuen. Orobat Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa-ko foruek ere jasari zituzten bereak eta bost liberal aldian.

- Emakumeak, Elizaren eraginez, itzal handia izan bait du euskal gizartean.

- Euskaldunaren berezko erasokortasuna.

- Lurraldeak jasaten zuen krisi ekonomikoa.

- Jendetza gehiegia, amerikar lurraldeak berjabetasuna lortu ondoren Amerikarako joera geratu egin bait zen.

- "Nere iritziz -dio Gurruchaga-k-, *errejimen foralak jasaten zuen krisi sakona* genuen kausarik funtsezkoena. Herriko jende gehiena bertako agintariei jarraiki izan balitzaio, ez zen bi gerla horietarik bat ere emango Euskal Herrian, Izan ere, 1833 eta 1872ko karlisten jazarketek Penintsulako eskualdeetan piztu zituzten arazoak harrotu zirenean Espainian, lau Diputazio foralak, hau da, Euskal Herriko agintariak liberalen alde, hots Madrid-en agintzen zuen gobernuaren alde jarri bait ziren. Herri xumeak, orduan, agintari foralen aginduetara jarri orde, eliz gizonei eta bertako goi mailako gutiengoari men egin zien, eta haien esanei jarraikiz, karlisten lerrora makurtu zen; horretxek piztu zituen bi guduak".

Hau da gure galdera, zergatik ailtxatu zen herria bere agintari jatorren aurka?.

Carlos II 1700.ean hil zenean, euskal agintariak borbondar oinordekotasuna onartu zutenean, herriak erabakia haintzakotzat hartu, eta ez zen gerrarik izan. Baina, 1833ra arte iraun zuen mende eta erdiko epean, aldaketa anitz eman zen euskal gizartean, bai sozioekonomi aldetik bai politika eta erlijio aldetik jabego eta ondareak esku guti batzuetan pilatu ziren, eta beti gerta ohi den bezala, botere ekonomikoa politikoaz ere jabetu zen, handikiak sortu ziren, eta hauek beren diruz eta itzalez "desamortizazio"ko Eliz ondasunak, erruki anaiarteak eta, arabera tikiagoan bazen ere, herri ondasunak erosi zituzten, gizarteko sozioekonomiko egoeraren desberdintasunak gero eta handiago egiten zirelarik. Bestalde, Ilustrazio, Entziklopedismo eta frantzes Matxinada-ko ideiek eraginik izan zuten oligarkiaren gain, erlijio aldetik susmogarri bihurtzen zuelarik. Bere lerrotatik "Afrancesado"rik atera zen eta inbasio aldian Napoleon-en aldetik jarri ziren bezalaxe, aipaturiko bi liberal alditan, alderdikide gehienak liberalen aldeko egin ziren; apartekotasun honekin, hiru aldietan, Napoleon-en aldian, eta 1812 eta 1820ko bi liberal aldietan, Foruak deuseztatuak izan zirelarik.

Gertaera hauek izan behar ditugu kontuan lehen gerla karlista honen aurretikoei buruz eritzi kritiko bat egin nahi dugunean.

Kanpotik, bienbitartean, guk ze esan eta nola ihardun begira zeuden batzuk, Victor Hugo haien artean, ez zuten ulertzen nolaz elkar zezakeen euskal gehiengoak Foru-ekiko maitasuna eta Absolutismoa, ez eta ere zergatik erakusten zuen konstituzio liberalaren aurka bekozkoa, errejimen foralarekin zuen ahaidetasuna bistan bait zegoen. Eta halaz guztiz, Gurruchaga-k dion bezala, "Foruak nola ulertzen diren", horra zertan dagoen arazo guztia. *Liberalek* hau zioten: "Foruek Konstituzioaren pareko dira". Horrelaxe aldarrikatu zuten 1789an frantzez batzar Nazionalen eta gero Baiona-ko Gortean 1808an eta Cadiz-en 1812an. Alabaina –eta garrantzi handiena du honek gure kasuan–, *Konstituzio liberal hori laikoa zen*. Karlistek, aldiz, sinismenaren eta Foruen arteko batasuna hautsiezina zela zioten eta horri eusten zioten, Foruak Jainkoagandiko dohaia bait liran kontsideratzen zituztelarik. Gertatzen zena besterik zen, alegia, euskal foruen *erlijio isuriari* neurri gabeko garrantzia ematen ziotela. Gerla beraren gora behera garrantzizkoenak emango ditugu orain labur.

Gerla hasi eta hamar hilabetetara, Carlos V.ak Londres-tik ihes egin zuen, begirantza gaitzari iruzur eginik.eta Euskal Herrira etorri zitzaigun 1834.go uztailaren 12an. Pirineoz hegoruntzeko Euskal Herrian egon zen gerla amaitu arte, gure lurraldea karlisten aldekoen eremu gune bihurtzen zuelarik Zumalakarregik hartu zuen karlisten harmadaren zuzendaritza. Napoleon-en aurka borrokatu ondoren kapitan gradura ailtxatua eta 1833an koronel izendatua izan zelarik, Iruñean erretiraturik zegoela jazarketa piztu zenean nafartarrek buruzagi hartu zuten. Berehala errege inguruko Gorte gizonak maxiaka hasi ziren haren aurka, Zumalakarregi-k don Carlos baztertu eta Nafarroa-ko errege eta gainerako euskal lurraldeetako jaun proklamatu nahi zuela, alegia. Bienbitartean, Zumalakarregi-k, garaitzapenetik garaitzapenera, lau euskal hiriburuak setiatzeko kinkan egon ondoren, Gasteiz harmaz hartu eta Castilla-ren aurka joateko asmoa adierazi zion. Gorteak, ordea, ezetz, Bilbaora joan behar zela banku gizon arrotzek agindutako ditu prestaketa garantizatu behar zela; Zumalakarregi-k lehialtasun handienaz erabakia onartu zuen. Bilbaoko inguraketa eta setiaketa hasia zen, eta bala galdu batek zango baten jo zuen Begoñan zegolarik. Berekin eramane ohi zuen sendatzaile batek, Petrikillo izenduna, zaitu zuen Zegama-n, baina hil zen, 1835ko ekainaren 25ean. Zumalakarregi honek interes handieneko arazo bat sortuarazten du, dio Gurruchaga-k: Euskal Herriari buruz zuen bere burutapen barnekoena. "Ukaezina da –dio– gizon honen pentsakizuna eta sentipena euskaldun zirela sakon sakonean, horrela bakarrik uler bait daiteke bere soldaduek zioten itzal goreneko hura, gehienak euskara besterik hitzegiten zuten gizonak zirelarik. Eraspen hori bera zioten ere Pirineoz haruntzaldeko euskaldunek; 1834ean, euskal aitzindari honen garaitzapen entzutetsuen garaian, Luziano Bonaparte-k hau esaten zuen: *"L'ame de Euskal Herria vibrait toute entiere aux recits des exploits de Zumalakarregui"* (Euskal Herria osoa algara bizitan jarri ohi zen Zumalakarregi-ren ekintzarien berri jakin ohi zuenean).

Zumalakarregi-k gure lurraldea Estatu berjabe egin nahi zuela dioen lehenengoa Agustin Chaho dugu, Pirineoz haindiko euskalduna, Zuberotarra, une hartan Paris-en bizi zena. Nafarroa-ko karlistengana etorri zen Chaho eta euskal militarrekin elkarizketa bat izan Lekunberri-n 1835eko apirilaren 7an, hil baino bi hilabete terdi lehenago, hain zuzen ere. Elkarizketa hartatik ondorio hau atera zuen: "Hauxe dugu gure Herriak Berjabetasuna lortzeko behar duen buruzagia". Somerville ingelesak ere,

Espainiara britaniar soldadu talde batekin etorriak, "bertako semeek eskaini nahi zioten errege koroa, *Tomas I, Nafarroa-ko errege eta Bizkai-ko jauna* tituluarekin; eta bera, hartu ez hartu egon omen zen" esan zuen. Eta beste ingles bat, Mackenzie delakoa, asmo horretaz berorretaz mintzo da. Liberalen aldetik ere antzeko saiorik eman zen: 1835ean Iruñea-ko herriaren asaldaketa bat sortu zen, oso guti zabaldua izan dena; Iriarte eta Baricart ziren aitzindari; hauek, hiriko komandante militarra erahil ondoren, kolpeak porrot egin zuelarik, afusilatuak izan ziren.

Erasten du Gurruchaga-k, lehen gerla karlista bigarrenetik arras desberdin egiten duen bereizketa bat *beste nazioetara* ere zabaldua izatea omen *zen*. Honek zailago bihurtu zuen, inolaz ere, euskal mugimendu bakarra zen honek arrakasta handiago izan zezan. Europar gobernuak bitan banaturik zeuden: konstituzionale eta absolutista, garai hartan zein nagusi izango elkarrekin borrokan zeuden bi ideologia. Gure egunetan marxismoarekin eta kapitalismoarekin gertatzen den bezala, agian; bai harek bai honek euskaldunen nortasuna aldezteko euskal borrokari eman nahi zaion honelako edo halako konzeptukeran ze ikusirik badute. Isabel II.aren eskubideen eta ideologia liberalaren alde Elkargo Laukoitza osatzen zutenak atera ziren: Ingalaterra, Frantzia, Portugal eta Espainia liberala; Carlos-en alde zeudenak, berriz, Prusia, Rusia, Austria, Sizilia eta Zerdeña genituen.

Zumalakarregi hil ondoren karlistek ez ziren borrokan jarraitu, inertziaz baizik, eta batez ere, Foruak galtzeko beldurrez, hau bait zen gora behera guztien gaineratik gorde behar zena eta funtsezkoena; gudu ekintzako gainerantzeko elemento guztiak desegiten zihozten bezala nabarmenago ageri zen hori... Kontuan zuten hori liberal gudu gizonen eta foru arazoa gainerako antolaketa foraletik bereztea erabaki zuten. Baina, anaia arteko guduketaz sei urte beranduago gertatu zen hori.

"Atzerriko idazle eta politika gizonen, Isabel II.aren aldekoek, gerla amaitzeko bide bakarra, euskaldunei beren aintzinako legeak errespetatuko zitzaizkiela agintzea zela aholkatzen zuten". Eta gauza nabaria da honek eraginik izan zuela Bergarako akordioan euskaldunek eskatzen zutena onartua izateko; lenengo artikuluak hau zioen: "*Baldomero Espartero kapitain Generalak gogo bizienaz gomendio egingo dio Gobernuari, Foruak eman edo eraberritzea Gorteei proposa diezaien egina duen promesa bete dezala*".

Aurreko testua irakurri lezan oro berehala ohartuko da nolako arduraz nahastu diren nahasi mahasian eskabide hontako pasarteak. Horregatik, susmoti zeuden euskaldun karlistei konfidantza emateko, Espartero bera mintzatu zitzaizen: "*Zuen Foruek iraungo dutela agintzen dizuet, eta baldin eta inork ken nahi balizkizue, nire ezpata han izango da zuen alde lehenengo aterako dena*". Foruzaleak lasatu ziren hitz hauekin, antza denez. Gobernuak 1837ko irailaren 11an, Lege Proiektu bat aurkeztu zuen Gortean. Erabaki hau hartu zen hartan: "Osorik uzten zaizkie beren Foruak *Euskal Probintziei*"; eta ondoren zioen: "Monarkia-ren *batasun konstituzionalaren* kaltetan ez izatekotan". Patua zen noski konstituzio batasuna eraikitzea. Ez zuen galerazi honek 1839ko azaroaren 16ko Dekretuak, Euskal Herriari hauziketa eta legegintzako eskubidea ken ziezaion. Horrenbestez bere historia guztian zehar lenengo aldiz 1200. urteaz geroztik *Euskal Eskubide eta konstituzio batasuna* aldarrikatu zen.

Delako "*Monarkiaren konstituzio-batasunaren kalterik gabe*" eraski horrek karlisten izpirituak berriz ere asaldatu zituela, esan gabe doa.

Monarkiaren Kostituzioak (1837an emanak alegia) honarako ere balio zezala agintzea zen hori eta, beraz, *Euskal Herriak ez zezakeala erregerik, jaunik eta agintaririk aldatu* (erregea Nafarroak eta Gipuzkoak, Jauna Bizkaiak), *Españaik zeukana beretzat hartu baizik*.

Carretero Jiménez-en hitzekin esango berriz ere: "Asmo oneko liberal haiek, Frantzia-ko matxinadaren ideiak berotuta eta beraren dizdira ta haunditasunak itsututa, iraulketa ta aldakuntza guziak, nonahi egin, Frantziakoaren oldez eta moldez eginak behar zutela dogmatzat zedukaten, herri bakoitzaren araberrak, kondaira ta izaera jatorra kontuan hartzeke. Progresista-aurrerakoi araberrak, kondaira ta izaera jatorra kontuan artzeke. Progresista-aurrerakoi haiek, konturatzeke, atzerakoi huts izan ziren, politika, ekonomia ta soziologia sailletan".

Eta guri, egungo euskaldunoi, geure politika-ikusmira desberdinetarako egoki dagozkigun hitzokin darrai Carretero y Jiménez-ek "Lezio bikaina, guk etxetik dakiguna, eman: ideiak, munduan zabal erein beharrekoak izanik ere, politika -ta gizarte-egintzetan gorputz ematerakoan, eskualde bakoitzaren zer-nolak eta historiaren joana kontuan harturik behar zaie gorputz eman. Erakutsi gogoangarria gaurko ere, dogmakeria berberaz, baina ez hain barkagarriaz, kanpotik ekarritako errezetetan fede dutenentzat".

Azaroko Dekretoaren ondorioz noragabe ta zer ikusiko zegozela, "buruzagi politikotzat gure Probintziak bera ar zezala jarri zen *Alcalá generala*, dio Pérez-Arregik; baina Batzar Bereziak, Azpeitian bilduta, Foruetatik zuen eskubidez, Alcalá generalaren gailen-asmoa haintzat ez hartzea erabaki zuen" ... "Suak hartuta, ez-aditu egin zuen generalak Batzarra, eta, gobernu ta administrazgo arazo guzietan berarengana zuzenean jo zezatela, agindu zien udalei. Asensio Altuna, Azpeitia-ko alkatea, generalaren agindua ezaditu zuenez, zakarki baitu ta Donostiara eramanak, eta, bide-batez, Regencia-ren aginduz, *Kostituzioaren Kontrakoa omen zelako, nora-agiria ("pase foral" a) kenduak*, zalapartaka jartzerraino asaldatu zuen foru-zale jendea.

"Foru-zaleen jaikia zapalduta, *1841eko urriaren 29ko Dekreto*a eman zuen Esparterok Gasteiztik".

"Korrejidoreen ordez, eskubide gehiagoko politika-buruzagiak ipini zituen" Dekreto horrek... *"Foru-Batzar eta Foru-Diputazio gurenen tokian, Kostituzioaren arauzko Diputazio probintzialak sartu; zergak bilduta herri-dirua eralgitzeko, ekonomikomisioak, politika-buruzagiek izendatutako jendez osatuak sortu zituen; nazio guzikoaren arautan sartu zuen euskal probintzietako hauzi-erakuntza ("organización judicial" a; gobernadore eta juezak Madrid-ek izendatzen zituen, udal denei lege berdinak ezartzen zizkieten, Guardia Civil-a ipini zen, Polizia sartu, hala nola administrazgo zentralaren mendeko funtzionariak, *itsas-ertzean eta Frantzi-mugan finkatu aduenak*" ... *"Batzar Nagusiak eta Diputazio Foralak manu militari ezabatuta, ordezko Diputación Provincial horien aginpidea 1842ko apirilaren 23ko legeak eta urte bereko uztailaren 14ko Dekretoak finkatu zuten"*.*

*Foruen giharra janik zigun Esparteroren Dekreto honek*, eta agindu berari buruz, hona Pérez-Arregiren azken-itza:

"Horra Foruen alde Esparterok atera zuen ezpata. Egia, XIX mendeko hiru azken-laurdenetan Espainia-ko politika-jokuan burua airosenik atera duen birtutea ez dela leialtasuna izan".

## 1841tik 1936ra

Ikusi dugunez, lehen gerla zibila edo karlistada 1839an amaitu zen Espartero gudalburuak euskaldunen Lege Zaharrak, hots, Foruak, gordeko zituela zin egin eta hitz ematen zuelarik. Hitz hauei, haatik, ekintza bideari gagozkiolarik, Erabaki edo Dekreto baten bitartez ezabatuak izan ziren.

Esana dugu dagoeneko, Erabaki honen ondoren nabarienetako bat Euskal Herria eta Gaztela arteko muga, Ebron zegoena, desegitea izan zela; inondik ere, aitatu izan den Malato zuhaitza istitutuzgo jatorraren ondorioz asmatua izan zena.

*Errenteri edo aduana*, gaur dagoenez, –dio Luis Uranzu-k *Un pueblo en la frontera* liburuan–, 1814az gero ezagutu zen Euskal Herrian. Arartean, euskal probintzietako biztanleak atzerrira joan zitezkeen askatasun osoz eta erosgaiak ekarri beren eskualdean ezerean trabarik gabe. *Errenteri edo muga etxeak Gasteiz-en, Miranda-n, Orduña-n eta Valmaseda-n aurkitzen ziren*. Bazen Irun-en ere Gipuzkoa-ko Diputazio Foralaren errenteritzako alkatezgoa; Diputazioak berak aukeratzen zuen horko alkatezarako bere seme ospetsuenen artean; Esteban de Garibay historiagilea izan genuen haietariko bat". "Txingudi badiako, nahiz itsasoko joan etorriak egiten zituen untxiak Gipuzkoa-ko harmarriari erantsirik ikurriña zeraman txopaldean idazkun honekin: Alcaldia de Sacas de Guipúzcoa". 1823an etxe haren mende zeuden hamabi zainzaileek beren txapelei ikurriñaren idazkuna bera zeramaten txapak erants ziezaizkietela erabakia hartu zen; txapa horiek txuriak izan behar zuten mileketeek zeramatzen gorrietatik berez ahal izateko".<sup>1</sup>

Alabaina, lehen karlistada gerlatik 1936. go guduketa zibila bitarteko kasik ehun urte haietan eman diren gertakizun politiko entzungarrienei begiratu bat eman aurretik, Euskal Herriko barne erakundearen alderik nagusienak aztertuko ditugu laburki.

## Foruak<sup>2</sup>

Gaurko erakunde sozialean ere erabiliak eta izendatuak diren Foruak aurreko kapituluan aitatuak ditugu.

"Joan den mendeko guduketa politikoek –dio Celaya jakintsuak–<sup>3</sup> gure aberria zatiturik utzi zuten eta Deretxo eremuan izan zuten eraginik, Arauteri zibila idatzi behar izan zenean berealdiko eztabaidak sortu ere ziren. Batetik foru zaleak zeuden, aintzinako lege zaharrak bere osoan gorde nahi zituztenak, eta bestetik joera zentralista bortitz bat, eskualdeekiko bereizkuntza oro ezabatu nahi zuena eta horren orde eskualde guztietarako baliozkoak zitezkeen Arauteri Zibil bat bedera idatzi behar zela eskatzen zutenak. 1889ko uztailaren 24ean idatzitako Arauteri Zibilaren azken testuan alde bateko nahiz beste joerak elkarganatu nahiez, 12. artikuluan honako hau erabaki zen:

<sup>1</sup> Gipuzkoa-ko milizi erakunde foraleko gizon taldea genituen mikelleteak.

<sup>2</sup> Beuren tokian aitatuak dira gudu karlistak.

<sup>3</sup> *El Derecho Foral de Vizcaya en la actualidad*.

Idazpuru hontako arauak, lege eta arau ondorioen eta hauek erabiltzeko erregela nagusien mugatzaile direnez, erreinu osoko probintzi guztiak behartzen dituzte, orobat izango dira ere Igo liburuko IV. idazpuruko erabakiak ere. Gainerakoan, Lege Zaharra duten probintzi eta eskualdeei osorik uzten zaie Lege Zaharra, Lege berri hau gorabehera, lehendiko beuren foruzgoa, nahiz idatzitakoa nahiz ohitutazkoa ezertxotan aldatzeke, Lege Berri hau beuren Lege Zaharrak ditzakeen utsunetarako "ordezko Eskubide" zaiela. Agindu honen arauz, "lehengo berean uzten zaie beren juzgabide ("régimen jurídico") idatzia edo ohiturazkoa, bi puntu hauek ezik: 1- Herri-lega-ren sarrera-tituluko aginduak, eta 2- I-go liburuko IV idazpuruko aginduak".

Artikulu honen arauz, Espainiako Herri-Lege berriak forudun eskualdeetan sartukizunik ez du, berezitako bi puntu horietan ezik.

Gogoeta honekin bukaera ematen dio funtsezko bere liburuari Celaya maisuak: "Hona eskolatuek eta eskola-gabeek beren buruei egin beharreko galdera; ea zerbait bai al den gaurregun Bizkaiko Legea agintzen egotea, duen giro gogorrean eta guk ez bezalako burubideko gizonen eskutik Herri-Lege berria bere bizi indarrez toki ofizial guztietan nagusitzen ari zaiolarik" ... "Batarrak bere autonomia galdu izanak kolpe gogorra erantsi zion gure Legeari, oso zail bait da legeak lege iraute eman zuenaren eskutik ez doala edo letratxo bat bakarra on aldatzeko modurik ez dagoela" ... "Berari entzuteke ez dagoela inor kondenatzerik esan eta ari direnek hor non epaitzen duten Bizkaiko forua nolakoa den konprenditzeko neke izpirik ere hartu gabe eta haren alde inori ere izpiderik uzten ez diotelarik. Lege konparaketarik ez bait da Espainian oraino eginik, Espainia-ko Lege Berria erakuts ohi da baliozko eta jakituriatzko lege bakartzat; eta, horrela, uste gabe daramakitenei beren begi estalkia kentzea".

Eta Celayak honela amaitzen du: "Ez dezagun ametsik egin: ibil gaitezen hanka lur; erre kara doa Bizkai-ko Lege Zaharra, inoren ez axola; gure tradizioaren eta kulturaren alde hor zehar barra entzun ohi diren aipu eta handi mandikeriak esan hutsetan gelditzen bait dira, gure instituzgoak ikasi, aztertu eta, behar aldian, haren alde gogor egiteko gehiagoko berotasunik gabe, Joan deneko gizaldietan eman izan diren legeek, geroengo beste berriturik gabe, ez dezaketela gaurregun lege iraun aitortu beharra dago. Beraz, lege bakar baten mende goaz erortzera, eta ba dator, gero eta laisterrago etorri ere, halako egun hura. Gure Bizkai-ko Historiaren garaiuneko aldietan bezala, ez da besterik izango aintzinatik datorkigun zuzentasun eta askatasun eta neurrizko zentzuaren izpiritua idarokitzea baino. Betekizun hortan hutsegingo bagenu, Espainiari zor diogun zerbitzurik bikainena ukatuko genioke eta geure buruari iruzur egingo".

Adrian Celaya-ren hitz hauekin amaituko dut bigarren zati hau, beharrik labur, noski, euskal foruei buruz.

## **Ekonomia**

Penintsulako Euskal Herriko *biztanletza* (Pirineoz ifarreko hiru eskualdeei buruzko informaziorik ez dut) honela banaturik dago: Araba-k, 93.398; Gipuzkoa-k, 156.494; Nafarroa-k, 297.422, eta Bizkaia-k, 160.570. 1930ean, epe horretako azken aldira,

honako kopurutza ematen digu: Araba-k, 104.176 bizilagun; Gipuzkoa-k, 302.329; Nafarroa-k, 345.883, eta Bizkaia-k, 485.205 bizilagun.

Agerian dago elkarrekin badutela zeikusirik industria iharduerak batetik eta demografia hazkuntzak, bestetik. Araba kilometro lauki batetako 31 bizilagun izatetik, 34ra igo ohi da bataz beste; Gipuzkoan berealdiko hazkuntza nabari da, 83tik 160ra; Nafarroa-n 28tik 33ra, eta Bizkaia, garai honetan industria aldetik hazkuntzarik handiena ezagutu izan duen probintziak, 73tik 221rako gorakada egin du. Hazkuntza arabera batetik besterako aldakuntza horretan nekazaritza oinarri duen ekonomia batetik industri ekonomiarara dagoen hedapen alde nabari da. *Bidegintzan*, 1839az gero aurrerakada aldi bat hasten du ararteraino nahiko hornitua egon bazen ere.

1858tik 1863ra bitarteko epean Gipuzkoan ibiltoki zabaleko burdinbide tarte gaitza eraiki zen -94 kilometroko luzeran, 14 kilometro tunel-. Bizkaia-k Tutera-tik Bilbo-ra doan burdinbidea ireki zuen, Miranda de Ebro orduantxe amaitua zen Ifarreko linearekin elkartuz aldi berean Triano-ko burdinbidea ireki zuen 1859 eta 1865 artean hango meategiei Bilbo-ko bokalera irtenbidea irekiz, jaunerriaren mende geratzen zelarik. Castro-tik Alen-era eta Castro-tik Traslavila-ra ere burdinbideak eraiki ziren, baina 1876ra baino lehen bigarren gudu zibila amaitu arte ezin bukatu izan ziren. Errepideetan kilometro asko eraiki ziren eginak zirenen gainean, bai Diputazioen inizatibaz, bai udalen eta partikular batzuz.

1850ean bazuen Bizkaia-k *posta administratza* bat Bilbo-n, bigarren mailako beste bi Valmaseda-n, Durango-n eta Orduña-n eta 23 postetxe beste hainbeste herritan. Ez zuen zeharkatzen euskal lurraldea inongo *telegrafia lineak*. *Posta arrunta Elkarte* edo Konpainia Bilbao eta Tolosa artean bazuen zerbitzurik, Tolosa-n Zaragoza-ra zihoan posta gurdiarekin elkartzen, eta Madrid eta Bayona-ko ibilia zuena. Bergara-ko Elkartearen posta gurdi batek, aurreragoarekin txandaturaz egin ohi zuen ere ibili hori bera; eta hartara, Tolosa eta Bilbao artean gurdi bat ibili ohi zen egunoro. Posta arrunten elkarteak Bilbao-Gasteiz-ko ibila bete ohi zuen egun biz behin, Durango-tik eta Urkiola gaitetik guruzatuz. Bazen Bergara-n Frantzes Elkarte batek eraturiko posta gurdi bat, eta azkenik, beste bat ere bai Valmaseda eta Burgos artean ibiltzeko. Bi gurdi mota erabiltzen zituzten: bidaztientzat sei eserleku zituen bat, eta nahastua edo bikoa bestea, tartana gurdiak, bidazti eta zama garraiatzen zituen. 1847az geroz egunoro atera ohi zen posta gurdi bat Madrid-etik Frantzia-ra, eta alderantzira; asteen hiru aldiz Katalunia Aragoi eta Nafarroa-ko errepidetik ibili ohi zena bestea.

Euskal Herri-ko ekonomian *Bizkai-ko meategiak* izan ditu ardatz eta zimentarri. Somorrostro-ko burdin meategi handiez gainera bada metalkirik ere Miravilla-n, Morro-n, Ollarga-n, Iturrigorri-n, Urragi-n, Axpe Arrazola-n, Orduña-n eta Rigoitia-n. Honela, dio Madoz-ek, "Bilbao-ko lehen hiru meategiak hiru muinotan aurkitzen dira, Somorrostrokoei segidan jarraitzen zaizkienak, baina (1850) ez da inor ere haietaz oroitzen zeren haietarik erauzten den metalkia ez bait da Somorrostrotik atera ohi dena bezain garbia". Axpe-Arrazola-ko meategiak Amboto-ko harkaitzetatik hurbil aurkitzen dira eta Orduña-n ere iker lanetan dihardute Saturnina izeneko zulo eta hobietan; lan hauek argitan jarri ziguten burdin pirita hobi aski aberatsa bazegoela, eta tarteka ere galena (azufre eta berunaz osaturiko meakia arre koloreko eta biziki dizdiratsua, berun



gairik onena, beraz) eta blenda (zinkezko sulfuroa) baduena: baina meaki hauk eranski batzu besterik ez zirenez, ez zuten aurrera jarraitu".

Madoz-ek Anboto, Mañaria, Galdakao, Villano lurmutur eta Agirre-ko galena mea hobiak ere aitatzen ditu bere liburuan, hala nola ere burdingorri edo urraideari buruz Sopuerta eta Labarierra-koak, eta Bilbao-tik Hegoekialdera aurkitzen diren beste biren izenak ere ematen. Zink meategietaz Mañaria-tik ifarmendebalderuntz dagoenaz eta Videmaculatakoaz mintzo zaigu ere.

Garai hartan mea gaiak lortzeko ikaragarrizko irrika omen zegoen. Jata mendiaren maldatan egindako araketa lanek zer ondoren ekarriko zai egon omen zeuden batez ere, baina, horra, urte haietan XIX. mendearen erdialdera ez zuen resultadorik eman. Alfonso Churruca-k Adan Yarza aitatzen du eta hona zer dion: XVI. mendetik XIX. mendearen erdira arte ematites gorri eta arre emakietarik (burdin erdoitua, gotortasunagatik metalkiak labaintzeko erabilia) eta karbonatetik 40.000 tonelada erauzi omen ohi zen urteko, batzaz beste; produzio hori, mendearen erdi aldera 50.000 toneladataraz iritxi omen zen.

Ekonomi sailean garai hartan eman zen gora behera handieneko gertakizuna *Bizkaitar meagaien esportaketa* izan zen. 1877tik 1900ra doan epean miloi toneladatik sei miloi terditarako gorakada egin zuen eta Bizkaitar industriak behar zuen diru joerari ateak ireki zizkion. Gipuzkoa-ko industria, aldiz, horren baliabide handirik ez izanik ere aurrerakada bizkor bat egiteko gauza izan zen; ez, noski, bizkaitarrarekin alderatzeko moduan, enpresa erraldoietan, baizik bertako bi industri nagusien bitartez irixten zitzaizkion aberasbideak: arrantzoa eta burdin lanketa edo metalurgia zuhurki erabiliz. Bizkaitar mea produzioak, mende hontan, beherakada egin zuen, eta 1896 eta 1908an, batzaz beste, bost miloiko arabera bazen hiru miloitara jaitxi zen 1920ean, eta are miloi terdira 1935ean. Araba eta Nafarroa ez ziren horren azkar ibili, nekazalgoaren pauso motelagoan, baizik; baina, kimia lur-ongarriak agertu zirenez geroztik erruz ugaldtu zen produzioa. Horrela, eta nekazaritzarako behar zen tresnagintza etorri zen (Araba-n batez ere). Iringarri zerealeetan, 1931tik aurrerantz 120.000 hektarea gari ta ziriko erein zen Nafarroa-n eta 48.000 hektarea (garagar-olo eta arto) bigarren mailako iringarri horietatik.

Itsasuntzi mugimendu handia eskatzen, noski, horrenbesteko mea garraiorako, Euskal Herrian. Ez ziren denak kanpotik etorri itsasontziok. Ikurriñari datxekon eskubide berezgarria zaitzea euskal untzitegiek bazutela, dio Churruca-k, eta 1850tik 1864ra arte, 440 untzi tira (botadura) egin zirela Bizkai-ko untzitegietan eta 330 gipuzkoarretan.

Euskal merkatalgoan eragin zehatza izan zuen arazo bat *Aduana* Ebro-tik *Bidasoara aldatzea* izan zen. Burua bere liberal lepotik duela, aipaturiko aldaketa honetatik hiru urtetara honela dio Madoz-ek: "Gasteiz bildegi zuela, ordurarte irabazi handian ari zen merkatalgoak igerra zien igerra 1842 –urteberriko errederi– aldakuntzak ekarri zituen nahi –ta ezko– ondorioei. Estranjeritiek jeneroa sartu eta penintsulan barrena saltzeko trabak zituela ziharduten merkatariek joera aldatu ta, joku berri bat eman beharko diete, harrez gero, beren kapitalei inoiz ere; beren poltsarako izango dute, ordea, beren Euskalerrri saiaturko salmentak Gaztela-ko probintzietan eginaren mauka, Araba-ko

frutuak eta industria lanak libre erabiliaz; estranjeritik bai letozkeen, ordurarte zituzten petxa eta muga-zergak ordaindu beharrik gabe".

Eta Gipuzkoa-ri buruz honela dio 1847an: "Traulketa onuratsua muga-aldatu honek eragin zuena, diru-irabaziei ez ezen, jendearen gura eta pentsaerei ere bizi erasan dieta: industria salbentak pake eta egonaren iturri dira gaur gaurkoz eskualde hontan; gero hobe baten argiak darizkio lantegi bakoitzari; eta egunean baino egunean ugariago dira aduanak berriro Ebro-ra itzultzea kalte latz, atsekabe min, eta agian, jende-irabiagarri izango litzatekeela uste dutenak".

Izan ere, gudu zibila ondoko urteetan industria asko jaio zen, egia esan. Avellano, Mazas, Olabarra eta Espaltza jaunek lehen siderurgi burdinola berria eraiki zuten, 1814ean, Bolueta-ko Santa Ana. Hurrengo urtean, 1842an, lehen paper fabrika estreinatu zen Tolosan; liñu (algodoi) fabrika Bergaran eta txapel fabrika Azkoiti-n 1847an; Andoain-goia 1847-1858an. Eta 1847an eraiki zuten Mesedeetako Andra Mariren burdinola Ibarra eta Lagunek (Compañía) Harri-ikatz erretzen zuen burdinola horrek, eta haize hotza eta laminazio trena (trenes de laminación) Bolueta-ko Santa Ana fabrikan piztu zen 1848an lehenengo labe garaia, eta beste bi, gehiago hurrengo 1849an. Churruca-k dionez, Ibarra familiak 1845ean zortzi Chenot labeko lantegia sortu zuen Barakaldo-n, metal-esponjagintzarako. Hareago: beste bi labegarai cock erretzaile, Ingalaterra-tik ekarriak, jartzera behartu ziren beste enpresei buruz buru egin beharraz, eta jadanik Euskal Herriko (industri lantegi handietan lehenengo bihurtu zen. Haren itzalean sortu zen Bilbo-ko *Banku Etxea* 1857an, "Instituto emisor" bezala, eta hortan iraun zuen Espainia-ko Banku Etxea 1874ean eraiki zen arte. Muga-etxe aldatuak ekarri zuen onura honela goratzen du Madoz-ek: "Babes eta begira beza probintziak honek bere izaera baketsu eta saiatuaren aldera; haintzat har bezazkio bere Foruak, beraientzat onezko bait dira, eta esanak esan, Estaduarentzat kostituzio-batasunaren kontrako ez direnez gero". Asmo ona, egia esan behar bada, Madoz honek erakutsitakoa.

*Trenbide Elkarteak* hasi ziren ondotik: Galdames-koa (22 kilometro) eta Luchana Mining (17 kilometro errail bide estukoa), *kanpoko diruarekin* eginak biak. 1871ean, Ibarra Etxea-k bi enpresa handi jaso zituen ondoren: Orconera Iron Ore eta Societe Franco-Belge de Mines de Somorrostro deituak. Hauen ondoren beste asko etorri ziren, bai Bizkaian bai Gipuzkoan 1850 urtearako zerrenda luze bat ematen digu Madoz-ek: "okindegia eta larru lantegiak; txokolate, sonbrailu, xaboi eta kandela fabrikak; etxe partikularretako ezin konta-ahala ehundegi, Bizkaiak bakarrik zituen 621 bolu, eta esku lanetako hainbat tresna-lantegi, burutsu eratuak, noski. Hareago: itsute ("jarcia"), paper, eltze, eta itsasontzitako kapar (lona)-olak, Ibaizabaleko Andre Mari Arrieta-ko kristal fabrika, burdin ari, katxeta (tachelas) eta puntapax olak; azukre iraztegiak (refinerias); Bilbo-ko Erruki Etxeko troska fin fabrika, lehenagoko arruntaren ordezkia; zare, esku-zare, orratz-gintzak, kaoba-txapa zerra eta gainerako".

Eta zintzo ari zaigu dionean: "Hamaika zoritxar lotu zaio Bizkai-ko merkatalgoari gure egunotan (1850). Bilbo-ko portutik egin-ohiko meriña-ardien esportazioak gure administrazioaren erruz galdu izana aski ez bait litzan, anaia arteko gudua piztu zaio gainera bere lurretan, diru jende horri pot eragin eta esportatzaileak aienaturik, Bizkai-ko merkatalgoak sekula guzitik zuen muga-askatasuna (zergarik ordaindu behar eza) galdua, horko irabazien gutizia ere galdu egin zuten inportatzaile-esportatzaileek. Egia

da, ostera, koloniekiko eta Ameriketako gure koloni izanekiko merkataritza zeozer piztu zutela errenderi edo muga etxeek; diru handiko merkatal-etxeen onerako piztu, baina, zentralismoaren bereizpen eta salbuesenez horien unteiek bestek ez bai zezaketen Ameriketako joan-etorririk egin" ... "Aduanak, gainera, ezin konta-ahala denda ondatu zuen Bilbo-n" ... "eta denak ondatu izango zituen, irabazi guztiak jasotzen dituen Gobernuak Bilbo-ko bokale eta portua eraberritu izan ez balitu".

Mendearen azken aldera arte ez ziren *Bilbao-ko portu* lanak Ebaristo Churruca, hainbeste bider aipatzen ari garen historialariaren aita, izan zen lan hauen zuzendari. 1887an amaitua zegoen Portugalete-ko kaia, eta 1902an itsasportua, kanpoko portua.

*Gipuzkoan*, lehen aipatu industrietan gainera, burdin lana Eibar-en, Elgoibar-en, Arrasate-n, Oinati-n, harma, zerrailgintza eta nekazalgo tresnegintzarekin. Ehun olak Villabonan instalatu ziren (1858-1860), eta paper olak ugaldu Tolosan; Moduberriko galtzairuak eraldatzeari heldu zioten Beasain, Zumarraga eta Legazpi-n, eta industria hazkuntzarik ere eman zen Pasaian, Errenderin, Irun-en eta Hernani-n, batez ere.

*Arabak* Araian zeukan bere fabrika, 1772an jasoan, eta Churruca-k esaten digu "lingotegintzan, burdin-eztitzen eta ijestan (laminazioan) lan egiten zela".<sup>4</sup> Gasteiz-en eta bere inguruetan badira aroztegi eta metal-eskulanak. Lurgintzarako industria, euskal industriari harako izen ona eman diona, hasia zen.

*Nafarroa*, bere ohizko nekazalgoari loturik darrai oraindik.

Europa nola industriratu zen ikusteko mapa bat badugu. Hartan Penintsula-ko Kantauri itsasbazterrari 1.300.000 barku tonelada egozten dizkie 1859erako, eta 41.403.000 tonelada 1910rako. Goraldi ikusgarria, benetan.<sup>5</sup>

Churruca-k mea eta totxogintzari (lingoteari) buruz, tonelada neurriok ematen dizkigu:

| <i>Urtea</i> | <i>BIZKAIK</i> |               | <i>GIPUZKOAK</i> |               | <i>ARABAK</i> |
|--------------|----------------|---------------|------------------|---------------|---------------|
|              | <i>Mea</i>     | <i>Totxoa</i> | <i>Mea</i>       | <i>Totxoa</i> | <i>Totxoa</i> |
| 1870         | 250.357        | 12.322        | 15.900           | 3.712         | 2.250         |
| 1900         | 4.969.451      | 237.128       | 19.902           | 4.000         | 4.544         |
| 1918         | 2.285.793      | 249.225       | 38.454           | 3.664         | 4.202         |
| 1921         | 1.211.450      |               | 25.753           |               |               |
| 1924         | 2.383.097      |               | 35.388           |               |               |
| 1926         | 1.450.740      |               | 12.410           |               |               |
| 1929         | 2.603.292      |               | 34.776           |               |               |

*Industri elektrikorik* ez zen ezagutu XIX. mendearen azkenerarte, eta Churruca-k dakarkigun elektrika industriaren lehen estadistikak milla bizi laguneko 27.61 kw. damazkio Gipuzkoari; Bizkaiari 18.79 eta Nafarroari 9.73.

<sup>4</sup> Gaztelarazko "pudelar" da burdin eztitze hau. Karbono zati Bat kixkalbero labetan errez lortu ohi zen.

<sup>5</sup> *Historial Atlas of the World*, Rand Mc Nally-k, 1961ean argitaratua.

## Heziketa

Euskal Herriko hezketa publikoa XIX.mendearen erdi inguruan bere esku zeukan eta goraka zihoan.

Bizkaia-ri buruz mintzo delarik hau dio Madoz-ek: "Ez dago herri edo elizataririk, ttikirik ere, eskola bat bederen ez duenik. Hauzo eta etxadi askok ere, urruti egon, jende gutxi eduki edo baserritan sakabanatuak aurkitu arren, badute beren eskola".

Eta *Gipuzkoa-ri* buruz: "Herri baten zibilizazio graduak jakiteko eskolei begiratzeak balio badu, Gipuzkoa Espainiako probintzietan gorenetakoa dela dudarik ez dago".

*Arabari* buruz, XIX. mendeko liberal batenak esanak izateko, ehun ta hogeitaz urte geroago asko esan nahi duten hitzok esan zituen: "Eskoletan nexka mutikoak batera edukitzeko ohitura dago oraindik, zoritxarrez". Eta erasten du, Gasteiz-ek, bere Bigarren Mailako Istitutoan<sup>6</sup> "Gizabidea irakasteko katedrak, bakoitzak bere matematika, filosofia, hizkuntza bizi eta musika eskolekin dituela eta 150 ikasle zebiltzan 1845ean".

Goi mailako ikasketei gagozkielarik, bere Unibertsitatea izateko borrokari eutsi zion. Jose Estornes Lasa-ren<sup>7</sup> ariari lotuko gatzazkio gu hontan.

*Euskal Nafartar Unibertsitate baten Asmoak.*– "Gauza buruz pentsatua, Euskal-nafartar unibertsitatea egin asmoa hartu zen lau probintzietako ikasleentzat, 1866an, Lege, Medikuntza, Sendagintza, Zientziak eta Filosofia eta Literatura fakultadeetan banatua, bostehun bat ikasleentzat izango zuen tokia. Proiektu honarako Iruñak eskaintza hau egin zuen; hiru miloi erreal, dirutan, eta Portal Berri ondoko La Taconera eta San Lorenzo (urrak eta San Frantzisko komentua, 1867ko maiatzean Medikuntza, Farmazia eta Nekazalgo-ta-Mendi fakultateen eskaera egin zitzaion erreginari. Hau izan zen, aldiz, eskabidearen oinarri-baldintza: "Euskal Nafartar Unibertsitatea, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa probintzietako Diputazioei derizkien tokian finkatua eta lau Probintzia berauen Unibertsitate-barrutia izango da, eta lau Probintzietako Gobernuak eratsi lezazkiekeen beste probintziena, gainera". Geroago 1868ko Bizkai-ko Batzar Nagusiak "garrantzizko egitasmo edo proiektu hau ongi pentsatzeko, beste hiru Diputazioekin ados jarri dadila gomendio egiten dio". Baina, iraileko jazarraldi politiko artean irentsirik geratzen da proiektu hau dio Estornes Lasa-k".

*Gasteiz-ko Bere Eskuko Unibertsitatea.*– Orduko irakaskuntza legeen zabaltasun abaroan, Gasteiz-ko Udalak bere gisa ekiten dio Unibertsitatea eraikitzeari. Lortu ere "1869ko abustuan Unibertsitate hori irekitzeko baimena Gobernuagandik lortu zuen", eta urriaren lehenengotik hasi zen lehen Kurtsoa. Hilabete bereko 28ko Dekretoz "graduak emateko eskubidea kendu egin zien Unibertsitate Libre guztiei. Ikaskizunetan aurrera egiteko behar beharrezko bait ziren graduok, Aiuntamentuak protesta egin zuen, eta 1870ko apirilaren 26an dimisioa eman zuen; 1872ra arte, ez ziren kargu erazte hori haintzat hartu Gobernuak. Horrelako burubidea zeramaten arazoek duela ehun urte.

*Bizkaiko Unibertsitate Katolikoaren asmoa (1870).*– Bizkaiko Batzar Nagusiak, Batzorde edo Komisio bat eratzen du 1870-1871rako ikastaroan Unibertsitatea

<sup>6</sup> 1842ko irailaren 13an dekretu batez Oinati-ko Unibertsitateari tokia hartu ziona; Bergara-n 1839an amaituriko gudualdian irakaskuntza ematen jarraitu zuten bertan.

<sup>7</sup> *Los vascos y la Universidad.*

antolatzeko Zientzia, Letrak eta Deretxo Fakultateetan doktor gradua emateko eskudun zirelarik. "Baina aldiko politika gertakizunek, karlista aldetikoak hain zuzen, Diputazioa banarazi eta Unibertsitate asmoak suntsitu zituzten".

*Deustu Lege-Ikaskuntzak* (1886).– Bilbo aukeratu zuten jesuitek 1881ean Unibertsitate lekutzat. Penintsula guztiko Unibertsitate etxerik handiena eraikitzen da, eta hiru urte geroago Bizkai-ko Diputazioak "Deustu-ko Unibertsitate" deitzeko erabakia hartzen du, eta 1886ko urriaren 25ean hasi zen lehen ikastaroa, Legeak, Filosofia, Literatura, eta Zientzia sailean Matematikak irakasten zirelarik. *Valladolid-eko Unibertsitateari atxikia* geratu zen 1937ra arte eta benetako unibertsitatearen jabe 1963ra arte ez da egin.

*Bilbo-ko Industri Injiniere Unibertsitatea* (1897.– "Eskola hasi eta bertatik Bizkai-ko Foru Diputazioak eusten zien haren ehuneko berrogei ta hamabosteko (%55) gastuei eta Bilbo-ko Aiuntamentu-ak gainerako ehuneko berrogei ta bostekoei (%45). Diputazioko Lehendakaria buru zuen Batzorde batek agintzen zuen Eskolan, eta horrela iraun zuen 1937ra arte. Ekonomi Ituna edo Konzertu Ekonomikoa galdurik, Estadia egin zen Eskolaren jabe.

*Donostia-ko Udaleko kontzejalen proposamendua* (1914).– Udaletxeko kontzejal talde honek Unibertsitate ofizial bat kreatea eskatu zuen, Medikuntza, Deretxo eta Filosofia eta Letrak irakatsiko zituena. "Izan ere, Penintsula-ko eskualde guztiek bakoitzak bere Unibertsitate Ofiziala dutelarik, Euskal Herria bakarra aurkitzen da gabe" zioten; "beraz, gurasoen dirutik dirutza bat gastatuz, etxe eta etxeokak utzita, urrutiko ikastegietara joan beharrean aurkitzen dira gure gazteak" ... "Penintsulako beste Unibertsitate horiek hemendik urrun bait dagoz, erdi mailako ta familia behartsuetako gure gazteriak harrera egiterik ez dauka, hainbestek berenonerako egin behar luketena" ... "Azkenik, Euskal Herriaren guztizko premientzat, Gipuzkoa-renentzat batipat, are eta Donostiarenentzat (hots, Aiuntamentuak egina zen eskaera zen eskaera hau), behar beharrezko ikusten dugu Unibertsitatea, eta, beraz, lehen bait-lehen antolatua dadin nahi dugu. Herri kultura den dohai preziatuak eta euskal pentsalariei (berez hain argi, saiatu, ekitetsu eta iraunkor diren pentsalariei) zor zaien aurrerapideak dugun buru-morrontza hau salatzen dagoz, eta jakintza bide nagusiok herriari bere esku ipin dakizkiola giza jokabide guztietan egundaino hain dizdikor eta gogaitua azaldu izan duen bere nortasuna gerozkoan ere osa eta biribil dezan" Idazki edo agiri hau Donostian, 1914ko otsailaren 18an, Camilo Zabalegi Ochoa, Avelino Barriola eta Migel Urreta-k izanpetua atera zen. Alferrrikako ekintza berriz ere.

*Deustu-ko Merkatal Unibertsitatea* (1921).– Pedro Agirre Basagoiti-k 1907ko urriaren 18an testamentuz edo hilburukoz utzitako ondasunekin, jesuitek gogarazita, "Fundación Vizcaina Aguirre" eta "Universidad Comercial de Deusto" antolatuak izan ziren. Ikastetxe hontako ikasketak New York-eko Columbia University-k ontzat eman zituen. Merkatal Unibertsitate etxearen lehenengo harria 1916ko uztailaren 31an ezarri zen, eta 1921ean amaitu etxegintza.

*Iruña-ko Abogaduen Gobernu-Batzordeak, 1917an Filosofia eta Literatura, Deretxo eta Medikuntza fakultateak lituzkeen Unibertsitatea* eraikia izan zedila Bilbao-n eskatu zuen. Asmo hori ere ustetan bakarrik geratu zen.

*Donostia-ko Aiuntamentuaren Proposamendua* (1922).– 1922ko apirilaren 12an, Olasagasti jaunak "Euskal Herriarendako Unibertsitatea eskatuz, duela bederatziz urtez Otxoa, Barriola eta Urreta gutiengo abertzaleak ondorengo bilera batean berritzeko asmoa duela, adierazi zuen. Egitasmo hau (moción) alde aurretik iragartzen duela, dio, gutiengo abertzaleok gerekoikeriatzat inork salatu ez gaitzan eta, bidenabar, beste alderdiarik inor balego izenpetu nahi lukeanik, ahal egin dezan. Izena emango duenik, gustora izango dela bera aurrena, erantzun zuen alkateak bertatik. Beste 30 ziñegozlek izenpetu zuten, alkateaz gainera. *Eibar-ko Aiuntamentu txit noble eta txit leialak Donostiakoa hartzen du bere ordezkoko, egitasmo bikain hau mamitzeko eman beharko diren ibil-pausotan*". Ez zuten ezer egiterik izan, halaz guztiz.

*Bilbo-ko Mitiña*.– 1923an, alkatea tartean zela, mitin bat ospatu zen Bizkaiko hiriburuan Bilbo-k zeukan Unibertsitate premia eta irrika azalduz. Gehiagok ere parte hartu zuten: José Hermosa, Medikuen ordezkoko; Ricardo Bastida, Arkitektoen ordezkoko, eta Ramon de Basterra idazlea, hala hola Ramiro de Maeztu, don Juan Tomás Gandarias, don Ramón Bergé, don Gregorio Balparda eta don Miguel de Unamuno, besteren artean. "Berriz ere –dio Estornes Lasa-k–alferrik".

*Eusko Ikaskuntzaren Egintzak eta Baldintzak* (1923).– Urte horretako abenduaren 19an Eusko Ikaskuntzak Agiri bat (Medicina-Exposición) argitaratzen erabaki zuen Euskal Herri-ko Unibertsitatea zela eta; Unibertsitate bat eraikitzea lortu behar zela. Helburu hori gogoan, zenbait ekintza hasi ziren. Hauetariko bat 1920ko uztailaren 18tik 25era II Batzar edo Kongreso bat ospatu zen Iruñan, erabaki hau hartzen zirelarik: 1) "Agintariengandik eskubidea lortu" Unibertsitatea antolatzeko, gure kultura eta jakintzari eragiteko tresna izan dakigun, Euskal Herriaren jakin-lehia eta saioak gizaki osoarekin eskuz esku jarriaz". 2) "Goi mailako jakintza bilaketa, lanbide-ikasketak, etab., osatuko ditu Unibertsitate horrek". 3) "Eginkizun hori burutzeko dirurik badela Euskal Herriaren Batzar honek badaki; hareago, bere Unibertsitatea jaso eta zer-behar ondasunez sostengatzeko eginbehar sakratuak lotuta dagoela gure Herria". Kontuan du Batzar honek Gernika-n 1922ko irailaren 17an ospatu zen Eusko Ikaskuntzen II Batzarra. Hartan "Euskal Unibertsitatea nola sortu eta eratu, izan zen haien burubidea. Araudi komisioko bat osatu zen hartan, "Unibertsitate Ofiziala lortzeko egoera politiko araberako Araudia idatz zezan". Bertanberatik, "Euskal Herriak behar zuen Unibertsitatea istituzgo edo korporazio librea zela" garbi utzi zuen 1923an Eusko Ikaskuntzak, eta hartako "Oinarriak finkatu". Hori lortu nahian ibili da Elkarte hau, baina" mugitu oro oztopo gogor batean jo izan baidu, ezertara baino lehen oztopo hori desegitea derizkio beharrenik. Delako Enseñanza y Administración de la Instrucción Pública-ri egungo egunean bideak finkatu eta jokaerak mugatzen dizkioten legeak dira guretzat oztopo". "1918tik honara bi bider azaldu da lege horiek eraberritu", dio Agiri honek, "eta bietan Euskal Herriaren kultura alde jokatu du Eusko Ikaskuntzak". "1919an, maiatzaren 21eko errege-dekretuak Estaduaren Unibertsitateei autonomia zerbait uzten ziela ta, Euskal Herria antolatzeko komenentzia, behin behar eta, orduantxe zela uste izan zen. Bainan, autonomia-dekretu hori azaroaren 14ean lege gai (proyecto de ley) bilakatu izanik; eta Madrid eta Zaragoza-ko unibertsitate-maisuei Gobernuak hontan amor emanik– Unibertsitate autonomo berri bat sortzeko bakoitzean hartarako lege bereziz sortua beharko zela izan, alegia eta, berehartan, *Valladolid-ko Unibertsitateak*

*unibertsitate berririk bere barrutan ez uzteko araua onarturik: Euskal Unibertsitateak ez zuela jaio-biderik, garbi ikusi zen. Zetorren legea lege-gai zegoen bitartean ito nahirik, bi Agiri atera zituen Eusko Ikaskuntzak: Euskal Herri-ko Diputazio-buruei zuzendua, bata, eta Diputazio hauek Gorteetako ordezkariari ematekoa, bestea". Egitekoari gogotik helduta, Adierazi bat utzi zioten euskal Diputazioek lege-gaia maneatzeko Senaduak ipinita zeukan komisioari. Adierazia Jose María Unda diputazio buruak izenpetu zuen Araba-tik, Julian Elorza diputazio buruak Gipuzkoa-tik eta, diputazio-buruaren kanpo-aldiz, haren ordezko P. Aransolo Luis-jaunak Bizkaia-tik. Nafarroak, kanpo-aldi zuen diputazio-buruaren bulkoz, beste hiru probintzien jokabideari atxikitzen zitzaiola bera ere, Senadu-ko komisioari aditzera eman zion, eta eskaera horri bultz egiteko agindu Gorteetako bere ordezkoei". "Euskal estudianteez, beren aldetik, idazki bat bidali zioten, 1922ko apirilez, Eusko Ikaskuntzari, firma-biltze bat egin zezala eskatuz, arazo horrekiko euskal gazteriaren gogo beroa garbi gera zedin". Azkenik, ibili hauen eta etorri handiko beste askoren ondotik, *Errege Agindu bat zabaldu zen 1924eko urtarrilaren 19an Euskal Unibertsitateari uko emanaz.**

*Bilbao-ko Batzarra.*– 1932ko otsailaren 7an batzar bat egin zen bizkaitar hiriburuan; hartara "Bilbao-ko eta Bizkaia herrietako jende eskolatu eta gogotsu guztiak bildu ziren". Prieto ministroa ere han zen eta "bitariko dilema aurrean ipini zituen euskaldunak, jesuitei bildutako ondasunen bidez eraiki, edo, mila bider eskaturiko Unibertsitateari uko egitea". Batzarrak erabakia atzeratu egin zuen.

Ikusten denez, euskal alorrean aurrera egin zuen arazo bakarrak erlijiozkoak izan ziren, eta laikoengandik etorri zen eskaintza bakarra politika pozoiaz kutsatua zetorren, zeren nahaspilak ekarriko bait zituen erlijio baitan.

*Bilbo-ko Euskal Unibertsitatea* (1936).– Gudu zibilean *Euskal Herri-ko Egunkari Ofiziala-k* honela zion: "Autonomi-Araudian Espainia-ko Gorteek emandako aginduaren arabera, Aldirako Gobernuak (Gobierno Provisional– 1936.go azaroaren 18ko *Egunkari ofizialaren* 41. alean Dekreto bat eman zuen, Euskal Unibertsitate Medikuntzako fakultateduna sortuz. "Euskal Gobernuaren Erabakia Jose Antonio Agirre Lehendakariak eta Jesus Mari Leizaola, Zuzentasun eta Irakaskintza Ministroak firmatu zuten.

## **Politika eta administrazgo arazoa**

Eta gure sintesi hau bukatuz, Euskal Herriaren azken urteetako politikari begiratu bat emango diogu.

Administrazgo aldetik autonomia handia utzi bazion ere eta beronekiko begirunea erakutsi bazuen ere hauzitako eta lege agintea ukatu egin zion 1839.go azaroaren 16ko Dekretoak. Geroan urriaren 25eko Legea atera zuten; arrazoi askorengatik; garrantzi handikoa hartan aldarrikatzen bait da lenengo aldiz bere historia guztian 1200.etik gerokoan euskal Herriaren batasuna. *Penintsulako lau eskualdeentzat bat bedera izanik*, Euskal Herria bat zeneko garaietara atzera garamatza honek; hau da, Madrid-ek *euskal batasun juridikoa* (instituzgo batasuna) aldarrikatzen du hura onartuz.

Tamalez, lau euskal senideak aldebanatu egin ziren garaiko politika une honi buruz eritzia ematerakoan. Arabatarrek, gipuzkotarrek eta bizkaitarrek foruen aurkako ekaitzaldi hura, beste alditan bezala, igaroko zela uste izan zuten, eta jadanik bere foruekin jarraituko zutela. Nafartarrek, aldiz, eraso benetan hartu zuten eta egoera hartatik ahalik eta ongien ateratzea itxaronez Madrid-ekin ituna egin zuten. Beraz, bada, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia administratzgo espainiarrarekin eztabaida luze batean nahastu ziren.

Ondo nabarmen da hemen nolako jokaera geldia, nahasia, banatzaile eta etengabea erabilia izan den Euskal Herria-ri bere eskubideak kentzerakoan. Segidan etorri ziren erasoak; hain izan zen horrela, non ondorengo belaunaldiak ozta konturatu bait ziren politika erakundearen eta aberritasunaren giharrak kentzen zizkietenik ere.

Nafarroak, esandako bere zentzu onari esker, Ley Paccionada delakoa, Foru-Diputazioa eta Madrid-eko Gobernua itun santuaz elkarrekin egindako legea, iritxi zuten 1841eko abustuan. Beste hiru probintziek, Araba-k Gipuzkoa-k eta Bizkaia-k harremanak hasi zituzten Madrid-ekin ordezkariak bidaliz 1841 urteaz geroztik, baina, ez zen inolako erabakirik hartzera iritxi. Bienbitartean, *1841eko urriaren 29an Esparteroren Dekretoa atera zen, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa-ko Batzar Nagusiak deseginaz, diputazio foralen orde probintzialak ezarri zituen, gainerako espainiar probintzien pareko bilakatzen zelarik, eta gainera, muga etxeak Ebro-tik eta gainerako beste mugetatik aldatuz*. Harrez gero, bi foru eskubiderik bi besterik ez zitzaizkien gelditu hiru probintziei: beren mutilak soldadu ez joatekoa eta zerga sistema berezia.

Beren historiako kinka honetan euskaldunek ez zuten batera ihardun, bakoitza bere aldetik baizik, historian zehar hainbestetan bezala, tamalez.

*1843an Espartero-ren Gobernua erori zen, eta berriak (liberal joera biguna edo moderatuak) euskaldunek galdu zituzten foru batzu gordetzea erabaki zuen 1844eko uztailaren 4ean*. Halaz guztiz, Aduanak Irun-dik ez dira mugituko; eta laister beste eraso bat etorriko zen. *Izan ere 1848an udal guztietako alkateak izendatzea Gobernu Zentralaren eskuetan zegoela erabaki zen dekretoz*. Arabatarrek, Gipuzkoarrek eta Bizkaitarrek protesta egin zuten; baina dena alferrik.

Gudu arteko Espainiaren politikak gora behera handiak izan zituen. Karlistek jazarraldi batzu sortu zituzten (1848an eta 1849an Carlos VI.aren jazarraldia eta 1860an San Carlos de la Rapita-ko ailtxa nahia), Katalunian batez ere. Alzas gudalburuaren jazarkuntza izan zen karlisten ekinaldiko gertakizunik nabarmenena, esaten digu Gurruchaga-k 1848an afusilatu zuten Oinatiko seme genuen gudalburu hura.

Karlistada aldi liberalen aldetik jarri zen goi mailako handiki jendeak garaile izatearen ospea berekin zuen; eta gobernu forala liberal bigunen esku geratu zen, lehen mailako fuerozale bezala agertzen zirelarik. Hona izen batzu: Olano, Sagaseta Ilurdoz, Novia de Salcedo, Egaña, Moraza, Barrueta, Aldamar, Lersundi eta Zarate.

Iparragirre ere garai hontakoa dugu. Karlisten alde lerrokatu zuten gure kantaria, eta lehen karlistada aldi osoan haren alde borrokatu ere. eta porrokatuak izan zirenean, Europa-ko erresumetan zehar ibili zitzaigun bere gitarra lagun kantatzen. Bere txokora itzuli zelarik fuerozale liberalen artean sartu zen –garbi nabari da Europako aireen eragina– eta Euskal Herriko bazter guztietan ibili zitzaigun bost urtez bere herriaren deskontentua kantuz aldarrikatzen. Madrid-en abestu zuen lehenengo aldiz bere



Gernika-ko Arbola ezaguna, 1853an. Ospez inguraturik ibili zitzaigun ondoren herriz herri, eta azkenean Gobernu Zentralak kaltegarri zela eritzi zuen eta Portugal-era erbesteratu.<sup>8</sup>

Gudua ez zen oraino lehertu; alabaina, euskal eskubideen aurka erasoak segidan etorri ziren. *1860.go uztaileko 7ko Errege Aginduak Batzarrak egiteko gobernadorearen baimena beharrezko zela erabaki zuen.*

Berriro ere, erlijio nabarmendu nahia, nolana ere anakroniko eta bateratzaile, eta integrista nagusitzen da euskal politikari batzuen artean. Masoirtartzat (masones) jo zituzten karlistek liberal foru zaleak; hauek, dio egokiro Gurruchaga-k,<sup>9</sup> "bake eta foruak" ikurtzat hartu zuten bitartean, karlistek zoro zoroan zentzurik gabeko beste hau zerabilten: "gal bitez foruak eta salba ditzagun geure arimak".

Espainia-ko Parlamentu barruan hitzaldi batean Pedro Egaña-k, ondo neurturik eta itzulituruz, "nacionalidad vasca" aditzera eman zuenean, zur eta lur eginda geratu zen entzulegoa. 1864. urtea zen. Ez zen, gero, oraino, euskal abertzaletasuna (nacionalismo) sortu, nahiz eta 1865ean, hau da, hurrengo urtean, *Eusko Alderdi Jeltzalearen* fundatzailea, Sabino Arana Goiri jaio bazen ere.

1868an liberalek beraiek behartuta Isabel II-ak erregin eskubideei uko egin behar izan zien. eta aldiko gobernu bat eratu zen (1868-1871); Amadeo de Saboya ekarri zuten. Hau errege zelarik, hain zuzen, lehertu zen bigarren karlistada.

Behar beharrezko, bigarren gudu karlista hontako alde aurreko gertakizunen eta inguruaren berri ematea, lehenengoarekin egin den bezalaxe. Izan ere, dio Gurruchaga-k, Europa guztian zabaldurik ziren bi arrazoi handi zeuden: 1) Eliz gizonen arteko asaldaketa, aita Santuaren mendeko erresumak galdu zirelako; eta 2) 1848ko Matxinada ondorengo liberalismoaren krisia, Frantzia.

Lehenengoak, aldiz, erresuma katolikoetako eliz gizon guztiak mobilizatu zituen, prediku bidez. Berealdiko erantzun gogorra hartu zuen honek elizaren aurkako gisa hartuz bereziki; Espainia-ra ere heldu zen honen oiartzuna, eta elizaren eta erlijioso etxeen aurka neurri zorrotzak hartu ziren.

Liberalismoak jasaten zuen krisiari buruz, aldiz, zera gertatu zen, ohituraz eta atzerakoi izateagatik tradiziozaleen lerroetan borrokatu zuten industrigintzako langileek eta artesauk, beren arazoetaz garbi jabetu zitzaizkigun eta beren arazoak konponduko zizkietela agintzen zieten sozial gisako ideia aurreratuei atxiki zitzaizkien. Kontuan hartzeko bai ta ere (Ayestaran-ena da ohar hau)<sup>10</sup> aurreneko karlistadan gudu zuzendariak liberalek izan baziren eta herri jendea, karlista, bigarren karlistadan herria, ostera, ez zitzaion lehenari jarraiki eta ez da horren kontserbazale; delako "conciencia de clase", nagusi egiten da Bilbao, Gasteiz eta Eibar-ko langileri artean batez ere. Bestalde, 1871an Paris-ko herri batzar edo komunak sozial joera nabarmena zuen, eta burges mailako jendeak joeraz aldatu, eta absolutismoari lotu zitzaizkion.

<sup>8</sup> Handik abiatu zen Amerikaruntz eta bertara itzuli, herriratzerakoan. 1881ean hil zen. Gernika-ko Arbolak eragin handia izan zuen sentipen aldetik herri batasunean, mendeetan zatiturik egon ondoren, eta bera dute sinbolu ikur, bai liberalek bai karlistek.

<sup>9</sup> *Las guerras carlistas en el siglo XIX y su significación en la historia vasca.*

<sup>10</sup> *Historia del Pueblo Vasco.*

Egoera hontan, 1868ko espainiar iraultzaren ondorenean, Levante eta Hegoaldeko eskualdeetan anarkia giroa sortu zen. Eta bestalde, eliza hare haserreagotu zen Amadeo I de Saboia-ri dei egin ziotelako; izan ere, Saboia-tar hauen monarkia liberalak kendu bait zizkion Aita Santua-ri mendeko erresumak. Horra, beraz, Carlos V.aren hiloba Carlos VII "Carlos Chapas" deituraz ezagutua, uste zuten izango zela ebazpide. Karlitek bakarrik ez ezen, zenbait katoliko taldek eta kontserbadorek ere parte hartu zuten hautaketa hontan; lehen gerrate aldiko zenbait militar karlistek ere bai. Une hartan bertan karlismoaren baitan eliz zaletasun handia piztu zen Euskal Herrian; aintzinako lege zeharren burubidera itzultzeko irrika biziena ere batera eman zen. Ordukoa dugu, dio Gurruchagak, liberal bigunek osaturiko bi diputazio foralek herriari, baretu beharrez, proposatu zioten hura: "ez iraultzarik, ez Carlos-ik, foruak baizik".

Guduak 1872ko apirilaren 21ean egin zuen eztanda Nafarroan, eta hamar egun gerora Carlos VII atzerritik itzulia genuen. Ez, ordea, luzaroko, zeren Orokieta-ko txaupenaren ondorioz ihes egin behar izan bait zuen maiatzaren 4ean. Ez ziren sartu berriro urte bereko Eguberriak arte, eta etorri zirenean, Dantxarinea-tik egin zuten, eta berriro Euskal Herri-an gudua nagusi. Handik Katalunia-ra, Levante-ra, eta Zentrora ere zabaldu zen. Sei hilabete gerora Carlos sartu zitzaigun, eta gudua amaitu arte Euskal Herrian egon zen.

Lehen karlistadakoan bezala, bigarreanean ere Bilbao harmaz hartu nahi izan zuten, eta, horra, berriro ere porrot egin. Somorrosto-ko borroka tokian, 1874eko apirilaren iritxi zuen guduketa honek bere unerik gogorrena. Monarkia birreraikia izan zen Alfonso XII.arekin, 1874ko abenduaren 31an, eta hamalau hilabete geroago, zeharo bihotzgabaturik, Frantzia-ra itzuli zitzaigun Carlos VII Arneguy-tik barrena. Azken ordu hartan, dio Gurruchaga-k, "ez zen izan Maroto-ren antzera, bere onari begira nahiz euskaldunekiko, beregain hartutako nekeengatik, eskertsu agertzeko bederen, euskal instituzio zaharrak salba nahi izango zuenik inor".

Gudua amaitu zuenean, *foruak ezeztatzen zituen lege bat atera zuen Madrid-eko Gobernuak 1876an*; Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba jotzen zituen lege horrek. Nafarroa-ko legeak ez ziren ukitu, ordea, eta 1841eko Foruekiko Ley Paccionada delakoa gorde zuen erresuma honek.

"Legea onartua izan zelarik, gure ordezkariak, beren jarlekuak abandonatu egin zituzten, atsekabaturik, ez ordea, lotsaren mende, beren foru eta askatasuna zapuztuak izan zirelako. Ez zen txalorik entzun aretoan; isiltasun handienez ikusi zituzten ateratzen batzarkideak, eta nabari zen haien begitardean haiekiko begirune bat, begirune bat, eta nola ez, ekintza laidogarri bat egin zutela jakitun izateak salatzen zuen haiekiko begirune bat. Ahots bat atera zen euskaldunen alde, Castelar-ena, alegia: "Handi den zerbait hil da gaur Espainian".

Espainiako harmadan zerbitzu egitera behartuak izatea izan zen erabaki honek Euskal Herriaren Kondairan lehen aldiz ekarri zuen ondorena; eta jadanik zergak ordaintzera behartuak izango ziren, nahiz eta Ekonomi itun (Concierto Económico) murriz baten jabe izan.

*Ekonomi Ituna*, Orueta-aren hitzez esateko,<sup>11</sup> elkarrekiko antolamendu bat baizik ez da, izenak dion ekonomiaz gainera bere politika aldea ere duena. Eta berak dio

<sup>11</sup> *Fueros y autonomía*, Jose Orueta, Nueva Editorial, Donostia 1934.

aurrerago izenak ala badio ere "ez daiteke har itun edo konzertutzat zeren probintziek ozta parte hartu bait dute hartan".

Eta Gurruchaga-k "Liberalak eurak ere, lege honek nahigabetuta (garaituak hainbat zigortzen bait zituen garaileak ere, berrikiago gertatu den bezalaxe) aztoratu egin ziren eta karlistekin hitzarmenak izan zituzten Madrid-ekoei buruz buru egiteko. Laurak Bat ikurritz eta mugimendua berriro berpiztu ziren eta hogeita hamar urtez aurretik ez bezalako adarrak eta oldarrak atera zituen".

Ikus, Ayestaran-ek dionez, nolatan *Diario de San Sebastián* egunkari liberalaren zuzendariak, Jose Manterola-k, herriari hitza hartuta zer dioen: "Nola ez gu foru zale izan, euskal liberalok, Ebroz haruntzako administrazio burutsu eta zintzoa, arras erraz eta merkea eta herriari herritik egiña dugularik? Eurenaren aldean bikaina dela etsairik zitelenek amorru berean ezagutzen eta miresten dutelarik?".

1876ko Lege Ezabatzailea (Ley Abolitoria) aldarrikatzen zen bitartean, Batzar Nagusiek beraiek foruak ezeztatutzat hau da, beren buruak hildakotzat ezagun zitzatela eskatu zien Canovas zakur maltzurak. *Bi alderdi sortu ziren orduan: "amor-emaileena" eta "ez emaileena"*. Hiru euskal Diputazioak politika joku hontara makurtzera ukatu zirenean, Euskal Herria harmaz zapalduko zuela menazu bota zuen Canovas-ek.

1877.urtean joan ziren lehen aldiz euskal mutilak soldadutzara, Izan zen orduan ere "haserririk eta menazurik". Liberalak asaldatuko zirela beldurrez, euskal liberalen semeei zerbitzu militarra zertxobat gozatu zien; bereizketa hori gorrotogarri bilakatu zen beste euskal mutilentzat eta epaile komisio batzu eratu ziren Diputazioen ordezkotza. Zera, 1841az geroztik izendatutako jueza gehienak ez euskaldun genituen.

1877ko azaroaren 13ko Dekreto bidez, *etxalde, laborantza eta abeldien zerga aldera Diputazioak eman beharrekoa mugatu zuen, eta abenduaren 12ko beste baten bitartez herrien administrazioa Madrid-en eskumende ipini*. 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekreto baten bitartez, epailari komisio horien orde Gobernua izendaturiko diputazio probintzialak eratzea erabaki zen, Ekonomi Ituna edo Konzertu Ekonomikoa antolatzeko. 1878 urte horretakoa izan zen lehengoa, eta zortzi urte bakarrik iraungo zuen (nahiko kezka sortu zuen horren epe laburreko izateak). 1841ean bi miloi errealketan mugatutako zerga bi miloi pezetara jaso zioten aldi horretan Nafarroa-ri. Geroago, 1927an, sei miloitaraino igo zioten, eta horrela beti goraka doa harrezkeroko guztian. Canovas-ek haize emanda foru kontrako eraso bizi bat astindu zuen Espainia guztia aldi hartan.

1893, Ekonomi Ituna berri berritu baino urtebete lehenagotik, lenengoaz gainera beste bi miloi egotzi zizkien Gamazo ministroak hiru probintziei. Elkargo batetara iritxi ziren euskal probintziak eta Nafarroa Katalunia-rekin, Itun arazoari oinarri tinko bat finka zekiola proposatuz, Nafarroak ez zezala 1841eko Itun eta legeaz mugatua baizik ordaindu, eskatu zuten *itun hura itun berri batez ez bazen*, aldakaitza zelakotz. Gorteek ukatu egin zuten proposamendu hori.

Bienbitartean abertzaletasun mugimendua indartzen ari zen Bizkaia. Eta albotik, Nafarroan ere lanean ziharduten Arturo Campion, idazle, filologari eta euskal pizkundeko lehen mailako historialaria, eta Juan Iturralde Suit, historialari hau ere, eta

beste idaz lan zabal baten egile; hauekin batera Aranzadi, Oloriz, Echaide eta Ansoleaga. Bizkaian mugimendu hori antolaturik zegoen, Sabino Arana Goiri, Euskal Abertzale Alderdiaren fundatzaile buru zalarik; Nafartar foru zaleen alde agertu zen mugimendu hori, haiek erasotako "Gamazada" ekintza hartan. Mugimendu honi laguntzekotan mitinak antolatu ziren Bilbo-n eta Gernika-n, eta haietariko batean espainiar bandera erre zuten. Donostian Sagasta bisita egitera etorri zen batean, bere aurrean agertu zioten protesta; Gasteiz-en ere zalapartarik izan zen.

*Gamazadaren* ondorioz Iruña-ko Orfeoia Gernika-ko Arbolaren omenez kantatzera etorri zen; nabarmen zegoen, beraz, Nafarroak ere beste euskaldunekin batera joan nahi zuela. Mugimendu honen babesean, Bizkaitarra astekaria sortzen da (1893-1895), eta Bizkai Buru Batzarra eratzen da, eta Arana Goiri –*Gamazada* hartaz geroz euskal jazarkundearen aitzindari bihurtua– diputaduorde aukeratua izan zen. *El Partido Carlista eta Los Fueros Vasco-Navarros* argitaratzen ditu (1897).

### ***Foru Elkargoa***

Hona zer digun Oruetak: Ekonomia itunaren Zenbatekoa mugatu aurreko egunetan, foruzaletasuna bero zegoelarik, ospatu ziren probintziako diputadu hauteskundeak. Jose Orueta bera autatua izan zen, hain zuzen ere, Tolosa-ko hauteskundeetan.

Diputado guztiak bat zetozen Itun Forala egin beharra zela. Bizkai-ko Diputado lehendakaria, Adolfo Gabriel Urkixo hautatu zuten Euskal Herriaren izenean, Gobernu buru zen Segismundo de Moret-i euskaldunen borondate ona azal ziezaion Foru Batzarrak eta erakundeak piztu eta Espainia-ko nazio batasun berrira moldatzeko. Eta bazirudien Madrid-en aldetik jarrera jatorra bazenik, eta, horra, politika mailan negoziaketa luzetan aritu behar izan zuten 1906a arte.

Karlista ez baizik, liberal garbia zen Orueta-k, Diputaduen kamaran emandako hitzaldian, hiru gauza zeudela esan zuen "euskal izpirituetan sekulan ere itzaliko ez zirenak: Bata, herriaren gogotik darion aginpidearekiko begiramena; bigarrena, gure lege eta usarioekiko itzal osoa, bikainak bikainik bada, direlako, eta hirugarrena, bere administrazgo zuhurragatik aipatua den Herriari, zentralismokeria ustez, denok dakigun beste administrakera eskas bat egotzi nahiaren buru-gabekeria.

Beste gogaketa sakon hau ere azaldu zuen orduan: "Separatismo" hitza atera da hemen; gauza bat nabari jarri nahi dut hemen, egungo gobernariak, eta biharkoak ere, esna daitezten; Forualdi guztian, ehundaka urtez, separatismoaren aztarrenik ere ez da Euskal Herrian somatu izan; zentralismoa ezarri den unetik beretik erakutsi dute burua ideia horiek".

